EGAN

1-6
1978

1-6
1979

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa
Patrocinio: Excma Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

	Pág.
AZKOITIKO ZALDUNTXOAK ETA PAULO OLABIDE-JAUREGI, EUROPAKO KULTUR HEDATZAILE: Yon Etxaide-Itharte .	7
ONDAKIÑAK: Toribio Etexbarria	33
IPOÑAK (itz-lauz). Toribio Etxebarria	82
EL LIBRO DE LOS EXENPLOS: Toribio Etxebarria	92
HEPTAMERON. VI nobela: Toribio Etxebarria	99
OSAGARRI. (Zensurak Ibiltarixanak deritxon liburuari, kendutako bertsuak): Toribio Etxebarria	123
EGUZKI HERRIALDEETAN SORTU GURE AINHARE: Bitaño .	135
LORAK: P. Zabaleta	137
JUAN DE HUARTE, HAUGI ETXERAT... (Etxarren-Lohigorri): A. Irigaray	165
GARAZI-KO LABORARIAK: A. Irigaray	192
ORAINO GARAZI-N GAINDI: A. Irigaray	198
HUARTE IKASTEGIETAN...: A. Irigaray	213
HUARTE, AITA FAMILIAKO ETA MEDIKU: A. Irigaray	216
ASISEKO POBREA ETA HUARTE: A. Irigaray	217
HUARTE ETA INKISIZIONEA: A. Irigaray	220
HUARTE-REN ALABA AGUEDA...: A. Irigaray	222
HIRU HITZ: A. Irigaray	224
JUAN HUARTE BERE ADIXKIDEKIN: A. Irigaray	225
TESTAMENDUAREN ORENA: A. Irigaray	231
JUDUEN GAINEAN ZONBEIT HITZ: A. Irigaray	235
HUARTE-K NOLA IKUSTEN DUEN IKASLEA: A. Irigaray	238
TEOLOGOAK: A. Irigaray	247
HUARTE-K JONDONI PAULO-Z BI HITZ...: A. Irigaray	251
MEDIKUEZ: A. Irigaray	253
ZER DION HUARTE-K ERREGEAZ: A. Irigaray	255
GUDARIENTZAT: A. Irigaray	258
HUARTE BERRIZ HELDU BALITZ: A. Irigaray	267
HUARTE ATZO BEZALA EGUN ERE...: A. Irigaray	270
LEIREN: Joseangel Irigaray	273
BAKARRIZKETA MIKELI: Otsalar	287
ITZIAR: J. San Martín	291
ARALARKO SAN MIGEL ELIZAKO ERRETAULA: J. San Martín	295
ARABA-KO ARKEOLOGIA: A. Apat-Echebarne	299
EUSKAL ELKARTE BERRIA: A. Apat-Echebarne	300
U. S. A. — RENO - NEVADA-tik: A. Irigaray	300
GALES ETA FRISIA ERRIALDETAKO MINTZAIRAK: A. Irigaray	302
INTERFERON SENDAGAILUA-MINBIZIA: A. Irigaray	303
EUSKAL-IDAZLE SENDALARIAK: A. Irigaray	304
ARAMBURU ETA BAGO-ren LIBURUA: A. Irigaray	306
JEAN ETCHEPARE BAXENAFARTARRA: A. Irigaray	306
MEDIKUNTZAKO TESIS BAT EUSKARAK: A. Apat-Echebarne	307
LIZARRAGA ELCANO-KOAREN LIBURU BAT: A. Apat-Echebarne	308
PALESTIN-DARREN BERRI JAKINGARRIAK: A. Irigaray	309
J. ZAITEGI JOAN ZAIGU: Otsalar	311
JESUS ELOSEGI: Jose Uria Irastorza	315
P. BORDAZARRE «ETXAHUN» KOBLAKARIAREN OROIZ: Otsalar	319
A. POLI ZARRANZ EUSKALZAINA IL: A. Irigaray	322
PEDRO BOSCH GIMPERA IKERTZAILEA: J. San Martín	323
JOAKIN DE YRIZAR IL: A. Apat-Echebarne	326
ETXAHUN KOBLAKARIA ZENDU DA: A. Apat-Echebarne	326
CHARLES EDO KARL BOUDA IL: A. Apat-Echebarne	327
LIBURUAK: J. San Martín	329
ULIBARRIREN OMENEZ: J. San Martín	341

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa.

Director: Luis Michelena.

Consejo de Redacción: Angel Irigaray y Luis Michelena.

Depósito Legal: S S. 289 - 1958

Imp. Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1980

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca | Vol. XXXVIII | Enero-Diciembre 1978-1979

EGAN

AZKOITIKO ZALDUNTXOAK ETA PAULO OLABIDE-JAUREGI, EUROPAKO KULTUR HEDATZAILE

YON ETXAIDE-ITHARTE

Iokin Zaitegi Plazaola-ren oroiz eta gorazarrez.

Izkribu hau zaharra da. 1957-ko Maiatzaren 11-an daukat fetxatua eta "Euzko-Gogoa"ren azkeneko zenbakian argitaratu zen titulu beronekintxe (1) 3-6 zenbakian, Epaila-Garagarrila, 1959. Beraz, duela hogeitahiru urte iratzirik eta hogeitabat urte argitaraturik (2). Aurten (1980) Zaitegi zenari hain omenaldi merezigarria egin zaionez gero bere jaioterrian (Arrasate-n alegia) Martxoaren (edo berak eta nik nahiago genukeenez Epailaren) 17-an eta 18-an, hainbeste urtetan haren lankide izan nintzelarik, ez litzateke bidezkoa eta egokia bere oroigarrizko omenaldi hontan isilik egotea. Kezka onek eraginda, zera gogoratu zait: alegia, "Euzko-Gogoa"-ren azkeneko zenbakian argitaratu zèn nere irazlana bir-argitaratzea zertxobait gaurkoturik eta apaindurik. Uste dut gaia zinez interesgarri dela, eta lehen argitarapenaz geroztik hogei urte handi igari direnez gero, gaur belaunaldi berri batek irakurri ahal izanen du. Baina belaunaldi hartakoek ere nork irakurri ahal izan zuen

---

(1) Zehazki honela zen "Euzko-Gogoa"ko irazlanaren titulua: "Azkoiti'ko zalduntxoak eta Pablo Olabide-Jauregi, Europa'ko kultur-edatzalle".

(2) Teorian 21 urte eta praktikan 20, zeren lumero honek honela baitio: *Imprimé en Juillet 1960.*

irazlan hau? Oso gutxik, banaka batzuk, zeren "Euzko-Gogoa"k estadu espainoleko ateak hertsirik baitzituen osotoro, eta esango nuke azken lumero hau aurrekoak baino askoz gutxiago zabaldu zela Euskalerrian. Tirada txipiagoa egin zuelako, apika? Neuk ez dakit. Baina aurreko lumerotatik mordoa igortzen zidan Donibane-Lohizuneko Hotel Eskualdunara nik muga zehar pasa eta hemen zabal nezan, baina azkeneko ale hontatik ez zen batto ere heldu Donibane-ra. Doi-doi lortu nuen ale bat neuretzat. Eta besterik gabe goazen arira.

Esan ohi da, egiazki, gizona, pentsamenduari gagozkiola, bizi duen giroak mamitzen duela, edo, beste hitzez, bere bizi-mugak darion giroaren emari dela.

Gogoeta, pentsua edo pentsamendua, nola-nahi esan baitezakegu euskaraz, etengabeko eraberritze bat —eboluzino bat alegia— da gizonaren baitan, hots, belaunez-belaun etengabe arraberritzen ari zaigun gizadian. Ez dugu asko atzera jo behar euskaldunok geure historia tristean zehar, gutarteko pentsuaren aldaketari igarri ahal izateko. Sarritan, ni neu, harritua gelditu izan naiz gure Euskalerrian giza-gogoetek egin duten aldakuntzaz abertzaletasunaren oihua gure mendietan entzun zenez geroztik. Baina abertzaletasuna eta euskalzaletasuna ere tankera berriak hartuz doa Abandotarrak bere irrintzia bota zuenez geroztik. Ezer ez dago geldirik munduan; dena ibili dabil, eta ez dabilena hiltzen da.

Horra, bada; ene ustez, nahiz-eta beste tankera batean, heintsu (3) hontakoxe ideia aldakuntza nabaitu zen Euskalerrian aintzineko belaunaldiei buruzki (4), Azkoitiko zalduntxoek bizira ekarritako "Sociedad Bascongada"ren eraginari beharrik.

Gizon artega eta eragileok, Europan eta batez ere Frantzian edoskitako ideia, konzeptu eta aurrerakuntza berriak Euskalerriratzen saiatu ziren eta, ezpai gabe, ideia berri eta aurreramin honek lur gizena eta emankorra aurkitu zuten gure Herrian, delako eusko-lagunartearen hazteak eta eragintasunak aditzera ematen digutenez.

---

(3) Proporción.

(4) Mirando, comparando, con relación a.

Ideia berriok euskal-herrietan barrena hedatzeak ez du esan gura, batzuk uste izan dezaketenez, Azkoitiko zalduntxoak eta "Sociedad Bascongada"ko bazkideak Eliza Katolikoaren ortodoksia bidetik saihestu zirenik Frantziako Enziklopediazaleei jarraiki. Aitzitik, Eliza-katoliku alorraren hesi barruan iraunik, Europako kultura, jakintza, aurrerakuntza eta zabaltasuna handietsi zuten soilki, eta beroiek Euskalerrian ereinaz erro zitezela (5) hartu zuten helburutzat.

Azkoitiko Zalduntxoen eta "Sociedad Bascongada"ren heterodoksia kutsadura usaina eta hedamena, Menéndez y Pelayo-k bere "Historia de los heterodoxos españoles"en izkiriatu zuenetik datorkigu baitik bat. Alabaina, Julio Urkijo-k egoki dionez, Santanderetar iskribatzaileak ez zituen albisteak ubegitik xurga ahal izan bere iritziek euskarri sendorik aurki zezaten eta, sarritan, ur arretik ere edan zizun. Bere salakuntzek, maiz aski, irudimena edo nahimena dute eustarri eta, batzutan, egi-zurrean jokatu ote zuen ere zalantzagarri egiten zaigu.

Ene ustez, "Heterodoxos"en egileak, euskaldunen aurkako erraz, makurkeriaz, edo bihotz kaxkarkeria zerbaitez bederen iratzi zuen, bere adierazpenetan aisa soma daitekeenez, eta haren jakinduriaren eta prestutasun ospearen hedadura, "Sociedad Bascongada"rentzat eta Azkoitiar Zalduntxoentzat oso kaltegarri izan da. Neure esanak arinkeriaren ume direla pentsa ez dezazuen, Urkijo-k iratzitako lerrook aldatuko dizkizuet hitzez-hitz: "Eusko-Lagunarteari buruzki egin zizun irizpideaz (6), bihotzez-bihotz aitor dezagun, haren mintza-doinuari baztergarri irizten diogula, eta haren adierazpenak objetibu barrutian etsi ezinik, alderdikeriak berotuak direla" (7).

---

(5) Errotu edo sustraitu zitezela.

(6) Menéndez y Pelayo-k "Sociedad Bascongada"ri buruz zuèn irizpidea ezagu nahi dezanak, irakur bitza "Heterodoxos"en III-gn. liburuan 225-226 orrialdeak. (Librería Católica de San José, Madrid, 1880/1881).

(7) Gaztelaniaz honela dio: "Su juicio acerca de la *Sociedad Bascongada*, tenemos que declarar, lealmente, que su tono nos parece inaceptable, y sus observaciones poco objetivas, y bastante apasionadas". Julio de Urquijo e Ibarra: Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia, 61-gn. paia, San Sebastián, Martín y Mena, 1925.

Hontaraino heldu garenez gero, azalera ditzagun Azkoitiar Zalduntxoen izenak eta izanak eta, bidenabar, ager dezagun "Sociedad Bascongada de Amigos del País" zeritzàn Lagunartearen bitartez egin zutèn lan goreskarria eta utz dezagun gerora aztertzeko "Heterodoxos"en egileak Peñaflorida-ko kondeari leporatzen dizkion esakizun funtsgabe eta bihurri samar batzuk haren ortodoksiari buruz katolikutasunean.

"Azkoitiko hirukotea", deitu zien Aita Isla-k gure *zalduntxoei*, Peñaflorida-ko kondeari, Narros-ko markesari eta Manuel Inazio Altuna-ri alegia. Hiru gizon hauez gainez-gain eta labur-zurrean mintzatuko gaituzu beren ezaugarririk bereizienak aditzera emanaz, Europako kultura Euskalerrian hedatzeko egin zutèn ahalegina eta beronek ekarri zizun frutu naroa harturik helburutzat.

Xabier Mari Munibe eta Idiakaitz (Idiakez), Peñaflorida-ko kondea, "Real Sociedad Bascongada de Amigos del País"en bizi--emaile eta eragilea, Azkoitian jaio zen 1729-gn. urteko Urriaren 23-an.

Aurreneko ikaskuntzak bere jaioterrian egin ondoren, aldi hartako handizki euskaldun askok ohi zutenez, Frantziara jo zizun ikaskizunak hedatzera eta sakontzera eta Tolosako (Toulouseko) Jesuiten ikastetxe batean matematikak eta fisika esperimental deritzana ikasi zuen. Baina, Orhi-ko txoriak bezala, Izarraitz-peko gazte leinargiak bere jaioterrian zizun atsegin eta berriro Azkoitira itzulirik, alkatetza, ezkontza eta diputadutza lerro-lerro datoz bere bizian zehar.

Zientzia ikaskizunez gainera, Peñaflorida-k, literatura eta musika hanitz maite zituen. Edergintza horietarako zizùn beroa, teatrurako iskribaturik utzi zizkigùn komediek darakuskigute. Horietako bat, "El Borracho burlado" izenarekin euskaraz eta erdaraz emana, euskal-ikaskuntzazaleoi txit ezaguna zaigu.

Baina, musikadun literatur saio hauek ez ziren, inolaz ere, Peñaflorida-ren ekintzarik nagusienak eta garaienak... Besterik zizun helburu nagusi eta gailen gure kondeak. Alegia, Ahuñamendiz hegoaldeko jendearen ez-jakinaz eta atzerapenaz oharturik, Frantzian nabaitu zuèn jakintza egarri eta aurrerapena opa izan zion gogo sutsuz Euskalerriari. Orduantxe hasi zen ernetzen haren buru

artegan, gerora "Sociedad Bascongada" izango zenaren jakintza-lagungo baten irazan beharra (8).

"Horra, gure Lagunartea, Espainian gerora sortuko ziren gisakoen aintzindari. Bazizun euren egitasmoak alor zabalik diruzaintza edo ekonomiaz gain non ari. Adibidez, zientzia doiak eta fisikari, kimikari eta naturari dagozkionak. Teoriazko eta jardunezko ikaskuntza egingai bikain bat ere tajutu zuten sarkaldeko Euskalerriari buruz antolatua" (9).

Peñaflorida-ko konde bizkorraren eraginari esker irazan (10) zen 1764-gn. urteko Eguberri bezperan "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" zeritzàn eusko-lagunartea. Bilgo honen

---

(8) Orainaldian bizi garenok, nolabait igarri ahal diezaiogun Espainiako herrigiroari jakintza eta aurrerakuntza gaietan joan den mendean, Jose Maria Iribarren-en "El Batiburrillo Navarro"tik aldatuko ditugu zenbait lerro. XIX-gn. mendeko giza-pentsakera ezaguturik, igarri diezaiokegu XVIII-garrenekoari ere. Haien atzerakoitasunak eta hertsitasunak harritzen baldin bazaitu, hauek, ehun urtez aurretik, ez ziren aurrerakoiago izango noski. Hemendik igarri, Peñaflorida eta beronen garaiko gizon aurrerazaleek nolako gudua izan bide zuten beren aldiko bizigiroa berritzen. Has gaitezen: "Aintzinako posta eta galera ordez ezarri zituztèn dilijentziak, Karol IV-garrenaren erregezaroan zabaldu ziren, 1806-gn. urtetsuan. Gobernuak baietsi aurretik, eztabaida latzak eta etiketa garratzak izan ziren. Esan ohi zen, txango joateko halako erraztasunak emanik, arrotzak etorriko zirela gure aberrira eta haiekin, noski, filosofia, herejia, enziklopedia-jakintza eta gure arrazari arbuiagarri zaizkion berrikizun gehiago" (12-gn. paia). Aintzinaxeago: "Stephenson Espainiara etorri baino lehenago, Senatuan eztabaidan jarduten zuten Iruñe-tik Frantziara, Baztan barrena, bide bat egin ala ez. Martxoaren (Epailaren) 14-garreneko jardunaldian, 1842-garren urtearekin, González Castejón zeritzàn nafar senatu-gizona izan zen egingai hari odolberoz gehienbat bulartu zitzaiona. "Neure betiko iritzia izan da —ekin zion— ez dela inolako arrazoirik Pirineo mendiak zabaltzeko; aitzitik, beste Pirineo mendi sail bat jarri behar litzateke gainetik" (15-gn. p.). Beste erakuspide bat: "Nafarroan sartu zirèn lehenbiziko lokomotorak Frantziatik ekarri zituzten Otsondo-ko mendatean barrena idi-gurditan erakarki (lekuko izanak kontaturik dakit hauxe). Iruñe-ra heldu zèn lehenengoa estazinoan armatu zuten eta saio ibilaldiak egin ohi zituen Berriozar-eraino. Aldi hontan, Artika-ko erretoreak hala esan ohi zien kulpitotik bere eliztiarrei: "Infernuko txistu hori entzutean, kristau maiteok, estali belarriak (16-gn. p.). Azkena: "Noain-go erretoreak —gizon xaloa eta berrikizunak nekez onartzen zituena— lehenengoz trena ikusi zuenean, herritik itzul egien zuen, deabrua zela baitzion, ke-jario zetorrena" (19-gn. p.). Erakusgarriok askiesten ditut aldi hartako herrigiroaren agergarri.

(9) J. de Aralar, "El Conde de Peñaflorida y los Caballeritos de Azkoitia", 14-gn. p., Editorial Ekin, Buenos Aires, 1942.

(10) Fundar.

jomuga edo helburua zein zèn ikusteko, aski dugu bere arauditan lehendabizikoa hitzez-hitz aldatu:

"Lagunarte honen helburutzat hauetxek ditugu: Zientzia, Letra Eder eta edergintza orotarako euskaldun herriaren joera eta grina landu; bere ohiturak zuzendu eta legundu; alferkeria, jakineza eta beren ondoren gaiztoak uxatu eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa euskal-herrialdeen lokarriak estuagotu" (11).

Asmo hauek helburutzat harturik, gure lagunarteak gogor ekin zion lanari eta denbora asko baino lehen nabaitu ahal izan zen Euskalerriko langintzek hartu zutèn bultzada eta astinaldia. Esan daiteke, gezur beldurrik gabe, nekazaritza, olagintza (12), merkatalgoa eta jakintza gaietako ikaskizunen bitartez, Euskalerriaren bizi-tankera zeharo eraberritu zela.

Eusko-Lagunartearen arikizun eta lanak xeheki eman nahi bagenitza, liburu bat mamitzeko gai bagenuke; baina, gure lanaren asmoa ez da Lagunarte honen ekintzaz mintzatzea, bera irazan zutèn zalduntxoez baizik. Esan ditugunak, ordea, beharrezkoak ziren, Peñaflorida eta "Sociedad Bascongada" gorputz batean hezurra eta mamia bezala baitira, bereizi ezinezkoak alegia. Beraz, Peñaflorida eta gainerako zalduntxoen nortasuna ezagutu nahi duenak, premiazkoa dizu eusko-lagunartearen asmo eta lanak ezagutzea, zeren Azkoitiko Zalduntxoak eta batez ere Peñaflorida izan baikenituen Bilgo honen arnas-emaileak.

Alabaina, Lagunartearen arikizunaz ideia xeheago bat jaso dezagun, erakusgarri antzo, Serapio Muxika-ren hitz labur baino esakor batzuk aldatu nahi nituzke oraindik, zeren Gipuzkoako kronikagile izanak nekazalgoaz (13) dioena esan baititeke beste arikizunez ere.

"Gure nekazalgoa lehengo ohitura zaharretatik atera zen, lur lantzeak hobetu zituen, saio lurraldeak zabaldu nekazaritzako makina berriak erakarriz eta olagintza sor-araziz. Adibidez, gaztagintza, guringintza, sedagintza, artilegintza, eztigintza et. ab.; bai-

---

(11) J. de Aralar, aipatu obra, 24-gn. p.

(12) Industria.

(13) Laborantzaz, lugintzaz, nekazaritzaz.

na, Lagunartea suntsitzean, eragin oldartsu hau galdu zen, Espainiako askatasun gudatea sortzearekin joan den mende haseran, eta giputz-nekazalgoaren aurrerakuntza etenda gelditu zen" (14).

"Sociedad Bascongada"ren jakintza giroaz jabetu gaitezen, ongarri izanen zaigu noski, labur-zur bada ere, J. Aralar-ek iratzitako lerro mamitsu hauek aldatzea:

"Zaldun haien artean, baziren historia lantzeari onuraz ekin ziotenak. Halaxe, Landazuri eta Prestamero. Europan ospe eta ezagutza zutèn irakasleak, hala nola Elhuyar eta Chavanoux; literaturzaleak, Munibe, Narros, Mugartegi, Erro, Samaniego; espainiar akademiatako bazkideak, Santibáñez eta lehenago aipatutako Prestamero eta Landazuri berberak; arrotzen hizkuntza jabeak, itzulketari eta adierazle (15) izateko gaituak, euskalzaleak, urte luzeetan ikaskizun bereizitan jardundako katedratikuak, akademia tituludun diploma jabeak, kanonistak, militarrak, Lardizabal-en tankerako politikuak, hotsandiko bazkide arrotzak, hala nola, Ruelle eta Aita Almeyda, liburutegi jabeak eta abar" (16).

Bidezkoa zaigu jakinaraztea, gure eusko-lagunarteak, bere asmo eta lanak aintzina eramateko, hamaika urtez sortuz geroztik, hau da, 1776-gn. urtean, irazan zuela "Real Seminario de Vergara" deitu zioten ikastetxea. Hau dela eta, Peñaflorida behartua aurkitu zen bere egoitza Azkoiti-tik Bergara-ra aldatzea.

Hegarin eta laburzur, "Sociedad Bascongada"ren berri eman dugunez gero, ekin diezaiogun orain Menéndez y Pelayo-rekin etenda utzi dugun auziari eta irakurleak juzga beza "Heterodoxos"en egilea zuhur jokatzen den ala zentzu urriz Peñaflorida-z eta "Sociedad Bascongada"z egiten duen epaikizunean.

Menéndez y Pelayo-k ez zuen ezagutzen nonbait, Munibe-ren katoliko osotasuna, sinesmen gartsua eta jaieraz apainduriko bizimodu zuzena (17), gainerakoan ez baitut uste ausartuko litzateke-

---

(14) "Geografía del País Vasco-Navarro", Provincia de Guipúzcoa, por Serapio Múgica, 14-gn. p.

(15) Intérprete.

(16) Aip. lib., 107 p.

(17) Ikus gai honi buruz: Julio de Urkijo, "Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia", 13-gn. paiatik 30-garrenera (El Triunvirato de Azcoitia).

enik, Azkoitiar seme leinargiak "Los aldeanos críticos"en iratzitakoei buruz (eta bere aldakizunean kondeak izkiriatu bezala errespetatu balu gaitz-erdi) "laicas y anticlericales animosidades" (18) irizten.

Urkijo-k, Azkoitiko Zalduntxoak eta "Sociedad Bascongada" defendatuz iratzi zigun liburu zoragarrian, Menéndez y Pelayo-k Peñaflorida-ren "Los aldeanos críticos"etik aldatutako lerroei buruz honela dio:

"«Heterodoxos»en egileak, bedi oharkabez, bedi 23 urtetan ezin irakurri izan zituelako aipatzen dituen liburu guztiak, bere aldakizunean, kondearen tekstuko esanahia antzaldatzen edo argiagotzen zituztèn hitzak bederen baztertu zituela esan behar da; horrela, kondearen esanak ez dira, inolaz ere, izkiriatzaile jakitunak uste izan zituenak. Gainera, harek kopiatutako hitz-lerro bat bidegabeki moztu zuen" (19).

Bakoitzak galde egin biezaio orain bere buruari: oinarririk gabeko edo arineko salakuntzak ez-ezik, bide bihurri eta arre samarrak ere ez ote zaizkio on eta zilegi "Heterodoxos"en egileari?

Peñaflorida-ko kondearen ezaugarririk bereizienak Europako eta Euskalerriko bizigiro eta kulturari buruz agertu ditugu, iraizean (20) baldin bada ere, eta hainbestean —labur jarduteko asmoz hasi baikara zurian beltz egiten— amaitutzat jo dezagun Euskalerriaren aurrerapenari hain onuragarri izan zitzaiòn gizon txalogarri honetaz egindako azalpena.

Xabier Munibe ernagarri eta eragingarri baldin bazaigu orainaldiko euskaldunei, ez da inolaz ere motelago gure begietan —apika

---

(18) "Heterodoxos", III-gn. tomoa, 225 p., "Librería Católica de San José" edizinoa, Madrid, 1880/81.

(19) Julio de Urkijo, aipatu liburuan, 19-gn. p. (El autor de los *Heterodoxos*, sea por inadvertencia, sea porque a los veintitrés años de edad no había tenido tiempo de leer detenidamente todos los libros que cita, lo cierto es que suprimió, en su transcripción, palabras que alteraban ó por lo menos aclaraban el sentido del texto del conde, que no era, ciertamente, el que creía el docto polígrafo. Cortó, además, indebidamente, uno de los párrafos por él copiados). Menéndez Pelayo-ren tekstua alderatu nahi dezanak egiazkoarekin, ikus beza "Heterodoxos"en 224-gn. p. eta Urkijo-ren liburuan 17-gna.

(20) Superficialmente.

bizigarriago tankera batzutan— Manuel Inazio Altuna eta Portu, Azkoitiar seme leinargia hau ere.

1722-gn. urteko Irailaren 3-an jaio zen Azkoitian. Bere estudio ikasgoak Madrilen egin zituen eta gero, Europako jakintza-minaren eraginez eta izpiritu zabaltasunaren egarriz, bost urte luzetan Europa zehar ibili zen, Venezia, Erroma, Napoles eta Parisen baitipat bere egonaldiak eginaz. 1746-gn. urtean Azkoitiko alkate izan zen; geroxe, hiri bertako zinegotzi eta 1749-gn. urtean ezkondu zen Brijida Zuloaga zeritzàn Hondarribiar andre leinargiarekin.

Rousseau-ren adiskide mami dei geniezaioke kezka eta beldurrik gabe Azkoitiar Zalduntxo honi. Altuna-ren nortasuna, izakera eta pentsamoldea ezagutu nahi baldin badugu, jo dezagun bere adiskide minaren orrialdetara eta honen "Les Confessions" deritzaten lerrotan Ginebratar filosofoak hai sakonki ezagutu zizun adiskidearen ezaugarririk nagusienak alda ditzagun saio-lan hontara.

"Ni neu (21) izan ezik, ez dut beste inor topatu horren tolerantziazalerik neure bizitza guztian. Erlisinoari buruz jendeak zezakeen pentsamenduaz ez zitzaion jakin-egarririk sortzen. Bere adiskidea izan zitekeen judu, protestante, turkiar, jaieratsu, Jainko--ukatzaile... axolarik ez, gizon zintzoa baldin bazen halakoa" (22).

Altuna, gogo-zabaltasun honen jabe izanarren, ez zen sekula bere katolikutasunaz herabe izan eta gure Azkoitiar Zalduntxo honek "Le Contrat Social"en egilearekin izan zuen har-emanaz badakigu Ginebratar Calvinotarren semea katolikotasunera erakartzen saiatu zela (23).

Rousseau-k darakuskigu inork ez bezala Altuna-k sentitzen zizun Europazaletasuna eta haren baitako jakintzaz jabetzeko egarri

---

(21) Nerau, neroni.

(22) "Oeuvres Complètes de J. J. Rousseau, Citoyen de Génève". Paris, 1826, "Les Confessions" liburuan, 1.124 paian.

(23) Altuna-k Jean Jacques Rousseau ezagutu zuèn urtetan, hau katoliko zen, nahiz-eta Calvinotarren seme izan, katolikotasunera etorri baitzen 1728-gn. urtean eta sinesmen hontan iraun baitzuen 1754-gn. urteraino. Jules Lemaitre-k diogu: "Gauza bat dakigu segurantziz, alegia, Jean Jacques katoliku izan zela 26 urtetan eta lehenengo hamar urtetan katoliku bizigiro garbi-garbian hazi zela".

bizia. "Emile"n egilearen aitorpenez dakigu Altuna Italian zehar ibili zela jakintzaz eta edergintzaz ahogozatuzale. Venezia-n ezagutu zuen Jean Jacques Rousseau. Parisen elkarrekin bizi izan ziren eta Altuna-k egindako etxe eskaintzari jarraiki, Ginebrako seme ospatsuak Azkoitira joateko asmoa izan zuen, gero, gauzak okertu zirelako joan ez baldin bazen ere.

Rousseau-k Altuna-ri opa dizkion lerrotan, badira arestian aipatutakoen aurretixe beste batzuk hitzez-hitz aldatu nahi nituzkeenak, beroiek erakusten baitigute Azkoitiar leinargiaren nortasuna eta gizatasuna. Hona lerrook:

"Jakintzaminez gal-gal aurkitu nuen —dio gure zaldunari buruz—. Ez zen beretzat atzeman ezinik. Irentsi bezala, egosi ere harrigarrizko abiaduran egin ohi zuen. Haren esker ona gogo-janaria eskuratu niòn honentzat! Berak igarri ezean ere, gizagaisoa egarbera baitzegoen jakitez. Izpiritu bikain honetan zernolako argi eta bertute altxorrak nabari nituen! Nik behar nuen laguna zela konturatu nintzen: adiskide min egin ginen. Gure gogoak ez zetozen bat; beti eztabaidan ari ginen. Egoskor ginenez, ez genuen ezertan ere elkar aditzen. Alabaina, ezin elkarren laguntasunik gabe egon eta etengabe bata bestearen kontra jardunarren, ez genukeen nahi, ginenez bestelako izaterik" (24).

Rousseau-ren lerro zoragarriok ausnartuz, A. J. Cronin elaberrigile ospatsuaren beste batzuk datozkit gogora. Izpiritu zabaltasun eta tolerantziaren aintzindaritzat mamitzen digun Aita Chisholm gisakoaren ahoan honelako hitz ederrak ezartzen dizkigu "The Keys of the Kingdom" (Erresumako giltzak) deritzan elaberri unkigarrian: "A, Jauna, zure mundua zeinen eder litzatekeen, gizonen artean ontasun eta tolerantzi izpiritua balego!" (25).

Baina, guk ez dezakegu antola mundu bihurri hau eta bai gaur eta bai gero ikusi beharko ditugu gure iturri gardenak intolerantziaren eta bortxakeriaren harrokeriaz arretzen. Geu, ordea, atxiki gakizkion Altuna-ri hain maitagarri izan zitzaion goiburu (26)

---

(24) "Ouvres Complètes de J. J. Rousseau, Citoyen de Génève". Paris, 1826, "Les Confessions" liburuan, 1.124 paian.

(25) IV-gn. ataleko 7-gn. atalkian.

(26) Ideal.

bikain horri eta saia gaitezen bortizki "eman da zabal" dezan "munduan frutua".

Eta Azkoitiko Zalduntxoen hirukotea osatu beharrez, hurbil gakizkion Narros-ko markesari.

Joakin Maria Egia eta Agirre, Narros-ko hirugarren markesa Azkoitian jaio zen 1733-gn. otsailaren 2-an.

Peñaflorida-ren antzo (27), teatrozale izan zen eta Metastassio--ren "Tito-ren kupida" itzuli zuen italieratik. Fisika ere zinez maite zizun eta atseginez landu zuen. 1764-gn. urtean optikari buruzko hitzaldi ernagarri eta jakingarri bat eman zuen Bergaran. "Sociedad Bascongada"ren sekretari izan zen eta azkenaldera zuzendari ere bai, "hark hartu zituèn olagintza tankerako (28) ekinaldi asko zor zaizkiolarik", dio hitzez-hitz J. de Aralar-ek (29). Beraz, Euskalerriko industriaren altxagarri inor gutxi bezala saiatu zen Narros-ko hirugarren markesa.

Bi aldiz egon zen ezkondua Joakin M. Egia-Aguirre: lehenengoz Maria Luisa Corral Azkoitiarrarekin eta bigarrenez, Maria Josefa Salazar Gasteiztarrarekin. 1758-gn. urtean ahaldun edo diputadu kargua hartu zuen, "cargo en el que dió pruebas de acérrimo defensor de la independencia vasca", dio J. de Aralar-ek (30).

Menéndez y Pelayo, gure eusko-lagunartea makurkeriaz erasotzeko Narros-ko markesaz eta Samaniego alegilariaz baliatzen zaigu. Entzun diezaiogun: "«Sociedad Económica»k ("Bascongada"k, alegia) zeukàn entzute txarraren agergarri bikain zaigu noski, bertako bazkide batzuk Inkisizinoaren auzipeko izana. Adibidez, Samaniego, eta baita Narros-ko markesa ere. Bere eskualdeko lekuko askok salatu zuten hau herejia kutsuzko esakuntzez. Nonbait, Voltaire, Rousseau, Holbach eta Mirabeau-ren liburuetatik atereak, taigabe irakurtzen baitzituen" (31).

---

(27) Antzera.

(28) De carácter industrial.

(29) Aipatu liburuan, 38-gn. p.

(30) Hots, eusko-askatasunaren aldeko froga benetakoak eman zituen kargu honetan (aipatu liburuan, 38-gn. paian).

(31) "Historia de los heterodoxos españoles", III-gn. lib., 227-gn. p., Lib. Cat. S. José, Madrid, 1880/81.

"Heterodoxos"en egileak harri eta zur uzten gaitu bere esakizuna irakurri ostean. Bizpahiru bazkide Inkisizinoak dantzatu baldin bazituen ere fede auziagatik, zer ikusirik dauka honek erlisinoz kanpoko lanetan ziharduen Lagunarte osoarekin? Areago: ez ote zitekeen, eta halaxe zen, izan ere, "Bascongada"ren bizigiroa katoliko huts eta soila, bazkide bakan batzuk katoliku dogmatik saihestu edo labaindu baldin baziren ere aldi batez?

Urkijo-k, hainbestetan aipatutako bere liburuan, bikainki azaleratu digu, Menéndez y Pelayo-k hain merke-zurrean "Sociedad Bascongada"ri erantsi ziòn heterodoxo kutsapena gezur borobila besterik ez dela. Baina non bilatu zuen oinarri Santanderetar iskribatzaileak bere salaketak jaurtikitzeko "Sociedad"eari eta batez ere Narros-ko markesari? Txundi zaitez, irakurle: Llorente kalonjea, gezurti, dirupeko eta libelista makurra (bere hitzak dituzu eta ez gureak) adiskide on zaio gure Markesari erasotzeko (32).

"Historia crítica de la Inquisición"en egileaz, beste mila gauzen artean, hauxe dio Menéndez y Pelayo-k: "Llorente, eliz-gizon liberala eta besterik ez, Godoy-en dirupeko zen, frantsesen dirupeko, hargin-beltzen (33) dirupeko eta beti egintza makurretarako. Agian, moral, politika eta literatur gaietan joan den mendeak sortu zituèn lotsagarrikeria guztiak —beragan handiagoak itxuraz, bere jakite maila hain urria zelako— bere buruan biltzen ez ote zen jardun?" (34).

Horra, euskaldunenganako atsegin handirik erakusten ez duen pasarte batean, Heterodoxos-en egilearen beste iritzi bat Llorente-z:

"Rincón del Soto-ko eliz-gizon Larriojatar (35) hau, Kalagorri-ko eliz-barrutian, bere bihotz-mamian Jansentiar edo protestante baino gehiago ere bazen. Baina, anarteraino, historia eta aintzinate lanetan zen ezagun, baitipat "Memorias históricas de las cuatro Provincias Vascongadas" deitu lanagatik. Liburu hau Godoy-ek di-

---

(32) Ikus "Heterodoxos"en 417-gn. paiatik aintzina.

(33) Lhande-k bere hiztegian dionez: franc-maçon (=masón), Intxauspe Zuberotar kalonjeari jasoa.

(34) Historia de los Heterodoxos Españoles, III-gn. lib., 424-gn. p.

(35) Nola eman behar da "la Rioja" euskaraz? "Rioja" arrotz egiten zaigu "r"kin hasten delako eta "Errioja" eta "Errioxa" bitxi egiten zaizkigu euskaldunen artean horrela ez delako entzuten, nahiz eta batzuk horrela euskaldundu beren iskributan. Neri, bidezkoena eta egokiena "Larrioja" esatea iruditzen zait, ondorengo lerrotan Txillardegi-k ematen dituen arrazoiakatik: "Rioja hori, "Río Oja" balitz (sineskaitza erdarakada hori aspaldiko mendeetan!), ulertu ezina bailitzake "La Rioja" esatea, eta ez "El Rioja". Badirudi, beraz, "Larrioja" hitza azaldu behar dela, osoan hartua; Elorrio azaldu behar den bezala, eta

ruz ordainduta iskribatu zizun, herrialde haietako lege zahar eta ohitura laudagarriak deusezteari ekiteko, begitan hartuta baitzituen Gobernuak Frantziako Errepublikarekin izan zuen gerla galgarriaz gero. Honen amaia, dakigunez, Basilea-ko bakea izan zen. Llorente-k arrazoi zuen gauza askotan, mingarri baldin bazaie ere euskozale amorratuei (36). Baina, txit fede txarrez jardun zen bere lanean, tekstuak murriztuz eta gezurtatuz, eta errege ahalmenari makurkeriazko palaguak eginaz, eta honetxegatik bere kausa gorrotagarri eta desgogoko (37) egin zuen, Aranguren-en erantzupen ahulak baino areago noski" (38).

Horratx, Llorente kalonjearen bi ikuskizun Menéndez y Pelayo-ren begipean. Eta aitorkizunok egin ondoren, gizon zuzen bat balia ahal daiteke fede onez tankera kaskar hontako esamesez? Menéndez y Pelayo itsu-itsuan fidatzen baita Llorente-k "Historia crítica de la Inquisición"en Narros-ko markesari buruz dionaz. Eta norbaitek baldin badu arrazoirik Llorente-ren albisteez ez fidatzeko, Santanderetar irazleak dizu noski. Baina, gizonok, aldakor garenez, nora gogoa hara zankoa ibili ohi gara sarritan.

Ezin gaitezke luza gehiago Narros-ko markesak izan zituèn gora-beherez Inkisizinoarekin. Gai hontan sakondu nahi duenak, hortxe dauka Urkijo-ren liburu ederra Menéndez Pelayo-ren ausarkeria eta arinkeriak salatuz. Alabaina, behar-beharrekoa zaigu auzi hontan Urkijo-k Narros-en ezaugarriez egiten duen laburpena hitzez-hitz aldatzea, zeren esan baititeke lerro hauetan aurkitzen dugula trinkoturik haren azalpen osoaren mamia.

"Lehenagoko agiritan eta gerora espero dugunetan oinarriturik, uste dut, egiari urre-urretik jarraituz ontzat jo dezakegula, Narros-ko markesa bere gaztetan ez zela inolaz ere jaieratsu izan

---

ez zenbait aldiz irakurri den "El Orrio": Puente-Larraina (=Larrainzubi Gares), eta ez Puente la Reina; Casa-Larraina, eta ez Casa la Reina; Labarrieta (=Olabarrieta), eta ez Las Barrietas; eta abar. Hor ditugu-ta Larrañaga, Larrainzar, Olabarrieta, Elhorriaga,... La Reinosa, era berean, Larrainosa-tik bilatu behar litzeke ene ustez. Rioja, era berean, "Larrioja" hitz osotik azaldu behar (gauza bera Larrun, frantsesez La Rhûne!). Hots, antzinako Barolhak (eta dokumentuetan agertzen den forma zaharra "lh"-z idatzita dator, mari-xukaldeen euskararen mailatik irten diren guztiek dakiten bezala) Baroja eman badu, antzinako Zubilhanak Subijana, eta Urbillanak Ormijana, Larrioja hori LARREOLHA-k emana duke. Hain zuzen ere, Iparraldean, badago La Réole izeneko herri bat, Garona hibaiaren hegian" (Ongi-etorria Ozkabarte-ri, "Euskal Herritik erdal herrietara" liburuan, 76/77 paiak).

(36) Gaztelaniaz: mal que les pese a los vascófilos empedernidos.

(37) Tekstuan: odiosa y antipática.

(38) Heterodoxos, aipatu edizinoan, 179-gn. p.

eta salatu ere egin zutela "esakizun zatar" (39) batzuk egotziaz. Baina, auzipetu bazuten ere —ziur ez dakigun gauza da hauxe, gerta baitzitekeen azterketa soil batzuk baino gehiago ez izatea—, ez zuen kargu gogorrik bere kontra, gainerakoan ez baitzuten zazpi--zortzi urtetsu geroago Inkisizinoko Lagunkide (40) izendatuko" (41).

Hainbestean jo dezagun amaitutzat Azkoitiko Zalduntxoei buruzko jarduna eta atxiki gakizkion Paulo Olabide eta Jauregi euskaldun jatorriko zaldun argiari.

*
* *

Paulo Olabide Jauregi, mintzairaz euskalduna ez baldin bazen ere, odolez hala zela ez da batere dudarik, bere lau lehendabiziko deiturek salatzen digutenez: Olabide, Jauregi, Albizu, Agirre.

Limatar gizaseme ospatsu honen euskal-deitura ederrez zirikaturik, bere etorkiaren ezaumina sortu zitzaidan, gurasoak bederen nor eta nongo zituèn jakiteko egarri bizia. Asmo horrek bultzata Euskalerri barrutian eman nituèn urratsak alferrikakoak izan ziren. Laster igarri nion, Lima-n aztertu ezik ez nuela neure gogoa aseko, eta Arantzazu-ko fraide on eta amultsuez baliatu nintzen Amerikétan norbait mugiarazteko. Hauek, Lima-ko Arxapezpiku Agurgarri Joane Landazuri-ganaino jo zuten, eta honek Felipe A. Barreda jaunari leporatu zion neure jakinguraren asegarrizko lanbidea.

Felipe A. Barreda jaunak Paulo Olabide-ren Etorki-Zuhaitz mardula igorri digu, xehetasunez oparo bataio agiritatik aterata. Bihoazkie gure eskerrik beroenak lerro hauen bitartez Arantzazu-ko fraide prestuei, Lima-ko Arxapezpiku Agurgarriari eta batez ere Felipe A. Barreda jaun amultsuari.

Barreda jaunaren Etorki-Zuhaitzean dakuskegunez, Olabide-ren aita Nafarroako Lakar-ekoa zen, baina deitura Zerain-dik zetorkion, aitona Gipuzkoako Goiherriko hirixka zoragarri hontakoa baitzuen. Amaren aldetik ez gara Euskalerrira iristen Barreda-ren Etorki--Zuhaitzean ageri diren belaunalditan. Hona, beraz, Pablo Antonio José Olabide eta Jauregi-ren Etorki-Zuhaitza:

---

(39) Tekstuan: "proposiciones mal sonantes".

(40) Tekstuan: Familiar del Santo Oficio.

(41) Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia, 52-53 paiak, Imprenta de Martín y Mena, 1925, San Sebastián.

Francisco Agirre

Kapitana
jaio:
Mexiko-n

Maria Alvear

jaio:
Concepción-en
(Chile)

Lima-ko Sagrario-n ezkondu 1674-XII-15

Jose Olabide eta Juanes de Urrestarazu

jaio Zerain-en (Gip.)
bat. 1648-VII-9

Micaela Albizu eta Bakedano

jaio Lakar-en (Nafarroa)
bat. 1667-XII-13

Lakar-en ezkondu 1684-III-6

Martin Jose Olabide Albizu

jaio Lakar-en (Nafarroa)
bere Parrokian bat. 1686-IX-22

Domingo Antonio Jauregi eta Escobar

Kapitana Sevillan jaio
S. Roque bere Parrokian
bat. 1665-II-8

Maria Josefa Agirre eta Alvear

1683-VIII-8-an jaio
San Marcelo-n bataiatu 1684-I-31
P.P.T. 1718-VIII-2, E. Menéndez-en
aurrean.

San Sebastian-en Parrokian ezkondu 1702-VIII-30-ean.

Maria Teresa Jauregi Agirre

jaio Lima-n
Sagrario-n bat. 1705-II-22

Lima-ko Sagrario ezkondu 1735-II-19
Portalanza-ren aintzinean hilburukoa egin 1735-II-19

Pablo Antonio Jose Olabide Jauregi

jaio Lima-n 1723-I-25
Sagrario-n bataiatu 1723-V-7

Etorki-Zuhaitz hontaz xehetasun gehiago jakin nahi dezanak jo beza F. José J. Lasa-ren "MIS ACLARACIONES" lan interesgarrira (Boletín de Amigos del País, 1963, Cuaderno 1.°, 99 p.), zeren gure Aita Lasa izan baitzen bitarteko ibili zena Lima-ko Landazuri Kardenalarekin Olabide-ren Etorki-Zuhaitza ardiesteko Felipe A. Barreda jakintsuarengandik. Beraz, bihoazkio neure eskerrik beroenak Aita Lasa-ri ere.

Paulo Olabide eta Jauregi Peru-ko Lima-n jaio zen beraz, 1732-gn. urtean. Gaztetatik mutil erne eta ikas-gogotsu agertu zitzaigun eta hamazazpi urtetan, kanonetan doktoratu ondoren, Lima-ko Real Audiencia-ko Entzule izendatu zuten. 1746-ko Lima-ko lur-ikararen ondoren, herri-agintari zenez, eliza bat bir-eraikitzeko bildurik zegoèn herri-dirua, antzoki bat eraikitzeko erabili omen zuen eta diru erabiltze oker hortaz salatuta, Madriletik hots egin zioten bere burua zuri zezan.

1746-ko Urriaren 28-ko lur-ikaran gurasoak eta arreba bat galdu zituen. Lehentxeago, 1745-gn. urtean, unibertsitate katedra baterako aurkeztu zelarik, apez bati leku egiteko, baztertua izan zen, nahiz eta azterpen bikain bat egin. Baina, urte hartan bertan, Boleslao Lewin dioen bezala, "el joven doctor fué nombrado para los altos cargos de oidor de la Real Audiencia de Lima y auditor general del Virreinato de Perú" (42).

Aipatu eliza egin ordez komedia teatro bat eraikitzen dirua erabili zuelako, bere etsaiek gaiztoz egin zuela (*con propósito impío*) salatu zuten eta gartzelaratua izan ondoren, bere ondasunak eta enpleguak galdu zituen. Guztihau dela-eta "hasi zen —dio Boleslao Lewin-ek— bere eboluzinoa postura antimonarkikoetara eta bere interesa XVIII-gn. mendeak aditzera ematen zuèn filosofia argizalearen (iluminista) alde; beharbada, garai hartan ere isurtzen hasi zen Hispanoamerikaren Askatasun ideiaren alde" (43).

Horrela Espainiaratu zen Olabide, Europatik hedatzen zèn jakintza haize hozkirriaz egarriturik, ideia eta aurrerapen berriak Iberiako alor zabaletara zabalduzale.

---

(42) Repercusión de la sentencia inquisitorial contra Olavide. "La Prensa", Buenos Aires, diciembre de 1960.

(43) Lan berbera.

Balia gaitezen Menéndez y Pelayo-ren lerro batzuz, beronen urratsak hurbiletik jarraiki baikabiltza, Olabide-ren bereiztasunik ezaugarrienak aditzera ematea dugularik helburu. "Olabide —diogu Santanderetar iskribatzaileak urgainka lirainki doan ainararen antzo—, atsegintasuna eta iaiotasuna berez sortzen zitzaizkiòn gizona zen eta bere burua frantses tankerako kulturaz jazten jakin zuen. Maiz aski Parisera joaten zen filosofia eta edergintza zaletasunez asemin. Arranditsu eta oparotsu zen eta Enziklopediagileen lankide eta liburu irakurle. Bere asmo eraberrizaleak agertzen zituen non-nahi hotsandiz eta hutsalkeriaz" (44).

Madrilen bizi zelarik, Isabel de los Ríos andere aberats eta goitiarra ezagutu zizun eta berarekin ezkondu zen.

1767-gn. urtean, Espainiako gobernuak erabakia hartu zuen, aspaldiko ideia eta asmoen betegarri, Sierra Morena deritzan eskualdea (Gaztela eta Andaluzia artean), mausari (45) eta mendilapur kabi naro, nekazari gizeliz (46) hornitzea, basamortu elkor haiek lur iori eta emankor bihur zitezen nekazalgoaren bitartez.

Lehendanik, J. Gaspar Thurriegel zeritzàn Prusiatar batek agindu zuen berak erakarriko zituela eremu haiek jendez hornitzeko 6.000 aleman eta flamandar katoliku. Jendetalde hau Sierra Morena-n oinarritu eta sustraitzeko izendatu zuten zuzendari edo buruzagi gure Olabide.

Olabide bizkorrak gogoberoz hartu zuen bere arloa eta laster hamahiru hiri berri irazan (47) zituen (euretako batzuk oraindik bizi dira Olabide-ri esker), eta lur elkor eta malkor besterik ez zirenak, aurki hasi ziren emankor eta iori (ugaltsu) bihurtzen (48).

Sierra Morena-ko kolonizazino ospatsuaz honela dion Valeriano Bozal-ek (49):

---

(44) Historia de los Heterodoxos Españoles (aipatu edizinoa), III-gn. lib., 205 paia.

(45) Salteador, bandido.

(46) Tribu.

(47) Fundar.

(48) Ikus: Antonio Ferrer del Río-ren "Historia del Reinado de Carlos III en España", IV-gn. lib., 32 p.

(49) Historia del arte en España (La Ilustración en España), 273 p., 1973, Madrid.

"Ilustratuen" arteko ekintzen artean aukerarik egin behar balitz, uste dut, euren gurari eta helburuen, eta, halaber, euren posibilitate urrien gertakari erakusgarri zera dela: Olabide-k aintzina atera zuèn Sierra Morena-ko kolonizazinoa. Jendea eraman eta kolonizatu behar zen, herriak sortarazi, lurrak zabaldu; alegia, hutsetik hasi. Beraz, proiekto guztientzat ateak zabalik gelditu ziren eragozpenik gabe, hasera batean behintzat.

Horra nola deskribatzen duen Defourneaux-ek Olabide-ren egingagia (50): "Mainada bakoitzak —familia bakoitzak alegia— 50 anega lur landugarriren eskubide izanen du (hots, 33 hektarea inguru); berau, Koroaren mesedegarrizko behin betiko zergabide izanen da; (mainada bakoitzak) beharrezko langailuak jasoko ditu iritsi bezain laster eta eleburutan —ganadu burutan alegia— bi behi, bost ardi, bost ahuntz, bost oilo eta oilar bat, eta, azkenekoz, ahardi (urdanga, urdeme, zerreme) bat; hontaz gainera emanen zaizkio, probisionalki, beharrezko bizigaiak lehen uzta biltzeraino (ogia eta saria: *el pan* y *prest.*).

" Lur okupazino normak, nekazalgo indibidualismoaren lehenkietan oinarritzen dira: elearen —hots, ganaduaren— progotxugarri lur komunak mantendu behar baldin badira, honek uztak hondatzea zeharo debekatua geldi bedi. Hartzaile bakoitza bere partearen jabe da; beroni mugarriak jarri beharko dizkio eta frutu arbolezko hesiz itxi. Mesta-ko eleek ez dute pasadizurik izango lurralde kolonizatura eta beren salbuespenek ez dute indarrik izanen han. Elkartasunik handiena egin bedi hazkuntzaren eta laborantzaren (51) artean, zeren ez baita izanen laboraririk bidenabar eledun ez denik. Azkenik, etxeak kanpoan zehar sakabanatuak egonen dira, maizterra behartua dagoelarik normalki tokatu zaion lekuan berea ezartzera. Gogoan harturik dago, ordea, hiri-trinkoak (52) sortaraztea, bata bestearengandik lekoa laurdenera daudelarik,

---

(50) Proyecto.

(51) Crianza y labranza.

(52) Tekstuan: núcleos de población.

euretan nagusienak Aandaluzia-ko errepidearen (53) luzeran kokatzen direlarik.

" Batasun administratiboa eliz-barrutia (54) da; haren lege-indarra lauzpabost hiritara zabaltzen da eta inguruetan dauden etxaldetara (55). Herri bakoitzean elkarteko diputadu bat izanen da; eliz-barruti bakoitzak alkate bat eta eta sindiko-ordezkari bat izanen du; kargu hauek guztiak hautapenezkoak izan beharko dute eta behin ere ez dira betikoak izango, pilatze (56) berriei ebitatzeko zaharrek dauzkaten gaitzak, beroien jabe-aldaketak (57) eta salmentak bide direla (14 art.). Bidezkoa den tokian eliza altxatuko da —eliztiarren hizkuntza egiten duen apez baten ardurapean—, udaletxea eta gartzela. Udal-errentak, errotek eta labe komunek ematen dituzten mozkinetatik (58) irtengo dira eta ebentualki bizilagun guztiek elkargoan lantzen dituzten lur sailetatik. Debekatuak daude, berriz, arbitrioak eta merkatalgoarentzat trabagarri izan daitezkeen salbuespen eta monopolio guztiak (22 art.).

" Oraindik esanguratsuago dira noski entrepresaren eregileen izpiritu erakuskarri, kolonien bizitza izpiritualari dagozkion erabakiak: forua kulto katolikoaren eraketaz arduratzen baldin bada oso bereiziki, zehazki aditzera ematen du arimen zuzendaritza parrokitako erretoreei eta beren bikariei bakarrik dagokiela, eta komentu edo nolanahiko komunitate erlisinozkoen fundazinoa debekatzen du, dela gizonezkoena, dela emakumezkoena, arroztegi, misiotegi, egoitza edo landetxe (59) izenez deitua izanarren (77 art.).

" Udaletxe bakoitzak eskola bat altxa beza eta behe mailako hazkuntza (60) haur guztientzat nahitanahiezkoa

---

(53) Errege-bide (=camino real).
(54) Feligresía.
(55) Landetxetara (tekstuan: granjas).
(56) Aglomeración.
(57) Desjabeketak (tekstuan: enajenaciones).
(58) Etekin, produktu.
(59) Residencia o granjería.
(60) Educación elemental.

izanen da (74 art.); baina, nekazalgoa bazterturik ez uzteko, hiri berrien inguruan gramatika eskolak sortaraztea debekatzen da eta *a fortiori* unibertsitate estudiotara ematen diren ikasgoak (75 art.)" (61).

Urbanismoaren ikusmoldez begiraturik, kolonizazino proiektu modura jasotako hiriok —La Carolina, La Carlota eta abar— eredugarri dira tradizinozkoekin alderaturik. Funtziotasuna eta baliotasuna (62) dira honoko ezaugarri hauetan bilatutako helburuak: karrika zuzen eta zabalak, erdialdeko plazakin, arboladi oparoa, kalesare (63) burutsuago bat eta beren arteko komunikabide sistema bat, handik iragan zirèn bidazti guztiak harrituta uzteraino. Tankera hontan Olabide-ren ideiak gailenki aurreratu ziren, zeren urbanizazinoa gauzarik ezjakinena eta ahaztuena izaten baita XVIII-gn. eta XIX-gn. mendeko arkitekturan.

Kale trazaketa (64), hirigintza berriak, Ilustrazinoak arnas ematen ziòn neoklasizismo sor-berriaren erakusgarririk ernagarrienetakoak izango dira, baitipat eliza eta Goi-intendentearen (65) jauregia La Carolina-n (ez hainbat, La Carlota-ko eliza eta Ordezkaripekoaren (66) jauregia, *rococó* kutsadura handikoak baitira).

Baina, hain zuzen ere, Sierra Morena-ko kolonizazioak galbideratu zuen euskaldun enborreko amerikanua. Etsaiek, ugari baitzituen bere gogoetak eta ideiak onartzen ez zutenetan, basapizti baten antzera hesitu zuten, eta Elizaren arerio eta hereje zelazkoa hotsandiz hedatzen hasi ziren (67).

---

(61) M. Defourneaux: *Pablo de Olabide, el afrancesado*. Ed. Renacimiento, México, 1965, 134/135 paiak.

(62) Tekstuan: la funcionalidad y la utilidad.

(63) Tekstuan: red.

(64) Tekstuan: el trazado urbano.

(65) Superintendente.

(66) Subdelegado.

(67) Antonio Ferrer del Río-k honela dio arestian aipatu liburuan (IV-gn. lib., 17 p.): "Ezpai gabe, beti zelatan zihardurèn fanatismu giro hartan, ez zitekeen hain axolakabe izan (Olabide). Giristino izen laudagarria baztertzekorik ezertxo ere esan eta egin ez baldin bazuen ere, garai hartan Rousseau eta Voltaire gizabide arbasotzat eta gizaldi haren zuzitzat zeuzkatenen taldeko zen".

Bere kalteginik zitalena Sierra Morena-ko koloniaren arima zuzendaria izan zen, Fray Romualdo Friburgo zeritzana. Laster oldartu zitzaion, baina ez zuzenki, Inkisizinoari salaketa eginaz baizik; horrela, 1775-ko Irailean, herejiak zitezkeenak eta ez zitezkeenak leporatu zizkion gure kolonia zuzendariari. Dena zen salakizun Olabide-gan: hereje, ateo eta materialista omen, edo gutxienez naturalista eta naturaz-landakoaren (68), errebelazinoaren, Arduradunaren (69) eta mirarien ukatzaile; otoitzaren eta egintza onen etsai; Voltaire eta Rousseau-ren irakurle min, lizunkoi, barau eta haragi-uzte urratzaile, jaiegun lohitzaile, etsenplu txar emaile eta kolonoen eskandalu harri... eta, guztihau gutxi bailitzen, Copernico-ren teoriari jarraiki, lur mugimenduaren defendatzaile! (70).

Olabide-k bere buruaren zurigarri Roda-ri egin eskutitzean, aitorkizun hauxe egiten digu: "Egia da, ni sarritan mintzatu naizela Fray Romualdo berberarekin eskolastika eta teolojia gaiez eta sesioan jarduten genuela beroiez, baina beti dotrina katoliku barrutian eta beti geure erlisino donearen menpetasunean" (71).

Eskutitz hau goi eta behe ernagarri izanarren, ez zaigu zilegi ez osorik eta ez zati luze samarretan ere aipatzen, gure labur beharrezko asmoek gainez egingo bailukete, eta, horretxegatik, muin-muinari atxikiz, beste bi lerroalditxo aldatuko ditugu. Hona lehendabizikoa bere salatzaileari buruz: "Aita Friburgo, ene ustez, oso da sineskerietara joa. Bere eginak dira erakusle eta bere predikuak hitzegile". Aitorpen hauek aintzakotzat hartzekoak direla uste dut, zinez Olabide-ri buruz epaikizun zuzenik egin nahi baldin badugu erlisinoarekiko jokabidean.

Horra, Olabide, berriz ere, bere katolikutasunaren ortodoksia akatsik gabe erakus-zale: "Gure eztabaidek ez zituzten erlisinoaren egi-oinarriak kordokatzen. Azalekoei zegozkien, irizkizun zirèn

---

(68) Naturaz kanpokoaren, naturaz goitikoaren, naturaz gainekoaren: de lo sobrenatural.

(69) Tekstuan: de la Providencia.

(70) Ikus gai hauei buruz Vicente Lafuente-ren "Historia Eclesiástica de España", VI-gn. lib., 67 p. eta Menéndez y Pelayo-ren "Historia de los Heterodoxos Españoles", III-gn. lib., 210-gn. p.

(71) Eskutiz osoa Antonio Ferrer del Río-ren "Historia del Reinado de Carlos III en España" deritzàn obran ageri da, III-gn. liburuan, 47-48-49-50 horrialdetan.

auziei. Maltzurkeriak bakarrik aurki dezake beroietan gaitzespenik, adierazpenei gezur eta oker tankera bilatuz".

Salaketa auziak bi urteko irauna izan zuen eta 166 herejiazko adierazpen bizkarreratu zizkioten (72).

Inkisizinoaren esku-zigorra eta aginte indarra beheraka baldin bazihoan ere aspaldian, ez zuen Olabide-rentzat zigor biguinik erabili. Aunitz kastiguren artean, hauetxek erantsi zizkioten: Komentu batean zortzi urteko bahitu, giristino dotrina ikasi eta barau egin zezan, bere kargu guziez gabetu, ondasunak erauzi (73), eta bere ondorena eskubidegabetu boskarren belaunaldiraino (74).

---

(72) Lafuente-ren "Historia Eclesiástica de España"n (67-gn. paian) dionez, 166, eta Menéndez y Pelayo-ren Heterodoxos-en dionez, 66 salakizun (los cargos eran 66 confirmados por 78 testigos). M. y P.-k dio: Oyó con terror grande leer la sentencia, y al fin exclamó: "Yo no he perdido nunca la fe, aunque lo diga el fiscal". Y tras esto cayó en tierra desmayado. Egia ote? (III-gn. lib., 211 p.).

(73) Hots, ondasunez desjabetu, zituenak oro kendu.

(74) Boleslao Lewin-ek honela dio Buenos Aires-ko "La Prensa"n, Abendua, 1960: "No obstante la protección de personalidades muy altamente colocadas, en 1776 el doctor Pablo de Olabide fue detenido por la Inquisición y arrojado en sus cárceles secretas, donde permaneció dos años, o sea hasta el 24 de noviembre de 1778, fecha en que el Santo Oficio dio a conocer su sentencia contra él. El riguroso tribunal lo condenó: 1) a la pérdida de todos sus empleos y a la perpetua incapacidad de obtener nuevamente otros, él y sus descendientes hasta la quinta generación; 2) a la confiscación de sus bienes; 3) a destierro perpetuo de Madrid, sitios reales, Sevilla, Córdoba, nuevas poblaciones de Sierra Morena y Lima, sin poderse acercar a ellas, bajo ningún pretexto, menos de veinte leguas; 4) a ocho años de reclusión en un convento, sujeto a una regla severa bajo la dirección de un confesor sabio, leyendo única y constantemente *El incrédulo sin excusa*, del padre Segneri y *El símbolo de la fe*, de fray Luis de Granada; 5) a caminar por el resto de sus días sólo a pie, en mula o asno; 6) a vestirse en lo sucesivo únicamente de sayal o paño burdo amarillo, sin poder usar jamás géneros de seda, lana fina o camelote, ni prendas de oro, plata, perlas, diamantes, ni piedras preciosas, debiendo, para ser restituído al seno de la Iglesia, hacer la protestación de fe y abjuración de sus errores de hinojos y cubierta la cabeza con coraza de aspas".

Menéndez y Pelayo-k, izpiritu zabal eta liberalzaleen etsai porrokatua dugularik, aitorpen hau egiten digu: "A muchos pareció excesivo el rigor con que se trató a éste (Olabide), y quizá lo era, habida consideración al tiempo, en que las penas de infamia iban cayendo en desuso. Sobre todo, parecía poco equitativo que se castigase con tanta dureza las imprudencias de un subalterno, mientras que seguían impunes, no por mejores sino por más disimulados ó más poderosos, los Arandas y los Rodas, enemigos mucho más pestíferos de la Iglesia" (Heterodoxos, III-gn. lib., 212 p.).

Olabide-k ez zuen onartu, ordea, leporatu ziotèn zigorra, eta bahiturik zeukatèn fraidetxetik itzul egin zuen eta Frantzia-ra igaro zen. Hemengo Enziklopediazaleek berebiziko harrera egin zioten eta Diderot-ek haren biografia argitaratu zizun.

Alabaina, Frantziako Iraultza, Enziklopediazaleek nahi baino askoz aintzinago joan zen eta Ikaraldian Olabide preso hartu zuten, eta Robespierre-ren erortzeak (Thermidor-en 9-an) bizia salbatu ziola esan daiteke.

Frantziako egonaldian, presondegian aurrenik eta Cheverny-ko adiskide baten etxean gero, iratzi zuen "El Evangelio en Triunfo o historia de un filósofo desengañado". Izenak dion bezala, okerbideak bazterturik, gaztetako ideia eta ohitura labainkorrak zokoratuz alegia, Egiaren argi bakarra Elizaren magalean bilatzen du soilki. Liburu honek lau edizino izan zituen urte baten buruan eta beroni eskerrak, 1789-gn. urtean Espainian sartzen utzi zioten, ondasun erauziak oro bihurtu zizkioten eta gainera, urteko 90.000 errealeko urte-saria erantsi (75). Lau urte geroago, Godoy-ek eta

---

(75) Lerro hauek irakurri ondoren, norbaitek pentsa dezake Olabide azal-huts, elezuri eta gezur-ontzi bat zela eta bere interes materialetan pentsatuz bakarrik iratzi zuela "El Evangelio en Triunfo". Susmo txar hau burutik ken dezagun, susmogarri ezin izan dakigukeen Menéndez y Pelayo integrista porrokatuaren lerro hauek alda ditzagun: "No dudo, pues (aunque lo nieguen los viejos por la antigua mala reputación de Olabide, y lo nieguen algunos modernos, por repugnarles que el espectáculo de la libertad revolucionaria fuera bastante medicina para curar de su envejecida impiedad á un filósofo incrédulo, víctima de los rigores inquisitoriales), no dudo, repito, que la conversión de Olavide fué sincera y cumplida, y no una añagaza para volver libremente a España. Léase el libro que entonces escribió, *El Evangelio en Triunfo ó historia de un filósofo desengañado*, donde si la ejecución no satisface, el fondo por lo menos es intachable, sin vislumbres, ni aún remotos, de doblez é hipocresía" (215 p.). Eta Olabide-ren izaeraz honela dio: "Olavide era una cabeza ligera, un *enfant terrible*, menos perverso de índole que largo de lengua, y sobre él descargó la tempestad. Comenzó por abatirse y anonadarse, pero luego vino a mejores pensamientos, no cayó en desesperación y la fé volvió á su alma" (212 p.). Eta aurreraxeago: "Alma buena en el fondo y de semillas cristianas, aunque hubiese pecado de vano, presumido y locuaz" (215). Neure iritzian Olabide on puska bat izan zen eta lagun-hurkoaganako amodioz betea. Sierra Morena-ko herrigintza jende apalaganako amodio honen lekuko bikain dugu. Beraz, azalez hego-haizearen jostailu izan baldin bazen ere, mamiz benetako giristinoa izan zen beti.

Urkijo-k egin zizkiotèn kargu-opariak baztertu ondoren, bakardade baketsuan hil zen Baeza deritzan Andaluzia-ko hirian.

Olabide-ri buruzko saio honi buru emateko, beharrezko zaigu bere literatur lanaz zertxobait esatea, bere txolarte eta ezbeharretan gogoz ekin baitzion gaztelaniazko literatur lantzeari.

Mundutiar literatur alorrean, Olabide-k komedia eta trajedia batzuk itzuli zituen frantsesetik gaztelaniara. Literatur laguntzaile bikain izan zen eta Jovellanos-ek alor hontan eman zituèn lehendabiziko urratsetan bere babesa eskaini zion.

Literatura sakratuan, lehen aipaturiko "El Evangelio en Triunfo"z gainera, Salmoak eta Testamentu Zaharretik eta Eliz-eresitatik bildutako hanitz kantagai itzuli zituen. Baita bere sormenez mamitutako poesia sail bat ere argitaratu zuen "Poemas Christianos" izenpean.

Alabaina, Menéndez y Pelayo-k irizpide kaskarra dauka Olabide-ren poeta senaz. Santanderetar irazleak, nahiz mundutiar poesia alorrean, nahiz poesia sakratu alorrean, ez dio poeta meriturik aitortzen. Bere poesiak errimadun prosa huts omen, ez zain, ez gazi-gezik, ez txinpartarik ("incoloros y prosaicos" bere hitzez). "Desengainuak sinesmena erakarri zion, baina ez olermena" (76). Hau ez da egia osoa, inondik ere, zeren bai-baitakigu Olabide-k ez zuela sinesmena sekula galdu: "Yo no he perdido nunca la fé, aunque lo diga el fiscal" (211 p.). Menéndez y Pelayo-k arinkeriaz salatzen du Olabide: "Olavide era una cabeza ligera", "largo de lengua", "vano, presumido y locuaz" (215 p.); baina, bera ere ez al zen arinkeria izugarriaz jokatu Azkoitiko Zalduntxoak juzgatzean, Urkijo-k —eta Urkijo-ri inork ez al dio aurpegiratuko ezkertiar edo abertzale zenik, eskuin-eskuinekoa eta karlista baitzen— "Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia"n demostratzen duen bezala? Nor zen, bada, kaskarinago, Olabide ala Menéndez Pelayo?

Badaiteke, halaber, Menéndez y Pelayo-k zorrotzegi juzgatzea Olabide-ren olermen dohain urria, nolabaiteko atsegin-ezak era-

---

(76) "El desengaño le hizo creyente, pero no llegó á hacerle poeta" (Heterodoxos, 218 p.).

ginda edo, baina, dena den, huts egiteko kezkarik gabe esan daiteke Limatar eusko semea ez zela gailendu gaztelaniar literatur ereintzan.

Hainbestean, neure saio-lan edo jardunalditxoari bururatua deritzot, zeren Azkoitiko hiru Zalduntxoei eta Olabide-ri eragin zien kultur eta aurrerapen kezka labur-zur aditzera ematea izan baita soil-soilki geure helburua. Ez dakit, nik nahi nukeen ahogozorik eta bizigarririk erantsi diodan nere lanari. Jatena motela delarik, bada erremedio, sukalde bazterrean gatz-ontzirik den artean. Gure janaria gazitzeko, ordea, ez dizu gatzandelak deusik balio. Sukalgina behar neu baino hobea, jakintza-janariari gatz eta bizigarria neurri-neurrian botako diona...

Donostian, Maiatza, 1980.

ONDAKIÑAK

TORIBIO ETXEBARRIA

Caracas, 1968 - 1 - 3.

AURKEZPENA

Toribio Etxebarria berak bialdu eustan Caracas-tik, 1968ko urtarrilaren 3an, *Ibiltarixanak* deritxon liburua argitaratu ondoren, *Ondakiñak*. Izenburu onegaz batzen zituan argitaratutako *Ibiltarixanak* liburutik kanpo gelditu ziranak. Geienak papel artean galdurik eta gutxi batzuk gero idatziak.

Lanok galdurik gelditu ez zeitean, *Egan* aldizkarian argitaratzea merezi dau. T. Etxebarria zanak, bizi zanian bere lanak argitaratu zituan aldizkarietako bat dogunez *Egan*.

Eibarko kalerik inportantienetako batek artu dau Toribio Etxebarria izena. Ondo merezia eukan gure gizon onek. Emen ez naiz asiko Toribio zanaren berri emoten. Ori bere garaian egin neban zenbait aldizkaritan eta zerbait jakin gura dabenantzat naikua izango da gure inguruko bitan azaldu nebanaren barri emotia: *Boletín de la R. S. V. Amigos del País* (XXIV, 1968, 455-457 orr.) eta *Euskera* (XIII, 1968, 283-284 orr.).

Ala be, ondo izango da eibartar jator onek idatzi zituan liburuen barri emotia, baten argitaratzea eta beste baten zabaltzea egilia il ondorean egin zanez.

Ara emen bere bibliografia:

GAZTELERAZ:

— *Metafísica a Urcola.* México, 1966.

— *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo.* México, 1966.

— *El Hijo del Hombre* (Vida pública de Jesús de Nazaret, según los Evangelios, con algunas glosas). México, 1966.

— *Tres ensayos. Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración.* México, 1967.

— *Viaje por el país de los recuerdos.* México, 1968.

EIBARKO EUSKERARI BURUZ:

— *Flexiones verbales de Eibar.* Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian. Bilbo, 1963-64.

— *Lexicón del euskera dialectal de Eibar. Euskera.* 1965-66.

EIBARKO EUSKERAN:

— *Ibiltarixanak.* Zarautz, 1967.

— *Ondakiñak.* Orain *Egan*-en argitaratzen dogun au.

Egiliak berak *Ondakiñak* izentzat ipini zetsan onetaz be ez daukat asko esan biarrik. *Ibiltarixanak* zeritxon liburu mardularen jarraipena edo bere zatia danez, egilia ta bere euskarazko lanaren barri jakin nai dabenak irakurri deilla *Ibiltarixanak* liburuari sarreran egin neutsan "Aurretiko agirixa".

Ondakiñak dalako onetan, leenguaren proporziñoz, ipoñak bertsuak baño leku geiago betetzen dabe. Ipoñok, geienok itzulpenak dira, aintziñako klasikuegandik euskeratuak, azkena edo izan ezik. Kanterbury-koetatik asi eta Frai Anselmo de Turmeda-renetara arte, batzuk andik eta beste batzuk emendik artuta, bada or ipoin politik. Nafarruako Margaritaren *Heptameron*-dik artua be bai bat.

Leen, *Ibiltarixanak* liburuaren azkenean *Testamentu Zarreko* pasarte batzuen ondorian *Heptameron*-zati batzuk agertu zituan, ara emen euskeratuok zeintzuk ziran:

Lelengo aldiaren V eta VIII. nobelak deitzen diranak (oin emen parte orren VI. nobela dakar), irugarrengo XXIV nobela, laugarrengo XXXIV, XXXV, XXXVIII, eta XXXIX, bosgarrengotik XLIV eta XLV, eta zazpigarrenetik LXVIII, LXIX eta LXX.

Emengo ipoiñ batzuri itzultzaileak egiten deutsen ohar edo notetatik konturatuko gara, bera ez zala ausartu ipoñik gordiñenak edo lizunenak euskerara itzultzen, argitaratzeko gogortxoak eritxi jakozelako. Denporarekin gauzak zelan eta zenbat aldatzen diran. Bere eritxizko gordinkeriak, gaur egun ez ete dira epelkekeriak?

Azken azkenean doiazen bost bertso sailak neuk batuak dira. Egiliak lenago neri edo beste adiskideren bati bialdutakoen artian zeren eta "Ondakiñak" onek be eta ez eban merezi baztarrian lagatzerik.

Egilia bera, Toribio Etxebarria Ibarbia, Eibarren jaio zan 1887ko apirillaren 27an eta Caracas-en il 1968ko apirillaren 18an. Gaztetxotatik irakurle aundia, bizitzako esperientzia aberatsak ezagutua eta lanetik erretirua artzean idazteari emon zetsan. Aipatu ditugun liburuak dira ekintza orren frutu eta *Ondakiñak* datoz orain lan ori burutzera. Olako lanentzat iñoiz ezta berandu.

Baña, lana burutzean ez legoke gaizki lenago *Ibiltarixanak* deritxonari zentsurak kendutakoak be geigarriz lan onen amaieran sartzea, lana guztiz burutzearen osagarri.

J. SAN MARTIN

IBILTARIXANAK, berso txorta aundi au batzen nintzanian, liburu baten argiratzeko, nere papelen naste matasian, oiñgo ataltxo onek aldendu jatasen eta kanpuan gelditu ziran. Gero, astirotu naizenian, gauza-ezdako paperak apurtzen naizela, etorri jataz eskuetara.

Onak edo txarrak, balio edo balio ez, alegiñak kostata diralako, neuk bakarrik dakiran neurrixan, or doiaz lagunetara, ONDOKIÑAK izen-buru daroiela, azkeneko, biotzetiko agur samur baten ordez, ez ba, ziur, luzia, oiñ eskero, nere oindu biarreko bidia.

EGILLIAK

Caracas'en, 1968'ko Urtarillian.

NUN ZER AURKIBIDIA

AURKEZPENA ... 33
Ibiltarixanak ... 36
Duako biarrak ... 39
Ezer lurrian, munduan espillua ez danik ... 41
Nere gogorakuak ... 42
Gizona ... 43
Meitetsu genbizenian ... 44
Jai-ibillixak ... 45
Zergaitik ez Jauna? ... 46
Erantzuna ... 48
Lenengo zan Jaungoikua ... 49
Mundua, Gizona eta Jakintzak ... 50
Konturako bat ... 53
Emotian zoriona ... 54
Hillarion'entzat ... 55
Irukotxa ... 56
1962 ... 57
Gizonan probatzia ... 58
Liburuak ... 59
Sei-garren urtian ... 60
Gaurko koskia ... 61
Eusebio'n intenziñora ... 62
Zaitez pozik ... 63
Ignotus Deus ... 64
Zurixak eta baltzak ... 69
Zeruko katuan aldakuntzak ... 70
Zorimena ... 72
Zergaitik? ... 74
Zori-ona eta Zori-gaiztua ... 75
Omnia vanitas ... 76
Ura juanda gero presia ... 77
Zatixa ... 78
Hendaia'n ... 79
Apurrak ... 80

IPOÑAK

Kanterbury'ko ipoñak ... 82
Frallian txandako ipoña ... 83
Soñeku gei ikusgarrixa ... 88
Ferixara bidian ... 91

EL LIBRO DE LOS EXEMPLOS

I - Prudentes ... 92
II - Fabulator ... 94
Frallia eta iru lapur ... 95
Dendari zarra eta emazte gaztia ... 96
Arotzan ematze maitia ... 97

HEPTAMERON. VI. NOBELA

Senar begi-bakarra ... 99
Jan-txakur bi ... 101
Alkar ikusi-eziñan sarixa ... 104
Entzun-gaiztoko andria ... 106
Gudarako jendia biarrian ... 106
Ardauan ausartasuna ... 107
Erantzun egokixa ... 108
Aker eta makillatua ... 108
Itxi ortan ... 110
Bakarrik izan baziña ... 110
Bixak guzurretan ... 111
Merkezale larregikua ... 111
Leku askotakoa izan leikian ipoña ... 112
Naixago nik ... 114
Zer ez zorrian? ... 116
Baleskuez Jainkuak ... 118
Au dan buru-bidea! ... 119
Aizkora madarikatua ... 120

OSAGARRI

Kendutako zatiak ... 123
Kendutako lau bertsu sail ... 125
— 1931'ngo apirillaren 14'a ... 125
— Hendaia'n ... 130
— Diktadoriak ... 132
— Erantzuna ... 133

Zan, antxiñako Atenas'en
Antifon, itz edergiña, (1)
Socrates'en aurka esaten,
au bazan be gizon bardiña,
ezertara b'ez, a bera,
erizten zan jakituna.
Preziokua ba izatera
aren erakuskizuna,
oitutzen zan letz danian,
ez ebala, zoru ezik,
dirua eiñ biarrian,
duan zabaldu biarrik.

Ala nere bersuak be;
utsak, diranetik duan.
Baña zenbat? ez badabe,
eskubiderik orduan
irakurlarixak asteko
esaten, detsarala ostu;
dendari lotsagabeko
bat banitz letz, ta saldu
diruagaitik, zintzo ordez,
matsmordo ustel ustelak.

Beti duan eta berez
munduko gauza ederrenak
duan txorixak kantari,
duan dira lorak ederto
janzten, gorri eta zuri,
Salomon baño be obeto;
duan iturrixak ura
t'Arrate'k ifar-aizia;
ta basuak ezkurra,

(1) Jenofon. Memorabilia, 1. 44.

ta zugatzak kerizia.
Duan Euzkixak argixa,
Irargixak gau-zidarra,
Munduak zer-ikusixa
et'Itxasuak indarra . . .
. . . . . .

Baña txandan dirugiñak,
besterik ez da buruan,
etentzeko alegiñak;
ez ditue eiten duan,
laga biarra dabenetik,
Urkira (2) aldatzerakuan,
dana emendiko aldetik?

(2) Eibarko Kanposantua Urkin bai dago.

EZER LURRIAN, MUNDUAN ESPILLU OSUA EZ DANIK

Beste sasoi eder baten,
mendizalia nintzala,
urtentzen neban Eibar'en,
lepora artuta morrala,
goiztik, egun guztirako;
oñez, baso-bidietatik.
prixa barik iñorako,
noiala irakorririk
Natura-Aman Liburuan
milla ikas-gei ikusgarri.
Ez ba ezer inguruan,
ez arbel eta ez arri,
ez bedar eta ez lora,
ez koko et'ez friztixa,
ez txori et'ez arbola,
zerbait erakutsi geixa
barik, nai dogunondako
gauzak ezautu gauzetan,
naikua ez dogulako
jakitzia papeletan.

Sasi-orri bakar baten ba,
bere ezkutu-barri danak
batek jakintzera, enda
agortu aren aztarranak
laga ezer gabe ixilleko.
jakingu leuke Mundua,
Zeru ta Lurran arteko
Sekretuan osotua.

Ez dalako ezertariko
gauza-uts, apal tzikirik,
Mundu-Universo guztiko
espillu garbixa ez danik.

NERE GOGORAKUAK

Aberatsa izan barik,
buruari nik ukatzen,
alda, guztoko gauzarik
onian destala eskatzen.

Jan-lege ta liburuak;
ibiltzia, naiz da oñaz,
urriña ta inguruak
zapaldu, ezagutuaz.

Baña pitxi'eder fiñak
neri ezer esaten, Urri'
baño nere gogo ariñak
maitegarrixauak neri.

Naixago ba nik fosil bat
basuan neuk azaldua,
baño dendan diamantetzat
fiñarri erositakua.

GIZONA

Ondo danian, bai txori arrua,
munduan ezertariko gauzarik,
berari gaitz eiñ algo detsanik,
balitza bezela galtzairuzkua!

Ara baña, iztarrizko zulua,
aizetxo uts batek, Ifar aldetik,
irutxurrian artu deixonetik,
beriala uste zapi-zar-trapua.

Eta ondiok atzo, zana arruaz,
gaur, ondoeztxo baten ostera,
jausita, bendeko, illetiagaz.

Itxuskixak deixan baztar batera
batu ondatutako gauza danegaz,
gertau deiñ ondoren auts izatera.

MAITETSU GENBIZENIAN

(Nere emastian oroimenian zan.)

Gaztetan. Negu erdixan,
gu maitetsu errian,
otzik guk alkarregaz
naiz edurra atian.

Kontuak amaitu ezinda
arrasko agertuan,
ala itxi biar genduzen
afal ostekuan.

Naikua ez da orduak,
alperrik goiz ekiñ;
ezda jai-egun guztiak
izanda alkarrekin.

Dana gendu'n ba ugarixa,
ederra, loria,
et'asmuan urriñ ezda,
pozak ezkontzia.

Zer aberatsa orduan
eta zer samurra,
gero esan izan dogun
Euskera laburra!

JAI-IBILLALDIXA

Goizeko Izarrakin jaikita,
nere buruari galdezka,
nintzan, goiztar, Portalian:
¿Sarroi ala Ibur-erreka?
. . . . . .
Ud'azken danetik noiala
beiñ, etxi etxixan, eta
bai-eta-ez geixago barik,
¡Egotxia'ko Pagopera!
Artu Tutulu'ko bidetik
Otola gañeko ametza,
eta kanteretatik ziar
eldu Buztingorri zanera;
eta Arraotz barrenetik,
gorantzian, laga ezkerra,
eta Azkonabitza ondotik,
juan Beizuko zabalera.
Jarraitu agertzen dan arte
zaldi gañian letz Elgeta.
Andikan eskumara, lau-lau,
len esandako pagopera.
. . . . . .
Luze, lur gañian etzinda,
Pago aundixan kerizpian,
Anboto'ko atxa begira,
asi nintzan esn'amesian . . .
Lausik gabe, aberats nintzala
besterik ez lako neurrian;
jaurti eta jaurti diruak,
zoro, eta beti lenian.
Eta ondamendi garratz onen
jarrai, eru-aldi aundiñian.
Bakizu zer burura jatan
etorri aize ariñian?
Diru danen ordez banintza
eskeko ez-ezagunian.

ZERGAITIK EZ JAUNA ?

Parkian, Tigre ar-emiak,
euki ditue ume bi;
¡Zer gauza polita umiak
jolas'tan erpaka alkarri!

Eta gure Ama-Tigria,
biarda jan aragi t'azurra
dala aberan ikaria,
¡Zerlako amatxo samurra!

Aren ago izugarrixa,
ortz illara zorrotzekin,
laztankia ta orratzixa
olgetan bere aurtxuekin.

Ta dala Frixti asarrien
bat, kide ostianguentzat,
¡Zer eruan-ona umien
lotsagabekerientzat!

Basuan aiñ berekorra
ta etsairi erru gabía,
eta oso biotz gogorra
izanda bere izatia.

Famelixan, berezkotik
umiak beti buruan;
emongo bizixa pozik
aurrak ondo gorde guran.

Jainkuen gandik baleu letz
alde ortan kristau legia
et'odol gosien ordez
jatorrixa ondo aztia.

Zergaitik Jaun Egilliak
bardin al ebanetik
onerako ez eiñ bi aldiak?
Zergaitik, Jauna, zergaitik?

Natur'aldi' laga nausi,
ai, bere odol gosiegaz
azur austen biarda bizi
et'aragixak etenaz?
. . . . . .

Kristau, gure zor-gaiztu'be
dala ori, ta obe ez pentsau
zenbat aber kulpa gabe
gure estietan dan pasau.

ERANTZUNA

(Ortik'o berso txiki bati.)

Ez da, seguru, arritzekua,
Patxi'ri (3), gure Jaunan onduan,
apaizak leku emoti' Elizan;
lenago be, Jauna egondakua,
izan zanian Kaifas'kin munduan
lapurti galdu biren erdixan.

(3) Patxi, Francisco Franco-gatik dio.

LENENGO ZAN JAUNGOIKUA

Milla urte batzuk oiñ dala,
ardi-narrua izan ezik
janzitzen ez ekixela
gizonak beste gauzarik,
bersuak eiten zituela
sarri askotan entzun dot nik.

Eta leiza illunetan
pintxatzen ebela arrixa,
egizko kolorietan,
atariaz biz-bizixa
euren lar inguruetan
zan Aberan idurixa.

Ta beiñ baten, antxiñian,
ebenian biztu SUA,
gau illun da Negu otzian
Euzkixan ordiazkua,
eiñ eben adimenian
lelengo zan Jaungoikua.

MUNDUA, GIZONA TA JAKINTZAK

Zenbat ni aurrerago
noian urtietan,
desengañu geixago
bizi estu onetan.

MUNDU' nebalakuan
aituko urtiekin,
t'amen arras orduan
ezinda ezer jakin.

Zer ete dan Guzurra
edo zer Egixa,
guzurrak ba egi apurra,
ak errua erdixa.

Nun amaitzen ete dan
Ona t'asi Txarra;
ba onenak askotan
uste barik arra.

Noiz ni bide Zuzenian
et'au noiz Okerra;
ba gura ez zan bidian
iñoiz zori ederra.

Ipurtagi bat illa
baño ezda lagun,
nun be guztia amilla
ta nun dana illun.

GIZONA doranetik
ain zenide urra,
b'arima bardiña nik
aragi t'azurra;

Nintzan nebalakuan
algo ezagutu;
ta jata au naste-tsuan
korapillo biurtu.

Bakotxantzat ba Jaunak
ei molde barrixa,
ta izan ta izango danak
adol'berezixa.

Ta soñan ditugun letz
alde lotsakuak,
ezkutuan biarrez
on ezda munduak.

Ariman be ditugu
lotsazko aldiak,
erabiltzeko ezkutu
ainduta lotsiak.

Onek, milla erakuak,
moldiak diran beste,
bardin bardin munduak
estaltzia eske.

Ta zer arri ez da izaten
bestian artian,
bat pauso txar baten
bei jakozenian?

Ez dala iñor munduan
beitzera ezkutu a,
ez deiña ager orduan,
ai, desengañua.

JAKINTZAK gizonanak
bardin engañu bat,
euren argitze danak
naiku'ezda biotzak.

Ameslari doiala
asko urriñago,
beti egarrixak dala
itur' goragoko.

Ase eziñik neurtziak
ta gauzak ikutu;
baña arimango ustiak
gei ezinda biurtu.

Ninduelaku'n jakitun
eingo liburuak;
millak pasauta illun
bezela itxuak.

Nere ikasi apurrak
destela erakutsi:
Jakintzak letz laburrak
luze iñoranzi'.

Jakintzuena munduan,
ziur, izango dala,
deixana artu buruan
utsa dakixala.

KONTURAKO BAT

Gaur izan dot eiñ biarra,
iñok jakingo ez daben,
laguntze ixill bakarra,
larregi ez euki arren.

Eskar-onik espero gabe,
ezda iñoren txalorik;
biarda astu norberak be,
ta iñoiz atara ez agotik.

Deirala jarri au Jaunak
eskertik ner'zor-orrixan;
geixago ba neri orbanak
gordetzen ak ixilixan.

EMOTIAN ZORIONA

Badira batzuk munduan
artzekoz beteta beti,
uste bagiña bestiok
jaio zorrian eureri.

Berriz, ezer bizixan
eurak iñori, mezedez;
bekoki erdixan dabela:
duan, kedarre autsa b'ez!

Beste batzuk dira ostera,
ill artian zor; danori;
biarda bizi uste ordaintzen
zorrak, gabe itxi ezer iñori.

Baña Emon-zale onek,
bizi guztiko emonian,
sarri Artzekodunak baño
grazi'geixago azkenian.

Eta Liburuan dozu
irabasle arek noraño':
Zorion geixago danetik
emotian artzian baño! (4)

---

(4) Beatius est magis dare quam accipere. Actus, XX, 35.

HILLARION'ENTZAT

Etxebarria giñanok
lengusu Txirio-kalian,
artalde bateko danok
t'atai batetik etxian!
Umeteko ipoiñ gozuak,
barru barrutik kantari
—nai urte askuan mutuak—
gendukez izango ugari,
balitza alkar ikustia
zuek or edo nik amen.
Alperrik ba arrezkero
gure bizi aldatuetan
zerbait otz, giñanok bero
eta mait-maite benetan,
uste beste ez gara oztu.
Et'ala zuen zorionak
aiñ nabe ni guztiz poztu,
bezin txikitxan Gabonak.

Bai, alkarrekingo Gabon
arek, gurasu ta osaba,
txiki et'aundi, zorion
genduanian a gaba
gure etxeko sutonduan;
maixa danok jartzeko laiñ,
ta gu, best'ezda buruan,
asieratik azkenan zaiñ!

Ara ba oiñ, nere aldetik be,
zorionak milla danontzat:
txiki, aundi zar ta gazte
ta deizuela urte on bat!

Caracas'tik,
1958'ko illbaltzan 11 garrenian.

IRUKOTXA

Sor Maria Ines Etxebarria'tar P.S.I. entzat,
Taiwan'en (Formosa).

Ederra mundu ederrian
txalo artian ibiltzia;
ta milla maitetsu bendian
bai baten begira eukitzia.
Zineko ederren edertasuna,
bai dala munduan ezaguna!

Ederra etxian Etxeko-Andra,
bere sabeleko aurrak asi;
eldu gero izatera amandra
ta illobak jiran erabilli,
antxiñako ipoiñ politxen eske
txorikumiak abixan leztxe!

Baña ederragua ederrez,
zoro arduregaz beteta gu,
munduan goiazenon ordez,
Marta'n aiztiak bezela astu
be au, ta bizi ITXAROPENA,
gorderik Jaunan alde onena! (5)

Caracas'tik,
1962'ngo illbeltzan lauan.

---

(5) Luc. X, 38-42.

Ara beste Urte-Barri bat!
zer ekarriko ete desku
geure Aberritik aldendu
ta erbesteko garanontzat?

Au, ogetabi garrena,
garala etxetik kanpora,
genduanetik laga ez da nora
Españia'ko muga guena.

Berriz be utsetik asteko
biz'modu larri esarrixa;
arte Franzia'ko errixa
Zazkar batek jarri bendeko.

Noiz, Jauna! irugarrenian
dana bertan bera itxirik,
ostera arin giñan igesik,
biarda eiñ salto illunian.

Ta itxaso zabalak igaro
bada-ez-badako bidietan,
dana biarreko ontzixetan,
billa nun guk eiñ zartzaro.

Gaztetasuna genduanetik
juanda milla zeregiñ
eta ezin esandako alegiñ
eiñda Eibar'en alperrik.

Ta izan ditugun nekiegaz
t'aldatz guztiekin, zorion gu,
ez giñanetik an gelditu,
gaiztuen bendian auspaz!

Ba gizon obiak ni baño,
ez zituenian lau tiro,
bai karzelan ixa betiro,
aspertu ta iltzeraño!

GIZONAN PROBATZIA

Gure bizi-moduko
zeru urdiñian,
ode apur bat barik
egualdi on danian;
dana egoki dogula
eta geure alde,
aurrera gu munduan
ardurarik gabe.

Orduantxe bai gatxa
kontuz egotia,
ta diabru'k eruanda
buru'ez galtzia;
ta ganberru ibilita
negarrik ez eraiñ,
ondamendixa gero
batzeko geure gaiñ.

Goiku'k sarri onian
gaitu ba probatzen,
dala ta aukera aretan
probi', ziur, gatxen;
txarrian garanetik
minduta kontuan,
beitu biarko doguna
zer euki goguan.

24/6/61

LIBURUAK

Berregun bat urte aundi
bizi biar banintzake,
ta naizen irakurlari
iraun bardin eten gabe,
ta seguru ezin amaitu
nik ditudan liburuak,
nere ibilixetan batu,
itxura guztietakuak.

Baña, Jainkua zeruan
dagona bezela egixa,
ez dorana bat, naiz duan,
bera esanda be erosixa
irakorteko asmu'gabe,
edo aurreko gogo barik;
bat ez, izan ezda zale,
lagun desio ez nebanik.

SEIGARREN URTIAN

(Nere zan emaztian oroimena.)

Giñan senar-emaztiok,
sarri, zartu giñanian,
esaten genduan pozez
geure arteko jardunian:

Umiak asi ta ezkondu-
ta, bakotxa bere etxian
gaituela eiñ aitaita,
ongi zazpi garrenian;
eskuarteko apur bat be
dogula eiñda nekezian,
bixok alde banatatik
gogor jardunda lanian,
ordu'genduala artzeko
jai, eta, beñipenian,
aurrerango urtiak eiñ
baketsu atsedenian.

Ta orduantxe iru oker
andriak osasunian;
irurak oso gaiztuak,
ondoren bata bestian,
gure ameseta ederra,
ai, biurtzeko utsian.

1962

GAURKO KOSKIA

Trabauta koskatxo baten
burlagarri naiz agertu;
Ni-Arruak, miñ artu arren,
Ni-Kristauak, ezer galdu!
Jausirik sarri umiak be,
oñez ikasten ei dabe.

EUSEBIO'N INTENZIÑORA (6)

Eutsi guran izan arren,
gerua gitxiago
lagun giñanok Eibar'en.

Atzo bata, bestia gaur,
zutiñok be, txandan amen,
noiz biar ete dogun agur.

Uste barik datorrela
—Denboria beti lapur—
azkena lapur bezela.

Ta gure miñik aundiña,
alkar'kin arras epela,
erri-txokuan eiñ eziña.

B'aizien lau aldietara
astinduta ango bat-eiña,
Urriñetan galdu gara.

Ainbeste urteko ipoiñ,
beterik bai amar otsara,
bakotxak ditugula oiñ,

Kanpora bota biarrian,
ai, itto biar ez bagara,
erbesteko urriñian!

---

(6) Gorrotxategi'tar Eusebio, gizon argixa, zintzua eta onerakua. Biargiñ letz, erremia. Esan biarrik zori argala beria.

ZAITEZ POZIK

Bateronbatek baditu
zuregaitik gaizki esanak;
zaitez, Txindurri, pozik zu,
zure orban eta akats danak
ez jakitziakin, zorionez,
sorgiñ aren ago-ezpanak.
Zure erdixen erdi ez,
eta laurdenan laurdenak
b'ez jakiñian ziraun a,
laburra izango dalako
aren gaizto jarduna,
naiz da zure utsak zenbat-bako
ta aren lupua ez gitxiago

IGNOTUS DEUS

I ——

Batzuentzat Jaungoikua,
asiera bako LELENA;
dana utsera biurtuta
gero be, iraungo dabena.

Uts-una guztia baño
aundixagua milla bidar;
Denborak baño zarraua
Ątzera t'Aurrera ziar.

Gure gaurko Mundu au,
—Betiko Egille bezela—
bitarte txiki bateko
zeregin laua dabela,

Onen aurretiko milla
au bez'la probauta gero,
izango dituanen griñan
guria igaro ezkero.

Oingo au ta Gizaldiak
baño ez dituanetik,
txinparta bat igesixan
Bere suteiko garretik.

Ez dabenak, ziur, iraungo
Aren Denboren Denboran,
egun labur batek beste,
edo keixak beste loran.

Eta zeñek daki, Jaunak,
ez ete dituan batera,
beste milla Universo
guria gandik gañera?

Beste *onda* batzuetan
—*onda* mutuak guretzat—
aidian diran soñuak
letz, transitor bakuentzat.

Bañan antxe dabizenak
beteta armoni' ederrez;
egi geixago ez dabela
oñen azpiko Lurrak b'ez.

Naiz, gauzak ziran antzera
ondiok ez ziranian,
ta ez begi ta ez belarririk
ikusi ta entzunian.

Bi ta bi ziran bezela
lau, Mundu' izan aurretik,
ezda Adimenik aitzeko,
Jaungoikua izan ezik.

II ——

Artara, gure zentzunak
ezagutu algo Mundua, (7)
aletako bat baño ez
beste askon artekua.

Ta Izar eta Galaziak
bat eiñda Kosmos orretan,
ale bakar bat bezela
etenik bako ondartzetan.

Nun Universo mordo pillak
milla modutarakuak;
pentsatzia bakarrik be,
bakarrik al Jaungoikuak.

---

(7) Universo-Mundua.

III ——

Beste batzuk diñuen letz,
doguna aitzen Jaungoikua;
gizonan itz guztiegaz
eziñ esan Zerlakua.

Gure izketako berbak ba,
banan banan beituta be,
artarako, bat bera b'ez
egoki' errenik gabe.

Nundik itxu, ezda nola ekiñ
edo zergaz asi batek;
korputz, neurri t'astunik
ez dabela Ente arek.

Zeñentzat Lena ta Gero
oiñ, oiñgo, oiñgotxe gauzak;
ta Txiki'ta Aundixa uste
gure agoko berba utsak.

Ba, Zeru urdiñ zabalian
naikua ez da lekurik,
goizeko intz tantan baten
jaku ondoren Ososorik.

Danan atal bakotxian
dogula Oso ta Guztiro;
bat izan, ta ez zatika,
Bakar Bakarra Betiro.

IV ——

Bazaraz baña Aren billa
korputzeko begixekin
edo asmautako tresnegaz,
nundik dan gurarik jakiñ,

Beitu ta beitu odein gaiñ
eta Izarrak ziar arutz,
eta alde guztietara
kale beti ta beti uts.

Ta Izar-lañuak atzian
lagata be, juan aurrera,
ta iñundo argiratzen
ez Ordiazko eta ez Bera.

Fisiki' bai ordez, eta
Fisikako indar zarrak;
eta onen Legiak aintzen
Euzki eta Izar ondarrak.

Eta bardin, naiz birundan
Mikrokosmosi'n murgildu:
Protonak zatituta be
ezin guena argitu.

Makrokosmosko Fisika,
Mikrokosmosi'n be nausi;
batian eta ez bestian
ezerk al dabela ausi.

Bat ta Beti berbera,
Asi eta Azkeneraño';
millagro oberik ez dala
millagro auraxe baño.

V ——

Baña amiltza orretatik
jatxitzen baga galdez,
geure mundu pitxiñera,
nun gizajo bat negarrez,

Umezurtz dalako agiri
bateron baten biarrian,
arentzat Jaungoikua
garbi, eta aurre-aurrian.

Beste sakonuna barik
umi'n estuasuna baño,
ta zabaldurik besuak
Aita neria deitzeraño!

Aita ongillia, samurra,
benetan benetakua;
oso maitetsu entzuna,
BERAK BIAR LAKUA!

ZURIXAK ETA BALTZAK (8)

Ara nun ni erbesteko,
amazazpi bat urtian,
auzo naizen jende Zuri
eta jende Baltzen artian.

Eta sarri gertau jata,
batzuk, Zurixak dirala,
aurkitzia nola daben
barruan arima itzala.

Itzala, bai, kedarrian
itxuria agertzeraño';
illunaua Afrika'ko
baltzen azal baltza baño.

Eta Baltz asko, ostera,
narru-gorrixan azixak,
txaboletan, lur gañian,
barrutik, zuri zurixak.

Zurixak euren barruan,
beste zuri zurixenak;
ta Jaungoikuan leixotik
bezin giz zuri urrenak.

Alderik, ba, eitten arek
zuri ta baltzen artian;
barruak ba, ta ez azalak,
dau ardura aren aurrian.

Ta Jaungoikuak alderik
eiten ez daben lekuan,
nola ausartzen da kristaua
aldiak eiten munduan?

---

(8) Little Rock'eko zalaparten kontura eiña.

ZERUKO KATUAN ALDAKUNTZAK

Gure eskolako denboretan,
Zeruko katua umeki
esaten gentzan, geure izketan,
mitxeleta geixan geixari.

Arra, ordez zan, sortzen dana
illdako aragi, zakar eta
abarretan, Ama eulixana,
lotaldi uts bat beteta.

Ta Arra dan letz igoiñgarrixa,
Zeruko au dotoria;
soñian soñeku barrixa
ta oztadartik koloria.

Soñeku au, aldiz uletsua,
orolgi senduagaz eiña,
baleu letz bildur Negua
alperrik Uda agorgiña.

Et'aldiz narruzko leguna,
ostrua bezin berdia;
beste batzuetan pintaduna
lorei artuta pintxuria.

Bere bizi eta jan lekua
zelai, ortu edo baratza;
ta loratedi loratsua
eta zugazti aberatsa.

Eta beiñ badeiñian eldu
Jaunak aindutako neurrira,
asiko da, leku ezkutu
bat nun ete daben begira.

Eule an eiteko, eundu guran,
giranbere soiñ luzian,
estalki bat, nun otzki Udan
eta epel Negu otzian.

Ta oge epel gozuan, antxe
iraungo dau onek illetan
—urte bete bat bezelantxe—
lotan ames ederretan.

Ta bere korputz sorgiñian,
bitarte urte beteko gau a,
berez gertauko dau, artian
mir'garrizko millagrua.

Ba zerenan (9) antzera zana,
Faraon illa da biurtu,
soña estu lotuta dana,
zaiñ zaiñ noiz berriz bistu.

Da esan: Uda barriko Arrate
inguruko diagarren zaiñ,
utzitzeko obia, izate
barri eder bat dabela gaiñ.

Ta biztu janzita urriegaz,
egara euzki ederrian,
mozkorturik ardau gozuegaz
lorarik lora eranian.

Zeruetako mitxeleta alai,
lirixo arteko erregiña:
alde guztietara, nora nai,
nasaitasun t'atsegiña.

Beste ardura barik munduan,
bat eiñ argitan maitetsuak
ta jolas batzun ostekuan,
zorion ospatu ezteguak.

---

(9) Zeren, zeden = gusano.

ZORIMENA

Gauza eder askon artian,
bai gauza ederra benetan,
Larrosak San Juan goizian,
esnaturik intzetan.

Kolore eta usaiñ ederrez,
ta milla orri leguntsuak
artuta itz neurtuen ordez,
Jaunak eiñdako bersuak.

Gizonek iñoiz eiñdako
onenak baño asko obiak;
naiz Jainkuan eten-bako
kantuan al'tako aliak.

Jasotzen Uda-barrixa
ta loi-bako edertasuna;
barru t'agiri garbixa,
lora inen ondasuna.

Zintzotasunan iduri,
neskatillen apaiñ eder;
edo gorri edo zuri,
ez dotoriago ezer.

Baña alperrik larrosak
jatorri bat, ez danena,
negarretan edo pozak,
ideko, ai, zorimena.

Batzuk ba bedinkatuak,
apaiñ urrezko ontzixetan,
on-arturik Jaungoikuak
opa letz bere altaretan,

Esku maitetsu argi batek
eskiñi deixazenian.
¡Zorionekuak larrosa arek
larrosa guztien artian!

Beste batzuek, Zeruak
lagarik larr'tan bertako,
ditu, beiñ eiñda ezteguak
gordetzen azitarako.

Gizaldiak juan da etorri,
beti iraun deixan kastiak;
ta beiñ zartu garanori
jarrai deiguen gaztiak.

Baña ara beste batzuna:
lora ederrak izatiakin,
zorimen ben'tan illuna,
¡salgei ai ba diruakin.

T'ain politak izan arren,
bai egunian egunian,
edozeiñ zatarki zazkarren
bendeko, ostikopian!

ZERGAITIK ?

Gaurkua izandot eguna
gauza onak ikustekua;
zergaitik, beti, ez Jauna
zori au egunerokua?

Kostatzen jatzula bardiñ
eurixa ta euzkixa;
ekaitzak edo goi-urdiñ
eriotzi' ta bizixa?

ZORI ONA ETA ZORI GAIZTUA

Oiñgo euki eta ez euki
—batzuek ezer-ezian
ta beste batzuk larregi
danok bardin biarrian—
nere ustietan, auzixa
oso ez dana erabagitzen,
zerbait jazorik txikixa
da ez aour bat jatxiarren
ditugun gañetikuak.
Ba, biar-biarrekua badau
lautze olako bat munduak
aurrera izan deiñ lau-laua,
ez ziur, lan ori dana.
Zegozer dogu aurretikua
ta gero be izango dana,
Zori on eta Zori gaiztua
banakatutzen danori.
Nola ostian izango da
falta ez izatia sarri
Jauregixan diru'sobra
ta ituna ta negarra;
ta berriz, utsen etxian
barria farra farra
ta jendia olgetan?

OMNIA VANITAS

Mundu on'tako dan danok,
bai zar eta gazte,
jakintsu eta ez-jakiñok,
txiki eta aundi naste,

Danok gara zerbitzen
uskeri'en bati:
—Diru, Aintze edo Izen—
putzezkua garbi.

Diru'ba, iñondako,
ta ostiango guztiak,
gauza bada-ez-badako
engañuz betiak.

Ezer ba iraungo daben,
edo aztuko ez dan
gauz'betikorik amen,
eiñak buztintza ontan.

Ta egixa garbi ezten,
gure arri geixenak,
arrokerixa aretxen
jarraiko ondorenak.

URA JUANDA GERO PRESIA

Ah, jakin baneu gaztetan,
nik gaur dakiran guztia,
edo zar, sasoi onetan,
baneu gaztetako adoria!

Baña, mundu' dan ezkero,
betiko zorigaiztua,
uraldixa juanda gero
presi' eiñ urendakua.

Aukerak be mundu onetan
uraldixa juan ezkerik.
¡Izan banitu gaztetan
dituranak beiñ zarturik!

ZATIXA

Bañan, Aundi eta Txiki,
Mundu bi orren gañera,
amen beste irugarren bat,
ego guztia esatera.

Aundixa beste bai aundi,
Txikixa beste sakona;
zer-ikusi' bixak beste,
daben izena: Gizona!

Ta enparau guztiak baño
auxe geixago dabela:
beti gaiñ naigaberen bat
soñak astuna bezela.

* * *

(Ez dot agiri ezertara, alegiñak einda, onen aurretiko zati bixak.)

HENDAIA'N

Ogei ta iru urte osora,
berriz naiz Euskal-errixan.
Ara Españia ostera
pauso bira agirixan! (10)

Madarikatua betiko
izan deilla ebana asmau,
ibai estu onen erdiko
biar ez zan muga arraixo au!

Baña, milla bidar geixagon
auan madarikatua,
muga orren ostian dagon
Irutxurlari alua. (11)

Beste eutsigarririk gabe
Zori-zoro Aldizkuna (12)
baño, eta auxe ala be:
lapurren alkartasuna.

Odola eta irutxurra,
gozia, loikeri ufala,
estraperli'ta guzurra
giran, lagun dituala.

T'ai, gure aitu-eziñen zorra
arte guztiro bardindu,
Jaunku'n Azote gogorra
ziur, Gaizt'ori izango dogu.

Arik eta alako baten
bera Azotia Jaunak auzi,
eta milla asarre esaten
aiñda ezpal sutara jaurti.

---

(10) En la primera quincena de Agosto de 1936, salí de Eibar para hacer toda la guerra en el Centro, de donde salí por Cataluña, para el exilio.

(11) Lo que se dice el *encanallamiento de las palabras* tiene su contrapartida gramatical, en torpísimas expresiones que pasan al habla común, habiendo perdido su malicia.

(12) La loca Fortuna.

APURRAK

Madarikatuak tabernan
banau ni biztutzen,
zure ezpan'tako ardauak
bitan nau mozkortzen.

Pentsatzen ba-zenduan
ni triste ikustia,
kontu'n ez zendualako
goiko tabernia.

Taberni'eta jokua
ta gañera gonak,
nere senar jatorran
kondiziño onak!

Ez dau dakiran batek
saltzeko andria,
andrian taberna barik,
nola alper bizi a?

Jan da eran zan artian
dana farra farra,
kontua eiterakuan
asarre' ta abarra.

Iltzen naizenerako
eiñ dot testamentu,
nere narru'deixela
zaragi biurtu.

Naiz da Infernuan beste
keia eta orrua,
Aldatzeko tabernan
neretzat Zerua.

Eden'go Ortuan ekinda
ia zenbat guzur Gaiztuak
egixa itxo ezinda!

Kain zan ezkerokuak,
Zenbat Abel odolegaz
ditue loituta eskuak!

Zer dan Filosofixia?
Batek esaten eban letz,
luzetu barriketia
eta iñoiz alkar aitu ez.

Ara amen oian etzinda
gau-lena atzian lagarik
lua ekarri ezinda,
ai, zer dala eta barik.

Ia Hitler'ek zerlako
ondamendi izugarrixak,
t'azkenian, zertarako?

Bost neurtutako oiñ onatan
nozu amen gurarik jarri
Arratetikuen izketan,
nere biotzian zer barri
darabiran Ameriketan.

. . . . . .
. . . . . .

IPOÑAK

(itz-lauz)

KANTERBURY'KO IPOÑA

Sei garren gizaldixan, San Gregorio, Eliz-kantu egillia, Aita Santu izan aurretik, Fraille zala Erroma'ko San Andres komentuan, ikusi zituan uri artako azoka-lekuan, iru mutikotxo ule-ori, begi--urdiñ, azal-zuri, matrail gorrixak salgei, eta mira eiñda euren edertasun argixagatik, jakin gura izan eban nundikuak ete ziran ume arek. Angles'en jentill lurretakuak, urriñian, esan zetsena (13). Eta San Pedro'n jarlekuan jarri zanian Elizaren buru, oroiturik azoka-tokiko iru ume eder arek eta orduan bere barruan artu eban asmua, aindu eban Agustin bere komentuko Abata, berrogei misiolarigaz, Angles'en lurretako jendia kristautzera. Eta onek eldu ziranian Kanterbury'ko urira, ango Errege jentillan aurrera, asi eben beragaz, artu-emon onian, euren zeregiña. Eta uri artan, ondo artuak ziranetik, bertan jaso eben euren etxia, nun gaur Naziño artako Katedral nausiña. Nora eiten ziran eta eiten diran peregriñaziñuak; eta onetariko baten garaitzian, Chaucer, amalaugarren gizaldiko olerkarixak, batian gelditu eta bestian jarrai, jan

---

(13) Angles'ak, Jermania'n ifar-aldeko jendia; gaur Ingalaterra dan lurretara eldu eta an bizitzen jarri zan jendia.

da erana astu gabe, batu zituan *Kanterbury'ko ipoñak* deritzen dan txortia.

Ogei eta bederatzirañok ziran peregriñaziño artako lagun bidez-tiak. Zaldun, Eliztar, Fraille, Monja, Lege-gizon eta abar, txandaka esanaz bakotzak bere ipoña, enpareukuen belarrixetarako.

Barregarien artian, ara amen aletako bat, beste batzuk ba, zazkarregixak gaurko egunerako.

FRALLIAN TXANDAKO IPOÑA

Fralliak bere txandia izan zanian, Erabakitzallien ordezkari edo Aguazillen ikusi-eziñez, kontau eban ipoiñ au, artariko jende okerren gañian.

Beiñ baten zan nere errixan, Lege-gizon bat Erabakitzalle, zi-gor gogorra ebana, sorgiñ, lizunki, lapurti, ereje-usaiñeko kaskill eta ostiango auzikor guztien aurka.

Bere Ordezkari edo Aguazilla ordez zan, burugiña, berekor aixelko gaizto bat, besterik ez lakua kideko guztien artian; beti billa nun eta nori zer atarako, gu izan ezik —ziñuan Fralle ipoiñ-larixak—, Jaungoikuari eskerrak, ez garalako aren eskubidien az-pian, guregaz agintzerik ez dabela ta.

Onetan, batzarrian lagun zan Aguazillak, ebagi zetsan berbia Fralliari, asarre esanaz:

—Bardiñeko fuerua dabe guregandik, jakin deizun, alperrorrek, baita izurrategiko emakume arlotiak be.

—¡Zaitez ixillik, zazkarrori —aindu zetsan ostatu jabiak, zo-rrotz, Aguazill asarriari— entzun al zeixogun Fralliari asitako ipoña!

Fralliak, jaramonik eiñ gabe Aguazillari, bere ipoña jarrairik, ondorean esan eban:

—Diñoten Aguazill oker arek zituan espiatzalliak alde guztietan, uzta obia batzeko gaizto danen laguntasunakin jende gizajuen kontura. Eta espiatzalle aren artian, emakume arlotiak aurren, euren oge-lagunak, biaramonian zer ikusi izan zeixen Ordezkari okerragaz euren lizunkerixia zala eta ez zala agotan artuta, zematurik Auziteira autua eruatiakin, Erabakitzalle zorrotzan aurrera. Baña aren marrukeri guztiak aitatutzera ezkero, urte bixan be eziñ amaitu esanaz zenbat eratakuak ziran.

Eta beiñ, betiko moduan, zaldi gañian billa zoiala, auzo erriko alargun koitau batengana guzurrezko autuakin, aurkitu zan bidian beste zaldun batégaz, guztiz dotore jantzixa au, eta urrezko apaiñak agiri zituala.

—Egun-on deizula, Jauna! —esan zetsan Aguazillak lagun eiñ guran Zaldun jator ezezaguna.

—Egun-on, baita Bedorri be! —erantzun zetsan bestiorrek, bardiñeko lagun eiñ guriakin. Eta itz onen ondoren, Zaldun ezezagunak itandu zetsan lagunki:

—Nora zoiaz, lagun, jakin al bada amendik ziar? Urriñ biar bada?

—Ez urriñ, Jauna, —erantzun zetsan Aguazillak. Nere nausixaren artzeko baten billa urrengo errira.

—Mayordomua al zara ba?

—Bai, Jauna —Aguazillak bere eguneroko opizio apalgarrixa ixildurik eta jasuago agertu naixan ezezagunan aurrian.

—Ara ba, neu be artarikua naiz, baña ez dituraz ezagutzen alde onek eta ondo neri litzaidake zure laguntasuna. Ordez, badituraz nik ondasunak, urria eta zidarra ugari, nere bixitan, iñoiz bazaraz andik.

Ainbestegaz, eiñ ziran aiskide. Juramentuz aindurik alkarri aurrerantzean laguntasuna, anaiak balitzaz bezela bixak; eta jarraitu eben bidia alai, milla barriketatan. Bañan Aguazillak, argi entzun ebana gaitik urria eta zidarran gañian, berekor beti, bitarte baten, eskatu zetsan esan zeixon nun zan bere bizitza, bada-ez-badakoren baten bazen arutz.

Zaldunak erantzun zetsan esanaz, Ifar-aldietan, nun pentsatzen eban noizbaiten alkar ikustia; eta artarako, aldendu baño len, esango zetsala nola eldu ara, ez galtzeko moduan.

Onetara, umore onian bixak, antxiñako lagun zarrak balitzaz bezela, Aguazillak esan zetsan bestiari, aiñ aiskide eiñ ziranetik, erakutsi zeixola ezeren ardura eta kezka barik, zelan atara geixago erebixan opizio urrixan.

Bestiak erantzun zetsan, bardiñ lotsia alde batera itxirik:

—Ori jakin gura badozu, garbi esango detsut nere azpi jan guztia, Uesabagandik zekenan sarixa dot, oso laburra, eta biar doranera luzetzeko nere irabazixa, biar dituraz erabilli milla guzurrezko eta asmautuko aixelkerixa, iñon-pekora neria ontzeko.

—Egixa esatera —Aguazillak gero Zaldunari,— aren kezka bako errazoia entzunaz— bardiñtxamar eiten dot neuk be, eta ezerk neri atzera eraitzen juan-etorri orretan; onetara izan ezik ba, gosiak ill biarko nitzateke, neguan txoritxuak leztxe. Eta aiñbestera eldu garan ezkero bixon artian, esaidazu oiñ zeure izena.

Zaldunak, irribarrez, erantzun zetsan, egi-egixa esango zetsala:

—Ni naiz, jakiñ deizun, ala gura dozunetik, Diabrua, eta nere bizitza Infernua; eta munduan ziar noia eguneroko irabazixan billa.

—Ala Jaungoikua! Eta ni Zalduna ziñalakuan! Izentautako idurixan eta aindutako zeregiñetan zarabize zuek be Infernutik, opizio jakiña dozuela bakotxak? —Aguazillak, ezeren bildurrik agiri gabe.

—Ez lagun; guk, geure eskuan dogu nai deigun idurixagaz munduan agertzia, naiz Aingeru, naiz Errege eta naiz eskeko.

—Eta, naiz Zaldun eta naiz oñezko?

—Nai dogun erara; obeto deixegun itxuran, eizari, jarraixan garan egaztixa obeto arrapatzeko.

—Eta, zergaiti, albidade orregaz, aiñbeste biurri eta zeregiñ artu biar izaten dituzue?

—Errazoi asko gaitik: baña, lagun, eguna laburra da eta orduak aurrera doiaz, eta ondiok ez dot astirik zuri aitu eraitzeko buruan kabitzen ez jatzuna.

Baña ori esan arren Diabruak, alde aurretik gura zetsazen euren arteko gauza batzuk azaldu, naiz jakiñian ixa bera beste zanari ziarduana. Eta onetarako ziñuan, berekautakuetan baliardu letz, baña bestiak entzutzeko moduan:

—Bidian zaraz ba, zeure zeure begixegaz, Virgilio'k eta Dante'k baño obeto gure bizitzako dana ezagutzeko.

—Aiñbeste egixa izatera be, berbako gizona naiz, jakiñ deizun —erantzun zetsan Aguazill izugabiak eta naiz zu Infernuko Nausixa izan, tratua tratu, eta atera deigun guztia, esanda bezela, erdibana.

Eta jardun onetan, jarraitu eben zeroien bidia, eta Aguazilla errira biar zan tokixan, ikusi eben burdi bat, bedarrez gorañok zamatuta, itzaiñ batek zeroiana bide latz apurtutako batetik ziar, takian eta potian lokatzan ardatzerañok ondatzen jakola. Eta:

—Aida! baltza; aida! nafarra —zan orruaz itzaiña milla berba zatar zazkarregaz lagundurik bere orruak.

—Ze arraixo madarikatuk zaitu zulouna orretan katiauta? Diabruak zaitiazela beiñ, bizkarrian artuta eruan danok!

Aguazillak au entzunaz, esan zetsan Zaldunari belarrira, bere sari erdixa buruan ebala:

—Oratixozu berbatik eta artizu zugaz burdi, bedar eta abere, eta or gaurko bixon irabazixa!

—Ez orixe, lagun —erantzun zetsan Diabruak—. Ori ez danetik, balio daben itzaiñ orren barruko intenziñua, beriala ikusiko dogun bezela!

Eta itzaiñak, esanda letz, andik apur batera, apalduta, legunki igurtzixaz abere musturrian, aindu zetsen uztartutakueri, esanaz:

—Ara maitiok; Jaungoikuak bedinkatu zaitiazela, eta gora oiñ ondamendi ortatik...! Eta oiñ eskerrak Jaunari, urten dogunetik zuzenera!

—Ez detsut esan nik? —Zaldunak Aguazillari. Or nola gizonak sarri, gauza bat azaletik esan arren, beste bat barruan bere intenziñua! Guazen aurrera, lagun, amen kale eiñ dogunetik; orregaz ez ba nik eskubiderik!

Eta eldu ziran errira eta Aguazillak esan zetsan Zaldunari:

—Amen bizi da alargun bat, lepua galduko leukiana lamai (14) atara baño lenago; ala ta guzti atarako detsat amabi txamponen kontua, naiz da nik, egixa esatera, ezer aren kontra, bere berezko lege-gizonen bildurra izan ezik, nai doranera ekartzeko. Eta ondiokuan utsian garanetik, ikasizu neregandik.

Eta Aguazillak jo eban ate baten kisketa, deituaz barrukuari:

—Eregizu lege-gizonari, orko sorgiñ arlote zarrorrek!

—Zeiñ da or ate joka? leiotik izuki, andrakume baten otsa. Zer gura dozu, Jauna?

—Amen dakart zuretzat deixa, agertu zaitian bixar Auziteira, nai ez badozu oker aundixagua batu zeure buruari.

—Jesus, Aingeruak, Jaungoikua! Lagun zakiraz guztiok, ezin ba ni juan ara! Gaixorik egon naiz aste guztian eta ezingo nintzake eldu arañok! Ez alda, Jauna, besteren baten bitartez ondu zeregiñ ori, ez doranetik ezer ausi?

—Biar bada bai, andra, baña amabi txanpon kostako jatsu arazua, neuk be ba, bizi biarra dot eta.

—Amabi txampon, Ama Birgiña Dolorietakua! Ez dituraz izan eta ez izango bizixan, naizen andra errugarri onek! Badakizu pobria naizena, eta lausi gabe naizenetik, lagundirazu, Jauna, Jangoikuan izenian!

—Milla demoniok eruan neixela ni, lamai gitxituko baneskizu esandakotik artu biar doran zeregiña!

—Baña ez badot ezertariko auzirik iñogaz, Jauna!

—Zuk ordaidirazu esandakua edo bestela eruango zaitut Auziteira, Erabakitzalle zorrotzan aurrera arazu aundixagorako, senarra akertu zenduaneko autua argiratziakin.

—Guzurra ori, eta milla bidar guzurra esan dozun ori! —alargun koitauan orrua. Ez naiz ni bizixan Auziteirako bidietan, ez

---

(14) *Lamai*, xoxa, xoxik.

gei nintzala neskatilla zintzua, ez ezkonduta, senarra nebala, eta ez alargun naizela, beti emakume garbixa izatiakin. Diabruak eruan zaitiazela beiñ Infernuko galdarara, antxe bizirik egosteko, gaiztuori, ez dozu ba besterik merezi!

—Naidozuna, andra —ardura bako Aguazillak ataira barrutik urtenaz— atara dot ba nik nere arazua gaurkuagaitik gure sukaldeko ontzixen kontura, eta urrengora arte, agur andra!

Zaldunak orduan jarri zetsan eskua sorbaldan eta esan zetsan Aguazillari:

—Ez zaitez asarratu, lagun; baña zure soña eta ontzitadi ori, alargunan barru barrutiko esanetik neriak dituraz, nere gaurko arazuan saritzat. Zatoz ba neregaz, gure bizitzan zure kidekuak diran tokira!

Eta Diabruak eruan eban Aguazilla Infernuan bere kidekuengana, nun, esan zetsazen urre eta zidar ugarixak, ez dira tormenturako baño.

(Urrengo ipoña, Aguazillana Frallian aurka,
baña zazkarregixa gaurko egunerako)

Don Juan Manuel Infantia, San Fernando Erregian illobia, amalau garren gizaldixan, CONDE LUCANOR deritzen dan ipoiñ liburua idatzi ebana. Eta ara amen, liburu artako aletako bi.

SOÑEKU GAI IKUSGARRIXA

Beiñ baten eldu ziran Erregian Jauregira iru zirilari, ez kaikuak eurak eta bai argixak, esaten zirala euliak iñun ez bezelakuak, urriñeko Erbeste baten eiñda euren ikasi-legia. Beste albidade batzun artian, ziñuen ba ekixela zapi bat ataratzen, aiñ fiña, aiñ

miragarrixa eze, bere aitatakuan semia zuzen ez zanak, eziñ ikusi a geixa, sasikume agerturik.

Biarreku'eta onerakua eritxi zetsan Erregiak albidade oni, zapi aren bitartez jakingo ebala ta, seiñ zan eta ez zan sasikumia, eta noiz gurasuen ondasunak juaten ziran jatorrikuengana.

Eta asmu onetan, pozak, gertau zetsen Jauregixan iru zirilarixeri euntei aukerakua, nun eunduko eben zapi miragarrixori. Euren aldetik, esan eben giltzpian izango zirala zapixa amaitu arte, eta ainbeste ondo esategaz, itxuago Erregia, aindu eban artetzu oneri aurreratutzia biar eben urre, zidar eta ziriko guztia, aindutako zapi miragarrixa ataratzeko.

Urrengo egunetik, itxi atia giltzakin eta jarri ziran eularixok alperrian, arutz eta onutz lantzadera egun guztian, burua jaso barik, erreme euren lanian. Egun batzuetara, gordetzallien baimenagaz, juan zan bata Erregiagana aitzen emotera bazoiala zapixa zati bat agertzen, eta biar ebela jakin zer eristen zetsan, apaintzat zeroiazen lora eta kolorieri; baña ikusi gura ba'eban lan-eiña, juan zeilla lanteira bakar bakarrik.

Gustora aitu eban Erregiak errekaua, baña, bada ez bada be, aindu eban aurretik bere zerbitzari bat. Onek entzunda eukala gauzia, ezer ikusi ez arren eunliak eiten eben lana guzurrezko alperrian, itxuli zan esaten, zer ederra zan ataratzen ziarduen zapixa, ez zeiñ agertu sasikumia. Onen jarraixan bialdu eban beste bat eta beste batzuk, eta danak itxuli ziran lenenguan guzurrakin, bardiñeko bildurra gorderik barruan.

Onen ondoren, juan zan bera Erregia, eta lanteixan sartuaz, ikusi zituan iru eunliak jo-ta-ke euren zeregiñian, esaten zetsen artian kolore, lora eta iduri bakotxan agirixa; eta ezer ez ikustiakin Erregiak, ill biar zan estuasunez, pentsaurik ez ebala aitatzat euki eben Erregia, eta erregetzea laga biarko ebala zuzenekuari. Baña obeto kontuak atarata, arrituko balitz letz asi zan eiten zapixan edertasunagaz eta milla jasotasun atariaz agotik aren kontura, danak entzun zeixen; ala be etxera itxuli zanian, sartu jakon kezkia eskutau gurarik guztieri.

Eta bialdu eban jarraixan Aguazilla eta au be, zapirik ikusi ez arren, bardiñeko kezkiagaz, itxuli zan mira eiñda balitz letz sapixan edertasuna jasotzen. Eta beste ainbeste ziñuan, Erregian

estuasun aundixagorako, eunteira bialdu eban bakotzak gauza bera ziñuanez.

Jai-egun aundi bat urreratu zan artean, eta danak Jauregixan asi ziran esaten Erregiari, aiñdu zeixala soñeko barrixa eitia zapi eder aregaz.

Jarri zan asmu onetara Erregia, eta eunliak ekarri zetsen zapi ikusgarrixori izara zuri baten tolostuta; eta jostunak artu zetsezen neurrixak eta eiñ eben ebagiko balebe bezela gei ederra, eta aldiak josiko balitue letz, soñeko barrixa ataratzeko.

Eta Jai-egun aundixa etorri zanian, iru artetsuak jantzi eben Erregia, oiñetatik burura soñeku barrixorregaz, eta ala pentsatzen zan dotore, naiz da gizajuak ikusi sapirik eta ez zeroiana ezer gañian.

Eta dotore zalakuan, aindu zan errixan kale-gira bat eitera bere Zaldun eta Zerbitzalliegaz, oitutzen zan modura. Auzokuak be, jakiñian soñekua ez ba'eben ikusten aitatzakuen semiak ez zirala, jarraitzen eben bestiena, eta ez zan iñor ausartutzen egixan esatera.

Baña Moro baltz batek, Erregian zaldixan zoianak, zer galdurik ez eukanetik, esan zetsan Erregiari:

—Jauna, neri ardura es destanetik zeñen semia naizen, esaten detsut, seguru nagola gorri zoiazena.

Erregiak ez eban ondo artu moruak ziñuana eta asarre eiñ zetsan; baña beste batzuen belarrira eldu zanetik moruan esana, bildurra alde batera lagarik, juan ziran banan banan, guztiak, beste ainbeste esaten, kontuan jausi ziran arte danak, iru eunle arlotiak sartu eben zirixa, sasikume agertzian bildurragaz.

Eta ariñ juan ziran aren ondoren zigorragaz ondo berotzeko asmuan; baña arek, ariñago aldenduta ziran zapixa euntzeko zituen urre, zidar eta ostiango geixak lepora artuta. Beste aiñbeste eiteko beste lekuren baten, gizona, ba, beti eta alde guztietan, bardiñeko siniskorra.

FERIXARA BIDIAN

Baserriko gizon ondrau batek seme argixa eta entzun onekua eban, zeñi erakutsi guran zan Aita, jendian esaneri larregi beitu gabe, nola biar dan munduan ibilli.

Auzoko erri baten eiten zan, illian beiñ, azkenengo zapatuan, ferixa aundixa; eta ferixia zan baten, aitak esan zetsan semiari, ferixara juan biarra ebela, baserri lanetarako biar zituen gauza asko erostera.

Atara eben zaldixa erositako gauzak etxera ekartzeko itxulitzerakuan, eta aindu ziran bixak, aita eta seme, auzoko ferixa errirutz ipoñetan.

Eta ferixatik onutz ziran batzugaz aurkitu ziranian bidian, egun onak alkarri emonaz, aitu eben aita semiok, nola arek esaten eben aldetzerakuan, ez zala ondo eiña, zaldixa utsik eta kristauak oñez juatia.

Au entzun ebenetik, ondo eritxita ziñuenari, jarri zan semia zaldi gañian eta arro zoian burua jasota.

Apur batera, aurkitu ziran beste bidazti batzuen, eta onek ziñuen euren artian, ez zala ondo eiña, gaztia zaldi gañian eta gizon zarra, nekaturik zituan urtiegaz, oñez juatia.

Eta kezkatuta semia arek esanakin, jatxi zan zaldi gañetik eta aita jasorik zaldixan bizkarrera, aindu zan oñez.

Aurreratxuago, beste bideko batzuk, ikusirik semia oñez, esan eben ez zala ondo, aita gogorra zaldi gañian eta seme gizajua oñez.

Eta onen esanak ikara erainda, igo eban semiorrek be zaldigañera.

Eta onetara zoiazela bixak, semiak aitari gerritik oratuta, aurkitu ziran ferixatik zetorzen batzuk, eta onek aberean errukiz, esan eben ez zala ondo gizakume bi, zaldi argalan gañian juatia.

Aitak orduan, ikusi eta entzun eben guztian agirixan, esan zetsan semiari, nola ez zan munduan jendiak kakurik atarako ez zetsan gauzarik, eta ez egiñik onetara edo artara, jarduna mereziko ez ebanik; eta bere erabagixak bizi modurako izan zeitian ondo pentsauak, aurrera eruan zeuxazela beti iñon esan eta jarduneri beitu barik.

EL LIBRO DE LOS EXENPLOS

EL LIBRO DE LOS EXENPLOS deritzen dan liburua, amabost garrenengo gizaldixan idatzia, eta lauregun bat ipoñen kontua azaletik azkenengo orrira. Amen euskerara aldatuta atalxo bi.

I

Prudentes consilium simplicibus prodest.

Beiñ baten, gizon aberats zeken bat, zoiala bere zeregiñetara bizi zan Urian, zorru baten zoiazen milla urrezko diru eta urrezko suga iduriko pitxi apaiñ eder bat, arri-fiñak begi ordez. Eta bidian, nola barik, ziur burua juanen baten, galdu eban zorruori, eta billau eban aiñ zuzen, gizon uts, apal batek, zeiñ juan zan ariñ etxera emaztiagana, esanaz nola billau eban eskuetara zetsan urre mordua.

Emaztiak, pozak zoratu biarrian, ziñuan senarrari:

—Gorde deigun zorruori, Jaungoikuak emona dogu ta.

Baña urrengo egunian, pregoi-deikarixa igaro zan euren kaletik, aitzen emoten auzueri, ondasun aura billau ebanak, itxulitzekotan zuzen, sari letz, egun urrezko diru izango zituala beretzat, pekatuan keriza barik.

Billatzalliak, au entzunaz, esan zetsan emaztiari:

—Itxuli deigun billautakua, arimian baketan, izango ditugu ba egun urrezko diru saritzat.

Baña emaztian eritxixa ez zan artara:

—Jaungoikuak gura izan baleu ondasun au jabiantzat ez eban galduko zorrua; eta gorde deigun ardura barik geuk, Jaungoikuak zuzendu dabenetik guregana.

Onetara, batak bai eta bestiak ez, erabilli eben luzeroko jarduna; baña senarrak, gura edo ezgura emaztiak, itxuli zetsan jabiari bere zorrua, aindutako egun urrezko diruen kontura.

Baña jabe aberatsa zeken gaizto bat zanetik, aindutako sarixa ukatzeko, zorruko gauzak kontauaz, esan zetsan billatzalliari, bigarren urrezko suga-idurixa ez zala agiri itxulitako zorruan.

Billatzalliak, egixa zan letz, ziñuan baten eta milla bidar, zorruan zala ososorik billau eban guztia, eta aberats zekenak bere aldetik eusten zetsan bere guzurrari, pobriari ikusi-eziña zetsen auzoko batzuen laguntasunakin.

Eta jo eben auzixetara, eta Erregiak jakiñ ebanian arek eben autua, gura izan eban berak entzun bixeri eta erabagixa emotia.

Eta jakitun bardiñ bat, pobrian alde jarririk, esan zetsan oni berak lagunduko zetsala.

—Bai, Jauna, —esan zetsan pobriak— Jaungoikua, dana dakixana dot ba testigu, guztia zuzen itxuli detsarana jabiari.

Eta pobrian alderako jakituna, juan zan Erregiagana, eta esan zetsan:

—Jauna erabagi zuzen bat gura badozu auzi onetan, neuk argituko detsut gauzia.

—Gert naiz zure eritxixa entzutzeko —erantzun zetsan Erregiak— eta jarraitixozu autuari.

Jakitunak, baimen onegaz, alde bixan aurrian zirala, esan eban:

—Gizon aberats au, egizko gizona danetik danon ustian, ez da pentsatzekua eskatuko leukianik galdutako gauzia baño; eta bestekaldetik, pobre onek ez dau itxulitzen billau dabena baño, ba, ezer gordetzekotan, jakiña da guztia gordeko ebana, aukeran ebalako.

Au entzunaz Erregiak esan zetsan Jakitunari:

—Eta gauzak orretara dirala, zer litzake zure erabagixa?

—Nere erabagiza —erantzun zetsan Jakitunak— auxe: zorruko milla diruetatik emotia egun urrezko pobriari billa-sari letz; eta beste guztia Bedorrek gordetzia jabia agertu deiñ arte. Aberatsak,

bere aldetik, jo deixala pregoia urrezko suga-iduri bi dituan zorruan eske, agertu ez danetik beria bere agirixan araura.

Erregiak egokixa ta bardiña aurkitu eban Jakitunan eritxi au, eta baita aurrian ziran begiratzalliak be.

Onetan, estutu zan Aberats guzurtixa dana galdu biar ete eban, eta parka eskatuaz, azaldu eban egi guztia.

Eta Erregian aindutik, Pobriak artu zituan egun urrezko diru, zergaz ondo izateko laiñ betiko; eta Aberats zekenak ostiangua, gura ez eban utsuniakin, baña ez lotsari aundi bat gabe.

II

Fabulator excusat a taedio et labore.

Beiñgo Errege batek eukan, beste laguntzalle askon artian, gizon burutsu bat, ogerakuan esaten zetsazena lau edo bost ipoiñ, Errege Jauna luak artu arte.

Eta gau baten, aura luak artu ezinda, eskatzen zetsan arek kontu baten ondoren beste bat, gertau eban aldixa agortu arte. Ala ta guzti, Erregiak gau artan gura eban jarraitu zeixan ipoiñlarixak bere zeregiña, baña onek erantzun zetsan, esanda zituala kontua baño geixago.

—Bai baña Erregiak ziñuan lua ekarri ezinda, danak izan dira laburrak eta biar baño ariñaguak, eta gura neuke bat luzia, ez amaitzekua luak artu baño len.

Ipoiñlarixak, Erregian esanera apaldurik, asi eban luziori berba onegaz:

Baserritar batek eukazen aukeran milla ogorloko, eta juan zan ferixara, eta ferixan erosi zituan bi milla ardi, bakotxa amar errialian, au tratu ona zanetik. Eta artu ebanian bidia etxeruntz, aur-

kotu zan igaro biar eban ibaixak ufal undixa zeroiala, zubixak artuta eta ur-azalik ez ebala iñundik.

Eta begira nundik igaro algo ete eban ibai zabala, ikusi eban ertz baten txalupa koskor bat. Eta besterik ezian, sartu zituan txalupan ardi bi, estu alziranak artu arutz bakotxian, eta arraunketan gogor eiñaz, igaro zituan bestekaldera.

Eta onetan, ipoiñlarixa luak artu eban... Erregiak esnatu eban, aiñdurik jarraitu zeixala ekindako ipoña, eta onek, begixak zabaldurik, erantzun zetsan esanaz:

Ibaixa asixa dator, txalupia txatxarra da eta ardixak bi milla; laga deixogun ba baserritar gizajuari, bere artalde aundixa igaro deixan ertz batetik bestera, amaitu al deiran asitako ipoña.

Eta onetara juan zan Erregiak eskatutako ipoiñ Iuzia.

KALILA ETA DIMNA, Sort'aldietako ipoñak, Kastillako erderara amairu garren gizaldixan itxulitakuak. Ara amen aietako batzuk.

FRALLIA ETA IRU LAPUR

Fralle batek, beiñ baten, erosi eban auntz eder bat, komentuko jai aundi bat ospatzeko asmuan. Eta arroki zeroian ugal betekin lotura bere jarraixan, txakurra balitza letz.

Eta ikusirik iru lapurrek Frallian opa ederra, eiñ eben kontua euren artian, zelan ostuko ete zetsen auntzori gizajuari. Eta aurria artu eta jarri ziran bidazti Fralliak zeroian bidian, alditxo bat zala batagandik bestiagana.

Eta lelenguak aurkitu ebanian Frallia, egun-onean ondotik, esan zetsan:

—Txakur ederra daroiazu, saldu gurako lestaki zu?

Fralliak mira eiñ arren bidaztiak esan zetsanetik, jaramonik eiñ barik juan zan aurrera.

Andik apur batera, bigarren lapurrak topau ebanian Frallia, esan zetsan onetara:

—Eiztari al zoiaz txakur eder orregaz?

Irugarrenak be, bat eiñ ebanian Fralliagaz, asan zetsan iiribarrez:

—Badaroiazu abitua fralliana, baña ez zara zu komentukua, ez ba fralliak txakurrik laguntzat.

Eta entzunaz iru bidaztieri txakurra aitatzen ebela, zeroian auntzan ordez, kezkaz beterik bildurtu an, Infarnuko sorgin kerizaren bat sartu ete zetsan saltzalliak.

Eta pentsatzen eban bere artian:

—Ez ete desta neri zirixa sartu ferixako arraixo arek diabruan bitartez, txakurra auntzan idurixan ikusi erainda neri?

Eta ugala eskatzeko astirik gabe, auntz edo txakur, amaiñ emon friztixiari eta aldendu zan arinka komenturutz.

Orduan, lapurrak, ezkututik begira zirala, arrapau eben auntzori eta eiñ zituen parriak Frallian kezken kontura.

DENDARI ZARRA ETA EMAZTE GAZTIA

Dendari oso aberats bat, dirugiñan zartuta gero bere denda zulotik iñoiz urten gabe, ezkondu ei zan emakume gazte eder bategaz, zeiñ gura eban biotz biotzetik, bere dirueri baño be geixago. Baña emazte gaztiak, zintzua izan arren eta esker onekua, ezin berotu ari oia, eta beste oge baten eiten ei eban lo, bakarrian, bere pentsamentuegaz.

Eta onetara bizi zirala, gau baten lapurra sartu ei zan Jauregixan, senarra lo eta emaztia esna zirala. Eta au, emakumia eta beréz izukia, aiñ bildurtu ei zan ikusirik lapurrori gelan, kutxa eta armaixo guztietan billa zeri oratu, jaiki eta salto baten eldu ei zan senarran ogera, eta jasuaz estalkixak sartu ei zan izarapian eta estutuaz senarragana, besakartzen ei eban laguntasuna gurarik.

Esnatu ei zan onetan senarra, eta aiñbesteko berotasuna ikusirik emastian aldetik, mira eiñda eta zoratu biarrian pozak, galdetzen ei zan Zeruari, zergaitik aiñbesteko zoriona berak.

Eta ikusirik lapurra, konturatuta zergaitik emaztian egazkadia, esan ei zetsan alaiki lapurretan ebillenari:

Aurkitu zeiken guztia zeuretzat, artizu eta eruaizu baketan, munduan izan doran zorionik onena zor detsuralako.

AROTZAN EMAZTE MAITIA

Arotz batek eukan emaztia benetan maite ebana. Baña zerbait ariña au eta gazte mardo bat agertu jakonian ondorian, beriala izan ziran aiskide. Eta aiskide zirala, konturaturik auzuak erebixen pekatua, laster eldu zan ipoiñori senarran belarrixetara.

Eta onek garbi jakin gurarik emaztian esaten eben irutxurran gora-beria, esan zetsan oni:

—Andra, auzoko erri batera juan biarrian naiz, ango aberats baten lurretan nekazari aldi baten eitera, ia zerbait aurreratzen doran. Egun batzuetan ba, aldendua izango naiz eta oiñ gertairazu biderako jan-lege apur bat.

Poztu zan emaztia barri onegaz eta gertau zetsan biderako janarixa. Beiñ illuntzia, agurtu ziran alkar, senarrak emaztiari esanaz:

—Itxizu ondo atia bakarrik gelditzen zaranetik, eta ondo zaindirazu etxia itxuli neiñ arte.

Eta juan zan senarra eta gelditu zan emaztia begira a ezkutau zan arte urriñian. Baña bidaztiak, ezkutatziaz bat, eiñ eban gira bere oñen gañian, eta itxuli zan etxeruntz, nora sartu zan atzeko atetik. Beiñ etxian, ezkutau zan oge azpixan.

Emaztiak, bere aldetik, ainduta eukan errekaua aiskidiari, eta au eldu zan senarran ordiak eiteko. Eta jan eta eran ondo eiñda gero, ogeratu ziran alkarregaz.

Azpixan zaintzalle zana, bere izate onan obraz, luak artu eban, eta zer eitan eban ez zekixala, atara eban anka bata agirira.

Ikusi eban emazte ariñak azpikozaintzallian ankia, eta konturaturik zeñena izango zan, estutu zan; baña argixa zanetik, aitzen emon zetsan oge-lagunari nola urten biarko eben estuasun artatik.

Eta oge-lagunak, aren ixillekuak jarraituaz, esaten zetsan orruaz pekatarixari, baten, bitan eta geixagotan, zeiñ eban maitiago, senarra ala bera.

Emaztiak, ziur, oge-azpikua esnatuko zana ordezkuan orruegaz, erantzun zetsan azkenian, asarre balita letz:

—Zeñek aindu detsu zuri ainbesteko galde ausarkixa eiteko neri? Erantzutzera ezkero ba, gura ez dozuna entzun biarko dozu zazkarrorrek!

Aiskidiak gero:

—Detsuran legia gaitik, berri detsut erregutzen, esan deirazula beiñ, zeiñ dozun maitiago, senarra ala ni!

Senarra zan ezkutuan, zer erantzungo ete zetsan emaztiak entzun gurarik ixil ixillian.

Emaztiak, bere txantxetako asarria berotuaz, esan eban aiskidiandako balitza letz baña benetan azpiko zaintzalliandako:

—Andrazkuok, jakizu, lagun, ez dogu aiskiderik onartzen ez euren jatorre, ez aundikeri eta ez edertasuna gaitik. Eta beiñ geure utsa denborako zoro usaiña betetzen dogunetik, ez zaitugu geixago ezertarako. Senarra, berriz, betiko aita balitza letz degu, eta batera, seme eta anai bezela; bardin dogula maite era guztietara.

Eta errugarrixa bere bizixa baño geixago senarra maite ez daben emaztia!

Eta senarrak, oge-azpixan ainbeste on entzutziakin, aiñ samurtasun aundixa sartu jakon biotzian eze ez eban urten bere ezkutalekutik urrengo egunian Aiskidiak alde eiñ eban arte.

Au juan zanian, urten eban oge azpitik, iñok sumatu ez baleu bezela, eta aurkitu eban emaztia lotan, aingeru bat zidurixala. Eta asi zan laztantzen eta lauskitzen legunki, eta esnatu zanian, esan zetsan bigun bigun:

—Lo eizu maitiorrek, ba asko nekatu zaitue bart. Eta izan ez balitza ez mintziarren zeu, ilgo neban indarka erabilli zaituan zazkarra!

HEPTAMERON. VI nobela

HEPTAMERON, Margarita, Nafarruako erregiñan liburutik artutakua, oiñ doian au.

SENAR BEGI-BAKARRA ETA EMAZTE ARIÑA (15)

Alenzon'go Dukia'k (Margarita'n lenengo senarra) eban zerbitzari bat begi-bakarra ordu gaizto bat ezkero. Baña naiz da akats au arpegixan eta urtiak aurrera, ezkondu zan emakume gazte ederragaz. Eta Dukiak eta Dukesiak gura ebenetik, zerbitzari au, bere kidekuen artian geixen, sarri eban onek etxetik uts eiñ biarra Jauregixan, emaztiak alperrik oia berotzen zetsala.

---

(15) *Heptameron*-en lehen parteko VI. nobela da hau.

Eta au izan zan okasiñua, andrakume ariñak begixa joteko bere sasoiko gazte bati; zeñegaz ederto konpontzen zan beiñ alkar aitu ziranetik. Baña ez zan izan au ixilleko ipoña; auzuak bat, konturatu ziran erebixen tratuagaz eta zurrumurrua eldu zan senarran belarrixetara.

Eta sinistiak lanak euki arren senarrantzat zori oneko emaztiak aiñ ondo artzen ebanetik, aiñbeste legunkerixa eta gozamenekin, pentsau eban probia eitia, erabagitzeko zalantza mingarri au edo mendakatu merezi letz egi agertzen bazan zurrumurru lotsagarrixa.

Onetarako aitzen emon zetsan emaztiari, egun batzuetarako kanpora, aldendu biarra ebala Dukian mandatu bategaz. Eta beiñ illuntzia urtentziaz bat senarra guzurrezko juan-biarrera, emaztiak deitu zetsan betiko bidetik Aiskidiari, sekulako jolasetarako.

Baña ordu erdi baño len, or nun uste barik ate-joka zan bateronbat ataixan. Ezaguna eban emaztiak senarran ate-jokeria, eta zeiñ zan jakiñaz artara, estutu zan Aiskidia laga biarko ete eban narrua; baña ez ala emaztia, zeñek aindu zetsan lagunari jantzi eta itxaiñ zeixala nasai baztar illun baten.

Artian, ateko deixa zan geruago ta gogorragua, eta emaztiak, ezagutuko ez baleu bezela deika zanori, esaten zetsan kanpokuari:

—Zeiñ da orrelako zaratia darabixana? Ordua alda au baketango etxian deitzeko aiñbeste kanpaikin? Nere senarra etxetik balitza, ez zenduke bizkarreko berotu makala eruango!

Senarrak, entzunaz emaztian orruak, ziñuan bere aldetik orrua aundixauegaz:

—Zabaldirazu, andra, atiori! Egun-sentirañok biar al nozu ataixan, madarikatuorrek!

Pekatarixak ikusi ebanian Aiskidia jantzi eta gertau zala urtetzeko aukeria emon zeixonian, zabaldu eban atia eta asi zan esanaz senarrari besarkatuaz.

—Aufa! Zer alaitasun neria! Pozarren zure itxulitziakin! Ames zoragarrixa nerebixan zure zaratak esnatu nabenian! Pentsatzen neban begi galdutik oiñ ikusten dozula!

Eta au esanaz, estaldutzen zetsan ona, probatzeko begi galduak ikusten ete eban, amesetan pentsau eban bezela; eta begitxuan eban artian senarra, emon zetsan Aiskidiari naikua asti urte zeixan akerra konturatu barik.

Baña ez zan ala izan, albidade guztiak alperrik; eta senarrak emaztiari esan zetsan, zorrotz:

—Ez andra, ez nozu geixago zelatan erabilliko! Zu arrapau gurarik, neu arrapau nozu! Jaungoikuak lagundu deizula obia izaten! Ez ba munduan andrakumian burugintzak azalduko dituanik. Eta nere ondo artze guztiak alperrikuak izan diranetik zuretako, biar bada aintzakotzat ez artziak aurreran, obeto erakutsiko detsu.

Eta laga eban bizi alargun, negar eta illeta aundixetan, nai ebanera joteko. Baña, batera eta bestera, lagunen bitxartez, guztiro garbatu zanetik pekatarixa, aurrera leixala izatekotan, alkartu ziran gero, eta baketan bizi izan ziran andik aurrera, ill arte.

Frai Anselmo de Turmeda, katalana, amabost garren gizaldixan, biurri askoko bizitza eruan eban fralle ipoiñlarixa. Amen bere aletako bi.

JAN-TXAKUR BI (16)

Fralle sermoilari bat, Tarragona'ko lurretan Cambrills deritzen dan erritik etxeruntz zoiala, Gabonetako sermoia eiten izanda gero, aurkitu zan San Franzisko'n kideko Fralle bigaz, eta egun onak emotian ondoren, itandu zetsen areri ia nora zoiazen.

---

(16) *Jan-txakur*, *gorrón*, *parásito*, Eibar-en erabiltzen dan argotian.

Eurak Tortosa'ra, eta, ordiaz, euren aldetik gura izan eben jakiñ, zelan artu eban erri artako Retoriak Gabonetan.

Sermoilarixak ez eban gorde egixa, eta esan zetsen, ago ertzetik adurra darixola:

—Obeto eziñ. Sinistiak be lanak ditu; ango arkume erriak, ango aragi gixauak, era batera eta bestera saltsa txukunekin; ardau gorri, galeper, usakume, pipar eta abar, uste antxe zala antxiñako Paradisua. Eta atzo erosi eban aurrerako, sei librarañok itxas--aingiria, eta entzun netsan aintzen Kataliñ, bere neskamiari, gertau zeixala labarako pastel bat arraiñ aregaz. Ontara, ariñ bazabiz, bazkari ederra arrapau zeikizue eguardirako eltzekotan ara.

Ez eban Sermoilarixak guzti au esan belarri-gor biri; ba entzutziaz bat, jaso zituen abitu barrenak eta asi ziran ariñka erriratz, Retoriarena, bazkari ederran asmuan.

Kataliñ, Retorian neskamiak, ikusi-eziñ aundixa eban Frallien aurka, onek ez ebelako ondo ikusten, Retoria emakumiagaz bizi izatia. Eta beti aren kezkiagaz, esan zetsan Retore Jaunari:

—Bazkaldu deigun, jan-txakurren bat agertu baño len.

Retoriak aiñbeste bildur ez eukanetik, esan zetsan:

—Zer jan-txakur agertu laike ona egun onetan?

—Fralle alperren bat, gertau doran pastel ederran usaiñ gozuak tiratuta.

—Ala bada, bazkaldu deigun Jaungoikuan izenian, eta kito.

Eta aindu ziran maira, eta jartiaz bat, or nun gure Fralle bixak ate joka ataixan. Kataliñ'ek beitu eban giltz zulotik eta ikusirik Fralle bi zirana, itxuli zan ondoezik lurra jo biarrian.

—Zer da? Itandu zetsan Retoriak, artara ikusirik neskamia.

—Egixa esakeriana —Retoriak—, bildur daben gaitzak illtzen dau gizona?

—Ez ba, Jaungoikoan eriotziagaitik! —Kataliñ'ek eiñdako pastel ederretik ez dabe jango fralle orrek.

Eta gorde eban ezkutuan pastelan erretillua eta juan zan atia eregitzera.

Sartu ziran fralliok egun onak emonaz eta Retoriak esan zetsen:

—Asko poztutzen nau, aiñ egoki bazkaitarako zuek eldutziak; baña ez dot aukeran gauza aundirik mairako, sardiña zar batzuk izan ezik.

—Jauna —erantzun zetsan bixetatik ausarkixenak— zure borondate ona, janari-on ugari guztien beste estimatzen dogu.

Berba onen artu-emonan ondoren, jarri ziran danak maira eta neskamiak ekarri zituan sukaldetik, azpillakada sardiñia bakotxantzat.

Bedinkatu eta asi ziran ortzak lanian, eta onetan Fralle ausarkixenak, apur bat janda gero, ebagi zetsan burua bere sardiña bati eta eruan eban belarrira, zegozer aitu biar balezkixo bezela arraiñari, eta gero ekarririk aurrera, eiñ zetsan, guztiak aitzeko moduan, bere erantzuna, esanaz:

—Ez dot uste egixa izan lekianik zuk diñozuna!

Retoria eta Kataliñ mira eiñda zegozen Fralliak ziarduanakin. Eta beste apur bat jan, eta jarraixan, eiñ eban beste aiñbeste, sardiña burua eruanaz belarrira eta gero erantzunaz ari:

—Sardiña txaplatiori! Ez dot sinisten diñozuna, ez ba Retoria zekenkerixa ori eiteko gizona!

Andrazkua nola dan beti dana jakiñ biarreko sorgiña, Kataliñek eiñ zetsan kiñu Retoriari, eskatu zeixon Fralliari, azaltzia zer demonio erebixan arrañakingo jardunian. Fralliak ez baleu azaltzerik gura bezela, arekin erebixana, ezetzian egon zan luzaro, baña azkenian, Retorian erreguetara apaldurik, esan zetsan:

—Jauna, nik argituko dot sardiñiagaz erabilli doran autua guztiro, baña zuk ez ukatzekotan egixa izatera arek diñuana.

Retoriak aindu eban baiez juramentuz, eta Fralliak orduan esan eban onetara:

—Retore Jauna! nik itandu detsarana sardiñiari izanda, zeiñ dan itxasuan arrañik aundiña eta gizenena; eta erantzun destana da, uretatik kanpora denbora asko daroiala gatzetan, eta astu jakola gauzia; baña ezkutuan dozun itxas aingiriak, freskua danetik, uretatik atara dabela egun bi be ez diranez jakin laikiala ondo gauzia.

Au entzunaz, asi zan barre algaraz Retoria eta, esan eban, maixa ikubillakin apurtu biarrian:

—Bai demoniua! Egixa sardiñiak ziñuana! Eta aindu zetsan Kataliñ'i, eruan zeixazela aurretik sardiña zarrok, eta ekarri zeixala itxas-aingiria, laban apainduta eukan bezela.

Eta onetara lortu eben Fralliok gura eben bazkari ederra.

ALKAR IKUSI-EZIÑAN SARIXA

Tarragona'ko lurretan da erri bat, Falset deritzen dana, nun Prades kondia zan Jaun.

Gabon batzuetan izan ziran erri artan Fralle bi sermoigintzarako, bata San Franzisko'n kidekua eta bestia dominikanua.

Jaixak amaitu ziranian, Kondiak, bere eta auzo guztian izenian, eskerrak emonaz esan zetsen Fralle bixeri:

—Zuen sermoi gozo jakintsuegaz, guztiok izan dogun atsegiñ aundixan ordez, eskatuzeikirazue gura dozuena, gert naiz ba zuen eskia, guztiz betetzeko, bada-ez-bada barik. Baña eskartzalle izan deilla lenengo dominikua, eta urrengo franziskanua.

Dominikuak, au entzunaz, esan eban bere artian; izurrauta ni oiñguan, ba ni lenen eskatzalle izatera, bestiorrek eskatuko dau geixago, eta ori neretzat eriotzia beste izango da, azpitik geldi-tzerakuan. Baña, badakit nola irabazixa nere alde ziurtu. Eta esan zetsan Kondiari:

—Jauna, nere eskia eiñgo dot lenen, baña oiñtxe bertan eta itxulirik ezda, baietza eske ari aintzekotan.

Kondiak aindu zetsan danari baietz, eta dominikuak, onen agirixan, esan eban bere eskia itz onegaz:

—Eskatzen detsut, Jauna, nere lagun orrek eskatu deixana, doblauta edo bi aldiz geituta nere alde, emon dakirala.

Kondiak oni be aindu eban baietz. San Franzisko'n fralliak miñ aundixa artu eban onegaz, pentsaurik Dominikanuak garaitu biar ebala joko artan, eta amorruak bizi izaten ez zetsala lagako aurreran. Baña argixa zanetik, urten eban bigarren bere eskia esatera. Eta esan eban onetara:

—Jauna, nik eskatzen detsurana, mezedez, oiñtxe, bertan eta bat uts eiñ barik, berregun palo bizkarrian, ez ba sari oberik neretzat.

Kondiak, au entzun ebanian, aindu zituan morroi bi aritz makilla biren billa, San Franziskon aur gizajuari bere gustua eiteko.

Onetan ziarduela erruki gabe Franziskanuan zaputzian, egun bizkarreko kontau zituenian, Dominikua, estututa, espero ebanakin, aurreratu zan esanaz: naikua zirala, bere ustez ba, egun eskatu zituanak azpixan zan gizajuak.

Onek Dominikuan berakadia entzunaz, makur iraunik, oroiturik berregun ziorkadako penitentzia zor zetsala Jaungoikuari, ziñuan orruaz:

—Berregun eta ez egun, nik eskatu dituran paluak!

Eta morroiak, amaitu ebenian euren zeregiña, itxuli zan Franziskanua Dominikuangana, eta esan zetsan:

—Zer deitxozu oiñ eiñ doran eskiari? Gustauko jatzulakuan nago irabazle geldituko zaranetik. Atsegin ni, Urte-barrira arte oian egon biarrakin, zuk Erregenetarañok biarko dozunetik, gitxienez.

JUAN TIMONEDA, Valencian jaixua, amasei garrenengo gizaldixan. Bere liburuen artian, Bidaztian laguntasuna deritzen dan bat, nun batu zituan ipoiñ labur mordua. Liburu aretatik atarata-kuak amen doiazen aletako onek.

ENTZUN GAIZTOKO ANDRIA

Txanbolintxeri batek entzun gaiztoko andria eukan, beti kontra eiñ biarrekua, esanan bestera dana eiten ebana.

Eta beiñ, eztegu batzuetara zoiazela, soñua joteko tratua eiñda, bera oñez eta emaztia asto gañian tanborrakin, ibai bat igarotzerakuan, senarrak emaztiari esan on biarrian:

—Kantaizu baña ez tanborrik jo, astorau ez deiñ azpikua.

Bestera aindu baletsa letz, esatiaz bat, asi zan tanborra joten, eta astua, izuturik, sartu zan ur aundixetara, ondoratu zan andriori eta geixago nun zanik b'ez.

Eta senarra asi zan ibaixan gorutz korputzan billa, kristau bezela lur emoteko. Begira zan batek, orrua eiñ zetsan esanaz:

—Zer darabizu, gizon?

—Itxo jatan emaztian billa.

—Baña, zoratu al zara? Ibaixan gora billa?

—Bai, Jauna. Beti zan ba, koitaua, danian bestera eitekua.

GUDARAKO JENDIA BIARRIAN

Beiñ baten eldu zan Erri-nausiko Zaldun bat, urriñeko ostatu zar batera, gaba an eiteko asmuan. Etxeko-andria alarguna zan, amabost urteko alaba gaztetxo bategaz.

Negua zanetik eta otz, afalostian jarri ziran sutonduan kontuak esanaz, eta Etxeko-andriak galdetu eban Zaldunori, itandutziakin ia zer barri zan Erri-nausi aldetik, urriñian ba ezer jakitzen.

Zaldunak, txantxetan eta jardunari laguntziarren, esan zetsan:

—An dagon barrixa da, Etxeko-andra, Errege Jauna, jendia biarrian aurkitzen danetik gudarako, aiñdu dabela urtietako andrazkuak mutil gaztiegaz ezkontzia, eta neskatillak berriz mutil-zarrekin.

—Ez da ori ondo, Jauna! —entzutziaz bat esan eban alabatxuak, jarraixan berba onekin argituaz bere asarria:

—Ez da zuzen Errege Jauna mandamendu orretan aindu dabena! Ez da ondo emakumientzat!

—Ixilldu zaitez kakaumiori! —Amak asarre alabiari, agua itxi gurarik ari— Erregiak (eta urte askuan gorde deixala Jaungoikuak) ondo daki zer eiten daben, eta zaitez seguru ondo eritxiko detsana mundu guztiak arek aindutakuari.

ARDAUAN AUSARTASUNA

Gazte batzuk, jan da eranian beiñ tabernan, ardaua ugari erebixela, askatu eben miña (17), eta oso lokatuaz asi ziran eta iraun eben luzaro esaten, ango Aintzalle Nausixan iñoiz amaitu ezindako lapurkerixak, iñor ausartzen ez zanian berbarik ataratzen, urkamendixan bildurrez.

Jakiña zan bezela, eldu zan Aintzalle gaiztuaren belarrixetara gazte aren tabernako jarduna, eta urrengo egunian, deitu zetsen Aguazillagaz bere aurrera, kontubako miña erabilli eben guztieri.

---

(17) *Miña, mihia.*

Eta beiñ bere aurrian, Jaun azarriak itandu zituan ia egixa zan artako eta onetako berbak erabilli zituena tabernan.

Eta laguntzako argixenak erantzun zetsan baiez, danen ordez.

—Diñozuzen orrek danak egixak, eta egi geixago esango genduzen, ardaua ez amaitzera.

ERANTZUN EGOKIXA

Ezdakit nungo Erregiari, zeiñ bere jatorrixakin arrua, esan zetsen beiñ, nola ebillen erbesteko gazte bat, guztiro bere antzerakua; bera bezin azixa eta adiñ bardiñekua.

Erregiak ainbeste entzun ebanetik, bat baño geixago gandik, gura izan eban erbesteko gaztiori ezagutzia. Eta berak agindurik, eruan eben Erregian aurrera, eta ikusirik onek egixa zala esaten ebena. Itandu zetsan, esanaz:

—Esairazu, gazte, ba'aldakizu zure ama iñoiz izan zan alde onetan?

Eta gaztian, jarraiko erantzuna:

—Nere ama ez Jauna; baña nere aitta bai, sarri.

AKER ETA MAKILLATUA

Baserriko gizon batek emazte ederra eban, eta morroi bategaz bizi ziran, baserriko lanen laguntasunerako.

Eta senarrak susmua artu eban, morroia eta emazte ederra, ez ete ziran ondoegi konpontzen. Emaztiak igarri zetsan senarrari

zer arantza zerebixan bularrian, eta zauri garratz au osatzeko asmuan bere gustuak itxi gabe, esan zetsan:

—Jakiñ deizun, esango detsut morroia ondoren darabiranetik, aindu detsarala gaur gabian bere zaiñ egotia kortako (18) atian, olako ordutan. Eirazu ba mesede, nere soñekua jantzita esandako orduan, kortako atian agertzia.

Au esanda gero senarrari, juan zan morroiagana eta aitzen emon zetsan zer aindu zetsan senarrari, eta zer biarko zetsan esan ari eta zer eiñ agertu zeñian kortako atian.

Ala, esandako orduan, senarra zala kortako atian zaiñ, emaztian goruntza eta goniakin, aurkitu zan morroia makilla bategaz, esañaz, an zaiñ zanari:

—Baña, aiñ errez sinistu dozu esan detsurana, zoruorrek? Ara ba bizkarrian merezi dozun sarixa, andra gaiztuorrek! Dana izanda ba zeu probatzeko!

Bata alde batera bizkarra berotuta eta bestera makilliakin, alde eben autuko bixak lotara, urrengo goizera arte.

Goizian, senarrak aurkitu ebanian morroia gosariko orduan, esan zetsan lagunki:

—Eskerrak zuri, gazte, zintzua zaranari, bestela akerra deituko zesten or ziar.

—Akerra eta gañera makillatua, esan eban morroiak berekautan.

---

(18) Ukulu.

ITXI ORTAN !

Zaldun jator baten emaztia zan, alde on guztiak eukiko zituana, izan ez balitza miña ariñegi erabiltzen ebana, eta biar baño geixago jarduntzekua.

Eta beiñ auzoko jai baten, eiñ ei jakon ondoeza eta gelditu ei zan berba barik. Estututa lagunak, juan ziran senarrangana, esaten zetsela nola emaztia berba barik zan.

Senarrak au entzunaz, esan eban:

—Itxi ortan, irauntzera ba, izango da lurrian emazterik onena!

BAKARRIK IZAN BAZIÑA

Beiñ baten eldu zan Ostatura, bidezti jator bakar bat, eta mai baten afaitxan zan tratulari batek, lagun guran, konbidatzeko asmuan, eskatu zetsan graziaz, izena zelan jakon.

Etorri-barrixorrek, tzapela kenduaz, esan zetsan:

—Pedro Jose-Martin Unzetabarrenetxea Agirregomezkorta.

Eta maikuak ainbeste entzunaz, arrituta esan zetsan:

—Bakarrik izan baziña, jartzeko amen esango netsun, baña ez dot zergaz ainbeste lagunendako.

BIXAK GUZURRETAN

Lagun aundixak ziran ofiziutako auzo bi; bata eunlia eta bestia giza-jostuna. Denborialin asarratu ziran, eta lengo aiskidetasuna biurtu jakuen alkar ikusi eziñian.

Eta giza-jostuna zan beti gaizki esaten alde guztietan eunlia gaitik; eta eunlia, bere aldetik, beti ondo esan biarrian giza-jostunan kontura.

Ikusirik andrazko batek zer erebixen, itandu zetsan eunliari zergaitik ainbeste ondo esate giza-jostunan gañian, arek bere kontura bestera ziarduan artian.

Eta erantzun zetsan eunliak:

—Jardun deigun bixok guzurretan.

MERKEZALE LARREGIKUA

Dendari aberats batek, eukan seme etxekalte aundixa. Ostutzen zituan gurasuan dendan ango sal-geixak, auzuan emoteko erozeiñ preziotan, dirua eiteko.

Aitak konturik ezda onetara, esan zetsan beiñ, etxekalte orri:

—Zergaitik, seme, ez neri saldu auzuan botatzen dituzun gauzak utsian?

Eta semiak ondo eritzita kontu oni, esan zetsan:

—Kontu eizu ba, aita, budingorrizko ontzi arek ostu detsurazela eta zeuri, zuzen, eskiñika naizela. Zenbat emongo destazu?

—Bost errial.

—Itxulirazuz ariñ gauzok zekenorrek, erostalle merkezale larregikua zara ba zu, utsian gauzak saltzen dituan gizajo onen dako!

Ogei-garrengo gixaldixan

LEKU ASKOTAKUA IZAN LEIKIAN IPOÑA

Txomin, langille bere bizi guztian, eta zerbait aurreratu baeban, gogor jardunda, lausikuari (19) begiratuta eta korputzari gusto bat baño geixago ukaturik. Eta ori, eskerrak osasunak lagundu detsanari, ez ba bere etxian Osagillerik sartu eta ez Botikara juan biarrik izan, umiak azi ezkero.

Ainbeste suertegaz, semiak izan eben euren eskolia eta ofiziua, gurasuak bañn apur bat errezago izan zeixen bizi-modua.

Onetan, zarrori, jaiki zan beiñ burukomiñakin. Semien jardunagaz, artu eban aspirina bat eta alperrik...

Bildurtu zirak gaztiak, zarrorrek iñoiz ezer euki ez ebanetik, zegozer txarra ez ete datorkixon, eta bertan bera eruan eben Erri-nausira, entzutze aundiko Osagille batengana, naiz entzutzia gaur, ostiangua bezela, dirua zabaldu edo ez.

Osagillian lanteixa zan kale nausixan, etxe aundi eder baten, ate-zaiñ eta guzti. Eldu ziran ara, eta atekuak sartu zituan sala

---

(19) *Lausi, balio gutxiko dirua.*

eder batera, nun ziran txandian zaiñ beste illetadun (20) batzuk. Atia zabaltzen zanian txandakua barrura sartu zeiñ, agiritzen ziran urrengo gelan kristalezko arazetan, milla tresna zorrotz eta erdixan trepetxu bat, uste Inkiziziñokua zala, bris-bris ez izatera.

Eldu zanian gure zarran txandia, sartu eben Osagilliangana, eta ango tresna eta trepetxuak ikusirik, sartu jakon surkatxa barru barrurañok eregi biar ete eben, eta jarri zan ikaraka.

Osagilliak nasaitu eban apur bat berba legunak esanaz, eta itandu zetsan zer erebixan:

—Burukomiñ arraixo bat, iñoiz ez da, eta botikia artuta be, alperrik...

Osagilliak:

—Ori, lagun, ez da besterik Zefalalgixia baño; analgesiko bat ainduko detsut artu deizun lau edo bost bidar: azido azetilzalizikua. Ara agirixa pharmaziarako.

Illetadunak:

—Eskerrik asko, Jauna; eta zenbat da bada-ez, bada bedorren arazua?

Osagilliak:

—Konpondu urtetzerakuan ateko emakume gazte aregaz.

Emakume gaztiak, kateneru eiten eban arek, milla pezeta eskatu zetsazen.

—Milla pezeta, sartu-urten bat gaitik? —langille gizajuari, miñ-amorruak atarazetsazen berbak.

—Milla pezeta —erantzun zetsan kateneru eiten eban gazte ederrak, bazenkizuna eta zeuk Osagilliari esana itxulitzia gaitik urringo edo antxiñako erdel gaizto batera.

---

(20) *Illetadun, quejoso, achacoso.*

NAIXAGO NIK

Balestaz Jainko guriak,
esku baten, jaixotzatik,
berez, Jakintza guztiak
ikasten nik jardun barik;
eta beste eskuan, biar,
nekez et'apurka ikasi,
lan ein egun guztian ziar
ta ordu'k osturik gauari;
bigarrena naixagotzat,
naiz da atzian ni gelditu
amaituta indar motzak.
Obe ba errenka argitu
mundua gitxi biarrian,
beti arutzago eldu nai,
baño dana jakiñian,
egon da egon, nasai nasai...

Balestaz gure Jainkuak,
esku baten ondasunak
irabaz' biar ez dakuak,
zer'kin beti jai-egunak;
eta lanak beste eskuan,
ardurak eta larrixak,
esker gabe oiñgo munduan
obe baten egarrixak;
leztxe mendigoizaliak;
naixago nituke izango
aldatzak eta nekiak,
eta gañak nora juango;
burdixan, onez aztuta,
eldu lurren azken'raño',
eta danian aspertuta
lotan ibiltzia baño.

Gure Jainkuak balesta,
Aingeru letz, esku baten,
izati' orban bat ez da
ezerk nabela tentatzen;
eta beste eskuan, izan,
Gizon letz, zaindu biarrian
bizi, ez deiran ein laban
buztintza loi labanian;
naixago nik arriskua,
zuzen gurarik ta gorutz,
ankaz gora jaustekua
eta egun bidar ein uts;
jaikitzekotan ondoren,
astindu autsak, ta egun eta,
bat garrenian aindu goren,
asmu ederrez beteta.

ZER EZ ZORRIAN?

Ederto asko, bazoiaz zu,
zaldun, bide zabalian,
zeure burua Jaungoiku,
inori ezer, lur gañian,
zor ez detsazulakuan,
Ferixarako asmuan!

Baña konturatu al zara,
daroiazun bide laua
alai erromerixara,
ez eregi eta ez kaltzau
zanik berez, ta dala eiña
izardi askokin antxiña?

Ta zaldixa, zure ederra,
azpixan zuk ain sain-geldi,
zanetik baso-abera;
zenek, noiz ta nun ezi
zu eldu al-izateko alai,
nekerik gabe noranai?

Soñeku eta oñetakuak,
zenbat langillen kontua!
Egun gizaldiko asmuak
bat eiñan frutu eldua,
ibaixa letz, iturr' milla
bat eiña alkarren billa.

Eta baraua austeko
zurrut ein dozun kafia,
ta edari a gozotzeko
ein detsazun azukria,
itxaso asarriak ziar,
zeuk ekarri aldozu biar?

Eta gauzarik txikiña
aitatzeko ejenplu ordez,
zure erastuna, zeuk eiña
eta apaindua zeuk urrez
Ofir'ko gei fiñenakin,
zeuk agirixa atxurrakin?

Ara or, zaldun arruori,
arlote erozein bezela
nun zaran zorrez danori;
legorreko mariñela,
dana ba zuk iñon kontura,
oñetatikan burura.

Ez iñor, zor izan gabe
beste ainbeste edo geixago,
osasun'ko bada ala be;
baña, bat jakiñian badago
beria zer kontu gogorra
biargin a, ordaintzen zorra!

BALESKUEZ JAINKUAK

Zeru'n azpi zabalian,
Ego-aiziak beste arin,
be-lurrak dituzunian
gitxi neurtzeko eguekin,
gaiñ'tako Arrano âltsua,
aitz-bizkarren Jauna,
egazti Erregetzakua,
Euzki begixan laguna!
Bixok giñake zorionki,
baleskuez Jaungoikuak,
nere amesetak zuri,
ni koitau'ri, zure eguak!

AU DAN BURU-BIDIA!

Mundua, ziur, galdua da!
Bakoitxan bere aterpia,
laratza, maixa, lua ta
famelixan izatia;
Errixak, Gizarte dana,
Jakintzak ta bai Artiak,
oin arte Aurreratu dana
ta Gorutz-ein guztiak
—sinistia be izan arren
ez erreza— egi itzala,
bi edo iru gizon kaskarren
aldixen beian dirala.

Mundua izan edo ez izan,
guztiok ill edo bizi,
ze' aizekin esnatzen diran.
Apal edo asarre jaiki,
kaka-ein arin edo nekez,
otz edo bero' odola,
guztia, auts ein edo ez,
euren eskuan dagola!

Londres'en, 1960'nan Maietzian.

AIZKORA MADARIKATUA!

Gure basuetan bada negarra!
Gura ditugun letz lagun zarrak
bagendukez beiñ galdu biarra
Ala gure basuen negarra!

Ba nol'au mundu soill argalian
ez dan gauzarik beti irauntzeko,
ditugu izaten gauzak biotzian
miñ aundiauagaz gero galtzeko.

Zorigaiztoko diru-zalien
erruki bako aizkora otsa!
Basoko ondamendi guztien
madarikatu illkor zorrotza!

Jo ta su, zugatz danen etzaiki,
baditugu orl'Aizkolarixak
joko plazetan sarri nausiki,
nun len ziran arboladixak?

Eta pagadi kerizatsuak,
gu, amesgiñon, geuk nai guztira,
eta ariztiko tantai altuak
t'artadi illunak? orain nun dira?

Geixago kerizpeko gir'onik
arzaiñ t'artalde mantsuendako;
geixago aukeran bakartasunik
Goikuen billa-zaliendako.

Zenbat tok'ixill ta mendi-buru,
jarleku aritz bat edo nai pago,
t'aurrian Mundu ikas-liburu!
Au maitiontzat ez dira geixago!

Nun gorde da kuku arrotza
deiñian etorri, ez dakit nundik,
juan dala esaten Negu luze otza
ta Udia berriz dogula emendik?

Nun txoritxuak, beti kantari,
aitzen basueri soñu gozuak;
ta milla koko-txiki miragarri,
bardiñ Jainkuan eskutikuak?

Bai ete aurrera urritx eta urdiñ
eta ondyo buru baltz biribillik?
Perretxikuen jolasa oiñ urriñ,
bada ondik perretxiko lekurik!

Agur, gauza onik bazan munduan,
Aizkora arrayo madarikatua!
Kalte aundirako laga zenduan
arrixa eta artu galtzairua!

Ala gaztaña gerri biurra,
naita azkenetan barrua ustuta
pozik zarrez jotiakin lurra
ta burdiñari ez makurtuta.

Egunda urteko testigu ixilla,
gizon arteko goi-berakuak,
detsuz ikusi, zutiñik, milla,
t'austen, euren asmuz, betikuak.

Baita urkitza be, zorionekua,
egur biguna biotz dabelako;
zura balixo aundi ez dakua
ol tratulari zazkarrendako.

Bardin pozik beste tantai batzuk,
nai gazterik lurrera etorri;
ez burdiñiak da ez galtzairuak
da bai oñaztuak ba ditu erori.

Gure basuak dabe negarra,
mendi-zaliok damu bizixa!
Zugaztixak oiñ txara zakarra,
kerizpe saillak, dana sasixa!

Nun dira gure maite genduzen
ames'tarako lengo lekuak?
Nun gure pentsamentua aitutzen
zutiñik ziran mill'testiguak?

Diru biurtuta doiaz munduan
jatorriko basuak azturik,
ta erri aundiko bizi zoruan
arruen-arrokeri puzturik!

Caracas, Agosto de 1955.

OSAGARRI

(Zensurak *Ibiltarixanak* deritxon liburuari, kendutako bertsuak)

KENDUTAKO ZATIAK

Ibiltarixanak daroia izenburutzat 1967an Zarautzen argitaratu zan liburuak. Arrate'tikuen izketango alegiñak, Toribio Etxebarria berak forma emondakuak.

Urte aretan liburuentzat zegoan zentsurak ez eban ezagutzen humanismorik eta erruki barik, tarteka, zenbait bertsu eta nota kendu zituan liburua argitaratzeko orduan. Bakotxari beria zor jakonez, *Ibiltarixanak* osatu guran, emen argitaratzen doguz zentsurak kendutako zati arek. Irakurtzaile bakotxak berak pentsau deixala zergaitik kendu zitxuen. Nik emen, seiñalauko dot, bere lekua artu dein liburua osatuz.

Ara emen, banan bana osagarriok:

"Kain" bertsoak, *Ibiltarixanak*-ren 27 eta 28 orrialdietan datoz. Anai arteko burrukak salatzen ditu, azkenik Gernikan gertatua aipatuz eta guzurrez bestieri kulpak botatzea ekarrenez, azken bertsua kendu zetsan zensurak:

Eta gaiztokeri orren
au alderik itzalena:
artuko dabela ondoren
Zure irutan Santu-Izena,
gaizki eiñan gaiñ estalgarri,
zabaldu guran Guzurra
ta bestieri kulpi'ezarri,
ikaraurik Zeru ta Lurra!

"Dakiran baten deboziñuak" 106. orrialdean asten da, zerbait zatitan egiña da eta "Libertadiana" deritxon zatia 109. orrialdean dator, baina zortzigarren bertsu au falta dau:

Españia auan artuta
Mauser'a ebela eskuan;
ta Ebanjelixua aztuta
aiztu'kurutz'an lekuan.

"Judixuen urkamentzallia" 130. orrialdian dator. Baina oni be azken bertsua falta jako. Ara nola amaitzen zan:

Urriñ begiratu biarrik
ikusteko au zer egixa;
naiz biar euki ixillik
naiz ez bada utzi bizixa.

"Gaiztuak gaizto" izeneko bertsuak osorik datoz liburuaren 217. orrialdean, baina azpian eroian oharra kendu zetsan zentsurak eta ezta igartzen bertsuak zeroien intentziñua. Ara emen zer nota zeroian azpikaldian:

(1936'go, Garillan 18-garren
eguna oroitzen askotan esana)

"Kaligula'n amesa" titulutzat daroiana 260-261 orrialdietan doia. Zortzi bertsu ziran guztik eta azkena falta da. Ara nola dan:

Ez da obispo jaun batzuk be,
artzeko palixopian;
ba ainbeste ikusi dabe
galtzailliak Españia'n.

322. orrialdian datorren "Igesixan'guen urtia" deritxonari, ixa erdia kendu zetsen. Azkenengo lau bertsuak falta ditu. Ez zan

arritzekua. Patxi aipatzen eban eta ori ondo genkigun nor zan, guztiaren jaun da jabe egin zanetik. Ara ba emen lau bertsuok:

Eta Patxin igesixan
mundun zabaldu garanok,
lauregun milla bat ixan,
eitten dogun mordu'danok.

Beste batzuri ostera, ez zatirik kendu eta ez zatirik laga. Orrek dira ondorian datozenak: "1931'ngo aprillan 14'na", "Endaia'n", "Diktadoriak" eta "Erantzuna". Ara emen orain oso osorik:

KENDUTAKO LAU BERTSU SAIL

1931'NGO APRILLAN 14'A

La brutal destrucción de la segunda República española por obra de la traición ayudada por Hitler y Mussolini, prólogo de la segunda Guerra Mundial, no resta a la gloria de su ejemplar nacimiento, sin sangre y sin venganzas, el 14 de Abril de 1931. En ese histórico episodio correspondió a Eibar el ser el primer pueblo que izó la bandera del nuevo régimen, contribuyendo a precipitar los acontecimientos.

Aprilla, euri illa. Ala be,
ziur, urteko nausiña,
Mundua, esaten dabe,
Aprill baten dala eiña.

Aprillakin, uda-barri.
Lurra, uste zarra aspaldiz,
ak detsan suakin danari,
dirudi oiñ, gaztia berriz.

Goiztar lorak, zelaixetan,
jantzirik apain ederrak,
esteguen asmuetan
erla jendiari eskerrak.

Eta txorixak kantari,
billa zeiñ laguntzat artu;
Aprillian ezkon-barri.
abixagintzan jo ta su.

Ta basuan artaldia,
epelki, motzalli'guran,
amaittu bildots astia
ta sartzeko ariñ Udan.

Paguak, goiz da goi-zale,
orri barrixa emoten,
asteko, izan deiñ siñale,
zugatz guztiak ostrotzen.

Olako aprill egun baten,
egun-sentixan aurretik,
jendi' atara an Eibar'en,
ariñ plazarutz lotatik.

B'etorren goi'garbi ederra
ta agertu zan Euzkia...
eta euzkixakin batera
jar'gendu'n Republikia.

Da esati beste: Errixa
errixan jabe; legez da
botuetan irabazixa,
lena, geixenak gura ez da.

Milla urteko zapalduak
amaittu ta bardintzeko;
zuzenduz gaizki eindakuak
t' ainbat beku'k jasotzeko.

Españi' aundi ezkatua,
ama on baten antzera,
jakigun zorionekua,
barren batetik bestera.

Au, zanak Alkate barri,
Konsejutik ebana esan,
batu zan auzo jendiari,
lengo Unzaga'ko plazan.

Ta zapi-iru'ko koloriak
argitan zittuan zabaldu,
Libertadian aiziak
zeixazen alai oriatu.

T'a Eibar'ko egun-sentixa,
Españia'n zan lelen
jaurti genduan arrixa,
Republika jartzeko.

Ba, bata bestian ondoren,
guk eiñ genduan goizian,
eguna amaittu baño len,
eiñ zan Españia guztian.

Onelako irabazterik
ez da izan Historixan,
aiñ garbi eta odol barik,
ez gizaldi zar da barrixan.

Ez da bendian sufritzen
egondako beste jende bat,
olako biotz ona eukitzen
oparitutakuentzat.

Ba erromerixa batekin,
nun dantzan eta soñuak,
amaittu genduzen ariñ
Republikako ezteguak.

Biarrena itxulitxeko
estu, zailldurik lanera,
lanakin ataratzeko
aren asmuak aurrera.

Burura barik (ala be
Jaungoikuari eskerrak)
zenbat ziran lotsagabe
irutxurlari okerrak.

Azpijanerako esna,
juan zan'tik bildur'eguna,
aitzakotzat artu ez da
orr'lako aldatze biguna.

Zenbat gaizto aztutakuak!
Parkatu zenbati orduan
milla urteko artzekuak
eukitta sartaña eskuan!

Gaizto arek, ala ta guzti,
gorderik euren biotzian,
odolezko asmo ugari
gauzak jartzeko lenian.

Igo Aundikixak gorago
eta obeki mardotzeko,
ta len baño gogorrago
goseztuak lotutzeko.

Biotz gogor ta asmo arekin,
atara eben gerra aundi bat;
lagun, Hitler da Mussiliñ,
eta Moruetako baltzak.

Mataza izugarri orretan,
milloiren bat illdakuak,
etsai biurtuta errixetan,
len anai izandakuak.

Ta irabazle urten ebenak,
Kain bezela Abel'en gaiñ,
gero be egur da krimenak
biar Infarnu baten laiñ.

Odol' asi ta eriotzak
zittuenak gu apurtzeko,
biarrian beti katiak
bendekueri eusteko.

Ba pekatuan sarixa,
pekatu aundixauan biarra;
gaizki eiñan irabazixa,
biar geittu txarrari txarra.

Madarikatuak izaten,
Españian orban-bako,
izena ziranak artzen
irutxur onetarako!

Baña zazpi bidar zazpi
faltsu madarikatuak,
Jainkuan izena azpi
autu au jarri eben gaiztuak!

HENDAIA'N

Oget'iru urte osora, (21)
berriz naiz Euskal-Errixan.
Ara Espaiñia ostera
pauso bira agirixan!

Madarikatua betiko
deilla izan ebana asmau,
ibai estu onen erdiko
biar ez zan muga arraixo au!

Baña, milla bidar geixagon
auan madarikatua,
muga orren ostian dagon
irutxurlari alua. (22)

Beste eutsigarririk gabe
zori-zoro aldizkuna (23)
baño, eta auxe ala be:
lapurren alkartasuna.

Odola eta irutxurra;
gosia, loikeri ufala,
estraperlu' ta guzurra
jiran, lagun dittuala.

---

(21) En la primera quincena de Agosto salí de Eibar para hacer toda la guerra en el Centro, de donde salí por Cataluña.

(22) En aquel momento, en San Sebastián. Respecto al adjetivo, lo que se dice el *encanallamiento de las palabras*, tiene su contrapartida gramatical, en torpísimas expresiones que pasan al habla común habiendo perdido su malicia. Así *alua* que ya no es tabú. Mas el escrupuloso puede cambiar la consonante por *gaiztua* o algo parecido.

(23) La Loca Fortuna, que ha permitido al Tirano, con ayuda de su cinismo, servir a dos amos y salvar las más irreductibles contradicciones.

Gure aittu eziñen zorra
arte guztiro bardindu,
Jainkuen zigor gogorra
gaiztu orregaz izango dogu.

Arik eta alako baten
bera zigorra Jaunak ausi,
eta milla asarre esaten,
eiñda ezpal, sutara jaurti.

Hendaia, 1959.

DIKTADORIAK

Aspaldiko urte onetan,
guk ezagutu dittugun
errixen gora-beretan
zenbat nausi, arro, aldun,
goitittik, ai, buruz bera;
atzo agintari zaldun,
gaur, erantzungo bendera
euren zoro-usaiñ gaiztuak!

Eta gaña utzitzera,
erantzi apaiñ urrezkuak,
kendu kurutziak eta
zintxadi paparrekuak;
gerriku' borlaz beteta,
ezpata damaskiñua
eta ostiango barriketa
danak, zer a gizajua?

Kakanarru, txartxarti bat,
bai erruki izatekua
eta ez iñok aintzakotzat!

ERANTZUNA

beste bertso txiki bati:

Ez da, seguru, arritzekua,
Patxiri, Gure Jaunan onduan,
apaizak leku emotia Elizan;
lenago be, Jauna egondakua,
izan zani'n Kaifas'kin munduan,
ez baten, lapur biren erdixan.

EGUZKI HERRIALDEETAN SORTU GURE AINHARE

Doinua: "*Izotz ondoko eguzki, neguaren parre*"

Kasil-Ainhare jaioberrittoari.

I)

Eguzki herrialdeetan
Sortu gure Ainhare } bis.
Bihotz biren amorez
Txinta egin zare
Hirugarren bihotza
Kabi baten lore
Aita-amen poztasuna
Etxeko irribarre } bis.

II)

Eguzki herrialdeko
Ainhare ttikia } bis.
Itxadoten daukazu
Uso bat mendian
Aiton zaharren Haritzan
Han EtxeZurian
Aiton zaharren Haritzan
Han Euskalerrian } bis.

III)

Toledoko Erregeai
Alabeak ihez } bis.
Maitasunaren deiai
Zintzo erantzunez
Euskaldun lurretara
Aita, noa oinez
Bizitza guztirako } bis.
Agur... maitasunez }

IV)

Toledoko Erregeak
Alabari maitez: } bis.
Maitasunaren deiai
Zintzo erantzunez
Euskaldun lurretara
Zoaz zorionez
Bizitza guztirako } bis.
Agur... maitasunez }

EtxeZurian
eta Deustun
1978

BITAÑO

LORAK

P. ZABALETA

Manolo Urbieta
Arantxa Illarramendi-ri

Lora bat
bi lora
lorategia

Urte bat
hamar urte
hiru seme

Lora bat
bi lora
zoriona

SCHERZO N. 2 IN DO MINORE

Zartatu musika biraoka
autsi notetan
den eta ez den
izan edo ez izan
  —hor zegok, ba, koxka—
lertu
arnas estu
aginak gogortu
begiak lotu
erdibitu hiru pusketetan

Irripar bat jolas
doa doa
dator dator
bildu da triku
txistu

—Hamaitu arren
  Chopin
  zure jolasa garratzegi da—
erori
harrikada bat arima erdian
izurratze bat
neskatil birjinarekin.
aaj

Opa dizut euria berria
tantan apaletan ixuria
zeru gris berdina
ondasun ezina
tripetako mina
ta apaizaren azken isopua.

MISTERIO

Iriki neskatil
iriki misterioa
zangoa

Irripar hila ezpain
gordin irrika
iztarrak

Algara txingarra
begiak karamelu
espartu

Misterio nahia
irrikitua
zirristua

KONPASA

jotzen dakite
jotzen
tronpeta
eta sasofoi
bateria
edozein gauza
larrua ere
edozer gauza

ikusmira soinua
bodetan
arkaitzetan hedatua
amodioa
akordeoi
akordetan

akirdatzen naiz
akordatzen bestekin
eta
nirekin
danekin
edozeinekin
herriarekin ere
edozeinekin

begiak epelak
ezpain gozoak
bularrak
eta iztar eskeiniak
biak
haragi gaztea
grina
mina
gordina

KONTRAPUNTU

Begi bat urezkoa
esku bat zurezkoa
begi biak utsak
laugarren botilan

Tom Jones jockerean
zigarro kehea lausoa
Neon zirrinda kale bustian
gorri ta berde ta ori ta urdin hedatua
dorreko kanpaiak hamabi kolpe
portutik barku baten adarra
autobus baten abiada ohia

betiko aurpegi berak
gabeko bizitzan.

Tira, ba, maite,
kontsola zaite.

Supermerkatuan
erosi nituen buruko ileak
gabardina bezala
kantzontziloak bezala.
Ortzak norbaitek eman zizkidan,
aginak eta betortzak
kariatuak nituen
ordezkoak ipini zizkidaten.

Tira, ba, maite,
kontsola zaite.

Sudurra dut nirea
legea denez luzea
ta errea.
Sifilis pasatu nuen
antzu geratu nintzen
ta merikuak kastratu nindun.
Ardoa adoratzen dut,
pattarra dut Jainkoa.

Tira, ba, maite,
kontsola zaite.

Ankak moztu zizkidaten
biak batera.
Eskuetan zazpi behatz postizo
eraztun behatza dut osoa
begi bat kristalezkoa
ta gorra naiz aspaldidanikan.
Baina gauza bat oso nirea
bularrean taupakada bihotza.

Tira, ba, maite,
kontsola zaite.

OLO

bi dauzkat zintzilik
iztarrartean
zinzarriak lez.
ta zarata dagite mila aldiz
zinzarriak
amorio suspertzaile

zoli
bi

zertarako eman ote zizkidan
zintzilik
zeruko Jainkoak?
kordoi batekin lotzeko?

Bi dauzat
bizi-biziak.

Barrabil maiteak
urkuluan legortzen esegiak.
Oraindik ezeak zaudete
oso ezeak
ezi ezinak
zori zuria
ixuria.

zango bi zoli
amets...
zinzarri ezeak
eta
ziria.

PARADISUAN

Ba omen zen paradisua
bere egunetan
zeruan
Jainkoa
eta Ama Birjina
gizonik ikusi gabea

eta teolojiak dionez
egiteak
betirako diraute
paradisuan.

Han daude ama guztiak
garbitzen umen ipurdiak
han andreak oro ankak zabalik
txilibitu baten esperoan
ta fraileak
minogona ametsetan.

BELARRIAK

Irratia jarri dute sukaldean
Loiola noski
meza
gero Arantzazu-koa
meza
Dantza egingo dute
mezako kantekin
Kyrieleisonetan anka jaso
Glorian besoak
Kredoan gonak
Santusetan buruak
Agnus Deikoan
—Zure zaurietan gorde nazazu—
Zoazte Jaunaren pakean
—Zein zaurietan?—
Amen

Irratia binbitartean
mezatik
mezara.

BAZKARI

Mojek ez dute
ardurarik
heren ardurentzat

Ez dakiola ezer palta
fraileari

Ez dut oraindik enamoratu
mojarik
ez Mariaren alabarik
ez edonoren alabarik

—Maite uu ta aa...—

Atzo bazkaldu nuen
komentuan
bakarrik

Mojek klausura dute
ahoan ere
mingainean dute kandadua
zahartzaroan erdoitua
ta giltza galdua

Bazkaldu ta
bakarrik

Ez dut enamoratu mojarik

ZULOA

Metro bat zabal
bi altu
metro bat luze

Zuloa
korupeko ilunbetan

Ta haraxe datoz
banaka
praka ta gona
mixerien kontatzera

—Zer inporta zaizkit neri zuen pekatuak?
Zer zuen mixeri ezkutua?
Ez etorri arren zulo honetara.

Aldamenekoa amelaumez betea dago
hau pipiak joa

Zertarako etorri honera
hondo gabeko zulora
hitz egitera?

Metro bat zabal
kontzientzia
ta zulo honetako rejilla bezain estu
bihotza

Zulo honekin
—egun zahar legor—
piztuko da
mila pertsonen infernuko sua.

OTOHITZA

Fraileak belauniko ipintzen dire
errezatzeko

Eskerrak eman ohi dizkiote
Jainkoari
harek emanagatik

"Jainkoaren eskuak bedeinka dezala..."
—eta frailearen ahoak jan
eta sabela gizendu

Amen.

SUA

Tentatzen nau suak
garrak
tximinian
Otz denean sua
beti sua
Txinpartak
egur lehertuak
txingarrak
betulak erre arteino
begiak gorritzeraino
tximiniko suan

Trinbili ta tranbala
pattar botilatik tragoa
zigarriloa
zigarroa
kehea
ta tximiniko sua
zotzak
—komentuan aldare pusketak—
ta sua periodiku zaharra

Seguruenetik Jainkoak
eman zion sua munduari
dantza zezan
poetan begietan

trinbili ta tranbala
pattarra
ta poesia kehea

Tentazio da sua
izan zen
Neron-entzat
da
neronentzat
neiko Neron neroni naizelako

poxpolo bat asko
ta sua
ta kehea
ta pattarra
ta trinbili ta tranbala

ERLOJUA

Segura-ko kanpai dorrean
jarri zuten
aspaldi
erloju kantaria
ordu laurden
ordu erdi
ta ordu osoak
jotzen dakizki

ordulario ordujario
ordu erdietan ordua ta erdia
laurdenetan
laurdena soilik
kanpai dorrean
erlojua azken ordua jotzen

ta egunen batean
joko du bere azkena
kanpai dorrea kentzean
eleiza dancing egitean

izan ere
ez dago urruti
eleizaren azken ordua
Segura-n ere

IKUSI DITUT

Ikusi ditut joaten
banan banan
ilaran
mutilak
mutuak

Ikusi ditut joaten
binan binan
sakabana
fraileak
aideak

Ikusi naiz joaten
bakar bakar
bakean
neu nintzan
bizitzan

Ikusiko ditut joaten
auskalo nola
pilatan
egunak
ezagunak

Ikusiko ditut joaten
ez dakit zer
nohizbait
edonor
hor dator

KOMENTUA

Ixilik dago komentua
ez da ezer esaten komentuan
ez da ezer gertatzen komentuan
komentuan komentua dago
komentariorik gabe

BAKARDADEA MAITE DUT

Bakardadea maite dut
inor ez dagoelako
ezer ez dagoelako
neu ere ez nagoelako.
Esku bat daukat mindua
ta eztarriko mina

Ez dago ama
karraskilo ura egiteko
ez dago ezer
mendiak ezik
errekastoa
ardi zintzarriak
harriak
pagosto zimelduak
errauts koloretan.

Udazken bakarti
nazkati.
Eguzki zimurra.

ARANTZAZU

Ta ixildu
ta esan
ta uste
ta utsik
ta
ta
ta

Ta atea
ta lehioa
ta harkaitzak
ta amildegia
ta
ta
ta

Ta atzoa
ta gaurra
ta biharra
ta etzia
ta
ta
ta

ta igoala
ta antzekoa
ta estrinakoa
ta betikoa
ta
ta
ta

Melodia ezaguna atzerrikoa
—nungoa zera uxoa?—
hitz ulergaitzak
baina karraxi bat

— — — — — —

Hitzak palta direnean
ixildu
hitzik ez denean
hatzaparrak erabili
hatzaparrik ez denean
bota burua
bururik ez denean
amen

— — — — — —

Ekaitza, tximistak, trumoiak
ura, euria, elurra, kazkabarra,
odeiak, izarrak, eguzkia,
oinak, belaunak, ipurdia.

Exeri eta kitto.
Begiak saldu.

AMORRUA

Edan zure amorrua
ozpina kolpean edaten den lez
Edan ondoraino
bakarrik
zure hitzen alperrikakoa.
Saldu gibela minbera
galdu egingo duzu bestela.

Hartarako egiten duzu lan,
hartarakoxe nekatu
ezereztarakoxe.

Hain zuzen
amets egitea ez da zilegi
uste izatea ere
debekatua dago total.

Alperrik da gizu erakutsi
gero alperrik egingo dute lan.

Hartarakoxe ari zera.
Saldu beraz
gibela.

PENTAGRAMA

Biolin bat dabil
samin esanlari
bakarrik
pentagrama soilean.

Zer ote du barnean
antsi busti,
ater ezin?

Zelaietako lili
ur zirrinda urduri
harriz harri

Begiak batu
esku atzean.
Anitz pentsatu
ezerezean.

Atea zabaldu
lehioa zabaldu
eskua zabaldu.
Atea,
lehioa,
eskua galdu.

PEILO MARTIN

Izena da, izen bat
nirea,
beste edozein izen bezelakoa.
Peilo Martin
Burua bustiaz ipini zidatena.
Maite dut nire izena
aitak eta amak aukeratua.
Peilo entzutean
jiratzen dut burua
nire izena delako.
Eta edozein hizkuntzetan itzulia
badut ikusten
hara noa jakitera
beste Peilo zein den.

Harria esan nahi badu
harrizkoa izan nahi dut
harri utsezkoa,
bizirik gabea
gure mendietako harkaitzetakoa,
edo harrika botatzen den harri koskorra,
edo soroan traba dena.
Harri uler ezina,
katedral zaharretako harri kastatua
euriak eta aizeak gizaldietan zehar ondatua.

Nire izena Harria izanen da.

Hitzak bilatzea
hitzak pixatzea
hitzak aukeratzea
hitzak entzutea
hitzak hitztea
hitzak adoratzea
da

poesia

izar hitzak
eguzki hitzak
ilargi hitzak
odei hitzak
argi hitzak
ludi hitzak
da

poesia

hitzak gizon
hitzak emakume
hitzak amorante
hitzak ume
hitzak morroi
hitzak langile
da

poesia

ni hitzak
hi hitzak
bera hitzak
gu hitzak
zu —zuek— hitzak
haiek hitzak
da

poesia

hitzak nik
hitzak hik
hitzak berak
hitzak guk
hitzak zuk —zuek—
hitzak haiek
da

poesia

lan hitzak
indar hitzak
gudu hitzak
eriotz hitzak
bizitz hitzak
Hirri hitzak
da

poesia

hitzak maitasun
hitzak antsi
hitzak amorru
hitzak ezerez
hitzak bihotz
hitzak oro
da

poesia

bat hitzak
bi hitzak
hiru hitzak
hamar hitzak
hamaika hitzak
mila hitzak
da

poesia

MUSIKA BILA

Musika klasiku borobila
abots edo orkesta
berdin da
arnas emaile
irratian bilatu dut

etzegoen

itzali dut irratia
ez dut behar irratirik
musika klasiku gaberik

antomoilen zurrumurrua
erlojuaren kolpeak
emakumen marmarioak
joko dute
gaurko musika klasikua
egunerokoa

ZERBEZA

Alemania-ko zerbeza
beltxa edo oria
zoragarria
andregai bat bezelakoa:
bihotzera doa
zuzenean
eta bihotza aldatzen du.

Alemania-ko zerbezak
Alemania-n egoteko adorea
ematen du,
Alemania adoratzeko adorea.

Dormund edo München
halakorik ez zuen
Jainkoak sortu.
Gizonak asmatu zuen
beretzako
Jainkoa bihurtzeko gogo emateko.

Beltxa edo oria
nesken ileak bezelakoa.
Ilargia eta eguzkia
eta izarrak.

JUAN DE HUARTE, HAUGI ETXERAT...

ETXARREN-LOHIGORRI

BIGARREN EDIZIONEAREN LERRO BATZU

Huna hemen Ioanes Huarte de Sanjuan biologo-sendakin famatuaren bizitza; lehenago ere argitaratu izan du autore berak, baina orduan egilearen izketa aldatuxea agertu zen. Oraiko aldian Garaziko euskara berean agertzen da, Etcharren-en izkuntza propioan (gurea baino aberatsago dena).

Biografia-bizitza huntan egileak, guti ezagun diran berriak agertzen ditu. Bere baitarik asmatu itxurapen zenbeitez orniturik aldika.

Baxenafarroa-ko Merindadea moztu zutelarik Nafarroa osotik XVI gn. mendean, bere hartako nafarrek etzakiten frantzesik, baino bai euskara eta gaztelania ere; alderdi honek burukomin eta zorigaitz aundiak ekarriko zieten baxenafartarreri. Heien ontasun eta lanpide partituak aipatu gabe, Karlos Quintoren egitate txar hura ondamendia izan zen dohakabentzat eta arront galduak bezala gelditu.

Espainialdeko nafarrek etzituzten iparrekoak adiskide, Nafarroako beregaintasunaren gerlako alderdikeri eta etsaigo zirela kausa; eta frantzesak oraindik etsaiago, baxenafartarrak erdi-españoltzat artzen zituztelako. Egoaldean, memento bortitz horiek guti aipatu izan dira; Nafarroko euskaldunek etzituzten onartzen Iparraldeko anaiak, iges egin beharra zutelarik; katazka eta zoritxar aundi horiek Etcharren-ek zeheki kondatzen ditu.

Huarte de Sanjuanek amatxiren aldetik yudu kutsua ekartzen omen zuen, eta alderdi hau ere luzeki azaltzen du idazleak, auzo berekoa baita Etcharren eta bildu izan ditu berri jakingarri asko Kondairatik eta bai tradizionez ere lekuaren gainean. Beste gauza ohargarria Biografia huntan, egileak dituen erreztasunak Huarteren perpausa illun eta nahasiak euskaralatzeko, naturaltasun aundiena erakutsiz eta errezago eginez itzulpenak aise, Huarteren orijinalak berak baino; ezpaita hau auntzaren gauerdiko eztula, erraten oi dan bezala.

Autoreak ongi aski daki, itzulpen batean ideiak euskaratu behar direla eta ez erdara itzez itz; ideiak ongi ausnartu ondotik, eta euskeraren kutsu propioa galdu gabe.

Bestalde, Garaziko euskara goxoa lerdenki erabiltzen du idazleak eta loria bat da haren irakurtzea. Gaiaren aldetik beraz, eta bai azalarenetik ere, interes aundiko liburua; irakurtzea merezi duela ez da dudarik.

A. IRIGARAY

Orrialde huntan nahi ukan dugu aipatu xeheki Nafartar idazle bat; Juan Huarte de San Juan. Hamaseigarren mendean bizi zen. Ez da beraz oraikoa. Liburu bakar bat baizik ez du idatzi, bainan fama gaitza bildu zuena bazter guzitan... Damurik, mendeak joan, mendeak jin, fama hori itzalia bezala zela iduritu zauku eta, zerbait eginez baizik haren alde, arrapizte bati buruz abiatuko ginela.

Lan hunek nahi du lehenik nun eta noiz sortu zen Joanes Huarte goraki erran. Horra zertako nobela edo eleberri bat iduri duten lehenbiziko kapituluek, frogatu xehetasun batzuz eginikako eleberria. Bixtan da bertze frango xehetasun asmatuak izan direla, bainan oro har, Huarte-ren bizia hobeki konpreniarazten dute.

Ez du Huarte-k eskuaraz deus idatzi eta "Izpirituen ikertzea" españolez egina da, nahiz gero zenbait mintzairetara itzulia izan den. Zuzen da bere sort-herriko mintzairean ere aipatua izan dadin, ezen eskualduna zen hura ere gu bezala. Horra zertako galdegiten dakogun bere herrira itzultzea...

Izpiritu argienetarik zelakotz ukan zituen ainitz irakurle eta jarraikizale. Ukan ere etsaiak... Geroxago esplikazaleak edo argibide-emaileak... Bertze orri batean agertzen dugu nor eta nor ari izan den lan hortan, eta zoin irakurgai baliatu ditugun gure lan hunen apailatzeko.

Agian eskualdun gazte zonbeitek nahiko dute Huarte-ren erakaspena aintzina miatu beren konduko... Horrela Nafartar hori beti eta gehiago ezagutua izanen da bazterretan eta Nafarroaren omena ez da ttipituz joanen, Jainkoak nahi badu.

IPAR NAFARROAN GAINDI, JOANES HUARTE-Z ZERBAITEN BILA

Noiztenka entzuten dira solas batzu Juan Huarte idazleaz, baizik eta Cervantes hartaz baliatu zela "Don Quijote" haren izkiriatzeko eta Rousseau ere hartaz oroitu dela bere liburuetan eta

holako... Joan gira beraz haren sort-herrira, Uharte-Garazirat, jakin beharrez nor ote zen Juan Huarte.

—Jauna, Donibane-Garazin ikusi dut Labordaineko aintzinean Joanes Huarteren itxura eder bat. Zer gisetarat ezarria da hor?

—Orai 38 urte egiten du, Donibanek bere seme famatuenaren ohoretan oroitgailu hori lehenagoko errabotearen kontra eman zuela. Iruñeko jaun batzuek eskaini zuten. Besta ederra izan zen, nafartar ainitz jin baitziren, bai hemendik, bai hego aldetik, orduko Sauveur Haramburu jaun merak galdaturik. Ybarnegaray deputatuak egin zuen harrigarriko mintzaldia eta ez dut uste ordukotz bazakiela bere herrian, Uharten, sortu zela goresten zuen idazlea. Gauza hori geroztik frogatua izana da Mauricio Iriarte-ri esker. Bainan 1529-ean Uharte, Donibaneko kartier bat bezala zen.

—Nolaz bada kasatu zen hemendik Juan Huarte?

—Noiz eta ere Karlos Quinto enperadoreak moztu baitzuen Baxe-Nafarroa Espainiaren ganik, erran nahi baita 1530-ean, hemendik ihesi bezala urrundu ziren ainitz eskualdun etxeko jaun haundi, eta heien artean —edo behar bada lehenetarik, Huarteren familia. Español egon nahiak ziren, ezen denbora hetan erresuma aberatsa zen eta Europan bezala Ameriketan gaindi eremu haundiak ukanki.

—Nun kokatu zen beraz Joanes Huarte?

—Ez ziren nor nahi. Aitatxi Donibaneko mera edo alkate egona zen, Andaluziari buruz abiatu ziren, hemengo eta mugaz bestaldeko nafartarrak ados ez izanez. Hitz-tegi batzutan kausi ditake Huesca-hirian egin zituela medikuntzako ixtudioak. Ez da egia izaiten ahal, urteri behatuz. Ikasle egon zen Alcalá de Henares-eko ikastegi famatuan eta segur beti lehen atera etsamin edo ikertzetan. Eginzen beraz mediku eta filosofo. Gero Baeza hirian luzaz egon zen, gorputzak artatzen zituela; zazpi haur altxatzen eta bere obra ederrari lotuz konduaren gaineko.

—Zer liburu agertarazi ditu?

—Bat beizik ez du egin, bainan biziki mamitsua eta ohargarria. Deitzen da españolez "Examen de Ingenios para las Ciencias", erran nahi baitu: "Izpirituen ikertzea, jakiteko zer ofiziorendako eginak diren." Europan, mintzaire ainitzetarat itzulia izan zen liburu hori hamaseigarren mendean hasirik. Eta erraiten dauku hartan nola

gizon bakotxak behar duen hautatu bere izaiteari hobekienik doakon ofizioa. Denek badakigu landare bakotxak lur berezi baten beharra baduela eta landare bakotxari lur berezi bat hobeki joaiten zaiola; berdin gizonaren eta ofizioaren artean halako elgar aditze bat bezala bada. Zoin gizoni doakon zoin ofizio, hortan da koropilo guzia.

—Zeri buruz ari zen Huarte liburu hori asmatzean?

—Pentsatzen zuen bere aberriaren eta mundu guziaren ongiari. Jadanik ikusten zuen Espainia, hain gora joan ondoan 16 garren mendean, peko errekarat laster abiatuko zela eta nahi zuen, errekontru hori ez zadien gerta, gizon guziek ahalik eta hobekiena egin zezaten beren lana edo ofizioa, ongi hautatu ondoan. Ohoreak eta handimandikeriak bazterrera utziz, bakotxaren jitea baizik ez ikusiz.

—Ez dea hori oraiko "orientación profesional" delakoaren ideia?

—Bai, bainan goraki erran behar dena da Joanes Huartek, duela lau mende lehen aldikotz asmatu duela, orai burrunba ainitz eginez, zonbaitek bilatzen dutena. Oraiko Erreforman kausitzen diren frango pondu, garaztar idazleak jadanik asmatuak zituen. Eskoletarat hurbiltzen zirener nahi zituen beren dohain edo jeinuak ezagutu eta ez jakitatea. Ez zer ikasi zuten ordu artio, bainan zer ikasten ahal zuten. Oraiko "selección" delakoak ez du bertzerik bilatzen. Eskol-emailek badakite beti eta gehiago "test" delakoak ari direla hedatzen; Huartek ez zuen bertzerik eginen. Bere liburuan bilatzen du zerk egiten duen gizon bat izan dadin gai jakitate berezi batentzat, zoin diren dohain edo jite mota guziak, zoin den jite bakotxari doakon jakitatea eta zoin seinalen bidez ezagutzen ahal den gizon baten jitea.

—Haren arabera zonbat dohain nintuzke?

—Bat beizik ez eta gizon guziek berdin. Hura du bakotxak bilatu behar eta lantu; ez du balio bertze lan mota bati jokatzea, hori baititake ukaraietan burdinen ezartzea, berak dionaz. Behar du jakin ere hean ofizioaren argibide edo teoriarentzat eginak giren ala ez haren obratzeko. Mediku, abokat, lege gizon, armadako aintzindari, errege, teologo eta predikari, denen potreta egiten du eta zonbeit irri xafla eginarazten irakurleari, irri egitea maite baitzuken harek ere. Predikari onak zer kalitate behar dituen,

bai gorputzez, bai izpirituz... Halaber mediku onak eta bertze guziek, kapituluz kapitulu ikasten dugu, ezen Huarte-ren arabera gorputzak ainitz inporta du eta izpirituaren lanak gorputzean ditu bere erroak.

—Fededun zena Juan Huarte?

—Bai eta nolakoa. Ez espantuka aritzen diren hetarik. Ez zituen lehen lerroak maite eta bere liburuan ikus ditake ainitz aldiz zoin laket zuen bere buruaren apaltzea. Hots, gizon umila. Bertzalde sosaren gutizia errestorik etzuen eta haren haurretan, bat apeztu zen eta bertze bat seroratu. Mediku gisa ainitz ongi egin zuen izurrite denbora batez. Bere liburua dena Liburu Sainduetako hitzez mukurru dago eta harendako fedeak eta jakitateak bat baizik ez dute egiten eta biak dira haren oharpenen zimenduak.

—Etzuena ernegurik ukan "Inkisizionea"-ren partetik?

—Sei urtez salgai utzi ondoan baimen eder batekin, bet-betan debekatu zuen Huarte-ren liburua. Iduriz, izpirituaren eta gorputzaren batasun hori zuen partida. Huarte-k asmatu zuen bertze buztanik bazuela gatu horrek, ezen teologo zonbeiti ukatzen du, bere liburuan, predikari izaiteko kalipua. Dio zonbeit minberatu zirela bi ofizio edo ofizio guziendako talendurik etzutela ikusiz. Zer nahi izanik, zonbeit pondu erreberritu zituen eta liburua berriz agertu zen, Huarte hil ondoan, eta mintzaire ainitzetarat itzulia izan, harrigarriko arrakasta ukan baitzuen.

—Egia ote da Cervantes liburu hortaz oroitu dela?

—Bai, Mauricio Iriartek eta Unamunok frogatu dute "Don Quijote" famatuan badirela "Examen de Ingenios" delakoaren asko pondu. Don Quijote bera gizon sekoa, asmu haundikoa... Huartek gisa berean ditu deseinatu gizon mota horiek. Bertzalde Charron idazle frantsesak, Huarteren liburuari ainitz hartu zion eta Juan-Jacobo Rousseau, duela bi mende, Charron delakoaz oroitu zen bere "Emile" famatuaren izkiriatzeko. Diot beraz Huarteren ainitz ideia badirela "Emile" hortan eta hala da haurren haztearen eta altxatzearen gainean bereziki.

—Huarte beraz etzen nor nahi?

—Ez, eta agian emeki emeki ikusten baginu haren omena berriz distiratzen, duela lau mende bezala, zer atsegina haren herritarrentzat eta Nafartar guzientzat!

—Eskerrik asko, jauna. Ikusten dugu badirela Nafarroan gaindi beren herriari errotik atxikiak direnak, beren herria maite dutenak. Zure erranetarik abiatuz nahi ginuke idazle horren bizia miatu eta obra irakurtu. Lehenik ikusiz noiz eta nun sortu zen, zer izan ziren haren haurtasun eta gazte denbora.

—Lehenbiziko urte horientzat xehetasun guti dugu... Bainan egur gutirekin ere su eder bat egiten ahal litaike, egurrak behar bezala ezarriz. Funtsean Huarte berriz gure aintzinean bizi bedi; emozu hats eta bihotz; jin bedi berriz bere etxerat, etxekoek ezagut dezaten...

LEHEN PARTEA

Lehenbiziko orrialde huntan oroitu gira nola Cervantes idazleak bere "Bi zakurren solasak" delako irakurgai aipatuan, bi zakurri mintzoa emaiten dioten. Hemen zakur bat eta katu bat ariko dira erran eta erran ikusten dutenaz, entzuten dutenaz eta sendi dutenaz ere...

Garazin gira, UHARTE-ko jauregian, XVI garren mendean...

Zakur. Berrikitan erosi naute buhame bati, Antxitxartar bati eta, espanturik gabe, prezio on batean. Zakur trebea naiz, omen, eta zaintzale paregabea... Iduri beti loak harturik naizela ene ttattola aintzinean, begiak erdi hetsirik eta muturra bi besoen artean pollikiño pausaturik... Bainan jin bedi eskale bat edo jende arrotz bat... Erausia azkar eta ozen ateratzen zait... Ez dut halere ausikirik egiten nun ez dautan harririk botatzen... Ene hortz zuri eta hotzak aski ditut erakustea... Hain xuxen badoa eskalea auzorat eta jaun arrotzak gibelerat. Beraz Garazin nago, Garazin erausika ari naiz eta begi beharriek dauzkate frango gauza erakusten... Ene sudur luzeak ere bai alabainan.

Katu. Zakur zuri eta beltz hori beti ate aintzinean baitago, ni barne aldetik egonen naiz. Barne huntan ere zer ez da pasatzen? Lehengo denboretan erraiten baitzuten debru txar bat bazoala teilatuz teilatu ikusi beharrez zer gertatzen zen etxe bakotxean, nik

diot ez dela debru izan behar ainitz gauzen jakiteko... Katu bazira, begiak erdi hetsirik, iduri duzu, arima salbu eta, kalonje bat eta hor zira so egile eta beraz laster jakintsun... Pitxitxi hunarat, Pitxitxi harat, banoa ganberetan gaindi eta maiz sukalde bazterretan. Zonbeitzuk erranen dute bihitegi edo sabai zokoan nukela ene lekua, bainan behar den lekuan ez izaitea gauza miresgarria da. Kontrabanda puxka baten egiteak badu gero bere abantaila, eta etxe kaskoan egonez ez nuke hoinbertze arrain edo zitzi zafla ebasten ahal, sukaldaria kalakan dagolarik auzo batekin. Hola gosea balakatzen dut eta bestalde jakiten zer pasatzen den auzoan eta auzoaren auzoan... Izpiritua zerbaitez hazi behar alabainan...

Zakur. Ikusi duzuenaz, Katuak emanen ditu barneko berriak. Enegain aldiz kanpokoak. Hortako gira Zakur eta Katu, ardiak bi bordetan, eta lan partekatua baliosago...

Katu. Barnetik has gaiten beraz... Egun hautan, etxeko anderea dugu frango samin. Ari da joste eta joste... Xatarrak, ohakoa, denak ditu panpinan ezartzen. Nik uste zerbait berri gertatuko den luzatu gabe. Lehen, bizkar pereka ari baitzitzaitan, orai arras bertzela du soinua. Hurbildu orduko, zango muturraz baztertzen nau, iduri baitzaut ostikoa.

Zakur. Senditzen dut urrunera halako erremedio usain bortitz bat. Ez ahal ditake mirikua... Ez da dudarik, hura bera da... bere zapel haundiarekin... Norentzat heldu ote da? Zonbeit egun hautan etxekanderea ez da batere ateratzen. Eri ote dea? Holako emazte ona. Kanporat nahi duenean jalgi, berekilan eremaiten nau eta bagoatzi biak aire ona hartu beharrez, etxe aintzinean zurmintzen egoiteko orde. Uda minean bereziki, maite du itzala, funtsean nik bezala, eta arbola-petan ari da irakur eta irakur... Aldi batez liburu bat galdu zitzaion eta nik laster harrapatu eta ahoan ekarri, erbia iduri. Ez du hain aspaldi lehenbiziko liburuak agertu direla eta enetzat usain bortitzegia dute. Begozte beraz gizonentzat eta emaztentzat. Zer nahi den, badu zentzu eta jakitate gure etxekandereak...

Katu. Jaun mirikua sartu da goiz huntan... Sudur haundi, luneta pare eder bat soinean, iduri du sorgina! Diote zonbeitek jainko ttipi dela. Beinipein eri baten aintzinean, luzaz egoiten da hitzik atera gabe... Lehenik beharria ezartzen dio bizkarrean... Gero bi pentsaketa... Eta gero tisan-tzar bat emaiten dio eriari... Beharrik ez baitugu holakorik edaten Katuek... Ez ginioke sagu

bat ere atxeman hori edan eta... Bainan bati kalte egiten duenak, bertzeari on. Hola da mundu huntako bizia... Artetik erraiteko, gogoa nun ote du mirikuak bere kapa luze eta beltza uzten duelarik ahantzirik eskaler buruan?

Zakur. Auzoko Margarita bilo xuria jin da orai berean... Horrek bi orenen kalaka baduke hemendik atera baino lehen.

Katu. Mirikuak bere solas aldia egin du etxekanderearekin. Elgarrekin edan dute zerbait bero, elurrak baititu denak estali goiz huntan... Ni aldiz su ondoan ardurenean, brasari so eta pindarren jauztekari. Miriku jaunak erran omen du etxekandereari zonbeit egunen buruan seme edo alaba, haurño bat etorriko zaiola. Hortakotz ez du sobera akitu behar... Huntarik jatea sori, hortarik aldiz bekatu... Bizia alegeraki ereman behar... Eta holako.

Zakur. Mirikua atera da. Zaldiz jina baita, kraxtutik hartzen du... Ainitz aldiz ikusi dut bidetan, erdi lo, zaldiak eremaiten zuela... Itxura guzien arabera, gizon hori leher egina da. Ardura galdegiten dute eriek eta ez du nehorri ezetz erraiten. Berdin arratsetan badoa mendietako xendretan gaindi, biziak salbatu nahiz... Eri ainitz eta miriku guti, hori da mende huntako legea... Aintxitxarreko buhametan ere zonbat aldiz ez dut ikusi, ter ter etxez etxe. Sekulan sos bat hartu gabe. Bainan buhamek bihotz ona baitute, zerbait kadera edo zare edo mahain mihimenezko emaiten zakoten eta mirikuak miseria gorrian daudeneri berriz igortzen. Hots, zoin guti maite duen dirua miriku horrek!...

Katu. Egun goizean, Etxekanderea hobeki doa. Omor onean da eta kantuz hasia zauku, ez baitu berdin balio enetzat ere. Ostikoen partez, orai esne xortaño batzu, bero beroak. Marraka arras eztitua bainuen, berriz ozen ageri da... Nihauren burua katuago kausitzen dut, ez baita hori ere guti... To, horra Nagusia... Nun ote zen orai artio? Gibeleko atetik sartua da, zeren eta zakurrak ez baitu erausirik egin.

Zakur. Ene suduño hunek dio Nagusia etorri dela eta gibeleko atetik sartu. Nun zitaken? Behar bada piaiaz... Azken ilabete hautan ari da harat eta hunat kurri... Zerbait berri baditake...

Katu. Nagusia eta Etxekanderea mintzatu dira luzaz... Nagusia ilun dago. Zerbait berri txar ba ote du? Etxekandereak erran dakolarik mirikua izan dela eta berri onak utzi dazkola, Nagusiaren begitartea airostu da eta iguzkitu... Beraz, orai orok

dakitena, seme edo alaba, norbait etorzekotan dugu jauregi huntarat denbora laburrik barne.

Anartean, Nagusia joan da deskansatzera ohearen gainerat. Valladolid-tik etorria alabainan eta bada bide, diotenaz...

BIGARREN PARTEA

Katu. Nagusia egun guzian lo zurrungan egona da, gaizoa. Gero afari egiterat jeutsi da eta senar emaztek buruz buru jan dute. Ni, arrunt xoxo, beha zerbait emanen zaaten jateko, usaia den bezala. Ikusi ditut mahain gainean Errobiko arrain batzu, ttitta gorrikatu hetarik... Aintxitxarreko buhame batek ekarriak hauk, marteiluz bildu ondoan. Tafla, tafla, marteilu ukaldika ariz harri lauz bati, arrainak zanpez teteletuak bezala gelditzen dira... Orduan buhame horiek eskuz biltzen dituzte... Zerbait ezagutza egin behar badute norbeiti, hor dela hor parada gaitza!

Zakur. To, orai atera da Margarita bilo zuria... Zer du, jauregian iragan arratsalde guzia? Zer kalakak... Bertze orduz bi oren egoiten dela... Egun haatik bortz oren iraun du pedeikuak... Zerbait berri ba ote da egun ere?... Hemen egun bakotxak bere berri zaldaria ekartzen du...

Katu. Afal ondoan, nagusiak erran du, bere aitari behar diola berri txar bat igorri. Joana da Akizerat, urte oroz bezala... Erromatismez josia, gaixoa. Alta baditu zonbeit eta zonbeit katu larru higaturik eritasun horren kasatzeko... Hango lohi eta ur beroeri galdegiten diote osasun eta indar. Han denaz geroz, mezu bat igorriko dako nagusiak. Ni ere ausarta, igan naiz mahainerat, Nagusia idazten hasten den aldi guziz bezala. Betiko antzara luma hartu du, ganibet ttipi batekin xorroxtu eta ur beltzean punta luzaz busti ondoan, hasi da idazten...

... "Ene aita maitea: Zure osagarria lehen baita, uste dut Akizeko ur eta lohiek on ainitz eginen dautzutela. Agian etorriko zare ongi sendaturik. Gure mirikuak dio ixtant baten osagarri

bilduko duzula. Agian bai... Valladolid-en ibili naiz, Erregeak galdatu bezala. Erran daut haatik zutaz arras kontent dela, bainan uste duela zuretzat etorria dela karguaren uzteko tenorea. Orai artio gure jauregiko norbeitek atxikitzen baitzuen Donibaneko alkategoa, uste nuen eni emanen zautala zuri kendua. Ez, ez dut ohore hori ukanen, ez eta ere ene semeek. Erran daut erabaki zuela berriki kargu horren emaitea kastillano jaun bati. Nik galdegiten bainion zertan huts egin ginakon, erran daut gutaz arras kontent zela, bainan gu nafartar izanez, ez zela Nafarroko erreinua aski lotua izaiten ahal Valladolid-eko gobernuari. Erran dautanaz, nahi du Espainia guziak harroka haundi baten batasuna, eta beraz indarra, ukan dezan. Haren iduriko, kastillano batek baizik ez ditu lokarri azkar horiek estekatzen ahal... Egia erran, gure jauregiarentzat desohore zaut. Gauz horien hobeki irets nentzan, arta haundirekin errepikatu daut Valladolid-eko gobernutik orai artio hunkitzen zinuen paga segituko zitzauzula. Bainan guretzat, arbasoentzat bezala, ohorea lehen eta ohore hori azkarki kolpatu daukute. Dena den, egon zaite pixkor, aita... Bihotzaren erditik besarkatzen zaitut."

Katu. Bixta azkar izanez oraino, buruan buru irakurtu dut mezu hori. Gero Nagusiak lakre gorri batekin hetsi du eta eman dio mutil ttipi bati. Nik uste bazterrak ilun diren egun jauregi huntan...

Zakur. Mutil ttipia atera da bere galtza motzekin, gutun hori eskutan. Joan da lasterka mezulari baten ganat. Bihar badoa mezularia Pariserat buruz eta bide nabar Akizen emanen du gutuna... So egizue nor heldu den... Jaun erretora... Sotana motz, oraiko modan... Sekulan nahi banu haizatu, zango sagarrean ausikiko dut, galtza beltzak izanikan ere. Alta ez naiz apez jale hetarik, bainan diot bakezko solasak ibiltzen dituen batek zor diotela errespetu Jainkoak egin ihizi mota guzieri. Beraz ni ez haiza hemendik...

Katu. Oi zer ager-aldia... Jaun erretora... Horrek ere katuak maitesko dituela! Eta hiru baditu apez etxean... Ene lagunak... Elgarrekin ari girela gu marrakaz primaderako gauetan... Barka otoi solas ahul hauk. Nahi nuke jakin zer dion jaun erretorak... Laket zaio jauregirat jitea. Adixkide dira hemengoak parropiako apezekin. Funtserat eta, norekin ez dira bakean apezak? Aintxitxarreko buhamek ere noiztenka ukaiten dute erretoraren bisita...

Bainan orokilakoaren egitea ez baita errex, badira mihi gaixto batzu erran eta erran ari direnak, ezin onartuz erromeseri buruz duen bihotz zabala...

Zakur. Hauxe da tabako deitu belar berriaren usain bortitza. Ameriketan gure eskualdunek hatzemaiten dute ba gauza pollitik. Hori behar ginuela orai azen ontzeko! Aire bizi eta garbia ez baitzuten aski bularrentzat, orai ke zikin hori behar dutela iretsi! Eta jaun erretorak ere nihundik ere pipa ahoan! Eta nik berriz ezin jasan tabakoaren urrin bortitz hori... Hortarik jastatu eta ez dut gehiago erbiaren errestoa hatzemaiten ahal eta haragiaren gostua arrunt ahula zaut.

Katu. Nagusi-etxekanderekin ari da eleka bulta huntan jaun erretora. Zangoak surat eta eztulka zanpaka, eztul bakotxak izitzen bainu. Nor dute aipatzen beren solasetan? Nagusi xaharra, hogoi urtez herriko alkate egon dena. Haren xedeak eta obrak dituzte banakatzen eta goresten. Nihauren aldetik, ez dakit zerendako ari izana den xahar hori denen onetan... Gero ostikoño baten ukaiteko. Balio zuen, segur... Gizonen kustateaz badakigu berri... Eta lehenekoek zioten gizona gizonarentzat otso zela. Bai eta ez nola nahiko otsoa... Tripa mehe, hortzak izerdi eta hurrubia samin...

Zakur. Erretora atera da jauregitik eta mizpira makila eskuan, zalu zalua, apez etxera itzuli... Kopeta zuen ilun eta elea motz. Atea hetsi du zanpez... Ez da hola ari ihizi sasoinean dotzena bat urtxo bildu eta... Bainan egun urtxoaren partez xoxokumea duke.

Katu. Etxekanderea nigarrez ari... Mirailari so eta so, nahiz eta nigarrak xukatu mokanes xuri pollitarekin. Erhiak ditu luze. Zoin legun diren ene bizkarra perekatzean! Nigarrez ari da nagusi xaharran pentsatuz. Holako gizon ona, xerbitxu egilea... Zer gizon izanen ote da kastillano alkate berria? Eskual-Herriko usaiak ez jakin, hemengo jendekilakoa ezin egin... Gaixo herria... Orai artio bazoan petik gora. Hemendik aintzina ez da agian itzulipurdikatuko...

Zakur. Nagusia atera da lasterka. Norat ari ote da? Hartu nau berekin estekatik eta ereman. Alabainan gaua da eta elurra... Orai badakit norat ari giren. Mirikua agian etxean izanen da, ezen haren beharretan da etxekanderea. Tenoria etorri zaio azkenian... Zisti zasta elurran barna. Zer akidurak denentzat... Orai gibelerat bagoatzi. Mirikua heldu da bere otso-zakurrarekin. Zakur

hori ez dut begien aintzinean ikusten ahal. Otsotik baduke zakurretik baino gehiago... Bainan ez baita politikan aritzeko tenorea... Noizbait jauregirat heldu gira.

Katu. Ezkoargi bat ganberan, ur bedeikatua sahetsean bere erramu aldaxkarekin... Mirikua sartu da ganberan, haizatu naute, atea zerratu... Sabairat jauzi egin dut sagu zonbeiten bila, afaritekoa utzia baininuten tarrapata guzien artetik..... Biharamun goizean jeutsi naiz gordeka. Alegera zirela bazterrak... Beraz askaiteko mentura banuen. Zer esne goportra eman dautan kozinertsak. Zerbait berri on bazitaken jadanik. Bardako kalapitek beren ondorioa bazuketen. Zalu zalua joan naiz ganberaraino eta ohakoa hatzeman dut beterik. Haurño bat ari zen behatza ahoan, iduri lo, begiak hetsirik, ni sabaian ihizin ari naizelarik bezala... Bainan hau zinez lo zitaken. Sortu berri batek ez ditu alabainan haundien jukutriak ezagutzen... Haurrak maite baititut, atsegin dut ikustea lagun bat ukanen dutala bertzeak kexatzen direneko...

Zakur. Hauxe da hezur meta ukan dutana... Bizpahirur oilaskorenak. Egun apairuak onak ditaizke jauregian. Mirikua ez da debaldetan etorri barda. Seme bat ba omen dute jakin dutanaz, seme bat azkarra eta jadanik behatzaren murtxatzen badakiena. Haurrak ez ditut hastio eta segur naiz denbora laburrik barne elgarrekin josteta ariko girela.

HIRUGARREN PARTEA

Zakur. Goiz huntan zaldi karros pollit bat sartuko da jeuregiko lilitegi haundian... Aitatxi xaharra etorri beharra da Akizetik. Gaixoa, hango egonaldiak ez dakoke kalterik egin... Nik biziki maite dut xahar hori, hain da goxoa eta eztia.

Katu. Aratsalde huntan ditugu haur sortu berriaren bataioak... Uharte-ko eliza panpinan ezarria dute bezperatik, harri gorriak denak garbiturik. Zonbeit pino aldaxka han hemenka barreaturik... Bertze lorerik ez haatik, primadera oraino urrunsko delakotz.. Huna heldu jendakiak purra purra, urrunetik ere. Batzu

soineko berezietan... Halako zapel beltz batekin eta bizarra luze eta lodi. Horiek dira Uharte-judiri aldeko juduak... Ardura elgarrekin daude, beren otoitzen egiteko lekua ere badute eta ez dut nihun ere ikusi han bezalako zazpi muturretako kandelera. Izar haundi bat margolari batek tindatu zuen oihal xuri eder batean. Eta nik ez dut fitsik konprenitzen heien mintzaire berezian. Dakitana da ez direla igandetan biltzen, bainan ebiakoitzetan, beren eliz-urratsentzat...

Zakur. To, huna nun heldu den Elias zaharra, judua. Soinekoak luzeak ditu eta lurrean errestan daramatza. Hori da gure etxekandere xahar zenaren lehen-kusi bat. Behar bada ez dakikezue oraino gure nagusi xaharra judusa batekin ezkondu zela... Zer azantzak izan ziren eskualde huntan jakin zutelarik jendek judusa hura zuela emaztetzat hartuko. Kondatu daute baizik eta galarrotsak ere ukan zituztela. Herriko gazte zonbeitek galdegin zioten nagusi xaharrari ean bazkari bat eman gogo zuen, bertzenaz galarrotsen egiterat bortxatuak zirela, usaia zen bezala. Eta zer arrapostu ukan zuten gazte trufatzale heiek? Ez zuela halako merkatu tzarrik onartzen; Eskual-Herrian bazela oraino askatasun eta, nahi bazuen judusa batekin ezkondu, bere egitekoa zuela eta ez bertzena.

Egin zezaten abiatu galarrots hura edo berdin zintzarrotsa edo oraino tobera... Joan ziren gazteak gibelerat zehe bat sudurrekin. Eta gauaz izan ziren galarrotsak... Zer untzi arrabotsak! Zer sakreak... Eta ber denboran nagusi xaharra, orduan lerden eta gazte, gitarra joiten bere salun ederrean, emazte gaia ondoan. Zer musika xaramela barnetik... Zer azantz okaztagarriak kanpotik... Musikan zuen horrela hatzemaiten bakea gure nagusiak, zerbait atsegabek bihotza aztaparkatzen ziolarik. Auzoko zakur guziak aldiz hasi ziren orroaz, hurrubiaka, hain zen galarrots itsusia. Azantzak ekartzen du azantz... Zonbeit egunen buruan egin ziren ezteiak. Judusak bere sinestea arbuiatu zuen lehenik eta goraki erran girixtinotu nahi zuela. Ez zen hortako bere jende eta familietarik berexi. Aspaldian juduak eta girixtinoak elgarrekin ontsa zauden. Bakarrik zonbeit buru berok edo bihotz zimurtuk zuten saltsa noiztenka nahasten... Debrua ez zitaiken horrela arras samur, harek ere berea behar alabainan. Dena den, ixtorioak kondatzen du orduko gazten buruzagia, delako galarrots egilenak, zonbeit urteren buruan judusa batez agradatu zela eta harekin nahi ukan zuela

ezkondu. Nola erein, hala bil, ukan zuen harek ere orduko gazteriaren galdegintza... Haatik beldur baitzen sasu petarik edo arbola kaskoetarik soberaxko entzunen zuela, gazte guzier bazkari eder bat eman zioten plazako ostatuan... Eta ezkondu behar eta, moltsa bet betan tturrindu eta xoriñoa airatu.

Bainan oraiko denboretaz urrundu naiz... Jin gaiten berriz gure ardietarat. Erraiten nuen bezala, huna nun heldu den Elias zaharra, judua.

Katu. To, Elias... Orai Uharte judiri guzia jinen da. Zer eraztun ederrak dituzten judu horiek... Aberatsak dira okituak. Zer kalipu gaitza duten beren sal-erospenentzat... Huna berriz Myriam eta Esther. Zer nexka xarmantak; sudurra dute poxi bat kaiku, arrazari doakon bezala, bainan begiak iluna baino beltzagoak. Beren mintzairean ari dira... Zer gauza miresgarria... Hemen ez dira hogoi judu baizik eta nola ez dute atxikitzen beren mintzairea... Ez dute lerratzerat utziko. Eta zer kantu pollitak botatzen dituzten beren elizako urratsetan. Hemen gaindi eskuara dute denek ibiltzen, kastillanoa ere bai ainitzek eta horien gainerat, juduek hebreo mintzairea.

Zakur. Aratsaldeko lauak. Burrustan heldu da jendea jauregirat. Zoinek hobeki erakuts bere beztiment berria. Xamarretan dira gutiz gehienak, galtzak belaunetaraino eta gero galtza motz zuri batzu. Anderek ere etxeko kutxetan zituzten edergailuak atera dituzte, petent eta ustei distirant... Zaiak aztaletaraino, kapa luzeak gainetik... Elgarri ebaska so eta berriz so. Urgulua eta ahalgea biak ber preziotan, merke. "Jo bezate ezkilek..." Domingo zeinu joileak badu nun josta, ezkila haundiaren eguna da... Garazi guzian aditzen dena euria hurbil dagolarik. Egun euria hurbil ote dea? Ala ortzantz ximixtak? Zertaz egina izanen da geroa? Geroa zabal eta luze da haur ttipi batentzat, geroak irri egiten dio, beraz jo bezate ezkilek gogotik... Zaldi karrosaren azantza ez dugu hauteman ahal izan hainbertze arrabotsen artetik; azkenean etorri zauku Akizetik nagusi xaharra, uste baino berantago, bainan hor dago, betiko xahar pollita... Jendea lilitegian barna badoa errunkan... Denak eleketa... Alegrantzia bihotzetan eta arpegietan. Premontre ordenako fraideak bidera etorri dira. Aspaldian Jaungoikoaren laudorioak dituzte kantatzen egunaz eta berdin gauaz Uharteko eliza ederrean. Kantu xarameletan eliza airatua dela, bataioko urak Juan Huarte girixtino egiten du behin betikotz.

Girixtino bizia, gudari bizia... Ateratzean, zer irrintzinak eta zer esku zartak... Denek Juan ttipiari nahi dakote bizitze luze eta sano bat opatu... Nagusi xaharra baita ugazaita, hain da uros nun nigarño bat heldu zaion begietarat... Bai, gizonek ebatsi diote Donibaneko alkate alkia, bainan Jainkoak eskaini dio familiako bozkarioa. Eta bozkario hori miletan haundiago...

Herriko haur guziak pilota plazan bilduak dira eta nagusi xaharrak sakelatik sosak ateratzen ditu ahurtraka eta firrindaka botatzen lurrerat... Jin arauka, haurrek bil eta bil elgar baztertuz. Hantxetan bi muttiko nigarrez ez baitute deus bildu ahal izan. Aitatxi xaharra ohartu denean badoa heien ganat, sakelak betetzen dioztela. Gaixo aitatxi... Bere bizi guzian ez dea hola ari izana? Behardun, umexurtx eta dohakaben alde. Gero jende guziak jin dira lilitegiko arbola petarat... Jadanik ostoak ari ateratzen eta aldaxkak berritzen. Primadera hor ari ezin sartuz eta negua ezin ateraz... Biak batean ezin egon. Batek bertzeari lekua utzi behar... Gizonen artean bezala naturalezan ere... Irulegiko arno gorrastatik bada hurrupaka eta nahikoa... Zonbeit hasiak jadanik polliki tritzoka. Ez dea loriagarri ikustea zoin trebe diren... Batek bota, bertzeak errefera... Potolo zangomotza lurrerat erori da.

* * *

Katu. Joanes Huarte puttikoa haundituz badoa eta laket zaio jadanik jauregiko ingurinetan lasterka. Noiztenka eremaiten du aitatxik oihanetan gaindi eta han erakusten dazko arbolen eta aberen izenak. Eskuaraz eta kastillanoz, bixtan da. Ezen aitatxik dio bi mintzaire ikasten ahal direla ber denboran. Arbolaz arbola huna jauzteka urtxintxa... Arbola zuri hura, urkia, iduri zilarrezkoa. Eta larrazkenean erortzen diren osto ederrak, iguzkia berekin deramatela... Eskupilatzen dituzte eta ikasten zoin arbolatik erori ditazken. Aitatxik dako erakusten horrela gauzer ongi so egiten. Egia gauzetan dago eta hura da bilatu behar.

Zakur. Bai, nik ere gauza bera pentsatzen dut. Bainan zer egiten dute ardurenean gizonek? Jo hunat, jo harat, ari dira beren asmoen hedatzen beren ustekerien ereiten eta hortarik dira sortzen herra eta gerla.

... 1530ean gira. Ez dukezue sekulan igartuko zer gertatuko den egun edo ilabete hotan. Sunda haundia dugu zakurrek eta gizon guziek badakite nola heietarik batek mundu hau utzi behar duenean aritzen giren hurrubiaka zonbeit egun aintzinetik... Ni ere hasi naiz jadanik, ezen gorputzetik arimaren berexte bat gertatuko da hemendik laster. Berri tzar batzu ari zauzkigu bazterretan kurri eta kurri... Erraiten dute, omen, Karlos Kinto erregeak ez duela deus egin nahi Ipar-Nafarroaren alde. Orai arte behar ziren laguntzak igortzen zituen zerbait izurrite edo gosete hedatzen zirelarik hemen gaindi. Bulta bat huntan, deusik. Don Lope harritua dago eta igorri dio mezu bat galdeginez otoi, lehen bezala, axola ukan dezan hemengo jendez. Zergak beti pagatzen dituztela eta ez ttipiak... Ordainez zuzen dela begiratuak eta artatuak izan diten.

... Erregea urrun dago eta erregearen gizona baita Lope, Ipar Nafartarrek ez diote grazia onik egiten. Herriko-etxe aintzinean pasatzen direlarik ukanbiloa dute altxatzen murmurikan eta gauaz oihuka. Soldado guti bazterretan. Alde batetik hobe segur, zeren eta sotoak eta sabaiak ez baitituzte miatu gabe uzten... Katu guti sotoetan. Ez baitira haatik ikusteko pollitak Karlos Kintoren soldado ziganteak, behin edanez geroztik. Liédena eta Riojako arno pizu horiek bereala bururat joaiten dira eta binbili banbala egiten dute arrabots pollitik soldadoek dupen artean.

... Halere zerbait pataska delarik Frantziarekin, beti hobe norbait ukan dezagun zaintzale, kastillano izanik ere.

... Egun entzun dut Karlos Kintok arrapostu bat frango latza egin diola Don Loperi. Behar ditu bihar bildu Donibanerat; Oztibarre, Amikuze eta Baigorriko alkateak heieri erakusteko gutun bat Valladolid-etik etorri berria zaldidun baten bidez. Bera arras ilun dago, harat eta hunat egun guzian. Nehork ez du hurbiltzen ahal, kopeta murritz eta begia frango dirdiran. Zer gertatzen da bada? Alabak ari zaizko josteta etxe inguruan eta heieri so eginez begiak ditu apaltzen. Gogoetan sartzen da.

... Amikuze, Baigorri eta Oztibarreko jaun alkateak etorri dira erran tenoreko. Don Lopek bere saluinean errezebitzen ditu mahain eder baten inguruan. Irri guti naski. Harrituak daude bertze alkateak eta pentsaketa ari ditaizke eian kastillano batek ez luken grazia gehiago ukaiten ahal. Emeki emeki huna nun idokitzen duen gutuna eta hunela erraiten: "Jaunak, bildu zituztet egun

jakin dezazuen zer delibero hartu duen gure Karlos Kinto errege haundiak Ipar-Nafarroarentzat. Hemendik aintzina Ipar-Nafarroa ez da gehiago Espainiari lotua izanen."

Bertze hiru alkateak xutitu dira betbetan zerbait lur ikara hauteman balute bezala... Eta zonbait aldiz ez dea gertatzen lur ikara bat Ipar-Nafarroan? Egun, lurra ez da mogitzen, bainan gizon horien odola da lurrari atxikia eta ez dute onesten ahal holako trenkatze bortitzik. Baigorriko alkateak dio: "Bai; zerbait sendi nuen aspaldian, hain ziren gauzak makurtuak... Halere ez nuen uste ondarra, kanporat manatuko ginituela Karlos Kintok. Hori ez dut onartzen."

Amikuzekoak aldiz: "Lehenik jakin behar ginukena, zertako Karlos Kintok hartu duen holako erabaki garratza. Badituzke bere arrazoinak. Ala arrazoinik gabe botatzen ahal ditake jendea erresumatik kanpo, eta lurrarekin oraino eta etxekin...

Don Lope hasi da gora gora gutunaren irakurtzen: "Pirineoko bortu horiek xut xuta dagotzi Espainia eta Ipar-Nafarroaren artean. Elurra usu negu minean eta arras lodi goratasun horietan... Horren gatik ez dut Ipar Nafarroa errexki gerizatzen ahal Frantses gudarien ganik. Denek badakite Amikuzeko zelaietan gudari horiek laster sartzen direla! Nik ez ditut behar den tenoreko ene gudariak hemendik igortzen ahal, behar diren harma eta kanoiekin. Nahiago dut mendietan ezarri zaintzale multzo bat, Espainia hobeki baizik ez da gerizatua izanen.

" Bertzerik ere bada. Jadanik girixtinoen artean berexkunde haundiak ari dira sortzen, mendiak ez bezalako zerrailuak. Hori da Protestanten berrikuntza eta gure Alemaniak badaki zer den. Erromako Aita Sainduari errotik atxikia naizenaz geroz, ez dut begi onez ikusten ahal holako aldakuntza. Arbola landarean, nola onar aldaxka bat makur joan dadin?

" Bertzalde jakina naiz ideia berri horiek Ipar Nafarroan guti edo aski sartuak direla. Eskualde hortarik has laiteke beraz ene erresumako zimenduaren desegitea. Fedeak emaiten duen batasuna joanez geroz, nola atxik Espainia azkar eta bat?... Horra zertako beraz erabaki dutan hemendik aintzina Ipar-Nafarroa bere gain jarriko dela. Jainkoak emanen dauzuete agian behar ditutzuen laguntza guziak."

... Ai! zer buru hausteak eta hersturak ainitzentzat! Lehen lehenik mahain inguruan daudenentzat... Lau alkate jaun horiek nork behar ditu hemendik aintzina pagatu? Beren alkiko karguaren ongi betetzekotz behar dute egun guzia lan hortan pasatu, ezen bakotxak baditu bederen dotzena bat herri bere meneko, Baztanen bezala. Eta bertze Ipar-Nafartar guziek nola dute ihardokiko holako manu bortitz bati?

Mendez mende Ipar Nafarroa, Nafarroaren hegal bat bezala zen. Espainiak Nafarroa beretuz geroz, gauzak arrunt bertzelakatu dira eta hamabortz urteren buruan, huna nun Karlos Kintok hegal hori ondarra mozten duen. Hegal bat hautsi ondoan, xori batek ez duke gehiago bizitzerik. Nahi du hegaldatu, bainan bere gorputzeko pizuak berriz lurrera botatzen du. Eta hegala zertako da, gorputzetik berexi ondoan? Ipar Nafartarrek bere gain jarriz, zerbait helburu baluketea? Frantziak, auzoko Frantziak, ez ote du bere aztapar zailetarat bilduko Ipar-Nafarroa? Ai, dohakabeak mugeri hurbil dagotzin eskualdeak... Ezker ala eskuin, beti norapait botaiak... Beti gudarien gudu-leku... Halere arrotzen ihes-leku. Ifernu eta zeru,... noiz nola.

... Beraz bildu dira lau alkateak eta erabaki dute Biltzar baten apailatzea Galtzetaburun. Horrela gizonek elgarrekin ikusiko dute norat doatzin holako aro txar baten pean.

... Biharamunean badoa herriko mutila ibar guzia kurrituz eta turuta joz: "Helduden igande goizean Ipar Nafartar Guziak gomit dira Biltzar batetarat. Usaiako lekuan egina izanen da. Eskualdeko lau alkateak buru. Karlos Kinto erregearen xedeak irakurtuak izanen dira behar den argitasunarekin." Hori entzutean emazteak biderat atera direla denek sinetsiko dute. Nolaz es solasta auzoekin? Gizonen ganat badoatzi lasterka, odei beltz bat hedatzen ari balitz bezala Garaziko zeruan... Hauk lanetik bara. Bertze orduz senarrari diote eskaintzen alorrean arno zorta edo baratxuri salda... bai eta beren irriñoa ere. Egun eskuak hutsik daude, irriñorik ez. Gizonak ez du errexki sinesten emazteak errana... —"Bai, zuek denak berdin zirezte... Erranen dautzuete idi bat airatu dela... Bereala aterako zirezte bitzikeriak sinetsirik." —"Baia? Gaizoak zuek, beti aitzurrez eta besoz azkar zirezte... Noiz sar araziko duzue kasko gogor horietan emaztek errana ez dela beti gezurra? Egun bederen ikusiko duzue egia dugula erran."

... Karlos Kinto erregeak erabakia jakinen dute beraz, igande goizean... Anartean aintzina lanari lotu dira, baitakite biziak egunez egun segitu behar duela, pasatuak pasatu. Haurrer, eta emazter jana zor zaiotela, gertatuak gertatu. Zonbat aldiz ez dira hor gaindi iragan bi erresumetako tropak ogi landak xehatuz... Uros oraino ez zutelarik zerbait tirokatze abiatzen salbaikeriaz... Bat baino gehiagotan laborari xume bat hola izan da aurdikia tiro batez, soldadoek elgarren artean jokatu ondoan lehen golpean kausitzen zutela. Holako joko frango badute eginik batzuek ala bertzek, bereziki bake denboran... Bakea eskualdean, bainan gerla gizonaren bihotzean eta oldarra nolazpait kanporat jalgitzen.

... Jin da igandea. Goiz mezarat joan dira gizonak eta gero zaldiz edo zaldi-karrosetan Donapaleurat buruz, Galtzetaburuko maldaraino. Andanaka bildu dira haritz zahar eta perde baten pean. Alkateak jadanik han, bertze orduz hek baitira berantenik heldu. Beraz irriak kasaturik, bada zimurdura frango.

Usaia den bezala, Nafartar Cortes-etako himnoa dute denek betan kantatu. Oihanean urrun badoatzi Eskual botzak, arboletik arbolera. Arbasoak nola arnega lezazke eskualdun jendeak? Gero denak jarri dira soropiloan, haundi ala ttipi, aberats ala jende xume. Denek hein bera dute eta ez du aberastasunak bati ala bertzeari nortasun gehiago emaiten. Donibaneko alkatea xutitu da... Ez da eskualduna, bainan eskualdunak maite ditu. Gora gora Karlos Kintoren erabakia irakurtzen du. Jadanik murmurika hasia da jendea eta han hemenka zonbait oihuk diote eian erregeari behar den obeditu. Erauntsia hastera doanean, haizeak abarrak inarrostean, zer arramantza Garaziko oihanen zolatik... Halaber Galtzetaburuko oihan beltzean bakotxak bere ikusteko moldea botatzen du...

"—Zer uste duzue? Esklaboak girela, leheneko esklaboak? Zer uste du Erregeak nor nahiri salduko gaituela?

" —Lehen, Nafartar ginen eta ez ginauden hain gaizki... Gero Valladolid-eko handi-mandiek gaituzte beren-ganatu... eta orai zer? Heiek nahi dutelakotz duguia guk Nafar izaiteari uko egin behar?

" —Joan behar dugu Karlos Kintoren mintzatzera, erraitera bipilki ez dugula Espainiatik moztu nahi, edo bederen Nafarrotik. Gu uztekotz, utz dezala ere Hego Nafarroa eta lehen bezala ariko gira, berriz elgarrekin eta aizutasunean.

" —Bai, urtxoa utz dezala lumatu gabe oso osoa kaiolatik ateratzera...

" —Hori bera, zer debru!"

Bazkariteko tenorean, bakotxak ekarritik jan dute eta, denborak garratzak izanikan ere, Irulegiko arno turrusta ez da agortu. Lehengo erromanoek erraiten zutela arnoan kausitzen dela egia, eskualdunek daukate arno azkarrean gorputzaren eta bihotzaren xutik atxikarazteko indarra.

Izan da kantu bai eta pertsu, denak kartsu, iduri bihotzetan su. Xedeak hartu dituzte, bainan gizona gizon izanen deno, xedea xede... Ilun nabarrean bakotxa badoa bere etxera, espantu haundirik gabe.

Bihotzean derama goizean entzun mezua. Zinez elgarrekin zireno, kurutzeak ez zuen hain dorpea iduri. Orai, bakotxak ereman beharko ixiltasunean, bere baitan. Oi gizonaren bakartasuna!... Zoin guti den gizona bakarrik denean. Zoin guti Ipar Nafarroa... bakarrik!

* * *

Zakur. Uharte-ko jauregian bazterrak ez daude ixilik. Aitatxiri goiz huntan alditxar bat gertatu zaio... Alta gordeka ari izanak zaizko ahal bezain luzaz... Ez zuen jakin behar oraiko politika zentzu gabearen berri. Bainan ez baita aitatxi atzo sortu hetarik, nolazpait badaki zer gertatzen den. Norbait balinbada Nafarroaren zorigaitzak hunkitzen duenik, hura da. Ez-ontsa batek harturik ereman dute oherat... Hatsa ezin hartuz badu aski lan, lehioak idokiak izanak-gatik. Mirikua etorri bezain laster sangaratzen hasi da... Gaixo aitatxi... Ez ahal dute odol hustuko...

... Lehiotik zeru urdina ageri da. Primaderako loreen usain goxoa heldu zaio bafadaka, iduri eta hain maite duen baratzeak ere behar diola eskukaldi bat eman sendatzeko. Iguzkia mendietarat hurbiltzen ari da... Haundiago emaiten du suntsitzeko orduan, iduri eta bere izaite guzia nahi duela lurrari ekarri iluna etorri aintzin. Aitatxi Nafarroa gogoan dago.

Ez ahal da aiten lurra, aiten aberria suntsituko? Zer zorokeria egin lezaketen zonbeitek aiten erakaspeneri ez segituz... Lehen, Iruñeko erregeak ez zuen, hurbiltzekorik ere, onartuko holako

mozte bat, zeren Nafarro guzia berea baitzuen eta maite seme batek bere ama bezala. Orai aldiz, Valladolid-eko erregeari zer zaio Nafarroaren puska baten gain behera botatzea? Ez da bera Nafartarra... Holako arrangurek ez dute aitatxi sendatzen laguntzen. Nafarroa beti danik bihotzean duenak, nola baia eman lezake partekatze bati? Edo bihotzak erditik eginen dio!...

... Mundu huntako ezinbertze edo penen soleitzeko Kristo hor da, berekin baitauka Bizia eta Bakea. Kristoren baitan du aitatxik indarra bildu bizi huntarik despeitzeko. Orai Zeruko erresuma ederrean dago, lur huntako erresuman ongi lanean ari izan delakotz. Eta han ez da berexkunderik. Orai duen alkitik nehork ez du aurtikitzen ahal eta Jainkoa bera da harekin betikotz buruz buru, zeren eta lur huntan jende xehearen alde agertu baita Garaziko edozoin harat hunatetan. Egarri zenari edatera eman dio, gose zenari jatera, biluzia zenari arropak eskaini eta arrotzari leku bat egin. Horrela Jainkoa zuen ohoratzen...

... Huarte-ko zeinuak asi dira plañuka. Berria bereala herri guzian hedatu eta herritik kanpo ere. Bigarren egunean aitatxi nafartar lurrean ezarri dute, zointan geroztik igurikatzen baitu denen arrapiztea. Hain maite zuen harri gorrizko elizaren itzalean dago, bainan arima Iguzkitarat.

... Gero jendea etorri da hirugarren egunean arimarentzat otoitz egitera. Batzu ala bertze, arras hunkituak... Zerbait kontseilu emaiten ahalko zuen aitatxik oraiko kenka gaixtoan. Lehen ere aisexka baztertu zuten bere alkate alkitik... Orai, Ipar Nafarro guzia zuten baztertzen pilotariak gainerat heldu zaion pilota bezala.

... Zonbeit egun joan, zonbeit egun jin... Valladolid-etik etorri dira Biltzarrak izendatu gizonak. Karlos Kintok ez du deus entzun nahi ukan. Bere tema tzarrean jarria da eta handik ez da higitzen. Zer izanen da beraz eskualdearen geroa? Gazte batzu, galarrotsetan bezain trebe, bildu dira oihu parrasta bat egin beharrez. Maiatza alabainan... Harrika ere ari izanak dira alkatearen etxeari, hura hobendun balitz bezala... Bainan zer egin lezake harriak harriaren kontra? Adinetakoak haurren geroari ari dira arrunt gogoetatuak. Orai arte Salamancan edo Zaragozan eskolatzen ziren haurren artean kalipu hoberenak zituztenak... Orai norat joan beharko dute? Ala Pariserat... Xabierreko Frantsesek bezala?... Bainan Ipar Nafartarrek ez dakite frantsesik... Beti danik eskuara dute erabili eta kastillanoa... Nola kausi oraiko gaztek zerbait bizipide? Ez da

hain aberats eskualde hau eta ez da etxalde ainitzetan eremurik aski denen biziarazteko... Eskualdunek beti danik ukan dute herritik lekutzeko sukarra... Eta orai, berrogoi ta hamar urte huntan horra nun dugun lur berri bat itsasotik haraindian. Kristobal Colonek eskualdunen laguntzeko egin ote dia bere pidaia haundia hiru karabel xuritan?... Lurra hemen jite txarrekoa dugu... Ez da aski ereitea, behar da jakin nun eta nola. Lurra da uztaren ama. Eta lur hori ez jori...

Hain da ere bakotxarentzat gain gaineko mailetarat heltzeko itxaropena ttipia, ez deusa... Eta nori zaio lotzen delako sukarra? Etxaldetan premu gai ez direneri. Min guti eginen deete lur eta mozkinek burrasoak mundu huntarik aterako direnean. Beraz gazterik badoatzi urrun zorionketa. Hemen etxaldeak ttipiak dira alabainan eta denen artean partekatzen badira, deus guti gelditzen da bakotxarentzat. Hemendik aintzina, Ipar Nafarroa bere gain balin bada, gure oihanetan diren haritz eta gaztain ondoak norat lekutuko ditugu? Eta gure behi eta azindek eman esnearekin egin gasna beribilak. Nun salduko ote dira? Bertzalde baditugu ola zonbeit han hemenka. Oihanetan egin egur ikatzarekin dute burdina emaiten garbi eta urdin. Norat joan beharko du burdinak? Eta Bankako kobre ederrak? Zerbait mozkin ekartzen duten saltzeak zoin hiritan eginen dira? Iruñen ala Zaragozan ala Logroñon? Muga hor berean izanen dugu, Aranegiko aran bazterrean, ur haundiak emaiten duen bezala. Mugari nola nahi duzue tiro egin? Sos alde bat ederra xahutu ondoan mugaren iragaiteko... Bertze muga ipar aldean izanen dugu Arbutiko eremuetan, Donapaleutik landa. Eta Ipar Nafarroa zepoan hartua izanen da Espainiaren eta Frantziaren artean. Batek ez gaituenaz geroz berekin atxiki nahi, bertzeak gaitu denbora laburrik barne gutiziatuko. Anartean zangotik harrapatuak gira jukutria pollit baten ondotik... Nola jokatu behar dute Ipar Nafarrek? Orroaz ariz? Ixilik egonez? Zer koropilo latza...

... Karlos Kintoren soldadoak badoatzi deus ahantzi gabe. Abiatu aintzin sotoko goporrek beren behialako lana behin baino gehiagotan egin dute... Irri partida zonbeit Donibaneko karrika meharretan... Eta gero, biharamunean, izotza jeiki orduko, soldadorik ez da gehiago ezagun... Alabainan, Karlos Kintoren manuari jarraiki behar, nahi ala ez... Halere gudariak zangoak arin... Errorik ez.

... Gizonek elgarrekin pizten dituzten eztabadetan, Jainkoaren nahiak bakea ixurtzen ahal du, su-hiltzaleak ura bezala erratzen ari den etxe bati. Gizoneri da Jainkozko bake horren galdatzea behar den apaltasunarekin. Garazin badira aspaldiko beila-lekuak, Baigorrin eta Amikuzen ere. Gertakari hauiek gure lurra inarrostean, denek egin behar dutela beila bat Salbatoreko mendi kaskorat erabaki dute ibar guzietako apezek. Eta jendek baietz erran... Harri erauntsiaren lekuarazteko zonbat aldiz ez dira laborariak ibili patar horier goiti... Han bizi da ermitau bat, bizar luze, begi argi. Kapera xuriño batean ditu bere otoitzak erraiten, uztak eder jalgi diten behereko zelaietan. Gaizo laborariak... Denen beharra urtearen ongi bururatzeko... Orai haatik, uztaz bestalde da. Ipar Nafarroaren geroa dute segurtatu nahi. Geroa Jainkoarena delakotz, hari behar galdatu ez dadin sobera ilun izan. Agian geroak irri eginen diote Garaziko mendi eta oihan polliter, Baigorriko aran luze eta bortitzer, Amikuzeko zelai zabaler... Bainan hori Jainkoaren ganik onetsi behar...

... Mendekoste biharamunean, lerro luze bat abiatzen da herri bakotxetik. Donibaneko plazan gizonak, boneta eskuan arrosarioarekin batean, mizpira-makil azkar bat bertze eskuan, hasten dira kantuz goizean goizik. Larrazkena heldu zaiola Ipar-Nafarroari nola sinets holako jende osteari so egin eta? Zer gizon azkarrak... Haurrak ere badira heien artean... Beldurrik gabe abiatuak. Etxean amak errana gatik ez zutela holako bide luze bati lotu behar, Goiz huntan eta baitakite zer karietarat egina den beila hori, hor dira, bertzeak bezala.

... Bidean urrats onean badoatzi eta jadanik akitzen hasiak direnek beren oinazeak eskaintzen dituzte Salbatoreko Amari, Ipar-Nafarroak ez dezan sobera paira. Haurrak jauzteka bezala badoatzi... Zaharrek zer egiten dute ardurenean? Harri batean behaztopatzen... Heiek aldiz harriaren gainean ezartzen beren zango arina...

... Ama Birjina xuri xuria ageri da urrunera. Bozkariatzen dira beilatiarrak... Zonbeitu oroituz aintzineko urtetan Compostelarat egin beilaz Piaia haren bazuken puskan gehiago sakrifizio bere baitan, bainan egungoa ere ez ditake baliorik gabekoa. Iguzkiak xuriago baizik ez du agertarazten Andre dena Maria zeru urdinaren erdian. Jadanik ermitaua etorri da beilatiarren ganat, bere kaperako ezkila azkarki jo ondoan... Ez uste ukan zimur eta

ilun dela, bertzeri jakinarazi beharrez penitentzian dagola geldi geldia... Mundu huntako burrunbek ez dute harrikatzen, are gutiago harritzen. Bere buruaz ez den gutienekorik hartua, beraz bertzen pairamenez axolatua... Heien soleitzerat bermatuz... Beilako apezek erran diote zer xedek haraino zituzten eremanarazten eta ermitauak begitarte goxo batekin erran du "Jainkoaren nahiari ez da oldartu behar. Lenehago zen ikusi behar, zer bidez bazter oraiko kenka gaixto hori... Orai ez da Jainkoaren nahiaren onartzeko indarra baizik eskatzen ahal."

... Denak belaunikatu dira soropiloan eta otoitzean hasi Zeruko sainduak ararteko hartuz, bereziki lehen Nafarroan bizi izan direnak. "Jondoni Veremundo! Otoitz egizu guretzat... Jondoni Fermin... Jondoni Satordi." Gero elgarrekin aldare aintzinera hurbildu ondoan, Donazaharreko erretorak eman du meza. Zaharrena da, bainan zer kurritzale famatua... Zonbat aldiz ez du egin bakarrik Aranegi eta Donazaharre-ren arteko bide luzea. Bere bilo xuri eta luzeekin iduri du bertze munduan bizi dagola. Hots, ermitaua bezala, bainan gizonen artean, ez baita batere errexago.

... Meza ondoan, denek askaldu dute... Gehienek zingar gorritik, bi ogi zerren artean. Xahakoa ere badabila batetarik bertzera. Gibelerateko ere indarrak hartu behar eta mendigoizalek erraiten jeusteak gehiago akitze baizik daukala berekin ekartzen... Eta hemen bi aldiz, ezen egun guzietako borroka partida dorpeago baizik ez baita izanen hemendik aintzina.

... Xutitu dira ,azken agur bat egin dute Zeruko Amari eta berriz bideari lotu. Orai Nafarroaren etorkizuna Amaren eskuetan ezarria denaz geroz, bakean daude beilatiarrak... Luzaz ari izan ondoan mendiko patarrer beheiti, horra nun hatzemaiten dituzten zonbeit zaldi arbola batzueri estekatuak. Klementek ekarriak berekin, akituak izanen zirenentzat... Klemente, Eliasen mutila da, beraz Judirikoa... Juduek ere beren gisan nahi ukan dute beila hartan parte hartu... Karitateak otoitza balio du.

* * *

... Ekaina han harat badoa... Jondoni Joanez xarnaferak dira egiten eta holako ohidura ez da uztekoa... Izarrak dir dir dagotzi zeru zolan, ilargia ere hor hurbil hurbila. Urteko gau laburrena,

egun luzenaren ondotik. Nafartarrek suak pizten dituzte Donibaneko karriketan eta gaztea ari jauzi eta jauzi, firrinda pollitean. Ondar suaren gainetik iragan orduko, bertze bat urrunago pitz. Bada kantu eta irri... Dantza zonbeit ere su inguruan. "Sarna, habil kanporat" dute kantatzen. Bai, hazteria nahi dute horrela kasatu, gorputzekoa bederen. Bainan nahigabeak ez direa bihotzeko hazteri? Eta ez dira kasa edo ahantz errexak. Zaharrak ari dira so eta so gazteen jauzieri. Horieri dago Ipar Nafarroaren moldatzea hemendik aintzin. Sua gaztentzat jauziteko,... zaharrentzat berotzeko. Ai! suaren distira pollita ilun nabarrean... Zer parada olerkari batentzat... Populu batek badu zerbait gisaz olerkarien eite...

Aberri bati utz otoi, olerkarien ganat sendi duten afizionea.

... Juan ttipiak bere olerkia jostetan kausitzen du. Ez da ondarra aberen gibeletik lasterka, Garazi huntan baita pentze perde eta larre gizen. Eskolatik landa, abendoan, badu lan bat ezin utzizkoa... Eguberri hurbiltzen ari eta hasia da buztinez egiten itxura zonbeiten, Beleneko gertakariaren oroitgailu. Nafarroko moldean, multzoka heldu dira, bai artzainak beren artaldeekin, bai irulariak beren kiloekin, bai antzara-zainak eta bai ihiztariak beren zakur ihiztorrekin. Hots, ofizio guzietarik bada eta ofizio bakotxari nahi dio eman tokatzen zaion seinale berezia. Eta buztin zuria, Gaztelumendikoa, zein ongi lantzen duen... Erhiak ditu luze eta trebe. Izpiritua oraino trebeago. Bainan urte batetik bertzera apaindura berri batzu gogorat heldu zaizkio... Ez da sekulan bere lanaz urgulutan sartzen, baitaki hobeki egiten ahal litaikela.

Nun ari den lanean? Jauregiko sabaian, bere lagunekin. Alta hotza aise sartzen da teilatuan barna... Orduan haurrek asmatu dute arraxinazko gandelu batzuen piztea, Beleneko ttattolak argi dezan. Eta, hala gertatu beharra, egun batez ttattola erre da. Sua haundituz baitzoan, urak egin du bere lana. Bakotxak bere ofizio. Ordutik sabaiko jostetak... kanpoan. Alta Belen batek barneko goxotasuna behar du; kanpoko eremua haundixegi zaio.

GARAZI-KO LABORARIAK

Edozoin herrikoak izaiten ahal litaizke... Zonbeiten itxurak emanez ikusiko dugu zer moldetan ibili diren hamasei garreneko mendean laborari edo nekazariak... Garbiki erraiten du hizkuntz horrek erran gogo duena. Lurra mehe dudarik gabe. Onkailua eskas. Eta goldenabarra ez biziki sartzen. Axalean egoiten, lurrak ez balu merexi bezala ezpataz zilatzea...

Lurrarekin borroka aritzeko partez, zonbeitek nahiago zuten sorginen baitan sinetsi. Nork erranen du lau kantonetara sorgin ixtorioek zer arrakasta zuten supazter xokoan larrazkeneko eta neguko gau hotzetan? Bainan ez ziren orduko laborarientzat ixtoriak. Egiarentzat zauzkaten eta sorgina norbait zen, on ala gaixto, bainan egiazkoa.

"Baladi" ez duzu ezagutu alabainan. Gizon ona eta umila. Bere baitan ez zuen fidantzia haundirik eta bertzen meneko gogotik jartzen bazakien. Ardura bera... Tun tun, bazoan kabalen gibeletik, dotzen erdi bat behi, goseak hartuak eta esne xortik ez. Larretan gaindi eremaiten zituen eta heien zain egoiten zen, euri ala iguzki, zerbaitxka jaten zuten ber. Edozoin tenoretan hor iragaiten zenak entzuten ahal zuen Baladi bere behiekin elaka. "Haugi, Gorrasta, haugi... Hi barrukiko hoberena... Hik maite nun, ba. Zonbat esne emanen dan astirian?" Behiak bere buru haundia goititzen zuen eta bi begi lodi idokitzen... Behako horrekin Baladi alegeratzen zela, dudarik ez. Harentzat aberea gizonaren parekoa zen.

Saturdi, gizon ehiartua. Guti jaten eta ainitz edaten. Orduko mahatsek arno karats bat emaiten, kasik berderik biltzen zirelakotz. Alabainan itsasoa eta beraz euria ez urrun. Odeiak laster heldu eta larrazkena ardura eurizu. Barneko minak joa zela Saturdi

denek bazakiten eta bai "Jainko ttipi" baitan ibiltzen zela ere. "Jainko ttipi" zioten erraiten Amikuzeko gizon bati, dena jestu bitzi eta sorginkeri. Mirikuek ez zuten begiko zikina baino gehiago jasaiten ahal eta, futxo! ardura bazuen jendea.

Berdin errunkan ,ate aintzinean, bakotxa bere aldiaren beha. Bazituen bere segeretuak, eta "aire txarrak" jo zituenak errexki sendatzen zituen. Batek halako azantz bat entzuten du egun guzian, iduri uli beltzarena, Jainko ttipik eman omen dio esne epela beharrietarat erranez barneko aldetik bazuela halako har bat eta hura egarri izanez, edatera behar zitzaiola eman. Esne epelak eztitu du burrunba, bainan har hura biziki egarri zitaken. Azkenean burrunba urrundu da.

Bertze batek begietan min du... Jainko ttipik erran dio gaitz hori etorri zaiola xuhurra izanez... Jendek erraiten dute "Jainko ttipi" horrek kurutzeño bat baduela mihi azpian... Frango "omen" bazterretan... Eta nork ez daki Arpeko sainduaren ganat joaiten zirela jendeak sarnaren eta bertze zonbeit eritasun motaren sendatzea gatik?... Miriku xahar batek zion jendeak harat joaiteko egunean ikuzten zirela... Zikinak janak ordu artio... Betbetan garbitzeak eritasuna kasatzen zioten. Jenden ustekeria, harri harek bertzek ez bezalako boterea bazuela. Eta holako zonbat ixtorio mixterio...

Izartxo-k erraiten ohi zuen noiz eta ere oilo bat entzuten zen oilarra bezala kukuruka etxe hartan eriotzea hurbil zagola... Beleak ere inguru eta inguru ari baziren etxe bazterretan... Bertzalde kondatzen zuen euria jeuts ahala ari eta nonbait hiltzen bazen, berehala zerurat igaiten zela. Garazin zer egiten zen oraino? Etxeko bat bazoan sabairat teila baten kentzerat hilaren arima atera zadin etxetik. Herri zonbeitetan hil-ezkilek ez zuten soinu mota bere gizona bazen edo emaztea hil izan. Ordu hetan erlek egin eztia nola ez zen baliatzen etxetan? Kofoinak usu ziren etxe ingurinetan eta erlea zen familiako adixkide haundi. Nola harri gintazke beraz erleer erran zezoten, nonbait zendu orduko, zer makurra gertatu zen? —Erleak, egin ezkoa. Nagusia hil da eta elizan argia behar.

Usaia xahar horiek Garazi aldean eta Eskual-Herriko ainitz lekutan aspaldi danik bizi zagotzin. Bainan Huarte-ko jauregian eta bertze zonbeitetan bazakiten, jende xeheak errexki sinesten ba-

ditu ere ainitz gauza, sineste horiek ardura ahuleziaren obrak direla. Ez da egia errailearen ahotik jalgitzen. Egia dago gauzen baitan, Jainkoak egiten dituen gauzetan Alta hamaseigarren mendean, sorginak bazter guzitan dira... Erretzen direnak ere, nola Lapurdin... Joanes gazteari bihotza lazten zaio, holako salbaikerien berri entzutean... Aspaldiko errana da sorgin bat eritzen delarik, behar duela hil aintzin bere sorginkeria bertze bati eman jats baten bidez. Eta jats hori ohapean gorderik dago. Ardurenean luzaz irauten du hilzori edo agoniak, gau eta egun, zeren eta ez baita nehor hatzemaiten ahal jatsa hartu nahi lukenik. Nafartarretan badira zonbeitzu sorginen baitan sinestea dutenak; bertze batzuek aldiz...

Egun batez... Piarrek ez baitzuen sorginetan sineste izpirik, nahi ukan du irri egin gozoki, sinestedunetaz trufatuz... Katu bat baitzen etxean ardura sartzen zitzaiona, harrapatzen du eta bi beharriak mozten diozka, buztana bertzalde... Horrela kanpoan egonen zela gatua gaztigua bortitza izanez. Zonbeit egunen buruan, herriko gizon zahar bat hiltzen da, han, Kataritzeko etxe batean... Bera bizi zen eta uste zuten jendek sorgina zela. Usaiak manatzen duen bezala, gazteak joan dira gauaz gorputzaren beilatzera. Eta etxean ez baitziren beti otoitzean ari, ardurenean solas egiten zuten delako sorginkeriaz. Batzuk erranez zaharra katu baten itxuran ikusia zutela, bertzek aldiz pittika baten itxuran...

Hola iragaiten dute gau guzia, zainak arras airean. Goiz alderat, gosetzen hasiak baitziren, horra nun sukalderat buruz joiten duten eta zingar azpi lodi bati lotzen. Zer gauza! Zonbeit zerra motz eta motz... Delako katu hura hurbiltzen da ttipi-ttapa, zingarraren usain bereziak ilusiturik. Alabainan gosetua zen arras; Aterat heldu eta, hor egoiten da. Ez aintzinatzen... Nagusi xaharra ez zen hor eta oraikoak denak kanpotiarrak! Piarrek jadanik irria ezin atxikia, ikustearekin katu beharri motz hura zela! Gazte guziak harriturik, daldaran... ustez eta zaharraren sorginkeria katuari sartu zaiola, hartaz kargatuko zen bat ez hatzemanik... Piarre atera da eta biharamunean herri guziak bazakien zer gertatu zen zaharraren etxean.

Bertzaldi batez huna zer harritzekoa... Hola hola ari dira gazte batzu hil baten beilatzen... Heien artean, bat bere buruaz arras hartua eta iduriz, kuraiez betea. Joko bat plantatu behar dakotela erabakitzen dute lagunek... Heietarik biga ganberan sartu eta, huna

gorputza laster xutik ezarria atearen gibelean. Sukalderat badoatzi eta sartzen erranez kanpotik heldu direla...

Apur baten buruan, batek dio: "Izanak zireztea ganberan ikusten ean arraxina-argia pizturik utzia dugun?"—. Baizik eta ez... Orduan igortzen dute delako fanfarruna. Hau berehala badoa eta arraxina pizten du itsumandoka. Ohea zuri zuria... Hutsik! Eta gorputza, gorputza... Xutik ate gibelean... "Ai! Ai!" Zer garramiak eta orroak! Laster egiten dute lagunek eta familiakoek ere... Gure fanfarruna arrunt desegina...

Joanes gazteak maite du ixtorio horien entzutea, Nafarroan egiazki gertatuak... Erakusten diote irria laket duela eskualdun jendeak. Ber denboran, amak igortzen duelarik gauaz egur metarat, ez da hain kuraios, oroitzen baita delako fanfarrunaren ixtorioaz... Eta egur hetan zonbeit aldiz kausitzen dira haritz ondo batzuen erroak. Eta gauza jakina da erro horiek zonbeit aldiz pindarño batzu botatzen dituztela, zipirti zaparta... Orduan Joanes eskapatzen da, baitaki beldurraren berri...

* * *

JOSTETAZ BERTZALDE

Jostetaz bertzalde, hor da ere eskola. Jauregikoek pentsu dute hobe dela Juan ibil dadin bertzekin eskolan, eskolemaile berezi bat hartu gabe etxeko, ainitz aitoren semek egiten duten bezala. Hain xuxen eskola bi urratsetan da eta herriko zonbeit haur dira han ibiltzen. Bertzeak ardura etxean, behi zain edo iraulen... Garaziko etxaldeak ongi joanaraztekotan, haurren eskukaldearen beharra ba... Alta Aitatxi zenak zion ardura, bera lizantzaduna

baitzen, gizonak behar duela ahal bezain bat eskolatu, bere lagunen hobeki laguntzeko... Juan oroit da ikusirik aitatxi ardura liburu bat eskutan... Liburu horiek, ez hain aspaldi ateraiak Gutenberg alemanak asmatu brentsetarik...

Eskolemailea, lanez itoa... Eskolaz kanpo badu nun zer egin bere biziaren irabazteko. Ardura tripatik minez... Haurrak berak uzten ditu zerbait sendagailuren bila sukalderat joaiteko. Gibeleratekoan errautsa alde guzietarik eskolan... Arramantza bertzalde... Haur guziak josteta ari... Aizutasuna maite dutela eskualdunek! Eta haur haurretik oraino... Gero errunkan ezar arazten ditu haundienak eta eri muturretan ukaldixka batzu bizi biziak emaiten bakotxari. Eskua gibelatzen baduzu, doblea, erran nahi baita bortz ukaldiren orde hamar... Aizutasuna beti danik kario...

Egun batez basabere-tegi bat heldu delako berria norbaitek atera du... Jendea begi beharriak xabalik... Aspaldian ez baita holakorik hemen gaindi agertu... Denak so eta so, gizonak barne. So egizue zimino horri... Katamore batekin dantzarazten dute. Jendeak irriz leherturik! Bertzen ziminokeriaz errex baita egitea irri eta irri. Haurrak eskolaren aintzinean, jo hunat, jo harat, eskolemaileak ez baitu oraino apairua egina.

Hartzarekin heldu den buhamiak badu arrakasta. Haur guziak gibeletik doatzi miragile bat izan balitz bezala. Donibaneko karriketan gaindi, badute so egile eta buhamiak gogotik zapela zabaltzen zerbait sosen altxatzeko... Zapela sosak huts egiten badu, haurrek lasterka biltzen dute eta hartzaren jabeari emaiten. Ordu berean, hartza dantzan hasten da, xirularen soinua entzutean. Zangoak altxa gora... Zoin ongi ikasia duen jabearen erakaspena. Bainan ikasia baizik ez du agertzen ahal gaizo hartzak... Ez du asmo errestorik...

Haurrak eskolatik urrun joan dira, hartzaren gibeletik... Eta orai eskolemailearen beldur baitira, oraino urrunago badoatzi. Alabainan ez dea aspaldian joa eskolako tenorea? Basaberetegi hirugarren taldea heldu zaiote bidera... Gizon bat, bizar haundi eta bilo luze, gitarra txartxo bat eskutan... Baina zer bilo luzea! Bizkar erdiraino bederen... Zimino haundi bat ondoan, arrunt basa. Gizonaren begiak ziminoarenak baino izigarriago. Buhamesa bat ondotik, beso beltz eta zilarrezko edergailu. Zilarraren distira larru beltz hartan! Heien gibeletik lau karro basaberez beterik...

Haurrek uste dute, holako gertakaria izanki eta, eskolemaileak barkatuko deetela delako ihesgoa... Eta gusturik hoberenean gibelerat heldu dira... Lehen etxerat etorri orduko, buhameak eta haren lagunek musika joiten dute elgarrekin... Makil bat! Musikaren neurtzeko? Ez! Eskolemailea da ikasle gazten bila jina... Gaizoa hura... Lana beti lehen... Eta zer larderia!

Juan so eta so egon da luzaz ziminokeri guzieri. Bere izpiritu gaztea jadanik ari zaio xerka eta xerka zertako egiten dituzten holako jestu bitziak... Zertako buhame horiek holako afizionea duten abere-erakustearentzat. Karrikan, oihanean; nun nahi egonez eta so eginez du izpiritua xorroxten arotzak tailua bezala...

ORAINO GARAZI-N GAINDI

Haurren mundua eta jende larriarena bi mota dira eta ez da haur bati so egin behar jende larriaren adimenduarekin. Baditu bere legeak, bere usaiak eta gertakarien aintzinean ez du batere berdin ihardokitzen. Jakitearekin Ipar-Nafarroa Espainiaren ganik berextekoa zela, uste dugu behar bada nigarrez hasi zirela haurrak? Nahiago zuten lehengo ixtorio xaharrer beha egon edo oraino zonbeit ziminokerier so egin... Haurrak bere egunak nahi ditu bete jostetaz, irriaz. Geroaren beldurrik ez du. Aski goiz jinen zaio geroaren griña.

Konda ditzagun beraz zonbeit ixtorio Joanes ttipiaren inguruan gertatu zitazkenak. Behar bada ixtorio horiek geroarentzat baliosak dira. Gaztea eta gizona ez direa beren haurtasunaz haziak?

Beraz español gudariak lekutu dira goiz batez... Ipar Nafarroa, bere estakuru guziekin, ez baita soberakinik bazterrera uztekoa, Ziberotar soldado batzu etorri dira egun batez, nahiz eta lekuak ezagutu... Aitatxi xahar bat ari da xintxuketa... Ezpel zurarekin egiten ditu zonbeit gauza pollit, heiek salduz duela bizitzeko doia ateratzen; Talo zonbeit, edo esne edo gasna... Ez aberatsa izanikan ere, uros dago aitatxi... Egun batez, ziberotar kapitaina heldu zaio erranez jakina zuela zerri hiltzen bazakiela eta harek zuela herriko zerrien hiltzeko usaia... Horrela beharko zituela tropako abereak hil behar orduan... Gaixo aitatxi, mila estakuruka, baizik eta ez zuela halako usaia handirik eta... eta... Zonbeit orenen buruan etortzen da berriz jaun kapitaina idi batekin. —"Hilazu idi hau bertan, ezen soldadoek ez dute bertze haragirik eguerdiko." Lehen golpean ez du hil... Bonetaren heineko zilo bat egin orduko, idia lurrean da, larrutzeko gai.

Aitatxi ez baita zozoa, soldadoekin eleketa aritzen da zonbeit aldiz. Jakiten ditu ainitz gauza, iduri gabean. Eta ez ditua ikus-

ten tropak beren harat hunatetan? Ziberotar soldadoek ere beren usaiak badituzte. Norbait hatzemaiten dutelarik bide bazterrean so, berekin eremaiten dute bideen erakusle gisa... Gaizo gizona, ez dagoke etxerat heldurik iluntzean baizik, leher egina, trosta pollitik kurritu ondoan... Eta uros oraino lan hortan ez bazituzte ibiltzen hiruz-pa-laur tropek... egun berean. Baten lana egin orduko, bertzeari lot eta hola. Aitatxi horrek jokoa hatzeman du... Senditzen duelarik tropek kurri joan behar dutela, kolpatuarena egiten du, bi xanka besoen artean eta oihal-keta gaitza zango baten inguruan... Ziberotarrek badute fama onik, bainan hortan aitatxi azkarrago agertzen da... Jarririk egoiten da, iguzkitarat. Adin hortan hobe du iguzkiaren bero goxoa ezinez eta pidaia luze baten akidur-latza.

Egun batez, lasterka heldu da herriko emazte bat erranez xaharrari, —"Antton, ez dakizu zer gertatu zautan? Ziberotar soldado batek dupintra bat esne edan diazu... Hozten utzia nuen lehio gainean eta demuntre horrek dena edan... Ez da oraino holakorik gertatu..." Gaixo emaztea nigarrez... Kapitainari erraiten dio xaharrak... Kapitaina irriz urraturik, hain zaio iduritzen gauza ez-deusa. —"Berehala ikusiko dugu nor den hobendun... Errunkan jar ditela soldado guziak..." Turutaren xaramela aditzen da eta soldadoek laster egiten dute bakotxak bere lekurat, denak harrituak zer den gertatzen holako ttarrapattan... —"Orai, etxekanderea, behar dautazu erran klarki nor den esne edalea, ezen ezpata sartu gogo baitiot tripatik... Esnea ez bazaio ateratzen, zuhaurt sartuko dauzut ezpata ordu berean... Fida zirea ezagutuko duzula hobenduna?" Emazteak berriz baietz... Kopeta gora badoa soldadoaren ganat eta han berean aitorrarazten du hura dela. Horiek guziak, baitzakien kapitain fanfarrunak ez zuela sekulan ezpatarekin holakorik eginen... Fanfarrunek ere beren bidea segitu behar eta zonbeit egunen buruan joan behartu zaiote Ziberoko mendietarat... Ipar Nafarroak bere dretxoak zaindu nahi ditu eta ez bada gehiago Espainiaren gerizan, ez da oraino Frantziaren sabelean...

Nola dabiltza beraz gauzak?... Don Lope kastillanoak agurtu ditu Garaztar jendeak, partitu aintzin... Bizpahirur urtez egon da hemen eta, haste hastetik laketua zen... Nork erranen zuen nunbaititako batek holako erroak eginen zituela eskuin eta ezker? Segur, Uharte jauregiko aitatxi zena ez zen ahanztekoa, bainan Don Lope ere emeki bada emeki haren etsenpluari jarraiki da. Partitzeko eguna... Ezagutza bat nahi ukan dakote egin garaztarrek,

zonbeit pittiken larruak eskainiz, eta oroz gainetik makil eder bat, sasu batean moztua eta behar diren kobrezko eta larruzko apaindurekin.

Aranegiko bide luzeak bereganatzen du... Madrilerat badoa bere familiarekin. Han dakote erranen norat joan beharko duen berriz erro egiterat. Hola dira zonbeit, bizi huntan, arbola landarien parekoak... Ongi doatzin lekutik atera eta bertze lur batean landa. Alta oraiko lur hori landariaren parekoa dea? Ez dea hor eihartuko? Aroaldearekin ongi joanen dea? Ala beroek ez dute orai zipilatuko?

Aroaldeak aipatzean, nola ez erran zer haize bortitzak bet-betan hasi diren Ipar Nafarroaren inarrosten? Orai artean, denak girixtino zintzoak izanki; judu zonbeit salbu... Orai kanbiatzen ari daukute erlisionea... Calbinon erreforma etorri da, frantses horiek jakin orduko Karlos Kintoren erabakia... So egizu liburu saltzale horri... Badoa etxez etxe larruzko zaku beltz bat bizkarrean. Eskaintzen du liburuño bat erranez: —"Hau da egiazko Ebanjelioa... Huntarik ari bazira, segur salbatuko zira..." Eta gutarik bakotxak arrazoinekin bere burua nahi baitu salbatu, huna nun saltzalea etxetan sar arazten duten... Orenak eta orenak iragaiten ditu pedeikari bat iduri eta azkenean Ebanjelio berria mahain gainean egoiten da, erosleak berak nahi duena eman ondoan... Pedeiku berri hortan zer aditzen da maizenik? Baizik eta orai arte... Bainan hemendik aintzina...

Eta gizona kanbiakor... Ele ederreri josia bezala... *Norat haize, harat aise...* Emazte zonbeitek, bereziki xaharrek, nahiago dute lehen bezala segitu eta delako zakudun saltzaleari tink eta tank erran diote Elizatik kanpo ez dela Salbatzerik... Duela hamabortz mende, Kurutze sainduaren ondoan, bizpahirur emazte ziren egon Jesukristorekin. Gizonek laster egin urrun, ahal bezain urrun. Eta bertzalde eskualdun hauk beti... kanpotik zer soinu den eta harat so... Beharria xut... Iduri eta etxeko janariaz gohainditiak...

... Orduan zonbeit Ipar-Nafartarrek erabakitzen dute Espainiarat joaitea. Hemen berean egonez, zer bizipide lukete bai berentzat, bai beren haurrentzat? Beren ikaskuntzak Espainian zituzten eginak, kastillanoa zuten gogoan eta mihi puntan... Frantses hitzik ez zakiten gutiz gehienek... Eta ikusten dute norat doan Ipar-Nafarroa... Bere-gain ez dela luzaz egonen, nola behialako axuria otsoaren ondoan, indarrak du beti azken hitza... Joanden egun

horietan ziberotarrak dira hemen gaindi ibili. Jadanik Orthez-en Albreteko Juanaren tropak ari omen bazter guzien xehatzen... Bereziki Erromari atxikiak direnek zerbait eta zerbait badute pairatzeko... Elizak erretzen direlako fama atera da... Gauaz Donapaleuko bizkar zonbeitetarik ageri da garren argia, erdoila iduri lano-pean... Ipar aldetik heldu den su hori ez dea hemen gaindi hedatuko?

Huarte familia, zonbeit egun hautan kopeta zimur... Mahain inguruan direlarik eguerditan ala aratsean, elea merke... —"Zer behar dugu egin? Hemen egon? Zertan da gure geroa hemen? Ala frantses horien beharretan izanen girelarik gure suertea hobetuko da?

" —Bainan, dio amak, hemen ez girea untsa?... Gure jauregi huntan aspaldian bizi eta nola behar dugu laketu Espainia hortan?

" —Gizonak bere ahal guzien berri emaiteko behar du sort herritik urrundu. Hemen nola nahi duzu egon gaiten, gure anai gehiena itzuliko denean? Hura da premua ta... Nola nahi duzu gure Juan eskola dadin? Mutiko hunek badu jite eta nahi nuke norbait atera dadin... Ohore litake beretzat eta guretzat... Talenduen Ebanjelioak ez ote dauku erakasten gure ahal guziak behar ditugula lanean ar arazi? Gizonak behar du ofizio bat hartu zointan gora helduko baita, bertzen petzero egoiteko orde...

" —Hala da... Bainan Xabier-eko Frantses hor duzu Parisen erakasle haundi. Gu hemen egonez ere, zerbait egin lezake gure Juanek... Aski luke ikastegi haundi batetarat joaitea, hala nola Zaragoza edo Alcala edo oraino, ez hain urrun, Oñate, Eskual-Herrian berean... Donibaneko Juan Mayorgak ez ditia bere margolari ixtudioak egin gogo Zaragozan, amak erran dautanaz?

" —Juanen geroa bat da. Eta guk nola behar dugu atera hemen biziz? Orai arte Espainiaren alde agertu ondoan, eta Espainiaren mutil, nola behar gituzte begi onez ikusi Frantses aintzindariek hunat jinen direlarik? Jakin duzu berrikitan zer moldetan jokatu diren Ziberotar soldadoak hemen gaindi? Eta oraino Eskualdun dauzkatelarik beren buruak?!! Zer izanen da beraz Biarnoko edo Gaskuñako tropak etortzearekin?

" —Ai zer erneguak! Orai, berrogoi urtetan behar dugula hemendik atera hemen sortuak eta... Etxea utzi beharko, anai arrebak ere, adixkideak, Garaziko eremu pollitak...

" —Bainan, emaztea, ez zaitela nigarrez has! Ez dugu oraino erabakirik hartu... Behar dugu hori ongi pizatu, ez dezagun geroko urtetan den mendreneko dolurik ukan...!"

Horra zer den egun guzietako errepika Uharteko jauregian... Aita, oihal saltzale... Espainia zolatik heldu zaizko oihalak, ez nola nahikoak... Murzian orai arte Arabek kotoina landatzen eta Españolek segitu dute ber landatzea... Eta Valenziako zelaietan har ttipi batzuek egiten dituzte zeta hariak? Uharte zolan, jauregitik urrunago badu saltegi bat ederra eta astelehen guziz badoa Donibanerat merkatuko plazarat... Hau, egia erran, hertsia da... Eliza aintzinean diren bizpahirur karriketan saltzaleak jartzen dira... Hain da famatua Huarte jaunaren oihal berezia, nun Garaztar ainitz heldu baitzazko erostera... Aita zuen gobernuko kargudun... Bera oihal-saltzale. Ala uste duzue seme batek aitaren ofizioari jarraikitzearen beharrik baduela uros izaiteko?

Bainan bere oihal mahainaren gibelean dagolarik, izpiritua ez zaio geldirik egoiten... Orai arte heldu zitzaizkion erosleak, Hego-Nafarrotik ere, hala nola aetzak... Hain maite dute ibar horietako jendek ongi beztiturik ibiltzea... Urte guziez heldu direlarik Orreagarat beilaz ikusten ahal ditaizke soineko beltx eta xuritan... Urrezko edergailu zonbeit dilindan... Eta hango alkateak lepo-ondoko pollit eta xapel ederretan. Halaber Erronkari eta Zaraitzuko ibarretatik jeusten dira gazteak andanaka, arbasoen soinekoekin ongi apaindurik.

"Segur ez zaut batere itsusi ikustea usai xaharrak hoin kartsuki atxikiak... Eta hain usu heldu ziren erosleak, orai nun dira? Nafarroa bi zatitan ezarri ondoan, nola nahi duzu hunat jin diten? Bazakiten Ezterenzubin gaindi zaldiz ibiltzen, udan bereziki. Bazuten bide, bainan Iruñerat, Zangotzarat, Muskariarat edo Lizarrarat baino puskan gutiago. Heientzat orai estranjerrak gira. Han berean egonen dira, Karlos Kintori arrunt leial. Beraz ene saltzapenak peko errekarat. Eta ez naiz bakarrik leize horri beha... Berrogoi urte izanikan ere, ildo berriak idoki behar dira bizian eta ikusi behar dugu zoin izanen den ildorik hoberena..."

Horra Huarte-ren gogoetak, merkatu egun batez, Donibaneko eliza aintzinean... Egun saltze guti... Sosa xuhurtzen ari jendetan... Madrileko eta Iruñeko aintzindariek pagatzen zituztenak bet betan sosik gabe baratu dira... Ipar Nafarroa bere pentze, landa eta oihanen mozkinetarik bizi da. Iduri du gerla denbora... Hai-



tadarik ez da, oraikoan segurik. Bainan haitadak direlarik, gerlaren irabazteko mentura bederen baduzu... Hemen ez da holako menturarik.. Leize haundi bat, iluna. Hola da hemengo geroa... Gogo bihotzak ere murtxurikarazten dituena.

"Aitatxi bizi ukan baginu... Harek bederen gauzak ongi ikusten baitzituen...

—"Lehenagoko ixtorioak zertako berri? Lehen hala, orai hola, gero etxakin nola"... Erran zaharra da hori. Geroari so egin behar dugu... Badakizu, andrea, egun ere zer sos-keta ekarri dutan... Beti eta gutiago. Hola segituz, nola nahi duzu hemen bizi gaiten?

" —Saltzaleak ez badu bizia irabazten ahal, harrazu bertze ofizio bat.

" —Bakotxak bere ofizio. Espantutan sartu gabe, aitortzen dauzut ofizio horrentzat egina naizela.

" —Hala da. Hamabortz urte hautan ongi baino hobeki bizi izan gira. Espainiatik heldu zen oihal ederra... Orai mugak ditu denak moztu, gure pazientzia ere eta biziko gostua...

" —Bainan, emaztea, ez zitela horraraino joan. Zer gerta ere, atxik beti itxaropena. Jainko onak ez gaitu sekulan ahanzten. Gertakariak dira egun guzietako kurutzea. Dorpea da zonbeit aldiz, bainan Ebanjelioak dio: "Ene dizipulu bilakatu nahi duenak, har dezala bere kurutzea eta neri segi dadila."

" —Egia da. Kristo baitan har dezagun behar den indarra."

* * *

Gaua... Huarte-ko jauregian ez dira denak lo... Nagusia supazterrean dago liburu bat eskutan... Liburu Saindua, aitatxi zenak eskuratua, Espainian lehen aldikotz ateratu zelarik, ez aspaldi. Liburu ederra, larruzko estalgiarekin. Erromako Elizak onetsia, behar diren baimen guziekin.

... Desterrua gogoan, horra nun irakurtzen duen Adanen kapitulua... Bide-nabar elkartze bat egiten du bi Adanen artean: lehena, Parabizuan zagon denboran, dohain guzien jabe eta dohain bakotxa nasaiki ukana... Bigarren Adan, bekatu egin ondoan:

"Urririk ukana zuenaz, beraz graziaz, buluzi zuten eta bere naturalezan kolpatua bezala egon zen."

... Gogoan erabiltzen du leku hori, ezin ederragokoa, erran nahi baita lurreko parabizua, zointen gizonak Biziaren arbolan kausitzen baitzuen bere jatekoa. Jateko hori arras ona zen eta aroaldea ezin aldatuzkoa. Nagusiarentzat Parabisu horren idurikoa Ipar Nafarroa, estakuru guzien gatik, gizon bakotxak bere sor lekua maite baitu oroz gainetik...

Lehenbiziko bizitzean kausitu ez dituen elorriek Adan xixtatzen dute haatik bigarrenekoan. Lanez itoa da. Lurraren gainean lo eginez badoa, hotzean, lanbroan eta beroan. Jaten eta edaten dituenek ez diote beti onik egiten... Ontutsik bazabilan eta gaizki bezti. Izerdiaren eta lanaren gostuz jaten du. Etxerik ez, aterberik ez... Han zegon, errestan, eskualdez eskualde.

... Kandela ari zaio urtzen, bainan sua bortitz delakotz supazterrean, argi aski bada irakurtzeko, ilunik asko gogoetan aritzeko. Lehen gizonaren erortzeak ondorio ilunak ukan ditu... Hanbatago pizuak, nun ordu artio bizitze zoriontsu bat ereman baitu... Bainan ez uste izan ondorio txarrik baizik ez duela ukan Gizonaren desterruak. Abantailak ere bazituzken dudarik gabe. Parabizuan egoitekotz ez zuken gizonak laneko jeinurik ekarriko. Ontutsik ibiltzekotan, zertako izan behar ziren oineko-egileak? Buluzik ibiltzekotan, zertako oihal salzaleak eta dendariak? Eta zertako etxe--egileak? Ezen Lurrego Parabizuan ez zuen eurituko... Nun bada izanen ziren haiez hotzak eta haize beroak?... Heietaz begiratzerik ez zen aipu izanen.

... Holako gogoetan sarturik dago Huarte jauna, nun eta emaztea jiten baitzaio, gaua han harat joana delakotz... Goiz argirat atera da, oihanean kurritzeko. Kurrituz gogoa xorroxten zaio eta gauzak hobeki ikusten ditu, diren bezala, hori ere ez baita guti. Oroitzen da hura ere bere aita zenaz eta oihan horietan zoin laket zuen ibiltzea, makil batez iratzeak baztertuz... Ardura erraiten dio emazteak: "—Aitatxi bizi izan balitz bederen...!" Bardako irakurtze eta gogoetak beren lana hasia dute Huarte-ren izpirituan... Beti eta gehiago iduritzen zaio hobe duela desterrua hautaturik... Desterrua erraiten ahal bazaio Nafartar batek Espainia hautatzeari.

... Nahi du adixkide hoberenen iduripena jakin. Holakotan behar da batzueri eta bertzeri kontseilu galdegin, eta gero aski

bertute ukan norapait trenkatzeko, urteak eta urteak iragaiteko orde duda-mugan... Gau batez badoa Eñaut adixkidearen ganat eta harriño batzu lehiorat botatzen...

"—Hor hiza, Eñaut? Behar ahut ikusi... Jeuts hadi laster...

" —Zer duk bada tenore huntan? Ez duk araiz berriagorik?

" —Ez, bainan hire kontseilu beharretan nuk. Haugi beheiti."

... Eñaut eta Huarte elgarrekin ari dira eleketa aspaldian.

"—Bai, nik ere hi bezala pentsatzen diat. Hemen egonez gure haurren geroa arrunt lehertzerat utziko diagu.

" —Naki duka enekin joan Espainiarat?

" —Gogotik, bainan nik ez diat hik dukan ofizio ederra. Nola nahi duk ni han bizi nadin? Ez diat enplegurik eta hemen ene etxaldean bizi nuk, lanarekin borroka.

" —So egizak. Nik hartuko haut enekilan, ene saltegian eta arras ongi biziko hiz. Andaluzian ba omen dituk ainitz leku oihal salzalentzat... Dakikan bezala, Espainia zola biziki aberatsa duk aspaldi huntan. Erosle ainitz eta beraz saltzale ainitzen beharra.

" —Bainan badakik emazteak ere bere ikusteko moldea behar duela eman. Ni hemen asea nuk. Ez diat sekulan sos idor mikorik ikusten eta gure lur horien mozkinek doi doia emaiten die urte batetik bertzera bizitzekoa.

" —Hi gizon plaxenta hiz. Erosleak gogotik jinen zauzkik saltegirat.

" —Ikusiko diat... Beharko diagu lehenik saldu hemen dutan etxaldea eta sos horrekilan erosi zerbait etxe Andaluzian...

" —Hori emeki emeki eginen diagu. Ez dezagun heda berria oihuka bezala. Atxik segeretua eta hatzeman ditzagun gure bizitegien erosleak.

" —Gero ez dutea erranen desertur batzu girela... Nafarroa uzten dugula bere orenik txarrenean eta holako...

" —Ez girea español? Eta Espainiarat ez girea ari? Beraz zertaz behar dugu beldurtu?

" —Egia duk. Hemen egonez ere zerbait erraiteko ukanen die, baizik eta izikor batzu girela, ez dugula mugaz bestaldera joaiteko bertuterik...

" —Utzak jendea mintzatzera nahi bezain bat eta nahi duen bezala. Zer egiteko duk jendeen mihiaz? Mihi zikina ez duk biziki uros... Haren tripan zerbait baduk ontsa ez dagonik...

" —Orduan, erran bezala. Behar diagu gauza hori plantan ezarri. Biek elgarrekin hobeki eginen ditiagu behar diren urratsak..."

... Ateraino lagundu ondoan bere adixkide Huarte, badoa Eñaut berriz oherat eta han ezin lokartuz ariko da hura ere. Arbola errotik ateratzen hasia denean, denak makur doatzi...

... Huartek baditu adixkideak Andaluziako hiri zonbeitetan. Urte oroz badoa heien ikusterat jakiteko zer moldetan egin behar dituen urteko erospenak bai eta saltzeak. "Menditarra" erraiten dioten zaldi karros batek hartzen du goizean goizik Aranegiko zubian eta zortzi egunen buruko heldua da behar lekurat. Bidean, zaldiak kanbiatzen dira, hala nola Iruñen, Sorian eta bertze hiri haundietan. Bortz-pa-sei gizon karrosan... Zonbeit kantu eta ixtorio denbora pasa... Gero apairu ganberak bentetan...

... Egun preseski badoa, urte oroz egiten duen itzuliarentzat. Errotak punpeka bidetako harrietan... Hego Nafarroko eremu idorrak ikusiz, Huarte oroitzen da bere Ipar Nafarroaz eta hango belar eta berdurez. Adanen desterruak egin gogoetak heldu zaizko berriz bururat eta halako izialdura batek hartzen du... "Biziko astokeri haundienaren egiten ari ote niza?... Zer gauza ttipia den gizona... Egun guziz zerbait erabaki berri hartu behar eta ororen buru ez jakin ongi ala gaizki jokatzen den. Iruñen iragaitean, Karlos III nafartar errege haundiaren gaztelua ikusten du eta dio bere baitan errege guziek ez dituztela ber asmoak. Batek egin eta bertzeak desegin... Holako herstura txarrean izaiteko!! "A lo hecho, pecho", zuen ardura erraiten aita zenak. Eskuaraz erraiten ahal litaike, "Pasatuak pasatu, jo aintzina!"

... Iruñetik urrunago, benta bat... Badira jadanik zonbeit zaldi lerro lerro eta, barne hortan, etxekanderea oihuko ezin ernaraziz mutil eta neskato. "To! Orai Garaziko karroa... Ez ginauden horren beha... Nun debru beharko ditut etzanarazi? Ohe guziak hartuak... Ez da lasto meta baizik gelditzen." Ateratzen da bere

irri pollitenaren jabe, jendeak ere ez baitira ozpinarekin biltzen... Eta bidetako errautsaz estalirik baratzen da Donibaneko karrosa. "—Noiz artio heldu zirezte?

" —Bihar aratsaldean Soriat buruz bagoatzi."

Bederatziak... Apairuko tenorea. Mahaina beltztua, ibiliaren bortxaz... Zer urrin bortitza sukalde hortarik... Kal kal kal ari dira oiloak eta bertze dohakabe batzu ehiakitzen alimaleko dupin batzutan. Hor baditake zortzi egunen jana denentzat. Azkenean denak jartzen dira elgarrekin Orotarat berrogoi bat jende, ainitz lekutarik etorriak. Zonbeitzu irriz, bertze batzu solasean... Nafarroko arno bortitzak bere betiko lana hasi orduko, batek botatzen du: "—To, zuek Ipar Nafarrotik heldu dudarik gabe? Zuen larru zuriek klarki erraiten dute nungoak zirezten...

" —Bai eta hi berriz, hire larru beltzño horrekin eta bilo kurrumilkatu horrekin, Andaluziako moroen seme..." Bi mintzazaleak xutitu dira eta borroka hasi. Benta guzietan ez da bertzerik... Arrazoinik ezin pasa eta joka has. Eta erresumak haur haundi batzu bezala dira... Dena pretentsione eta gero dena gerla edo kalapita. Berextera joan dira hiru gizon azkar eta heien artean Huarte. "Larru zuri ala larru beltz, hortan zer huts ala zer ernegu kausitzen duzue? Hemendik zonbeit urteren buruan ez gitia lurrak denak berdinduko?" Borrokariak azkenean ixiltzen dira eta etxekanderea, ordu artio xifrikatua, badoa bere dupinen arterat...

"—... Errazue... Zertan zirezte zuen Ipar Nafarro hortan?

" —Bai, arrazoin duk erraitea gurea dela. Piltzar zahar bat leihotik botatzen den bezala, utzi gaitutzue... Bota eta gero eskuak ikuz, zikinik balinbazen ere... Pilatus iduri...

" —Errak, ez gaitela bertze borroka partida batean has... Erregeak hola trenkatuz geroz, guk zer egiten ahal ginuen?

" —Egin duzuen baino gehiago mogitu bazinezte..."

... Orai jaten ari dira ixilik bainan bakotxak berea gogoan. Holakotan ardura gertatzen dena, aintzinean pasatuak berritzen dira eta biziki luzatu gabe solasak hasten dira punpeka, errefera botaren ondotik.

"—Bai zuek, Hegotarrak, Hego Nafartarrak, noiz gaitutzue behar bezala onartu? Gure behiak zuen mendietarat ihes joaiten

zirenean, zonbat aldiz ez ditugu ikusi berriz gibelerat heldu, odoletan, harrikaturik, adarrak mozturik? Alta Hego Nafarroko bortuetan bazelarik aski bazka denentzat...

" —Nolaz izaiten ahal zen denentzat bazka...? Ez zireztea oroit zonbeit urte hautan zer idorteak egiten dituen? Gure behiek berentzat nun zuten bazka? Esnea jadanik agortzen ari eta...

" —Xanxolako artzaina ere haizatu zinuten sobera barna joan zelakotz bere artaldearekin Erroko ibarrean? Zer dira egitate horiek anai batzuen artean? Ala uste duzue xakur mutu batzu bezala gaudela?

" —Orai lehen baino azkarrago zirezte gure laidostatzeko, muga hor baitugu eta mugaren bi aldetarik errexago baita kontraka aritzea... Bainan orai ikusiko ahal dugu norat joanen zirezten lan keta edo bizi molde keta... Ez zirezte araiz Kaskoinetarat joanen? Han nork ukanen du español arrazaren gutizia?

" —Ez dakit goiti ala beheiti joanen giren edo oraino ber lekuan geldituko.

" —Alta nahi balu, Hego Nafarroak baluke denen haztekoa... Liédenako mahasti ederrak... Lizarra ondoko ogi eremuak... Eta Baztango oihanak...

" —Egia da elgar guti ezagutzen dugula. Beti danik Pirineoko mendi mazel xutek muga bat egin dute, Frantziako muga baino dorpeagoa. Nafartarrak eskualdeka berexiak gira elgarretarik mendiak hor baitira. Zonbat ibar eta hanbat jende mota. Ikus dezagun oraino zoin desberdin gelditzen zauzkigun eskual mintzairеak... Pirineok ditu bere ibarrak aldebatetarat itzuliak, eta lehen segurik, ibar batetarik bertzerat heltzeak lanak emaiten zituen. Bainan horrela eskual arraza egon da sobera nahasi gabe inguri-netako arrazekin. Zerbaitxka nahaste izan da halere, eta ni ere barne... Bai, juduen partetik. Horiek guziak gogoan erabiltzen baditugu, ez da harritzeko elgar ezin ikusia bazuten nafartar ibarretako artzainek. Luzaz Baigorri eta Orreagako jendek elgar haizatzen zuten, artzaineri lotuz eta artalderi."

... Holako pedeikua bota du Huarte jaunak... Oihaletan ez bada, bere liburuekin dago... Aita zenaren afizione ber bera. Ainitz badaki eta dakiena nahi du erran. Bainan saltsa bipertsu denean egarri gehiago baizik ez baita, hasi partidari nahi dute jarraiki.

"—Zuek duzuena, Hego Nafartarrek, nahi duzue ontsa baino hobeki ikusiak izan Espainiako erregeaz!... Hemendik aintzina, ez zauzue biziki haizu izanen irriño baten egitea guri buruz, anai gisa. Eta erlisioneaz delarik auzia, berdin balio du arraza berekoak izanikan ere. Orai askiko duzue erraitea sineste makurrak sartu direla Ipar Nafarroan eta ez duzuela kotsatuak izan nahi... Beti zerbait arrazoin kausi ditake...

" —Lo eskasak daukitzu erranarazten holako ixtorio ilun eta saminak. Elgarren anai gira eta hola dugu aintzina joan behar. Adixkide hoberenak ere noiztenka samurtzen dira, bainan ez luzazko, baitakite elgarri barkatzen. Herrarik ez da heien artean sortzen eta anaitasuna bizirik doa beti, iguzkia odeien gibelean bezala.

" —Errazue, bainan, noiz bururatuko duzue eztabada hori? Jendeak badira aspaldian lo daudenak, pidaia luze baten ondotik leher eginak, eta zuen oihu eta zalapartek ez dituzte lo egitera uzten! Gero benta hets arazten badaute herriko gizonek, zer bilakatuko naiz?"

... Hori gertatzen bada, hura ez bada gertatzen, gizonaren eta erresumaren geroa, soka luze baten gainean lasterka ari dena iduri.

* * *

Baeza hirian dago zonbeit egun hautan Huarte Ipar Nafartarra... Iguzki bortitza goizetik... Itzala laket. "Nik hemen behar dutala kokatu? Ai Garaziko mendi patar perdeak..." Eleka ari izana da adixkide batekin. Hunek dio urte oroz oihala igortzen saltzeko... Azkenean hitzartu dute elgarrekin partzuergoan ariko direla Baezan, Garaziko jauregitik etorri bezain laster Karrikak dena pareta xuri... Iguzkiak distiratzen du xuri hartan eta begiak hetsi behar argi sobera delakotz. Zerua urdin. Zerua urdinegi... Garazin bederen lano bat edo beste bazagon harat eta hunat zeruaren eremuan... Lorek usain goxo bat dute botatzen, bainan hori ere bortitzegi. Andaluzia huntan nola laketuko du Huartek? Hain dira gauzak desberdinak. Bainan ez da laketzerat etorriko, egoiterat ba. Hartua du xedea eta nola eskualdun batek buruan duena ez baitu aztalean, heldu da gibelerat joaitean bezala pun-

peka bidetako harrietan... Haatik bidea luze zaio, ase egin-garri. Familia berriz ikusi nahia, zeren eta mundu huntako goiti beheitien artetik, zerk du argitzen hobekienik eta bihotza berotzen ezenez eta etxeko goxotasunak? Oroit zireztea Aitatxik ere familian zuela kausitu kontsolatzeko indarra, alkategotik baztertu zutenean? Iduritzen zaio Baezarat joan orduko familiarekin, desterrua ez dela hain karga haundia izanen...

... Lo egin nahia eta burua dilindan... Zonbeit aldiz piko batzu ateratzen dituela auzoak... Zonbeit irri. Eta berriz pentsaketak... Xedea hartua bainan Garazitik joaite horrek lanak emanen dituela, jadanik asmatzen ari da. Ondar gaua du iraganen benta berean. Kopeta zimurrago dio kausitzen etxekandereak. Emazte onek beti sunda berezi batekin ikusten nor den mundu huntan zorigaitzean. "—Errazu, harat hunatak ez zauzkitzia nahi bezala joan?

" —Harat hunatak bai... Orai dut haatik sort herria utzi beharko behin betikotz... Urtean behin joaiten bainintzan Baezarat... Hemendik aintzina han beharko egon... Agian ez gaitu herriko minak sobera aztaparkatuko...

" —Zer zira hoin azkarki estekatua zure herriari? Urtxoek bezala egin zazu. Hotz denean eskualde batean, joan feafutro leku beroetarat. Segur naiz nun ere hobeki baita gizona eta han laketzen duela errexkiago. Zuk aldiz duzu bihotza sobera minbera. Ez da hori biziki haizu gizon batentzat. Har indarra eta bulta!

" —Nihaur banintz bederen... Ene familia ere hor baita haatik... Emaztea, haurrak... Heien handik aterazteak daut gehienik pena emaiten..."

ETA EGUN BATEZ JOAN ZIREN GARAZITIK URRUN
BORTUARI GOITI...
ADIO IBAR POLLITA, OH! UHARTE-KO ELIZA MAITAGARRIA...
ADIO ERROBI-KO IBAIA, ARBOLEN ARTEAN IRRIZ BAZABILZANA.
EGUN HAATIK NIGARREZ.
ADIO ARRADOI ETA BEHORLEGI, JARRA ETA MUNO MENDI XORAGARRIAK...

ADIO LUZAIDEKO PATARRAK
ETA IBAÑETAKO LEPOA
ADIO IPAR NAFARROA... NAFARROKO HEGAL PANPINA... ORAI MOZTUA.
ENE HAURTASUNEKO HEGAL GOXOA.

* * *

ORREAGAKO AMA ONARI AZKEN AGUR BAT...
GURE BIZIAN LAGUNT GAITZALA
ETA TROSTA TROSTA BADOA KARROSA NAFARROAN BARNA
CASTILLAN GAINDI... ANDALUZIARAT.
ONDAR LEPOA, DESPEÑAPERROS... ESKUIN NAVAS DE TOLOSAKO ZELAIA,
HOR BILDU ZUEN OSPE SANTXO AZKARRAK, NAFARROKO ERREGEAK...
EZKER BAEZA, UBEDA, LINARES... BAEZAN GIRA BIZIKO
ANDALUZIAKO ZERU URDINA BEGIETAN, NAFARROA BIHOTZEAN...
GORAINTZI NAFARTAR GUZIERI...
EZ DITELA AHALAZ, SORT HERRITIK URRUN JOAN.
GU ONDIKOTZ HALA BEHARREZ...

* * *

EGUN BAT, EGUN BI... DENBORA JOAN, DENBORA JIN
BIZIA AINTZINA BADOA. PENAK UTZIRIK LOT GAITEN BIZIARI
HORTZEZ ETA HAGINEZ, GUDARI BATZU BEZALA.
BELDURRIK GABE. IRRIZ IRRI...

HUARTE IKASTEGIETAN...

Ordu hetan BAEZA-ko hiriak hogoimila arima bazituen... Aberatsa zen eta orai ere ikusten ahal dira orduko oroit-harri asko...

1533-ean, Juan de Avila apezak —berrikitan Paulo Seigarrenak saindu izendatu duenak— Ikastegi eder bat eraiki zuen eta Huarte han egon zen luzaz ikas eta ikas...

Lehenik latina, gero filosofia, ordu hetan egiten ohi zen bezala. Kapitulu berezi batean emaiten ditugu zonbeit oharpen irakurleak jakin dezan nola ikusten zuen Huartek ikasteko moldea... Molde horri bera ere jarraiki da, segurrenik ere, Arbolaren fruituari son egin eta, pentsatzeko da ez dela nola nahi hazia izan, bainan artoski...

Hogoi ta bizpahirur urtetan, joan da Alcalá-ko ikastegi famaturat. Moda berrikoa zen arras eta Cisneros-ek xutik emana. Erregeak begi onez so egiten zion... Hamaseigarren mende erditsutan, Felipe Segundo deituak Madrile hautatuko duenean Espainiako hiri nagusitzat, auzotasun horrek ez dio kalterik ekarriko. Ikasleak Erresuma guzitik burrustan heldu... Irakasleak biziki ontsa ikusiak eta behar den larderiarekin... Eta zer bestak norbaitek lizantzako edo dotor gradoak biltzen zituenean... Zer itzulia errunka luze batean hiriko karriketan gaindi... Erakasleak zoin beren jauntzitan; teologoak kapa xuritan, medikuak horitan, lege-gizonak gorritan... Eta dotor-gaia zaldi eder batean... Balusezko soinekoekin, ezpata eder bat sahetsean... Hiri guzian bada bozkario. Ez, ez dute dotor gaia erretzerat eremaiten (orainokoan segurik)... Bizia zaio zabal zabala idokitzen... Etxetik ikastegirat egin ondoan itzuli ospetsua, huna denentzat apairu bat ohoretan den gazteak emanik. Hor ez dela deusen eskasik...

Biharamun goizean, bertzerik da, ezen dotor-gaiak ditu azken ikerketak iragan behar... Lehenik erakasle baten galdintzeri ihardetsi eta gero lagunen jorratzeak jasan... Beharrik hor baita bertze erakasle bat gaztearen goraipatzeko...

Ikastegitik orai bezperako itzulia bezala eliza-nagusirat... Han dotor berriak ukaiten du bere gradoari doakon kapelu ederra. Igan ondoan predikutegirat, zin egiten du eta hitzemaiten bere dotorgoako eginbideak ontsa beteko dituela. "In principio erat verbum" ebanjelioa irakurtuko duenean jende guziak belaunikatuko dira.

Eta orai berriz besta... Bezperan baino ospe gehiagorekin... Zezenketa... Bortz zezenetan! Zer oihuak! Zer esku zartak! Zer bozkarioa Alcalako plazan!...

Itzulia, dotorgoko urratsak, zezenketa... Horiek guziak ez baitira Jainkoaren izenean, orai kundiak atera behar... Eta zorrak pagatu!

Horra beraz gure Juan de Huarte nola ibili ditaiken Alcalan gaindi. 1559-ean medikuntzan dotor egina izan da, urteko azken egunean... Paper zaharrek daukute hori erraiten, Alcalako paper zaharrek.

Joan bazen joan Garazitik, patarrari goiti jo zuen airoski... Ezen ikerketa guzitan lehena edo lehenetarik agertu da. Berak diona, gazteak behar ote du etxetik urrundu zerbait onik egitekotan? Harek zion baietz bere liburuan. Baietz ere bere bizian.


EXAMEN DE
INGENIOS
PARA LAS
CIENCIAS
MDLVII

HUARTE, AITA FAMILIAKO ETA MEDIKU

Bazituen Huartek bi egoitza, bat Linares-en eta bertzea Baezan. Batean han, bertzean hemen... 1571-ean Baezako hiriak bere mediku gisa hartu zuen erranez: "Mediku zahar guziak orai itzaliak dira eta gazte gazte batzu beizik egoiten zauzkigu gutartean. Ez dute oraino behar den esperientzia edo adikuntza. Hiri huntako jendeen osasuna ongi artatua izan dadin, ekar arazten dugu behar den bezalako mediku bat, Juan Huarte de San Juan. Jadanik badakigu gain gainetik eskolatua dela eta ainitz eri sendatzen dituela." Horiek guziak ostiko bat baino hobe!

Hamazazpi urtez ariko da Baezan Huarte medikuntzan, Salbatoreko gunean. Bertze kapitulu batean erraiten dugu zer pentsatzen duen Huartek medikuez eta bere burua nola ezartzen duen mediku teorikoen errunkan... Dio humilki ez duela irudipena aski azkarra mediku obratzaile on baten egiteko. Uste dugu halere, Baezako hiriko gutun horrek erakusten daukun bezala, ez zela nor nahi Joanes Huarte!

Zonbaitek diote izurrite bat gaitza sortu zela Baezan eta Huartek bere egin ahal guziak egin zituela eritasun horren kasatzeko. Eta azkenean garaitu zuela.

Ordu hetan ainitz Ipar-Nafartar baitziren Andaluzian gaindi, 1530-etik haste harat joanak ihesi bezala, heien artean hautatu zuen emazte gaia... Orai ere ez dea ardura ber gauza gertatzen Ameriketan bizi diren eskualdunekin? Ez dakigu hautatze hortan bere liburuko azken kapituluetako teoriak obratu zituen ezkontza sano baten egiteari buruz?... Dena den Doña Agueda de Velasco zuen nexkak izena. Eta 1562-ean ezkondu ziren... Zazpi haur ukan zituzten, hiru mutiko eta lau nexka. Agueda (serora sartuko dena), Ruy-Lopez, Luis (apez eginen dena), Isabel, Dia-Sanchez, Antonia eta Maria... Familia ederra beraz eta itxura guzien arabera, Ipar-Nafarroaz ardura zerbait jakin dukena, haurrek beti zer eta zer nahi baitute beren burrasoen ahotik entzun. Eta burrasoer beti laket haur denboraren aipatzea.

ASISEKO POBREA ETA HUARTE

San Frantsesen biziaren irakurtzen ari da Huarte. Gauak luze Baezan ere eta noiztenka bederen buruaren deskansatzea bilatu behar, ber denboran bihotza altxatuz zerbait gisaz.

Italian sortua Frantses, hamabi-garren mendean... Italian ere Espainian bezala, iguzkia bortiz eta bihotzak bero. Gogoetaturik ari da nola Frantsesek Jainkoaren deiari bere baia eman duen. Hura, Huarte, ikerka urteak eta urteak, jakin nahiz zer bide hartu behar duen gizonak uros izaiteko lur huntan... Bainan aski dea lur huntako urostasuna bertze munduan ere doatsu izaiteko? Zer gogoetak egin arazten dituen koropilo horrek... Huartek nahi luke gizon bakotxak Jainkoak eman talenduak balia ditzan ahalik eta hobekienik.

"Banaki gizonek horrela lana bihotz onez eginen dutela eta hobeki? Banaki hola arizanez elgar gehiago lagunduko dutela... Orduan gehiago karitate eta amodio balitake lur huntan eta ene ikerketa ez laiteke debaldetan. Bainan, bertzalde, nola ez ikus bizi huntan bertzerik ere badela? Nola ez eman sofrikarioer beren balioa? Etxeko goxotasunari berea eta halaber Jainkoaren aldeko amodioari?

" San Frantsesek entzun du Jesusen deia: "Habil eta ene etxea, lurrerat ari dena, xutik atxik." Eliza zuen horrela aipatzen Jesusek... Eta ez dea Eliza girixtino guzien biltzarra? Eta girixtinoak ez direa lehen lehenik gizonak? Girixtino izaiteko ez litakea lehenik gizon hobea bilakatu behar, erran nahi baita, gizon dohainen jabe? Beraz nik egiten ditudan ikerketak ez dira arras debaldetan.

" Ongi da bertzeri pentsatzea... Eta nihaur, zertan naiz horien guzien erdian? Ene arima zer bidetarik doa? Frantsesek deneri uko egin du, ontasuneri, ohoreri... Ai ohore debru hori! Zer indarrak dituen oraino, Espainia guzian. Nola ez dute goraipatzen

idazlek eta bereziki antzerki egilek? Behar bada hartaz trufatzeko... Hain da barna sartua gure odolean... Ohorearen gatik zer nahi egin ginezake, ongia etea berdin gaizkia. Hori dea.

" Frantsesen bizia, dena apaltasun eta pobrezia! Jesusen kurutzea besarkatu du eta atxiki bihotzean behin betikotz. Konprenitu du bertzerik nihun ere ez zuela bere loria ordutik ezartzen ahal. Eta zer karitatea! Dohabeke guzieri, izan diten eri edo bihotz zaurtu, Frantsesek emaiten deete bihotzean duen su hori. "Frantses! Pitz bekigu zure su hori..." Elgarren etsai egoiteko orde, eta bertzen bitoriez jelos edo bertzen zorigaitzez alegera... Ni beti ari bainiz xerka eta xerka nola gizonak behar luken bere egiazko itxura bilatu eta haren idurikoa bilakatu.

" Frantsesek maite ukan du Egiarentzat sofritzea... Utzi zituelarik bai ontasunak eta bai etxekoak, erho batentzat hartu zuten jendek eta bere aitak berak ez zuen gehiago semetzat onetsi nahi. Nik ere egiarentzat daukat ene liburua eta haste hastetik hasi zaizkiat laidoka... Onartzen dituda laido horiek behar nuken umiltasunarekin ala heien baztertzerat lehiatzen niz sobera laster?... San Frantses bazoan Conpostelarat buruz eta Iruñen iragaitean hatzeman zituen auzoak auzoaren kontra izigarriko aierkundean. Gubio-ko otso famatu hura hain ongi balakatu zuenak Italiako herri batean... Horra nun Iruñeko hirian bakezko hitzak eskuin eta ezker berduratu ondoan, sosegua sortarazi zuen denen artean. Nafartarrentzat ongi egile beraz Frantses...

" Ez da haratik ez hunatik, behar dut San Frantsesen Heren-Ordrean sartu hobeki jarraikitzeko haren etsenplu onari. Espainian berean Raimundo Lull jakintsuna ez zena San Frantsesen batasun hortan? Eta Kristobal Colon? Ez dut bertzek bezala egiteko, hor sartu nahi... Dakitana da Jainkoaren laguntzaren beharreta naizela, bai familiaren ongi altxatzeko, bai eta ofizioan aintzinatzeko ere, erien zerbitzuko osoki izanez. Jainkoak lagunt nezala ene idaz lana Egiaren mutil bilaka dadin...

" San Frantsesek, mihiaren errabiaren orde, ixiltasuna du laket, lazakeria eta alferkeriaren orde lana, urguluaren orde apaltasuna, beztitzeko moldean gauza guzietan bezala. Bertute horiek guziak ez direa ardura kausitzen adimenduaz azkar den gizona baitan? Beraz San Frantsesek eta nik helburu bera dugu erakutsiz gizonari munduak hain hastio dituen bertuteak direla hoberenak."

Baezan bada Frantxiskano komentu bat eta Heren-Ordrean sartu nahi dutenek han egin behar dute beren galdea. Huarte, igande astiri batez, joan da komentu hartarat; ezkilañoa jo du eta berehala atea idoki diote: "To!... Zer zira, zu hemen?" Alabainan ezagunak dira eta adixkide Huarte eta horgo fraideak... Heietan nor edo nor eritzen bada, Huarte-ren bila heldu dira... Huarte gorputzen artazaile; fraideak arimenak.

"—Jakin dut egun baduzuela Heren-Ordrean sartze bat eta nik ere nahi nuke bertzekilan batean urrats hori egin... Onartzen banuzue bederen!

" —Jainkoak benedika zaitzala, ene haurra; zato elizaraino."

Komentuko eliza mukurru betea da jadanik. Gandeiluak pizturik daude. San Frantsesen itxurak zerustatua aldare gainean iduri du, eskutan duela kurutze saindua eta ondoan hil-kasko bat. "Zoin guti giren haatik, dio Huartek bere baitan. Gure teoria eta espantu guziek zer balio dute hil kasko horren aintzinean?" Fraide bat aintzinatzen da eta erraiten du goraki: "Zer galdegiten duzue?

" —Aita, nahi ginuke Heren-Ordrean direnen habitua eskuratu, horrela aiseago hel gaiten betiereko bizitzera."

Bainan hitz horiek latinez erranak izan dire, orduko usaia-ri jarraikiz. "—Quid postulatis? —Pater, postulamus habitum Tertii ordinis de Poenitentia, ut cum eo salutem aeternam facilius consequi valeamus."

Bertze zonbeit otoitz egin ondoan, bakotxak bere aldian hitz emaiten du Heren-Ordreko legeari jarraikitzea... San Frantsesen bertute bereziak bere egun guzietako eginbidetan landatu. Eta hiru haurren kantika hunkigarria dute gero kantatzen: "Iguzki eta ilargi, benedika Jainko Jauna. Elur eta euri, goraipa Jainko Jauna..." Eta Huartek dio bere bihotzean; "Mundu huntako obrarik ederrena, gizona... Gizona izan bedi Jainkoaren goreslerik hoberena!"

HUARTE ETA INKISIZIONEA

Felipe Segundo-ren denborak garratzak dira. Berak dio nahiago duela ez egon errege-alkian, ezenez eta sineste-makurdun batzuen errege izan. Garizuma hastean, Inkisizioneko juje andanak agertarazten du gutun bat, Fedearen gutuna, zoinaren bidez girixtinoek Elizaren laguntzera gomit baitira hatzemaiteko nor edo nor erakaspen makur hedatzen arizan ditekenik. Zonbeitek beren ideiak azkarki behar pagatu... Zeinuak dilin-dalan hasten dira goizean... Hiltzea merezitu dutenak presundegitik ateraiak dira bortizki eta errunkan emanak. Turuta joileak aintzinean, gero Inkisizionearen ikurrina; kurutzea, ezpata eta oliba-aldaxka ditu margoztatuak... Fraideak beren kapusailekin... Gandeiluak eskutan, pizturik. Azkenik hiltzera doatzinak... Gandeilu hori bat bakotxak, sanbenito delako jauntzi horitan eta **kapelu luze bat buruan...**

Denak abiatu dira... Eta lerro horren ikustera jinak, zer gizon eta emazte andanak... Zonbeit aldiz, ixilik zaudenak oihuka hasten! kondenatuen laidostatzeko. Plazarat etorri orduko, zer agertzen da? Urkabe luze eta ilun bat, bere soka dilindan, haizeak deramala, eskuin eta ezker, gizonen zuzentasuna iduri... Gero bada prediku eta jujatze, bakotxaren hutsak deneri ezagutaraziz. Zoin luze horiek guziak. Batzu preso altxatuak izanen dira beren bizi guzikotz, bertzeak soineko horiarekin ibiliko dira zonbeit denboraz jenderen irringarri... Bainan badira ere urkatuak izanen direnak edo erreak. Ez dea higuingarri ikustea jende batzu egur ekartzen suaren akulatzeko?

Ez gaitela behar gabe izi... Gure Juan Huarte ez da errea izan, beharrik. 1575-ean, ixtantean lau ehun urte, agertu zen "Izpirituen ikertzea", baimen guziekin. Eta horra nun, liburua sei urtez salgai izan ondoan, Inkisizioneak bet betan debekatzen duen, Portugalean 1581'ean eta Espainian 1583-ean. Huarte-ren trixte-

zia!... Bere biziko obra kendu beharko saltegietarik, xuxendu artio... Zer sos galteazk, jadanik bertezn laguntzarekin irarri edo inprimatu ondoan... Eta Huarte ariko da sei urtez bere obraren berriz zutik ezartzen, lanak eta lanak ukanen ditu, ezen Inkisizionearen begi zorrotza, lakoin begia, ez da urrun... Hilen da 1589-ean, berak ikusi gabe agertzen liburua bigarren aldikotz. Hau eginen da 1594-ean, haurrek galdegin ondoan Felipe Segundo erregeari baimena eman dezan eta huna hemen nola mintzo den Erregea: "Zuen aitak liburua erreberritu du luzaz lanean arizanez. Xuxentzeak behar bezalakoak direnaz geroz..."

Huartek ainitz pondu bertzelakatu zituela, egia da. Hortako bazuen aski iraupen... Nundik heldu zen beraz jasaiten zen kondenamendua?

Alonso Pretel, Baeza-ko Ikastegi nagusian teologo zen eta Inkisizionearen ordaina zela paper zaharrek erakusten daukute. Horrek dio Huarteri helarazi delako berri txar hura... Huarte lanari lotu eta hasian hasi, bigarren agertaldian zonbeit xehetasun emanen ditu jakinarazteko zertako kondenatua izan den...

"Norbaiti zozoa dela erraitea, laidorik handienaren egitea da. Zeren eta gizonaren ohoria baita izpiritu baten ukaitea." Ebanjelioak dio: "—Burugabe! izendatzen baduzu norbait, kondenatua izanen zira." "Eta horra nun zerbait gisaz ene liburuan *Burugabe* errana izan den... gizon batzueri, nahiz hasarrerik ez eta herrarik ez dutan ukan. Eta huna hemen orai liburu hunen bekatua"; adimendu haundi baten jabe zenari, oroimena kendu dio: "Oroimena zuenari, adimendua; irudipen-dunari, adimendua eta oroimena. Predikariari ezagutarazi dio ez dela gai, Jainko jakintzaren xilatzeko. Eta teologo-erakasleari, erran dio oroimena duela bere baitan (eta adimendu edo irudipenik ez). Hortaz gaitzitua baitago."

Oroit gaiten, dena den, Huarte Elizaren erakaspenari jarraiki dela, ongi pairaturik ere. Hogoigarren mende huntako girixtinoentzat ere ez da etsenplu ttipia, Huartek emaiten daukuna.

HUARTE-REN ALABA AGUEDA...

Ez uste izan Huarte idazlea murritz hetarik izana dela. Zazpi haur bazituen eta segur irri eta kalapita frango aditzen zitakela etxe hartan ez da dudarik. Zonbeit aldiz nago ez zitekenez josteta ari bere haurrekin bere lanen ondotik, izan ziten mediku-lan edo idaz-lan... Nafarroako familien goxotasuna... Supazter beraren inguruan, gaztainak ari direla paderan zarta eta zarta eta sagar arnoa basoetan pindarka bezala. Behar bada usaia berak atxikiak zituzten Baeza-ko Huarte familian.

Dena den, haurrak haundituz doatzi denetan bezala. Bakotxari bere bidearen emaiteko tenorea sobera goiz jina beti bezala... Batek, Luis, apez egiteko xedea hartu du... Bertze batek, Agueda, serora nahi du sartu. Preseski zonbeit xehetasun baditugu Aguedaz eta diren bezala emanen dauzkigute Baezako Santa Katalina komentuko idatzi xaharrek.

"1587. Santa Katalina komentuan sartu zen Agueda de San Agustín serora gisa. Juan Huarte eta Agueda Velasco-ren alaba. Hogoita ta bi urtetan. Bere nahitarat eta gogotik. Emazte langilea eta talendu haundikoa. Eri artatzen laket zuen. Serora bat eritzen zelarik, noren laguntza ukaiten zuen berehala? Aguedarena. Ez bakarrik zonbeit aldiz, bainan beti hola ari izana da. Gauza jakina eritasunetan badirela zonbeit arrunt higuingarria eta berdin kutsudunak. Sekulan izitu gabe hor zagon beti eri zain... Ez zen batere kexatzen eta zion beti... haren aldi zela. Horiek guziak Jainkoarentzat amodio haundia zuelakotz. Lanen artetik bazakien ere otoitzean aritzen, komentuko legeak manatzen zion bezala. Jainkoaren beldurra bazuen eta ardura Sakramenduetarat hurbiltzen zela ageri zen.

" Ate-zain eta jateko-biltzale gisa zonbait eta zonbait urrats baditu eginik bere bizian . Jesukristo gure Jaunaren sofrikarioak gogoan erabiltze hori maite zuen. Janan ere penitentzia egile. Sekulan ez zitzaion iduritzen karats jaten zuen hura. Bortizki eta ardura barur eta mehe zuen egiten. 1644-ean hil izan zen Agueda lauetan hogoi urtetan, azken Sakramenduak fede bizi batekin hartu ondoan. Santa Katalina bezpera zen."

Komentuko besta. Aguedak zeruan zuen kausitu fededunen loria, ezin erranezko loria.

Horra beraz zer dion Santa Katalina komentuko liburuak. Ez gaiten harri holako emazte saindu bat atera bazen Juan Huarte--ren familiatik. Eta dugun asma zer zitaken familia horren bizia, dena lanari eta otoitzari emana, fartzuntzikeriak bazterrerat utzirik. Huartek bilatu badu nola behar duen gizonak apailatu bere ofizioaren ongi hautatzeko eta hartan ongi aintzinatzeko, ber denboran ez da azkenetarik izan girixtino lanetan. Saindu bat haren familiatik atera da; bere alaba. Elizak ez du aldare gainetan ezarri, bainan Nafartarrentzat ez da guti jakitea, hemendik urrun izan bada ere, heietarik batek holako bizia ereman duela.

HIRU HITZ:

ADIMENDU = ENTENDIMIENTO

OROIMEN = MEMORIA

IRUDIPEN = IMAGINACION

JUAN HUARTE BERE ADIXKIDEKIN

Nahi duzu jakin nola dabilan gizon bat, zer gogoetak dituen erabiltzen... Ikus hortako nor diren haren adixkideak eta nor haren etsaiak ere. Juan Huartek ez ditu bere liburuan aipatzen harekin bizi izan diren jendeak. Bainan lehengo zonbeit idazleren izenak emaiten ditu. Ikusteko aski noren ganat zuen senditzen afizionerik haundiena, izpirituko harat-hunatetan.

Egun orotako bizitzean ez zitaken sos egile hetarik. Oroit gaiten bere burua ezarri duela mediku-teorikoen errunkan. Horrek erran nahi du adimendua eta oroimena irudipena baino haundiago zituela. Eta, berak diona, gobernatzeak, gauzen xuxen ibilarazteak, irudipena behar eta ez adimendua edo oroimena.

Bere testamenduan dio Diego de Villava bere koinatak, hamabortz dukat zor diozkala. Zerendako? Antonio Gomezek Huarteri galdeginak prestuz, gero Diegori emanak jabeari hel zitzan. Eta sos puska hori huna nun bide erditan egon den... Eta zonbat holako... Figueroak oihal bolatzeko lantegi baten arranda ez du gibelerat itzuli. (Xehetasun huni esker dugu asmatu lehen partean Huarteren aita oihal saltzale zitakela).

Mendoza, moro girixtinoak, eta haren koinatak hogoi dukat zor diozkate Gaspar Molinak aldiz berrehun erreal...

1589. Huarte hil ondoan; haurrak agertuko dira Baezako eskribanoaren aintzinerat nahiz eta aita zenaren ontasunez jabetu, gero elgarren artean zatitzeko gisan. Nahi dute ere oraino hor gaindi kurri dagon sosa gibelerat itzularazi.

Errexki maileguz emaiten zuken bere sosa Juan Huartek, bihotz ona zuelakotz. Bainan gero bera ere zorretan zagon, hala nola Santa Katalina komentuari buruz. Baezako izurritea jalgi

zenean bezala, bihotzak zion erraiten: "Zoaz sofrikarioen soleitzerat. Zoaz behardunen laguntzerat." Eta bere "Izpirituen ikertzea" idatzi badu, ez dea Espainia salbatu beharrez? Asmatua zuen jadanik zer leizetarat laster abiatuko zen erresuma hori, hain gora heldu ondoan. Gizon bakotxak bere ofizioa errotik jakinez eta beraz denen onetan ariz, zerbait egiten ahal zitakela... Zer xede ederra, Huarte filosofoaren... Jondoni Joanes Batixtak zer zion? Abendoko bigarren igandean irakurtzen duguna: "Bide makurrak xuxen! Zuen buruak garait eta penitentzia egin!" Batixtak nahi ditu bihotzak bertzelakatu, Jainkoaren legeari hobeki jarraik diten gizonak. Ez ote du ber gauza galdegiten Huartek izpirituer? Jainkoak gauzetan ezarri du lege bat eta lege hori du nahi Huartek erakutsi gizoner beren ofizioa izan dadin bide xuxen bat eta ez makur bide bat, nor beraren eta bertzen kaltetan...

Platon, Aristoteles, Hipokrates, Zizeron, Galeno eta abar... Idazle horien irakurgaiak Huarteren egiazko adixkideak dira eta bere aintzinean dauzka, hobeki aditu beharrez heien erranak. Eta irakurgai guzien erdian, Liburu Sainduak. Bere erakasleak hautatu ditu beraz Huartek eta erakasle hoberenaz ez dea maiz adixkide on bat egiten? Baezako hirian ere badituzke adixkideak eta heiekin solas kotsiaren kanbiatzea laket duke. Idazle horiek aldiz beti bere mahain gainean ditu eta asma ditake frango errexki zoin ardura so egiten dioten Huartek bulegoko bakartasunean.

Gauza da... Ez da Huarte loegile hetarik eta lo delarik ere gogoa ari zaio alan. Bet-betan jatzartzen da ikusi baitu halako ideia burrusta bat klarki elgarri estekaturik. Ondoan duen gandeilua pizten du eta, hotza izanikan ere gaua, xutitzen da orri batean ezarri nahi baititu ideiak etzanik... Antzara lumak alegeraki ditu hitzak lerrokatzen. Aspaldian bila eta bila zagon, ezin hatzemanez nola elgarri buztar ainitz erakaspen... Bainan gauaz izpiritua ari zaio bere bideari, gorputza pausan deno. Orduan Izpiritua xorrotxago baizik ez... Biharamun goizean jeiki da goizik. Idaz lana du hain maite nun ardura baitago gogoetaratua. Eta noiz eta ere zerbait berri hatzeman baitu, irria ezpainetarat heldu zaio eta bere haurrek ere ezagutzen dute oren baliosak dituela aitak iragaiten.

Ez da gizon bat tenore guziez ados adixkidekin. Huartek ere mahain gainean dituenekin ukaiten du zerbait pataska noizean behin. Liburua ixilik egoiten da, alabainan, ez baitu bizirik ihar-

dokitzeko. Bainan Huarteri iduritzen zaio hor dituela idazlariak, bere aintzinean, zerbait ihardetsi nahi.

Har dezagun Liburu Sainduetako "Proverbio" edo Erran zuhurren bilduma. Menderen mendetan kausi ditaken zuhurtziaz orhatuak bezala dira. Eta zuhurtzia bera du Huartek kausitzen gauzetan ere: "Oihuka ari da gauza erran beharrez gizonari zer izaite naturalezak eman zion eta zerentzat egina izan den." Erran zaharrek ere, zortzi garren kapituluan, diote: "Zuhurtziak ere ez ditia zonbeit oihu egiten?"

Lehengo denboretan filosofo haundi batek hau edo hura errana bazuen, ez zaiteken deus hunkitzen ahal... Hori zen behialako "Magister dixit" edo "Erakaslea mintzatu da, hari gauden beha beharriak xabal xabala eta ixilik." Zer dio beraz Huartek gauza hortaz? "Filosofo batek diolarik gauza bat egia dela Aristotelek errana duelakotz, ez du kalapio haundirik, bere bidean aintzina joaiteko." Huartek aldiz nahi du gauzer jarraikia izan dadin filosofoa, gauzek daukaten egiari.

Bertze Erran zahar bat aipatzen du... "Xinaurriak zer egiten du? Erakaslerik gabe bere jatekoa biltzen udan." Beraz xinaurria bezala ari gaiten guhauren baitarik. Alta ez zen holakorik orduko Ikastegi-Nagusietan, Europan gaindi zer ikastegiak!... Hala nola Italian Boloniakoa, zointan Frantses Xabierren aitak legetako dotorgoa eskuratu baitzuen... Salamancakoa Espainian... Portugalen Coinbrakoa, zointan Frantsesen osaba, Doctor Azpilcueta (Navarro) erakasle baitzen... Eta Parisen Sorbona famatua... Eta zonbat holako... Bainan gutiz gehienetan zaharren erraneri ari ziren, gauza sakratutzat hartzen zituztelakoan. Berritzerik ez zen aipu... Huartek eta bertze zonbeitek dute lehen aldikotz galdegin erreberritze hori, gauzeri emanez lehen tokia eta ez gizonen erraneri, jakintsun haundi izanikan ere.

Bertze orri batean Huartek aipu du oraino Proverbio bat: "Zozo batek zerbait gisaz laidostatzen bahu, ez diok ihardetsi behar, bertzenaz haren idurikoa bilakatuko haiz." Zozoa edo izpiritu gabekoa... Haren bidetan ibiliz, hura bezala ari izanez, hiaur zozotuko... Zer egia haundia. Karitateak dauku manatzen laido egilearen ez laidostatzea... Bainan Huarteren arabera, izpirituaren osagarriak ere.

Bertze leku batean huna Proverbio bat Huartek baliatzen duena gain gainetik: "Hiru gauza ditut ezin jakinezkoak; arranoak

airean segitu bidea, sugearena, harri lauza baten gainean eta untziarena itsasoan gaindi. Laugarrena berriz ez da errexagoena; gizon batek segitu bidea gazte denboran." Bai, gizona mixterio bat da eta ez da errex haren baitan zerbait argiren egitea.

Eta kasu oroz gainetik hitzeri ez kalakan gogotik aritzen direneri. Proverbio batek dio: "Solasean atertu gabe ari denak, komuzki adimendua eskas du eta zuhurtzia ere." Oroit gaiten nola bat baino gehiagotan aipatu dituen Ipar Europako aho beroak. Ez heien laudatzeko...

Errege batek zuhurtzia ukan dezala. Bainan halere Jainkoaren laguntzaren beharretan da, adimendua argi dezon. Horra bertze erakaspen bat Huartek Proverbio bati galdegin diona: "Errege baten bihotza Jainkoaren eskuetan dago."

Proverbio horiek eta bertze ainitz, Huartek irakurtu eta baliatu ditu. Ez da horien kontra jatzartzen, Jainkoaren hitzak direlakotz. Bertzalde mundu zabaleko gauzen erakaspeneri nahi ukan du ohartu eta hortako bere baitan ixilik egon da, begi beharriak idokirik, Proverbio horietan kausitu zuelakotz lur huntako apailua.

Huna orai Salmoak. Jainkoaren alderat senditzen dugun fidantziaren bilduma. Bihotza ilun denean, judua Jainkoaren aintzinean jartzen da... Eta lañoki mintzo zaio ez hitz haundiz, bainan egun guzietako elez. Huartek beraz laket zuken Salmoen irakurtzea... "Izpirituen Ikertzea"-ren lehen kapituluan berean berrogoi ta laugarren Salmoa aipatzen du: "Ene gogoak gogamen haundiak ditu eraikitzen." Zer bozkarioa salmo-egilearentzat, kantatzen duenean Jainkoaren izpiritu ekarkorra Hitzari bizia eman diona... Ber alegrantzia da Huarteren bihotzean ikertzen duenean gizonaren izpiritua, hura ere ekarkorra. Bainan, urrunxago, berrogoi ta zortzi garren Salmoak karats aire bat badu. "Lorian zagon gizona urgulutan sartu zen eta huztarripean doan kabaleriaren iduriko bilakatu." Bat baino gehiagotan Huarte bere irakurgaian urguluaren etsai gorria agertu da. Dio urgulua eta adimendu zorrotza ez direla elgarrekilakoak izaiten ahal.

Laugarren kapituluan, 118 garren Salmotik ateratzen ditu hitz hauk; "Zure eskuek, Jauna, egin naute. Eman otoi adimendua zure legen ikasteko." Horrela Salmo-egileak galdegiten du Jainkoari argitasun eta laguntza munduko elgar-aditzean bere lekuaren hatzemaiteko.

Geroxago, 126 garren Salmotik: "Jainkoak ez badu hiria zaintzen, debaldetan ari da zaintzalea." Beraz, Huarteren arabera eta araiz gu guziena, bakearen finkatzeko Jainkoa bihotzean behar dugula ukan, eta Jainkoa baitan fidantzia ere. Horrek erran nahi ote du gizonak ez duela urratsik egin behar bakearen alde? Ez gutienekorik. Dio, filosofoek ez dutela sofritzen ahal gauzen harat hunatetan denen Iturburua arrazoin gisa emana izan dadin. Iturburuaren eta gertakarien artean badira bigarren arrazoinak deitzen direnak eta heiek dira bilatu behar eta artoski xuxendu.

Huartek, Inkisizionearen manuz, zonbeit pondu berritu dituenean, leku gehiago emaiten du Jainkoaren alderako fidantziari. Behar bada hogoigarren mendeko teologoek Huarterekilan zerbait eite badukete, erran nahi dut lehenbiziko Huarterekilan.

Noiztenka Salmoak trixtatzen dira, hala nola 101 garrenean. Gizonak bere biziko tentaldiak eta erorikoak begien aintzinean iragaitean, Jainkoari galdegiten du ez dadin berriz gazte denboralat itzul. Huartek badaki gaztetasunaren berri eta zer tentaldiak dauzkan berekilan. Halere dio arima berdina dagola bizi guzian eta gorputza dela, gaztean desplomatua, gero, adin gordinean, hobeki plomatzeko.

Job-en liburuan, zer hartzen du Huartek? Hitz hauk: "Aldi bat baizik mintzo da Jainkoa eta erran duena ez du berriz errepikatzen." Jainkoak egin ditu mirakuluak Jesukristoren jainkotasunaren frogatzeko eta ez ditu noiz nahi eta nola nahi egiten, zonbeitek uste duten bezala. Gizonak behar du bere baitarik arizan lanean. Horra beraz zer erakaspen ateratzen duen Huartek Job-en liburutik.

Alta liburu hori irakurtzean bertze gogoeta hatzu ere sortzen zitzaizkion.

Job dago bakarrik, denetarik urrundua, bihotza zaurtua. Adixkiden trufa musika baino latzgarriago zaio, Jainkoa ixilik baitauka. Eta horra nun entzuten duen aipatzen munduko antolamendua. Orduan Job-ek konprenitu du sofrikarioa ere mundu huntan dagola bertze edozoin gauza edo sendimendu bezala. Jainkoaren nahiari jarraikiz du Job-ek bakea berriz hatzeman. Bat baino gehiagotan Huartek ere bere bizian sofrikarioaren aztaparra senditu duke, lehenik bere sort-herritik urrundu zelarik haurrean, gero espos laguna mundu huntarik joan zitzaiolarik edo alaba Agueda komen-

turat joan zenean. Eta nolaz ez Inkisizioneak "Izpirituen Ikertzea" kondenatu zuenean? Dena den, ikusi behar da Huartek humilki hartu dituela gertakariak heldu diren bezala eta horrela erakaspen haundi bat emaiten daukula, bere liburuko erakaspeneri datxikola.

Azkenik aipatzeko, Eklesiastes delako liburua. Huartek, liburu hortarik ateratzen du hitz hau: "Nun ere baita goibeldura, han dago gizon zuhurraren bihotza. Aldiz nun ere baita alaitasuna, han dago zentzu gabearena." Urrunago: "Badira zonbeit, aisexka belaunikatzen baitira eta errealki farzuntzi batzu direnak." Etsaiak, gizon guziek bezala ukan dituenaz geroz, bere buruari pentsatu duke hitz hauk irakurtzean eta idaztean; "Ez sinets hire etsaia. Erranen dauzkik mila zinkurina eta ele zuri. Ber denboran ari duk hi galdu beharrez. Bi nigar xorta egiten ditik eta, parada gertatuz, gogotik ariko duk hire odolaz ezin asez."

Hemen zonbeit etsenplu eman ditugu erranez nola Huartek baliatu duen Liburu Saindua. Ainitz aldiz Liburu Sainduaren eta berak asmatu dotrinaren erakaspenak elgar ongi uztartu ditu. Geroztik eta berriki artio ainitzek erran baitute leize haundi bat bazela Fedearen eta Jakitatearen artean, hor ikus dezakegu jakintsun bat leize horren tapatzen ari bere ahalen arabera. Eta hogoi garren mende hau bururatzean ageri da sekulan baino hobeki, Jakitate hutsa Teknika bilakatu baita, Fedearen behar gorrian dagola. Nafartar horrek aspaldian bazakien hola dela gizonaren ona bilatu behar bada, berak nahi zuen bezala.

TESTAMENDUAREN ORENA

1587. Baezan. Aspaldi hunta sendi du Juan Huartek halako ez ontsa bat bezala. Akidura ote da? Hainbertze harat eta hunat ibiltzen ditu eri artatzen, nun azkerean gorputzak ez baitu lehen bezala ihardokitzen. Beti eta gehiago ohean dago luzaz, batean sukarrak harturik, bertzean buruko minak. Alta ez ditu oraino hirutan hogoi urteak beteak, bainan garai hetako ez dea adin ederra?

"—Errak, Luis, habil Segura notarioaren bila"; dio erran goiz batez semeari. "Nahi ditiat gauzak plantan ezarri, tenorea deno." Semeak so luze bat aitari. "Zer da Aita, hortan?". Nahi gintuzke familiakoak atxiki betikotz gure ondoan. Eta harriturik gaude noiz eta ere ohartzen baigira, noizbait, elgarretarik berexteko tenorea etorria zaukala...

Huartek ere bere so ezti eta sarkorrarekin so egin dio semeari. Aspaldian badaki bizi huntako gauzen berri. Eriak artatuz ari izan denak ardura ikusi du herioaren hegal iluna hurbiletik eta badaki hortarik ere, goiz edo berant, ez dela eskapurik. Bizi hunek ere bere legeak baditu eta lege horien kontra deus ezin egin, ez baitira gizonek eginak.

Lehioak zabalik daude... Zerua hurbil... Lehen Garazi aldean bezala. Hori ere ez dea miresgarri? Nun nahi izan dadien gizona, arima betiereko biziaz gose eta egarri... Eta Jainkoa hurbil, nahikunde oneko gizonaren baitan...

Karrikan azantza... Urratsa zalu du gizon horrek. Botzetik ezagun da Segura notarioa. Aspaldiko adixkidea. Legeko gizonetaz behar zuenean idatzi Huartek, zer eleketak ez dituzte elgarrekin egin?

"—Bainan, Huarte, ez duzu begia eri!

" —Ai, Segura, zuri hola iduritzen... Bainan, bazinaki... Gorputza dut arrunt desegina sendi. Lanean aritzeko kalapio guti. Alta ari nintzan egun hautan idatz eta idatz...

" —Zer? Beti idazten... Iduriduzu notarioa zuk ere...

" —Ari nintzan ene lanaren berritzen... Badakizu nola Inkisizioneak erran zautan duela zonbeit urte, berrogoi ta lau pundu berritu behar nintuela?...

" —Bainan, uste nuen aspaldian egina zinuela lan hori?...

" —Lan horrek buru hauste ainitz eman dauzkit... Lehen liburuak baino gehiago. Zer uste duzu dela? Nik ezarriak bainituen gauzak beren haxean... Horra nun orai desegin ditudan ainitz lerro-aldi. Desegin eta berriz egin. Zer lanak! Eta horiek guziak Inkisizioneak horrelako erabakia agertu baitu. Balakite berek zer den biziko obrari berriz lotzea... Emeki emeki asmatua, arduranean trabak hor, berriz haste. Azkenean bururatu nuen eta argitarazi...

" —Uste duzu oraikoan hain garratzak izanen diren?

" —Hori geroak erranen du. Bainan ni beldur ez dutala ikusiko ene liburua berriz agertzen...

" —Zer derasazu?... Ez zira, ez, uste duzun bezain eri...

" —Bainan, Segura, zu notario eta ni mediku... Ahanzten duzu, behar bada, bakotxa bere ofizioan baizik ez dela juje ona izaiten ahal...?"

Huarte irriz hasi da. Irri sanoa... Beraz ez da oraino hila. Bizi direneri eta biziko direneri du erran behar orai zer sendimendutan den eta zer xede hartu dituen mundu hau utziko duen tenoreko.

"—Beraz has gaiten, Segura..."

Segura mahain ttipi baten aintzinean jarria da, bi antzara luma ondoan ezarri ditu eta tinta-untzian bat busti.

"—Ez izi, Segura... Lana ez da haundia izanen. Nik baino hobeki badakizu ene ontasunen berri... Huna lehen hitzak... Jain-

ko jauna izan bedi goretsia. Halaber Andre Dena Maria, Jainkoaren Ama." Bai, so egizu, nahi ditut gauzak xeheki eta plantan ezarri. Nahi dut jendek sinets dezaten Fedea-n bizi izan naizela. Odei eta haize guzien gatik, Fedea atxiki dut. Segur, ez da gauza errexa. Zer tirabirak, zer gudukak nahiz eta Fedea bizirik atxiki...

—Sinesten zitut. Eliza ere ez da beti zuretzat adixkide goxo agertu.

—Errazu, Segura. nik bezain ontsa badakizu Inkisizionea eta Eliza biga direla... Nik Eliza baitan sinesten dut errotik. Inkisizionea dut ez hain maite. Ez zaut iduri Izpiritu Saindua berekin duela. Sobera bortitz mintzo dena, auzoaren begian lasto piru bila, uste duzu Ebanjeliotik ari den?

—Hala da, bainan Elizak ere bere larderia behar, edozoin erresumak bezala.

—Enetzat larderi hori zinez gurutze dorpea izana da. Behar bada hortan dago salbatzeko biderik xuxena...

—"Neri jarraiki nahi duenak bere kurutzea har dezala..."

—Zinez hori egia izan da enetako. Segi dezagun orai hasi lerroa." Jakin dezala irakurtuko nuenak, orai eritasunak garaiturik nagola. Bainan izpirituz oso. Goraki diot Trinitate Sainduan sinesten dutala. Eliza katolikoan bizi naiz eta ber Elizan dut hil nahi."

—Hori ongi emana da. Zonbeitek dudan bezala zauden eian katoliko ziren bederen, hainbertze teori berri irakurtu ondoan zure liburuan...

—Badakit bai zonbeitek diotela sineste makurretan ibilia naizela kokotzaraino sarturik... Bainan ez naute ito. Beharrik. Nahi baduzu egia jakin, hastio ditut sineste makurrak. Ene liburuan irakurtu dukezu ainitz aldiz zer gisetarat mintzo nizan Ipar Europatik etorri diren sineste berriez. Nahi ukan dut beti Eliza Saindua gure amaren erakaspener jarraiki. Ber denboran nahi ukan ditut gizonak argitu zerbait gisaz. Bainan ez zaitela harri... Emazu zerbait asmo berri... Berehala gizonak jatzartzen zaizko eta asmatzaileak, bereak eta asto beltxarenak entzuten ditu laster. Eta liburu egileak edo idazlariak bietan.

Frangotan zonbat eta zonbat erakaspen balios ez dira hola ezestatu... Behar bada gizoneri zerbait aintzinamendu eginaraziko baitzuten. Eta akusatzailek ez dauzute froga bihirik ekartzen... Ez dut haatik ene burua goretsi nahi, zorokeria bailitaike. Eskual arraza badakizu gudukaria dela eta gudua hasiz geroz nork erran lezake nola bururatuko den? Ni ere eskual arrazatik, nahiz ere juduen odoletik badutan, amatxi zenaren aldetik. Bainan gudua bihotz onez ereman dut eta ez herraz. Nahi nuen zonbeit egia goraki erran gizoneri. Sobera gora mintzo denak, murmurika bat entzuten du denbora laburrik barne, oihaneko burrunba iduri... Batek has eta bertzeak segi, ardi tropak bezala...

—Nahi baduzu jakin zeri pentsatzen dutan orai... Zuk marrotik baduzula arditik baino gehiago.

—Bakotxak bere jeinu.

JUDUEN GAINEAN ZONBEIT HITZ

Hamabortz garren mende ondarrean, Espainiak lekuarazi zituen juduak bere eremuetarik. Lekuan berean egoiteko bataioa behar zuten onartu. Beraz andanaka atera ziren judu zintzoak, erresuma bere buru hoberenez laster husten zela. Ordu hetan Nafarroa ez baitzen oraino español bilakatua, ainitz Nafarrorat etorri ziren...

"Aintzinean medikuak aipatu baititut, nahi nuke jakin dezazuen judu arraza medikuntzako hoberena dela. Frantziako errege bat, Valois Pantxo, eritasun bortitz batek garaitua zagon eta kasik garbitua... Bere Inguruko medikuek ez zuten nihundik ere gaitz hori bentzutzen ahal. Eta sukarra goiti ari zenean, zer zion Pantxok? Baizik eta kristau medikuek ez zakitela jende sendatzen eta heien partetik ez zuela sendatzerik goaitatzen... Orduan Pantxok Espainia zolatik ekar arazi mediku judu bat. Bainan, jaunen jaunak baitira, Pantxok kanpora manatu zuen etorri orduko, oharturik kristau zela... Urrunagotik behar zuela ekar arazi mediku judu bat, Turkiarat joan ziren haren bila. Eta hunek eman edatera astaña baten esnea, eta denbora laburrik barne erregea sendatu... Pantxoren loria... Eta ere medikuarena... Artazale onen jeinua irudipena da eta preseski judu arraza irudipenez ongi oratua dela daukat. Ikus dezagun zertako..."

Liburu Sainduek daukute erakusten juduak, desterruan bizi izan zirela laur ehun urtez... Bertze kapitulu batean diote laur ehun eta hogoi ta hamar urtez... Bertze batean aldiz berrehun eta hamar urtez. Holako eztabadetan egiten dena, bila dezagun bertze norbaiten lekukotasuna. Beraz zer diote Apostoluen Egintzen liburuak? Esteban lehen martirak dio laur ehun urte iraun zuela delako desterruak. Bainan ar giten apalenetik eta eman dezagun berrehun eta hamar urte baizik ez zuela iraun delako des-

terruak... Epe hori aski luzea zaut Egiptoko nortasunaz eta jeinuaz kotsatuak bezala izan diten juduak. Bertzalde, norbait esklabotasunean bizi denean, trixtaturik, bere lurretarik urrun, koléra batek gaina hartzen dio eta gero izpiritua zaluarazten eta xorroxten... Esklaboa ez dea egun guzia ausnarrean ari eian nola nagusiari ihardokiko duen eta nola bere bizi dohakabetik aterako den? Ikus dezagun Atenas hiri famatuan zer gertatzen ohi zen... Gizon zozo-gairik ez da han sekula santan sortu... Grezia guziko leku pobreena delarik... Halaber Israelgo jendea, ihes joaiteko lekutu zenean desertuan barna ibili zen eta horrela, eremu meheak izanez, izpiritua zorroztu zitzaion... Aldiz nor baita ere bizi lur gizen eta aberatsetan, indar ainitz biltzen du bere gorputzean, bainan izpiritua ere lanputsa bezala gelditzen zaio...

Beroak ere badu bere egitekoa. Izpiritua ere berotzen du eta ez bakarrik, gorputza. Hala nola larrua kurrumilkatzen baita su ondoan, halaber gorputza berotzen da eta hunek izpirituari emaiten berotasun hortarik zerbait. Janariak ere badu bere erraitekoa! Desertuan gaindi zabilalarik Israelgo populua, Jainkoak maná igorri zion bizipide gisa. Maná hori ardura gertatzen da desertu eremuetan... Iguzkiak altxarazten du halako lur-hats bat bezala. Gauazko hotzak du tinkatzen eta itxuraz kanbiarazten. Sobera pizu izanez, lurrera erortzen da maná edo berdin harroketan kokatzen. Hortarik zuten jan juduek. Zertan izan zen beraz mirakulua? Aldian ainitz maná Jainkoak atearazi baitzuen eta tenore berezi batzuetan. Maná hori janari pollit eta ahotik ezin utzizkoa... Baratxuri, tipula, porru eta holako janari bortitzeri aspaldian eginak ziren juduen estomakak... Eta horra nun bat batean janari fin hori etortzen zaioten... Barne latz horietarat jeutsiz, ez zuen koléra baizik sor arazten ahal, erran nahi baita izpirituaren zorrozteari doakon umorea.

Airea ere arras bizia zuten desertuan, hiriak urrun eta beraz aire garbia. Egunaz lano bat bezala iguzkiaren aintzinean jarriz, airea ez zitaiken nihundik ere sobera bero atera. Gauaz aldiz suzko itxura luze batek ez zuen hozterat uzten. Aristotelek dio holako aire batek izpiritua xorroxten duela gain gainetik.

Erranen dautazue: "Nola demontre ordu hetan bildu kalipuak ez dira geroztik desegin?... Geroztik mendeak eta mendeak iragan dira alabainan." Bertze norbaitek erranen daut oraino: "Juduak Espainiarat etorri dira." "Eta hemen janari desberdinak kausitu dituzte, arrunt bertzelakoak."

"—Uste duzue behar bada desertuko maná ez zela aski boteretsua norbaiten izaitearen binperrez itzultzeko... Ez ahantz otoi, populu horrek ukan dituela frango neke, traba eta zorigaitz desertutik ateraz geroztik. Eta omore bero eta idor hura ez balu han kausitu ahal ukan ere, zorigaitz horien medioz aurkituko zuela erran gabe doa. Asma zer zitaiken maná haren indarra... Egun baten buruan kanbiatua zuenaren berriz gibelerat itzularazteko, ilabete bat bederen beharko izanen zen bertze janarietarik arizanez.

" So egizue bertzalde jitoeri... Espainiarat etorri dira Egipto zolatik. Heien haurren haurrek galdu dituztea hango dohain bereziak? Erran nahi baita larru beltxarana eta oroz gainetik izpiritu xorrotxa?

" Behar bada den mendren bat beheititu ditaike engoitik juduen jite ernea... Bainan ikusten dugu denek, oraino urrun direla haren galtzetik."

* * *

Lau menderen buruan... Huarte jaunak bazuken mereximendu holako laudorioak eginez judueri buruz... Hetaz trufatzen ziren orduko jendeak, zeren eta Espainiako erregek ez baitzituzten begian zikina baino gehiago ikusten ahal... Sanbenito deitu kaputxez bezti ibilarazten zituzten eta bazen orduan irri eta esku zarta pollitik jendetan, nigar eta bihotz marraska juduen baitan. Americo Castro español idazle famatuak eta Noel Salomon Bordaleko ikastegi-nagusiko erakasleak diote Huarte arrazaz judua zitekela. Horra zertako asmatu dugun juduen ixtorioa Huarte-ko herrian lehenbiziko orri-aldetan. Herri hortan kartier batek izena Judiri du errealki.

Donibanen ageri da erredola bat Huarte medikuaren itxurarekin. Aleman soldadoak hor zirelarik, duela hogoi ta hamar urte, ez zuten hunki erredola... Jakin balute zer juduen adixkidea zen! Hura ere surat botako zuten.

HUARTE-K NOLA IKUSTEN DUEN IKASLEA...

"Nahi duzu jakin zure haurrak oroimen haundia baduenez? Emozu irakurtzen ikasteko zonbeit izki eta laster balinbadazki, oroimen haundia duelako seinalea. Ez beti segidan eman izki horiek, bainan jauzteka arizanez batetik bertzera..."

"Nahi duzu jakin orai irudipenez betea den zure haurra... Ikus idazteko moldea. Errexki ari bada izki eraikitzen, itxura ederra emanez izki bakotxari, irudipena badu. Laster ikasi badu lerro pollit batzuen moldatzen... Bainan ez da seinale ona adimenduarentzat."

Erabaki horien ondotik, Huarte bera juja bagineza? Zer erran ginezake? Adimenduz azkar zelakoan ez zukela tarrapataka irakurtzen ikasi ez eta idazten. Halere ez da gaizki atera gure gizonttoa...

Ordu hetan grekoa eta latina apuñatik ikasten ziren eskoletan, mutikoa tarrotu eta laster. "Gramatikaren ikasten hasia da... Lan gutirekin ikasten badu, denbora laburrik barne latinez idazten ari bada ederki, Zizeron-en gisa berean... Orduan ez da sekulan juje on aterako ez eta ere abokat. Ezen latinan trebe izaiteak erran nahi du oroimen haundi baten jabe dela eta, mirakuluz ez bada, adimendua eskas duela."

"Ikertze"aren hiru-garren kapituluan erraiten dauku nola hiru ikasle sartu ziren elgarrekin; bat latinan gora joan zen, bigarrena izar ikerle ona atera eta hirugarrena (Huarte bera) filosofo arrazoinkari gaitza. Berak ez dauku erraiten hura zela azken hori, bainan artoski irakurtzen badugu liburua, aise asma ditaken gauza da.

Latinan halere ez zen ondarretarik, ezen berrogoi aldiz aipatzen du Zizeron bere liburuan, bai eta ere Horazio, Ovidio, Ju-

venal eta abar. Bai maite du latina, ezen ardura Zizeronen mintzairea goresten du.

"Mutikoak ez badu latin gramatika iresten, ez da oraino amor emaiterik. Adimendua azkar ukaiten ahal du. Erraiten dut "ahal", ezen latinan ez trebe izaiteak ez du erakustera emaiten adimendua azkar dela. Lehen ere errepikatu dugu irudipen haundia dutenek ez dutela mirakulurik egiten latinan."

Beraz Huarteren bidez ikasten dugu ez dela berehala haur bat jujatu behar, bainan denborarekin eta emeki. Bera ere ez zitaken zalapartaka ari diren horietarik... Baten partez hiruz-pa-laur liburu aterako zituen...

Jin gaiten berriz ere oroimen haundi bat duen mutikoaren ganat. Ikastegi nagusi batean sartu da zonbeit urterentzat... "Lege ikasten hasten bada, erakasle omen haundiko bilakatu beharra da... Aditzale ainitzek inguratuko dute. Erakasle alkian latina eder da... Lege bakotxarentzat hartaz idatziak behar dira metatu eta erran. Hortako oroimena adimendua baino baliosago da." "Egia da erakasleak behar duela berexten jakin, arrazoinatzen eta jujatzen legearen mamia ongi ateratzeko, bainan alkian deno, iduritzen zaion bezala eginen du, nehoren arrapostuaren beldurrik gabe... eta hortako adimendu ahul bat aski." "Bertzerik da auzitegian... Hor lege gizonen artean baita pataska, ez ditake ikastegi alkitik bezala ontsa mintza." Liburuan ikusten dugu alabainan jujeak eta abokatak behar dutela adimenduaren laguntza, oroimena utziz ahapetik.

Bainan nola ezagut norbaitek adimendua baduenez? "Biderik hoberena da adiarazpena edo dialektika. Froga-harriak urrea ezagutarazten duen bezala, halaber adiarazpenak adimendua. Beraz ilabete bat edo bien buruan ikasle batek ez badu arrazoinatzen ikasi edo ihardokitzen, adimendurik ez duelako seinalea." Hemen oroitzen ahal gira apur bat nola ordu hetako ikastegietan eta bereziki Alcala-n (zointan Huartek bere ikaskuntzak egin baitzituen) erakasleak lehenik bere erakaspena emaiten zuen dizipulueri eta gero kalostra-pean harroin edo pilar baten kontra egoiten zen ikasleen galdeeri ihardesteko. Huarte ez zitaken gibelenetarik erakasleari ihardokitzeko. "Ikertzea" ez da ihardokitze eta ihardeste beizik eta Huartek ikasgoa ongi eremana zuken hoin azkar bilakatzeko izpiritu-borroka horietan. "Eman dezagun adiarazpena ongi iretsi duela mutikoak, orduan lege-gizon egiten ahal da, eta berehala

lege-ikastegirat joan dadila. Bainan lehenik nahiago nuke halere ele-eder ikaskuntza edo erretorikari lot dadin, bai eta ere fisikari eta arrazoin zuzenari edo logikari." Horiek guziak ordu hetan hitz batez erraiten ziren, "artes". "Ezen adiarazpena zer da adimenduarentzat? Mando hez-gaitzari zangotan emaiten diogun traba... Traba horrekin kurrituz zonbeit egunez, mandoa badoa urrats pollitean eta kopeta xut. Eta urrats hori bera du eskuratzen adimenduak arrazoinaren harat eta hunatetan, adiarazpenaren trabekin."

Huartek orai hirugarren kasu baten aintzinean ezarriko gitu. "Mutiko hori ez bada ongi atera latinarekin, erran nahi baita; ez badu oroimenik, adiarazmenean ez bada trebatu beharzen bezala, erran nahi baita; ez badu adimendurik, bego oraino alditxo bat... Ikusiko dugu zertan duen irudipena, lege-ikastegitik kanpo eman aintzin. Ezen hortan bada segeretu bat gaitza eta gobernioak behar lukena jakin. Badirela lege-gizonak erakasle-alkian jarri eta arras ontsa ariko direnak lege erakusten (oroimena dutelakotz). Bertze batzu auzitan ariko dira (adimendua dutelakotz)... Eman heieri gobernio-makila, ez dute fitsik balio, legerik ez balitz baino gehiago. Aldiz badira zonbeit Salamancan "estudiante tunante" egon direnak eta bizpa-hirur lege ahal bezala ikasirik, ezin hobeki ariko direnak gobernatzen..." Ikusi dugu lehen ere nola Huartek aipatzen dituen zonbeit zozoska, biz-pa-hirur medikuntzako pondu ikas eta eri sendatzen izigarri ontsa ari direnak. Huare-ren erakaspenean, gobernioa eta medikuntzaren obratzea, biak irudipenaren beharretan dagotzi.

"Gobernioak behar du, erresuma batean, gauz guziek bezala, plantan ezarria izan, itxura ona ukan dezan. Eta ardura erran dugu hori irudipenaren lana dela. Lege gizon haundi bat ezartzen baduzu gobernazale gisa, berdin asto zira... elkor bat musikarien juje ezar bazinio bezala." (Oroit gaiten nola lege-gizon mota horrek oroimena duen azkar.)

"Ikertzea" irakurgaia-ren aintzin solasak erakustera emaiten dauku zer griña zuen Huartek bere erresumaz erran nahi baita Espainiaz. Felipe bigarrenari helarazten dio mezu bat zointan gazten balioaren ikertzea baitezpadakoa dela frogatzen baitu. "Erresuma bakotxan balire gizon jakintsun eta zuhur zonbeit gazten ahalen miatzeko... nehork ez liro bidea gal. Bakotxak gero behar luke, gero, nahi ala ez, gizon horiek erakutsi bideari jarraiki, erran ofizioa hartu."

"So egizue Galeno mediku famatuari. Beharrik medikuntza hautatu zuen... Zonbat eri ez ditu salbatu! Eta idatzi zituen sendagailuek zer ongia ez dute egin bazterretan eta menderen mendetan?"; "Halako debru txar batek zion beharrixilora salatu, lo zelarik Galeno-ren aita, semeak behar zuela medikutu, hortako baitzuen dohain berezi bat..."

Gregorio Marañon-ek argitzen gitu "debru" horren gainean. Haren iduriko deiaren itxura bezala da, gu guziek ofizio bati buruz senditzen dei harena. "Dei horren erroa biziki barna bilatu behar da. Mundu huntarat etorri baino lehen erro hori bizi dago jadanik. Hortako zen mintzatu aitari Galeno-ren bide erakusle "debru" hura; aitaren baitan baitago semeak entzunen duen deiaren erroa." Horra beraz zer dion Gregorio Marañonek Huarte-ren liburuak sortarazten dazkon gogoetetan...

Inkisizioneak "debruño" horren aipatzea eta lanean har araztea ez zion barkatu. Bigarren agertaldian, Huartek bazterrera utzi du eta hunela dio: "Galeno-k kondatzen du nola bere aitak gomendatu dakon medikuntzako bidea, erranez ikasle bat ez bada bere dohainaren araberako bidetik ari, ofizioaren esklabo bezala jartzen dela. Eta Platonek dio ez dela haizu gizon bat ofizio baten esklabo bilaka dadin. Igorri zuen beraz bere seme Galeno medikutzera, erranez gainerateko ikaskuntzak bazterrera utz zitzan. Ezen Platon baitan irakurtua zuen lege bat arras garratza Atenas-eko gazteeri buruz egina; bi ikaskuntzari ez zirela jarraikitzen ahal, bati beizik eta bakotxaren dohainaren araberakoa."

Beraz Huarte-rentzat nun dago esklabotasuna? Eta ez ttipia, bainan bizi guzia iraunen duena... Behar den ikaskuntzari ez lotzea. Hori da zinez esklabo izaitea. Bakotxak bere zoriona kausituko du eta gizartearen ere, ofizioa ongi hautatuz...

"Ikastetxe batean sartzen dira metaka ikasleak ikaskuntza berezi bati jarraikitzeko. Izan dadin erakaslea biziki ona edo ez deusa, zonbeit aterako dira jakintsun, bertze batzu halako eskas batekin eta azkenek fitsik ez dute eginen... Denbora galdu dute, sos alde bat gaitza xahutu eta buru hauste frango egin debaldetan... Nik ez dakit zertarik heldu den hori; alta denek ber erakaslea zuten, ber karrarekin arizan dira lanean eta, behar bada, trebeak baino gehiago, nekez ari zirenak."

Baezako eta Alcalako ikastegietan zelarik Huarte, ainitz aldiz ber gauzetaz ohartu zaiteken eta koropilo horri nahi du lotu. Den-

bora joanez bezala koropiloa ez da errexago bilakatzen. "Ezen ikaskuntza batean gaizki dabilena bertze batean biziki ongi ateratzen da eta, berdin; batean biziki trebe dena, bertze batean arrunta agertzen. Nik segurik lekuko gisa hori erraiten ahal dut."

Oroitzen gira hemen nola aipu dituen hiru mutiko gazte ikastegi batean sartu zirenak eta bat gramatikan ontsa jalgi, bigarrena "arrano baten pare" adiarazpenean eta hirugarrena berriz izar--jakitatean. Zonbeitek uste ukan dute Huarte urgulutan sartu dela arranoari bere burua konparatuz... Behar da lehenik ikusi ez duela klarki erraiten hura zela, Huarte, delako arranoa. Bizpahirur aldiz irakurtuz beizik gira ohartzen ahal, hura dela. Eta hainbertze aldiz urguluaren kontra erran eta erran ari izana da Huarte...

"Koropilo horri lotu nahiz, hasi nintzan arrazoinka eta, nihauren partetik hatzeman nuen jakintza bakotzak kalipu berezi bat galdegiten zuela eta hortarik kanpo bertze jakintzetako deus ez zuela balio. Sartzen ahal banintz oraiko ikastegietan ikusteko ikasleen kalipuaren heina! Zonbati ez nioke kanbia ikaskuntza eta zonbat ez nezazke ikastegitik kanpo eman! Deus ez dutelakotz balio buru-lanetako."

Bainan ez uste ukan Huarte haizazale bat dela... Kanpo ezarri gogo dituen horien lekuak bete behar dira. "Bertze batzu badira, sosik aski ez izanez ikastegietarat joaiteko, esku-lan xume batzutan higatzen direnak eta naturalezak, futxo! eginak zituen ikaskuntzetako beizik!"

Erran dezagun hemen Huartek ez duela estimu haundirik esku--lanentzat. Ipar-Europako jendez mintzo denean ez daukuia ateratu erloi edo ordulari beizik egiteko ez direla gai? Edo oraino ixkilinba edo margo edo nik dakita zer gauza ez deusa?

Dena den, hogoigarren mende-ondarrak hain goraki aipatzen duen ikaskuntzaren deneri hedatzea ez ote du Huartek asmatu? Orai ere gure Nafarroan, ez duguia frangotan ikusten nor edo nor ikaskuntzan ongi atera bailiteke eta diru eskasez bertze ofizio batean gelditu baita? Ainitz aldiz nehor ez baita gai izan gazte horri kontseilu baten emaiteko... Zoin begi onez ikusiko zuen Huartek Nafarroko herri xume batetako semea, hamabortz urtetan ikasten ari, etxeko artaldea zaintzen zuela pentzetan... Aspaldian ardiak utziak ditu eta Madrilen dago tropetako aintzindari haundi... Eta badakigu Ipar-Nafarroan erakasle bati bururatzen

zaiola noiztenka bere ikasleeri kondatzea... Madrileko aintzindariaren ixtorioa. Horrela gazteak sustatuko dituela.

"Nik segurik —dio Huartek— ene ikastegian ikasle bat hartu aintzin luzaz iker nezake ikusteko zer kalipu duen... Eta nik erakutsi ikaskuntzarentzat gai balitz, gogotik har nezake, ezen atsegin da erakasle batentzat kalipu haundiko ikasle baten ukaitea..."

Figuerido-k erraiten dauku Huarte ez zela segur aberatsa eta Garces kondearen laguntzarekin liburua atera zela Baezan 1575-ean. Errexki asma ditaike beraz beharduneri pentsatzen zuela ardura eta gazterik pobretasunaren samina jastatzen duteneri ere.

Eta kalapiorik ez badut ezagutzen gazteari galdeginen diot joan dadin bertze ikastegi baterat, bere jeinuari hobeki jarraikitzeko gisan. Eta buru-lanetako ez badu jiterik, goxoki erranen diot "Anaia, hartu duzun bidetik ez zira gizon bat aterako. Zure biziaren izenean, otoi ez gal denborarik eta bertze lan bati lot, ikaskuntzak baino trebetasun gutiago galdegiten duen bati."

Ez da bortizki mintzo Huarte gazteari, bainan dio halere biziko zoriona duela irriskuan emaiten... Eta gaztearen ongia du lehenik bilatzen. Orai gertatzen dena ikus eta, nola ez aitor Huartek arrazaion zuela... Zonbat gazte, berek ez nahi izanikan ere, bortxaz ez dira joan ikastegietarat etxeko ohorearen gatik eta bizi guzian kurutze dorpe baten errestan eremaiteko; gaizki hautatu ofizioaren kurutzea. Norbaitek zion lehenbiziko urratsik haundiena zela ofizioaren ongi hautatzea. Zer egia!

Hori bat da. Gero da, aintzinean aipatu bezala, ikusi behar egiazko talenduak zoin diren. Bertze Nafartar batek, Ramon y Cajal (1) hura ere gaitzeko hedadurekoa, ez zuena erraiten: "Espainiako lurrak eta gogoak ere behar dira lantu. Horri lehia gaiten orai beretik, nahi badugu aberria azkar dadin. Aberriaren goratzeko, salba ditzagun itsasoan galtzen diren ibai guziak eta ezjakitean galtzen diren talendu guziak."

Atsegin duku ikustea bi Nafartar haundi horiek helburu bera zutela; erresumaren goratzea, bainan ez nola nahika, bakotxaren

---

(1) Egia errateko, *Ramon y Cajal*-ek ez du bein ere nafartzat artu bere burua; aitzitik, berak idatzidu: ... mis padres, aragoneses de pura cepa.

zoriona bilatuz. Alabainan badira hor gaindi berduratuak, bortizkeriak sortarazi erakaspen batzu, nahi baitute erresumaren ongia bilatu gizon bakotxa ahal bezain bat zapatuz... Ez, Nafartar horiek, hamaseigarrenekoak eta hogoigarrenekoak, bazuten gizonaren errespetua, bihotzean finki landatua.

Huartek gizonaren gogoa lurrarekin parekatzen du. "Eman dezagun lur on bat... Halere behar da irauli, xehatu eta so egin zer azirentzat den gai... Lur batzuek ogi gehiago ekarriko dute, bertze batzuek berriz garagarra... Eta ogitan ere frango mota badira eta mota bati ongi joaiten dena, bertze baten etsai bezala da." "Eta laborari ona ez da hortan gelditzen. Behar den tenorean lurra irauli eta, ereiteko tenorearen beha egoiten da, ez baita noiz nahi egiten ahal. Ogia azkartuz doalarik, jorratzen du behar den bihia eman dezan." Laboraria aipatzean Huartek, erakasleari pentsatzen du. "Biziko lehen urteak dira ikasteari hobeki doazkonak. Ezen gizonaren bizia laburra da eta gauzen ikasteko ainitz denbora behar... Beraz aski denbora izan bedi ikasteko eta aski denbora jakitatearen obratzeko, erresumak ere bere irabazia atera dezan."

"Haurren aintzinean konda ditzagun ixtorio onestak eta ongi egiterat ekarriko dituztenak, ezen adin hortan ikasiak sekulan ez zaizkiote ahantziko."

Bizia labur, erresumaren ongia... Bertzerik bada gazterik burulanetan hasteko... "Latina edo bertze mintzaire bat ikasi nahi duenak, haurretik egin dezala. Gorputza gogor dadin beha egoiten dena ez da sekulan helduko." "Horiek guziak gizonak aski kalipu balin badu. Bertzenaz, Erromarat asto joan, Erromatik asto jin. Salamancarat zozo doana ez da deusetan emendatuko, zeren Salamancan ez baita adimendu eta zuhurzi-erakusteko alkirik ez eta erakaslerik."

Ordu hetan halako etsaigo bat bezala bazen Alcalako eta Salamancako ikastegi-nagusien artean... Oroit gaiten nola Huartek ikaskuntzak Alcalan egin zituen, horgo ikastegi berri berrian...

Nun behar du ikasleak lanean arizan? "Hobeki ariko da hortako egina den lekuan, erran nahi baita ikastegi-nagusian."

Eta hemen ikusiko dugu Huarte ez dela guri hetarik, eta behar diren bidetarik iraganazten dituela gazteak. "Etxetik atera dadila gaztea. Etxeko goxotasuna utz beza; goxotasun horrek ez baitu ikastera utziko. Hori errexki ikusten dena da Ikastegiak diren

hirietan. Hango ikasleak ez dira ongi ateratzen. Eta hori aise xuxen-tzen ahal dena da. Salamancatarrak joan ditela Alcalarat eta Alcalakoak Salamancarat."

"Erakaslea ari dadila argi eta xuxen. Erakaspen ona eta segurra eman dezala eta ez arrazoin faltsuz hantua. Ezen zer egiten du ikasle gazte batek? Erakasleak erraiten dituen guziak sinesten, ez baitu oraino aski zentzu gezurraren baztertzeko... Egia da badirela ikasleetan ere zonbeit izpiritu argitu, berehala ikusten dutenak erakaspena ona denez ala ez. Eta ez bada ona, bekoz beko erranen diote. Halaber, erakaspen ona bada, beren baia emanen diote. Gazte mota horiek erakasleari ainitz erakasten diotela, nork dudatuko du? Nolaz hori? Galdintza batzu eginez, frango erneak... Horrela erakasleak bilatu behar du ihardesteko eta gauza berri eta pollitak heldu zaizko gogorat, sekulan ez baitzituen hatzemanen, ikaslea ez balu ukan akulatzale."

Adiarazpenean arrano zela ta, Huartek ere bat baino gehiagotan bere erakasleak argibide berri batzutan ezarri dituzke. Mende ondar huntan gure idazlearen solasak zoin berri emaiten duten!... Nork usteko du duela lau ehun urte erranak izan direla? Orai, Pariseko eta bertze ainitz hirietako nahasmenduen ondotik hain ardura eta hain goraki aipatzen den partaliergoa ikaskuntzan... Jakin dezagun gure Nafarroko filosofo batek aspaldian gomendatzen zuela eta, zaharrek ziotena, ez dela deus berriarik iguzki-pe huntan... Lehengoen eta heien aintzinekoen erranetarik ari bagine xuxen xuxena, oraikoak baino puskan jazarleago edo nahasle haundiago gintezke. Bainan lehengo jazarleak paper zaharretan lo... Eta paper zahar miatzen aritzeko orde, miletan laketgarriago bertze zer nahi...

"Bainan biziki bekan dira erakasleari ihardokitzeko gai iduri dutenak. Teteleak aldiz trumilka... Beraz —ene ikertze hau ez baita ikastegietan obratuko— ongi litaike erakasleak ahal bezain onak ukaiten ahal balire, ez dezaten hal-ez-denik erakuts ikasle ahuleri."

Bazakien Huartek etsaien berri... Hura hil ondoan ere jatzarri zitzaizkion bat baino gehiagotan, hala nola Jourdain Guibelet medikua. Bere "Izpirituen ikertzearen ikertzea" agertu zuenean, 1631-ean, *nor naiz ni* aire batekin, gure Huarte azkarki laidostatzen zuen... Beharrik baziren ere Huarte-ren aldekoak eta heiek ere hordago egin... Ez da harritzekorik jadanik bere liburuan hitz hauk ezartzen bazituen:

"—Ene ikertze hau ez baita ikastegietan obratuko..." Bai, gizona gizonarentzat otso...

Nola behar den ikasi?... "Haste hastetik, emeki emeki joanez erakaspenari goiti... Ez lot erakaspen bati, lehenik behar bada bertze erakaspen bat ikasi... Beti danik *gaizki* iduritu zaut ainitz erakaspenen entzutea ikastegian eta gero etxean denak betan ikastea... Bide hortarik ari denak guziak nahasten ditu eta gero, obratzeko tenorean, ez du deus onik egiten... Puskan hobeago litaike erakaspen bati lotzea aldian eta bidea segituz jauzika arizan gabe... Ikasten den bezala da erakaspena oroimenean jartzen..."

"Zonbeitek diote ikasleak, ikasteko denboran, liburu bat beizik ez duela ibili behar, zointan gauzak xeheki eta lañoki emanak izanen baitira. Ainitz liburu ibiliz, adimenduak denak nahastekatzen ditu... Azkenean, iragan behar da ainitz denbora erakaspen baten gogoan erabiltzen... Jakitateak behar du egosi bezala, behar ditu erroak egin biziki barna. Gorputza xutik dago, ez egun batean jan edo edan dugunaren bidez, bainan estomakak beretu duenaren bidez... Horrela gure adimendua ez da azkartzen denbora laburrez irakurtu dugunarekin, bainan emeki emeki aditu eta ausnartu dugunarekin. Egun oroz adimenduak irakurtuak haxean ezartzen ditu eta, denbora joanez, ainitz gauzeri ohartzen da ordu artio ilunbean bezala zaudenak."

Hitz horiek entzutean, nola ez pentsa Baezan zagon Huarte-ri eta irakurtu dituen irakurgaieri... Hor ikusten dugu, berak erranik bertzen dako, nola ari zitaken beretako...

Marañon mediku eta idazle famatuak, 1933-ean, erraiten zuen Huarteren erakaspenekin egiten ahal zela irakasle onaren sakelako liburua edo katixima... Ez gaiten harri beraz Iruñeko Irakasleen Eskolak "Juan de Huarte" balinbadu izentzat... Ez eta ere Josefina Alvarez idazleak 1941-ean agertu liburuan (Psicología del niño español) orri alde eder batean Huarte aipatzen badu geldi geldia...

Eta kapitulu hau bururatzean, ezar ditzagun hemen Marañonen hitz hauk, Huartek maitatuko zituenak: "Hogoi urtez erakasten arizan niz, nehork bortxatu gabe. Galdegiten zautelarik ZERTAKO, erraiten nuen beti IKASTEKO."

TEOLOGOAK

"Famaren arabera gizon eskolatua, gain gainetik... Arrazoinkaria eta erakaspen zuhurrekoa... Prediku alkirat igan eta, horra nun ez dakien predikatzen... Bertze bat aldiz ikus ditaike, arras predikaria, iduri hortako baizik ez egina... Jendea gibeletik, nahiz eta haren solasak xurgatu... Teologo jakintsuna ez da beraz, ber denboran, predikari haundi izaiten ahal... Frango aise diote batzuk Jainkoak dituela dohainak ixuri. Batzueri bai eta bertzeri ez.. Iduritzen zaut barnago behar dugula zilatu mixterio hori.

Ene ustez, teologoak adimendu azkarra behar du ukan... Predikariak aldiz irudipen edo asmo xorrotxa... Jadanik ainitz aldiz ikusi dugu bi dohain horiek ez ditazkela elgarrekin joan... Eman dezagun teologo jakintsun bat... Sortzez adimendu aberatsekoa. Latinako gramatika ez du nihundik ere garaitzen ahal zeren eta oroimenak behar bailuke hor lanean arizan. Beraz dugun erran teologoak oroimen gutixko duela. Berdin da irudipenarentzat.

Aintzinean aipatu arrakasta haundia zerk emaiten diote predikarieri ez bada irudipen bizi batek? Elea dute dena lore eta kolore... Adimenduak du gauz bat konpreniarazten. Bainan jakitateak behar baitu gero bertzen begien aintzinean ezarria izan, orduan du irudipenak bere lana egiten. Lehengo denboretan, Jondoni Paulok bere erakaspena lañoki eman zuen, ez nahiz eta gezur zerbait sakatu jakin gabean, orduko mintzatzailek egiten zutena. Bainan fedea aspaldian barreatua da bazter guzietarat eta arrunt garbirik dago. Beraz predikari bati haizu zaizko lore eta koloreak bere mintzaldietan, hola ariz gehiago jende baizik segitzen baitzaio.

Mintzatzeko bide ona behar da hartu eta Liburu Sainduetan hazi gogoa. Eta oraiko egunetan zer ikusten dugu bazterretan?

Olerkarieri, ixtoriotzaileri eta lege-gizoneri hartuz edo-zoin erakaspen dute predikariek beren predikua hantzen... Horiek guziak ezar apaindurik eta bota gero jenden beharrietarat luzatuz predikua oren batez edo bi orenez. Gauz guziek hein batean behar lukete gelditu.. Arima salbu eta, predikariak zakur ihiztorraren pare dira. Ibil eta bil. Heietan irudipenak du biltzen behar duen hazkurria, erran nahi baita erran behar diren solasak. Alta sobera irudipen ere denen kaltetan da... Hola sinestarazten ahal litake idiak airean badoatzila eta mendiak ere urrezkoak direla. Kasu beraz zakur ihiztorra ez dadin urrunxegi eskapa...

Predikari batek irudipen ttipixkoa ote du? Irakur dezala zerbait irakurgai... Bainan liburuen erranetarik behar badu arizan, ez daiteke biziki urrun joan... Bakotxak bere burutarik atzemaiten duen hura iduri iturriño bat fresko freskoa, beti berri eta berri eta beti goxo. Aldiz liburuek errana, han dago, berritzerik gabe, ezin kanbiatuzkoa. Denek ezagutu dukezue Nebrija. Erretorikaren erakusteko, erran behar zituenen irakurtzen ari zen dizipuluen aintzinean. Denek barkatzen zioten, hain zen zaharra eta ezindua, eta bertzalde gain gainetik argitua. Huna nun egun batez erakasle hori bet betan hiltzen den. Predikari famatu bati manatu zioten egin zezan ehortzetako mintzaldia. Denbora zuen eskas mintzaldiaren gogoz hartzeko. Beraz paperetik ari izan zen. Jende guziak irriz eta eleketa hasi zitzaizkon. Predikari horrek, irudipen ttipia izanez eta oroimen aberatsa, liburutan behar zuen hartu baliatu nahi zuen mamia. Hortako epe luze baten behar gorria zuen.

Beren burutarik aldiz ari direnek predikuan, ez dute liburutan deus kausituko beren erranen joritzeko. Beren izpirituan dituzte jadanik erran gogoak. Eta zer da irudipenez gabeturik sortzen direnen geroa? Bi garizumez husten dituzte Erlisioneko gaietaz mintzo diren liburuak. Hirugarren garizuman bertze aditzale andana bati behar zaiote mintzatu, bertzenaz ez dutea jendek erranen: "Hunek ber predikuak botatzën dauzkigu urte oroz."

Arrazoinak ezarriak izan ditela behar bezala, bakotxak segidakoa ekar-arazten duela. Hortako jeinu berezi bat baitezpadakoa da. Mogimendu zonbeit egin besoekin, azkar edo beheiti botza behar delarik. Orduan orduan du predikariak bizi iduri. Eman dezagun prediku bat zinez ederra, paperean ondotik idatzia. Hila iduri du eta grazia izpirik gabe, zeren eta lumaren medioz ez bai-

titake paperean ezar solasak emaiten duen bizi hura, mintzazalearen mogimendu eta bertze. Nahi baduzue aditzalea egon dadin zueri beha, beharriak xabal xabala, emozue zerbait etsenplu. Erakaspena hobeki baizik ez du beretuko. Etsenplurik gabe, erakaspenari ezin helduz ariko da, goraxegi izanez. Jesukristo gure jaunak ez zuena holako zerbait egin bere parabolekin?

Oraintxet aipatu baitugu botza, ohargarria da guziz botz ozena duenari gertatzen zaiona. Nork du botz ozena eta harek du irudipena. Beraz, biak baliatuz, zer predikari ona... Mihia laxo behar da ukan. Eta adimendu azkarraren jabe denak ez du sekulan mihia aski laxo ukaiten ahal predikari ospatsu izaiteko. Adimendu haundiko gizonek ez lukete predikatzeari lotu behar... Beraz nola harri lehengo denboretako mintzazailek, erakaspen guziak, ikaskuntza guziak beretu nahiz, ez baziren biziki barna sartzen eta axaletik baizik ez bazituzten gauzak ezagutzen? Alabainan gauzen ongi konprenitzea adimenduaren lana da. Eta mintzazailek ez dute adimendu haundirik, bainan bai irudipena. Badakizuea zer zen Aristotelen ustekeria? Delako lehengo mintzazaile horiek ez zirela barnago joaiten... alferkeriaz. Nik diot aldiz hori gertatzen zela ezinbertzeaz, kalipu eskasez, gauzak diren bezala erran nahi baititut.

Hori bera da gertatzen teologoekin. Hauiek badazkite erakaspenen arrazoin eta zimenduak, adimendua badutelakotz. Predikaria aldiz bertzen erranetarik ari da. Eta hortan dago gaizbidea... Predikariak behar du, ofizioz eta karguz, kristau jendeari egia erakutsi. Eta kristau jendeak behar dio obeditu, bere sinestea emanez. Ezin jasanezkoa da ikustea zer ausartzea duten predikari zonbeitek, Jainkoaren erakaspena ezagutu gabe ari baitira ter ter eta kalipurik ez baitute haren ikasteko. Aleman, ingles eta frantses teologoek, hitz batez erraiteko Europa iparrean bizi direnek, Jainkozko gauzak berriki xahutu dituzte beren kalaka guzien artean. Kasu beraz! Eleketari haundietaz jadanik errana duguna, badute ainitz irudipen eta norbaitek irudipen haundia duenean, haren gorputza jite berokoa da. Jite berotik jalgitzen baitira haatik urgulua, sabelkeria eta lizunkeria... Nork ere jite beroa baitu, alde batetik Jainkozko gauzak bere burutarik miatuko ditu eta idatziko; bertzaldetik Jainko legea ez du xuxen xuxena segitzen ahalko. Horrela horietarik zonbeitek diote, beren jiteak manatzen diotelakotz, apezak ezkontzen ahal direla, garizumarik edo bertze barurik ez dela behar egin, eta ez dugula

Jainkoaren aldeko hutsen kofesatzerik... Beraz Liburu Sainduak berek nahi bezala itzuliz eta itzulipurdikatuz, beren gaixtakeri eta obra tzarrak bertute bezala agerrarazten dituzte. Horrela jendek saindutzat dauzkate. Ez da harritzekorik ikusten dugunean jende frikuna ber denboran irudipenez zorrotz. Jite beroan da ber denboran irudipen azkar baten erroa eta bekaturat lerratzeko bidea.

Ikus dezagun orai zer jite mota behar duen ukan predikari gai batek. Hortan dago erresuma batek jakin behar duen lehen gauza. Egia erran, predikari hoberenak bere baitan dauzka adimendua, oroimena eta irudipena. Zorigaitzez biziki bekan holako bat ditaike kausi. Zonbeitek, badute ber denboran adimendu azkar eta irudipen bizi. Burua idorregi izanez, oroimenez eskas dira. Halere heien irudipena hain gora heltzen da nun oroimenaren orde lanean ari baita, itxurak eta erraitekoak behar den tenorean sort-araziz. Oroimena baizik ez duten mintzazailek ez dute hautarik; durduratu eta ixil. Hitzez hitz ikasia zuten predikua... Hitz batek huts eginik, hor daude, aintzina ezin joan.

Zer itxura berezia du mintzazaileak? Begitartea hauts kolore, begiak sutan, ilea beltz eta garsoil... Haragi guti eta dena gogor eta bilotsu; zainak zabal. Nola dabiltza bertze jenden artean? Erran eta erran, ez daude ixilik... Bainan hain dira maitagarriak... Alta zer urguluak! Zer lizunkeriak! Zer fede gaixto keriak! Izaitez berotzen direnean, huts horiek guziak agertzen dituzte. Ber izaitea hozten denean huts bakotxaren orde bertute batek loretzen du. Zoin dira bertute horiek? Garbitasuna, umiltasuna; Jainkoaren beldurra, elgarren arteko amodioa eta holako.. Nigarrak ere eta bekatuen urrikia.

* * *

Laur menderen buruan... Medikuntzak izigarriko urrats haundiak geroztik baditu eginik eta erakustea emaiten du gizonaren baitan gorputzak parte hartzen duela izpirituaren harat eta hunatetan.

HUARTE-K

JONDONI PAULO-Z BI HITZ...

Paulo ez zitaken nor nahi. Egiarentzat amodiorik suarrena. Eta zer girixtino kartsua. Nola ez zuen gorputza kraxtutik atxikitzen? Erromanoer idazten ari denean erraiten du goraki bere gorputzan sendi duela lege bat bezala, izpirituan duen legearen kontra altxatzen zaiona eta lege horrek bekaturat eremaiten duela. Paulo-ren arimak nahi zuen otoitzean arizan, bainan ordu berean gorputzak ez zuen kalapiorik aski obeditzeko hotzegi izanez eta gogotikago joanen zen lo egitera. Oroit gaiten lehenago, Olivetako mendixkan gertatuaz. Jesukristo joan zen urrunago otoitz egitera; gibeleratekoan dizipuluak lo hatzeman zituen...

Berdin Paulok barur egin nahi zuenean. Arimak baietz; estomaka aldiz jateko gutizia haundi batekin. Zer egin behar litake beraz gorputzaren hezteko? Lohikeriak berekin dauzkan lanjerrak behar dira gizonari erakuts. Eta zer kenka izigarrian ez da lohikerian dagon arima? Sekulan heriotzea heldu bazaio urrikitan sartu gabe... Gizon horrek behar luke bestalde barur egin, otoitz egin, lo guti egin lurrean etzanez. Gorputza zafra dezala lizifrin ukaldika. Obra onez axola ukan dezala. Bide hori segituz trenpe berokoa zena hozten bezala da. Jadanik ainitz egiten du ifernuko gaztiguaren begien aintzinean ukaiteak. Eta barurak ere. Lizifrin ukaldika bere gorputzari artzeak berotasuna apalarazten du. Otoitz egiteak eta gogoeta zonbeitetan sartzeak ere odola burura ereman arazten dute. Horrela gorputza hozten bezala da. Eta nork bere baitan bi izaite kausitu ditu nola Jondoni Paulok? Jainkoak alabainan beti danik nahi zuen gizon hori bere predikari eta mezu-

lari bilaka zadin. Nahi zuen Kristoren Berri Ona haren medioz zabal zadin bazter guzietarat. Eta horra nun eman dion gorputzean berotasuna, izpirituak aski asmo azkarra ukan dezan. Konbertitu aintzin zer sukarra Elizaren kontra... Eta konbertitu zenean, zer bihotzmina juduentzat, baitzakiten zer gizon jeinu haundikoa galtzen zuten... Zer mintzazaile paregabea jujen aintzinean. Nehork ez baitzakien gehiago zer erran...

Zonbeit teologok diote bekatu orisinalak ziola Paulori bertze guzieri bezala gorputzaren eta arimaren arteko eztabada sortarazi. Hori egia da, bainan erraiten ahal da ere Pauloren izaitea holakoa zela, dena su.

MEDIKUEZ

Joanden egun batez etorri zaut mediku bat arras ona. Aspaldiko adixkidea... Baezako karriketan harat eta hunat gauerdi bildu dugu elgarrekin ikusi nahiz zerk egiten duen mediku ona eta zerk mediku ez hain ona. Oroitzen naiz zer solasak ibili ginituen ene aitatxi zena artatu zuen medikuaz... Baizik eta ez zela munduan halakorik, bere erieri beti hurbil egonki, dena solas kontsolagarri eta sendagailu berezi. Aspaldi huntan ari naiz gogoetaturik, bila eta bila nola ezagutzen ahal litaiken aintzinetik halakoak edo holakoak artazale on bat eginen duela.

"Egia da zonbeiten fama hain espantuz hanturik dagola nun izaitea bertzerik baita. Arabe sendazailearena orok badakite. Hilak ere pizten zituen omen... Omena haundixkoa izanez, oraino bizi zenak azken hatsa epe laburrik barne emaiten zuen harekin hasi eta. Zer afruntuak! Bere buruaz ahalgeturik zagon, gaizoa! Bere huts guzien erroa ezin atzemanez, fraide sartu zen...

" Nik uste dut medikuetan bi mota badirela; teorikoan eta obratzaileak. Huna teoriko haundi bat; zer nahi sendagailu mota atzemaiten ditu, eritasun ainitzen gora-beherak xeheki emanen dauzkitzu, gauza horietaz irakurgai berri batzu idatziko ditu airez aire, berdin ikasle zonbeiti mintzatuko... Ber denboran emozue eri bat artatzerat... Zer eritasunek duen errausten ariko da ezin kausituz. Egonen da arrunt gogoetaratua, iker eskuin, iker ezker... Anartean eritasunak bere bidea segituko du... Eriak ere berea hobiraino.

" Eman dezagun bertze mediku bat... Ikastegietan ez hain luzaz egona... Eskolako afizione guti alabainan. Bereala kausitzen du zer eritasun mota den eta hiltzera zoana laster biziarazten. Oxtion aipatu mediku teorikoa baino miletan abilago dela ageri da.

" Zerk egiten du bada bi mediku horiek hain desberdin izan diten? Mixterio horren erroak hain barna sartuak dira nun Aristoteles filosofoak ez baititu atzeman ahal izan...

" Sendazaileak ainitz eta ainitz eri behar ditu artatu, bat bertzearen ondotik, bere buruaren trebatzeari nahi badu lotu segurik. Bainan eri bakotxak izaite berezi bat ukanez, bati on eginen duen sendagailua bertzearentzat kaltekor izanen da. Eta nola nahi duzue medikuak ongi arta dezan eri bat, ez badaki aintzinetik zer osagarri mota zuen eritu baino lehen eta zonbatez urrundu den lehengo osagarri pundu hartarik.

" Teorikoen artean badira zonbeit oroimen haundi baten jabe direnak. Ikastegietan zirelarik latinan eta grekoan frango trebe ziren, bi mintzaire horiek oroimen azkarra galdegiten dutenaz geroz. Belar mota ainitzen izenak badazkite, edo zoin eskualde eta denboretakoak. Bainan argibide edo arrazoinetan sartuz geroz ixtantean ixiltzen dira.

" Nihauren burua ez dut holakoa dela uste. Laket dut arrazoinka aritzea eta preseski badira mediku teoriko arrazoinkariak. Oroimen gutiago dute eta belarren izenak ez zaizkete buruan aise sartzen."

Oroit zireztea nola aitatxirekin ibiltzen nintzan oihan petan Garaziko belarren bila. Ah! Udazkeneko iguzki epel hura! Orai aldiz, irakurgai hunen idazten hasiz geroz ez dut, ez astirik, ez nahikunde haundirik kanpoan gaindi ibiltzeko. Afizione guti bertzalde belarrentzat... Horra ni hemen itzalpean bezala, Baeza iguzkiak erretzen dueno.

"Galeno mediku jakintsunak laster ikusi zuen ez zela aise mediku teoriko ateratzea, bainan ez zuen nihundik ere asmatu ahal izan zertako. Nik aldiz hori hola dela, ez delakotz errex ber denboran kausitzea adimendu zorrotza eta oroimen nasaia.

" Aldiz jakitea on dena; irudipen azkar baten beharretan dela mediku obratzailea. Horra beraz zertako teorikoa ez den ber-denboran obratzaile on izaiten ahal; adimendu, oroimen, irudipen hiru doain horiek ez direlakotz elgarrekin ongi uztartzen.

" Ikus orai nola artatzen duen eria mediku batek. Atzemaiten du bilatzen duena begi beharriak idokiz, sudurra ere eta aztatuz emeki emeki. Galdegiten baginako nola demontre eritasunaren izena gogoratu zakon, ez liro arrazoin onik eman. Ez daki berak nola, zakur ihiztorraren pare."

ZER DION HUARTE-K

ERREGEAZ

Liburu Sainduek aipatzen dute bat baino gehiagotan Salomon erregea. Zer galdegin zuen Jainkoari erregetu zenean? Zuhurtzia eta hori bakarrik. Erran nahi baita bere erresuma bide onetarik eremaiteko ahala. Eta galde hori hain gogotik onartu zuen Jainkoak nun mundu huntako erregetan zuhurrena agertu baita Salomon. Eta Jainkoak ez baititu gauzak erdizka egiten, gainera eman zion aberastasun eta distira.

Ikus dezagun zer jeinu mota behar duen ekarri errege gaiak, bere erresumaren onaren biltzeko. Erregetasuna zerbitzu bat bezala da eta zerbitzari hoberena izan behar duenaz geroz, jite arras onekoa behar luke izan. Ukan dezala oroimen haundi bat; jadanik gertatu diren gauzak izpirituan sartuak bezala ukan ditzala. Gero irudipen azkar bat, aintzinetik ikus dezan zer gerta ditaken. Adimendu zorrotza, gauzen behar bezala berexteko, arrazoinen ongi pizatzeko, hautatzeko eta erabakitzeko. Hiru dohain horien artean, egiazko heinaren zimendua gorputza baitan kausitzen da. Bai eta aroaldean eta lurraren motan ere. So egizue Greziari. Badea ote munduan eskualde hori baino neurtuagorik? Airearen berotasuna ez da hotzari nagusitzen, umitate edo hezetasuna ez da idorra baino haundiago. Hein balios horrek ditu gizonak biziki zuhur egiten eta jakitate mota guzietako trebe. Segurtamen gehiagoren ukaiteko ikus zer omen haundiko gizon aldea Greziatik atera den. Zonbat eta zonbat idazle eta mintzazaile aipatu, beren lanetan hain jakintsun, edozoin erakaspenetan... Eman dezagun bertze eskualde batetako mediku bat medikuntzaren gainetik idazten ari dena. Mirakuilu ditake ikustea bertze erakaspen mota baten ezartzen bere idaz lanetan. Ez du aski kalapio erakaspen guzien ihesteko eta beretzeko. Greziakoak aldiz bertzerik dira...

Eta errege gaiaren gorputzak zer seinale behar ditu? Ilea erdi horail, erdi zuri. Oroit gaiten nola Samuelek, Jainkoaren manuz, David hautatu zuen bere ondokotzat. "Horaila zen eta itxura onekoa." "Jeiki zaite, Samuel, ezen hori dut nahi erregetzat." Haundi ala ttipi behar duen izan erregeak? Artekoxe. Bainan hautatzekotz, hobe du oraino ttipia ezinez eta haundia ezen gorputz haundiak izpirituaren airosari kalte egiten dio.

Oroit zirezte araiz nola Homerok erraiten daukun Ulises arras abila zela eta... gorputzez ttipi. Aldiz Ajax zozoska zen eta ber denboran gorputzez haundi. Filosofo ainitzen kontra jatzartuko naiz erranez jeinu idorra zuela lehenak eta bertzeak berriz jeinu umia, edo bustia.

Bainan kasu... Ez baita hain errex hein onaren kausitzea gizona baitan. Ez da zuzen bakotxak bere nahikeria segi dezan. Frangotan bekatura eremanen duelakotz. Beraz arrazoinarekin behar da askotan nahikeria xuxendu.

Eman dezagun orai errege batek kexatzeko kalapiorik ez duela. Nork nahi duzu hari obedi dezan? Haren beldurrik nehork ez du ukanen eta nehork ez dio errespetu zotzik ekarriko. Larderia behar du erregeak. Beharrik Errege denari Jainkoak emaiten dio halako juztizia berezi bat zoinak gorputzaren aldakuntzak bentzutzen baititu eta erresumaren giderrak eskutan atxikarazten. Errege gai batek badu bertze dohain berezi bat, hori da bizitze luze baten mentura. Ezen hoinbertze dohain dituenak jadanik arras ongi ihardokitzen du eritasunaren aztaparreri. Gizon horrek errege gisa du hobekienik bere bizia eremanen, ezen erresuma baten gobernatzeak ainitz dohain eskatzen baititu.

Emazu orai errege bat ederra eta itxura pollitekoa. Itxura horrek ez dio kalterik ekarriko, ezen jendek aiseago baizik ez dute maitatuko. Erregea itsusia eta gaizki emana bada, nola nahi duzu amodiorik sendi dezaten harentzat? Ez dira kontent izanen holako gizon ezindu batek heien manatzeko ahala ukan dezan. Nork ere behar baitiote jenderi erran zer egin eta nola erabili, zuzen da berak eman dezan lehenik etsenplua. Nola erregea eta hola izanen dira bai haundiak eta bai ttipiak. Erregeak kasu egin behar du bereziki nori emaiten dion bere bihotza eta amodioa. Erreginak erresuma batean kargu haundienetarik bat dauka. Erresumari dako emanen prinzipe edo errege gai berri bat. Eta ez badu ondokorik uzten, orduan dira sortzen erresuma berekoen arteko gerla higuingarriak.

Mahaineko harat hunatek uste duzue balio haundia dutela? Trenpe onekoa bada errege gaia, orduan ez dio gorputzak galdegiten ahal behar duen hura baizik eta ez da errege gaia lerratuko tripa jokoetarat. Larderia ukan dezan, gauza baitezpadakoa, bainan ez sobera, ezen jenden ona bilatu behar da eta larderi--soberakina beti kaltekor. Bihotz ona ukan dezala erregeak, bainan ez bihotz ahula. Errespeturik gabeko erregeak gauzak arrunt itzulipurdikatzen ditu bere erresuman eta binperrez dagotzino nun da erresumaren ongia? Beharrik trenpe oneko erregeak baitaki noiz nola larderiaz balia bai eta bisai onaz ere...

Dena den, erresumaren gobernatzeak galdegiten ditu gizon batek bere baitarik egiten ahal ez dituen ainitz gauza. Jainkoaren laguntzaren behar gorrian dago. Diot bihotz ona ukan behar duela errege gaiak, bainan bihotz on horrek izpiritu xuxen bat ukan dezala zimendutzat.

Oroz gainetik, errege guzientzat etsenplurik hoberena; Jesukristo. Jerusalemetik Publius Lentulus kontsul ordainak Erromako zenaturrer igorri zioten gutun bat zointan aipatzen baitzuen Jesukristoren itxura. Gutun hortan preseski kausitzen dira guk aipatu errege on baten seinale bereziak. Bainan Palestinako lur trenpe txarrekotik nola ateratzen ahal zen Kristo Erregea? Kenka hortarik errexki eskapatuko gira erranez Izpiritu Sainduak egin zuela behar zena eta haren medioz denak hein onean berehala jarri zirela. Gauza guzien artetik ikus dezagun Izpiritu Sainduak ere Jesukristori hein oneko gorputza eman ziola eta ez haundiegia. Aspaldiko denboretan ez zutena erran Platon eta Aristotelek zoin kalte haundia egiten zuen gorputzaren larritasunaz izpirituaren indarrari?

Bertzalde bertute haundikoa zela Jesukristo, dio delako Lentulus-ek. Eta juduek, beren irudimena biziki gora izanikan ere, ez zuten hutsean hatzeman ahal ukan. Nik diot oraino ez balute Kristo hiltzerat kondenatu lauetan hogoi urte bederen biziko zela... Berrogoi egun-ez desertuan egon ondoan barurik ez zen batere eritu, beraz biziki azkarra zuela osasuna gauza ageria da. Zer Errege ona bai Jesukristo gorputzez ala izpirituz!

GUDARIENTZAT...

Iker dezagun orai liburuaren XV-garren kapitulua. Haste hastetik dio Huartek ez zuela gudari den gizonaz mintzatzeko xede haundirik, nahikundea zuelakotz bertzelakoa; buru lanek galdegiten duten dohainen aipatzea. Bainan ari gaiten kapitulu horren irakurtzen. Berehala jakiten ahal dugu zonbat gauza bazazkien gudari ofizioaz. Nun ikasi ote ditu? Ala ainitz ixtorio-liburu irakurtu ditu, guduez mintzo direnetarik? Zonbeitek uste ukan dute Huartek bazituela bere biziko urteak eta urteak gudari gisa iraganak, ordu hetan egiten zen bezala. Alabainan gudari famatuak izanak ziren orduko idazlari haundi batzu, hala nola Garcilaso, Cervantes eta, geroxago, Calderon. Bertzalde lehen orrialdietan mintzatua zen aroaldez eta eskualdek dituzten desberdinkeriez. Horren gatik ere behar bada ainitz kurritua zitekela arrotz erresumetan... Zonbeitek horrela erran dukete tropetako mediku izana zela Huarte. Ni beldur ez den deus holakorik izan eta bere etxetik asmatu dituen gudarieri joaiten direnak.

Pundu huntan Aristotelekin ongi doa, balentria eta zuhurtzia biga direla daukanean. Jendeak esku zarta frango ba omen du balentriarentzat; gutiago zuhurtziarentzat... "Gerla irrisku haundiko gauza da" eta "ez da nolanahika abiatu behar bide hortan"; ene iduriko, solas horiek ez dira harritzeko Huarteren luma puntan, hain zen baketiarra eta bizitze osoan besteen biziak salbatu beharrez ibilia, bere biziaren irriskuan ainitzetan. Baketiar ez du, haatik, edozoin bakearen onartzeari prest erran nahi.

Lehengo denboretan populu bat izan omen zen, Asianoak deitzen zutena. Ez zuten erregerik nahi, ez eta legerik, izikor bilakatzen baitziren, ziotenez, legeen gatik eta astokeria baitzaukaten gudukatzea nagusi baten indartzeko eta haren erresumaren hedatzeko. Holako jendeak salbaitzat hartzen ditu Huartek, ahoan bi-

lorik gabe, eta dio bere zentzuaren jabe denak aspaldidanik badakiela ez daitekela bakerik izan erresumarik gabe, erregerik eta legerik gabe.

"Zer da beraz gerla? Gerlaren egiteko zer behar da jakin? Nola behar den oldartu etsaiari eta nola harek ezarri arteeri eskapatu." Gauzak diren bezala nahi ditu ikusi, nahiz gerlan baden ainitz eta ainitz maltzurkeri. "Aintzindari batek dohain bat behar du baitezpadakoa, maltzurkeria. Ez du uste ukan behar etsaia ona dela eta etsaiaren mogimendua ontzat ez du hartu behar. Bere harat eta hunatak horrela apaila ditzala." Beraz etsaiari buruz, mesfidantza, ahal bezain-bat mesfidantza... Oroit gaiten, dio oraino, Liburu Sainduek aipatzen duten Judith delakoaz. "Ez zuen ahantzia zer asmu ekartzen zuen bihotzean eta parada ona bilatu ondoan erregeari burua moztu zion." Aldebatetik etsaia... Bertzaldetik adixkidea... "Adixkidea beti sinetsia izan behar da..." "Holofernes errege horrek bazuen adixkide bat: Achior. Ongi eginen zuen Achiorren erraneri jarraiki balitz. Huna zer erran zion: —Jauna, jakin zazu lehenik populu horrek bere Jainkoaren kontra bekatu egin duen. Hala bada, ez du balio garait dezazun. Jainkoak berak zure peko ezarriko du... Haatik jakin zazu Jainkoaren grazian balin bada, harek begiratuko duela eta ez dugula bentzutzen ahalko." Solas horiek ez zituen Holofernek ongi aditzen ahal eta Huartek emaiten dauku arrazoin bat hunkigarria. "Mezu hortaz arras kexatu zen erregea. Lehenbizikorik sineskorra zelakotz, bigarrenekorik emaztekaria eta hirugarrenekorik arno edalea. Hiru gauz horiek gudari-kalipua apalarazten dute azkarki."

Horrela Ixtorioak erakusten dauzkigun gertakariak esplikatzen ditu mediku gisa eta gogo-bihotzen jakintsun gisa. Geroztik ere izanen dira Europan eta bereziki Espainian zonbeit mediku ixtoriozale, hala nola Gregorio Marañon famatua, medikuntza ixtorioaren zerbitzuko ezarriko dutenak.

Jukutria noiz eta nun den, laster behar du ezagutu gudariak. Azeri bat iduri izan dadila. Berehala jakin zer egin eta norat jo. Beraz adimendu haundiko gizonek ez dute gerlari onik egiten ahal. "Ez dute deus balio gerlako, zeren eta adimendua ez da berehala obratzeari lotzen, zuzen-tasuna maite du, bai eta lanotasuna eta urrikalmendua ere." Bat baino gehiagotan erakustera emaiten dauku bihotz zuzena eta adimendu azkarra elgarrekin dabiltzala. "Adimendu haundiko gizonek deus ez dakite jukutriez eta maltzur-

keriez. Ez dakite egin ahal dela zerbait enganu. Horrela bertzek dituzte adimendu haundikoak enganatzen." Huartek dionaren arabera, norbait balinbada adimendutsu, ez du beraz egun guzietako bizian —hori baita gu denen gudua— burua beti goitituko. Harek ez du gerla baizik aipatzen, guk dugu gerlaz diona bizi guziari hedatzen. Oroitzen bagira zer zion bere testamenduan, ikusiko dugu bazuela jos-ahala urratu bertzek zor zioten dirua ezin bilduz. Badakigu ere, mediku teoriko gisa adimendu haundikoa zela. Zuzen, lano, urrikalkor... Hola zitaken beraz Huarte. Eta ordu hetan ere baitzen enganatze eta bertze, ardura zangotik harrapatua zela ere ez ditaike arras gezurra... Bainan zepoaren edo artearen ikusteko kalipua ez bazuen, zer adixkide paregabea zitaken. "Adimendutsuek adixkidetasunaren berri badakite, zeren eta adixkiden artean irudipenak ez baitu lan haundik, bainan bai izpirituaren zuzentasunak eta lañotasunak. Zuzentasun horrek ez du onartzen ahal makur biderik eta bertzen enganatzerik."

Goazen berriz gudukarien artera. Huartek dio kapitain on batek irudipena lanean ar-arazi behar duela bi gisetara; 1.ª) Ezagutuz kukuturik dagotzin jukutriak. 2.ª) Asmatuz zer bidez eta zer tresnekin oldartu behar den etsaiaren gazteluer. Noiz eta nola gudariak beren lekutan ezarri behar diren. Noiz behar den hasi gudua eta noiz hobe den gibeleratzea. Zoin den tenorerik hoberena etsaiarekin bakezko solasen ibiltzeko. "Harat eta hunat horien dako adimendua indar ttipia da. Beharriak ez dira ikusteko baliatzen, are gutiago adimendua gudukatzeko." "Ez dut den gutienetik dudatzen irudipenak duela obratu behar gudukan." Noizbait bederen ikus dezagun Huarte alegera... Ainitz aldiz ez daki zer gisetarat behar duen trenkatu. Hori ere ez dea irudipen ttipiko seinalea? Zerbait erabaki hartu behar eta trenkatzen ez jakitea... Gudua denetan dago beraz, idaz lanetan ere...

Zorigaitzez, alegrantzia hori ez da luzazko Huarte baitan. Irudipena behar dela lanean ibil arazi, bat da. Orai da ikusi behar zoin irudipen mota den guduek galdegiten dutena. "Segurtamenik ez dut —hain da koropilo gaixtoa— bainan dut asmatzen gudukak galdegiten duela medikuntza obrazaleak baino hein bat berotasun gehiago." Bera teoriko bezala dabila, ez du bere burua aski gai ezagutzen behar bezala obratzeko, ez izanez aski irudipen. Eta horra nun gudari on izaiteko behar den oraino gehiago irudipen. Nola sinets beraz Huarte gudari izan zela?

Ordu hetan gerlako balentria haundiak goraipatzen zituzten, funtsean noiz nahi bezala... Bainan orduan orai baino indar gehiago behar zitaken bihotzean erraiteko abilezia nagusi zela orotan. "Kapitain jeinutsuek ez dute biziki maite berehala oldartzea. Nahiago beizik ez jukutriaz bentzutzea." Huartek badaki biziaren balioa, eri artatzen ari den batek bezala. Ez luke nahi odola behar gabe ixuria izan dadin. "Lehengo Erroman kapitain famatu batzuek izigarriko bitorioak irabazten zituzten... Heldu zirenean Erromarat ospe bila, bazter guzietan ez zen orro eta nigarrik baizik... Aitamek semea galdurik, haurrek aita, emaztek senarra... Ez zituzten ospak eta jostetak behar bezala egiten ahal, denek bihotzean izanez hilen oroitzapena." Beraz zerbait erabaki hartuko dute Erromano Zaharrek edo Zenaturrek: "... Kapitain indartsu eta suharrak baztertu ondoan, maltzurrak hartu zituzten eta poxi bat izikor... Kinto Fabio bezala. Errana da huntaz ez zituela tropak gudurat botatzen nola nahika, bereziki Erromatik urrun zirenean, erran nahi baita laguntzatik urrun. Dena malezi eta jukutria zen. Eta horrela ainitz aldiz ongi atera zela gauza jakina da eta gizon bat galdu gabe... Zer alegrantzia eta zer ospa Erroman, zeren eta ehun mila gudari berekin ereman ondoan, ehun milarekin gibelerat heldu baitzen." Nik uste Huarte ere Erromanoak bezenbat alegeratzea laket zuela holako gauzak idaztean... Bainan destorbuak ez ziren urrun. "Gero bertze kapitain batzuk Kinto Fabio bezala egin nahi ukan zuten. Haren kalipua falta zutelakotz, ardura tenore hoberena utziz eskapatzera, zer nahi odol ixuri zuten gudariek, zapartaka ari izan balire baino gehiago."

Beraz irudipena eta oldarra ez dira elgarrekilakoak. Ez erran nahikundeak denak haxean ezartzen ahal dituela. Nahikundea kalipuaren mutil dago... Kalipua falta denean deus guti egin lezake nahikundeak. Badakigu nola epaile edo juje batek adimendua azkar ukan behar duen zerbait onik erabakitzeko. Gogotik nahi luke bakotxari berea eman, bainan nahikaria ez aski. Bertzenaz jabeari kentzen ahal bailio bere ontasuna. Nahikundea aski balitz gauzen ongi egiteko, gizon guzien lanak ontsa atera litaizke, den mendreneko hutsik gabe. Zoin ohoin ez da ariko bere lanean jendek ez ikusteko gisan? Kapitain guziek nahi lukete aski zuhurtzia izan etsaien bentzutzeko... Ohoin batek ez badu ebasteko trebetasunik berehala hatzemana da. Irudipenik ez duen kapitaina aldiz bertan garaitua. Ohoreak eta ohore goseak gizona akulatzen dute. Emazue aitoren seme bat. Haurrean goxotasunean eta lan gutiren erdian hazia izan da. Ahulezia guzien gatik, ariko dira

gudukan artoski ez baitute entzun nahi uzku batzu direla. Erran zahar batek ez dia gauz hori klarki agerian ezartzen? "Jainkoak libra gaitzala aitoren semetarik egunaz eta fraidetarik gauaz, ezen lehenak doblezka gudukatzen baitira jendek ikus ditzaten eta bertzeak jendek ez ditzaten ezagut." Errozue aitoren seme bati gudu bat antola dezan, bakotxari emanez behar diren leku eta kontseiluak. Kalipurik ez badu, debaldetan dira horiek guziak eta zer nahi astokeri eginen ditu. Alabainan zuhurtzia ez dago gizonen eskutan. Aldiz delako aitoren seme hori ezartzen baduzue hiri bateko atearen zain, uzkur bada ere, gustorik hoberenean egoiten ahal zirezte; atea zainduko du eta nola! Ohore axolak sustatzen du. Beraz gudu apailatzeko ez bada on, eman ate bat zaintzeko. Egia erran, gizon zuhur eta jakintsuna ez da bere baitarik kuraios hetarik. Akulu zerbait behar du eta hoberena da ohore axola.

Jin gaiten berriz gure gudarieri buruz. Baitute irudipen eta ainitz jukutria egiten baitute, horrek berak alferkeria ekentzen deete, jakinez geroz huts ttipienak armada guzia suntsitzen ahal duela.

Bainan ez beti sinets jendeen erranak. Guti dakitenek aisexka diote griña haundi ,behar den axola hura delarik; diote oraino basakeria nun ere baita gaztigu edo zigor-aldi... Nork ere gaizki eginak jasaiten baititu, hura da hura gizon gozoa... Horiek guziak gertatzen dira, ene iduriko, gizonak baitira sobera zozo eta ez baitakite gauzen ongi miatzen. Bainan zuhurrek eta jakintsuek pazientzia errestorik ez dute eta gaizki doatzin gauzak ez dituzte jasaiten ahal, berenak ez izanikan ere. Horrela ez dira luzaz bizitzen ahal, izpiritua halako oinaze batzuz josirik bezala baitaukate."

Oinaze horiek ez zituzkena Huarte berak inguruan ikusten zituenak zirela kausa? Frango desberdinkeri, gauzak nola nahika eginak, funtsean mende guzitan gertatzen den bezala... Bakotxak saila bat ongi has zezan eta ongi burura, zuen bere liburua asmatu, dakigun bezala. Berak diona, Salomonek ere gisa bereko oinazeak ukan zituen Jainkoak zuhurtziaren dohaina eman zion pondutik... "Zozoak aldiz deskantsuan bizi daude, deusek ere ez baitiote pairatzekorik emaiten; ez dute uste bertzek heiek baino gehiago badakitela. Zorigaitzez holakoak jendek deitzen dituzte zeruko aingeru, ikusiz ez direla deusetaz gaitzitzen, gaizki eginak aise onartzez geroz... Aingeruen izaitea zer den balakite ikus lezakete berehala hitz hori gaizki emana zaiotela delako zozoeri...

Inkisizioneak holakorik ez luke onetsi behar... Egia erran, zer egiten daukate aingeruek adimenduaz baliatzen hasiz geroz eta hiltzeraino? Gaizki egiten ditugun hek gaizki direla erraiten daukute-ta; gaztiatzen ere zer bidetarik ibili behar ginuken. Izpiritu mintzaire batean ari zaizku eleketa. Gizon mintzaire batean ari balire, heien erranak ez ginezazke jasan, nardagarriak iduritu ondoan. Alabainan zer egin zuen Herodes-ek? Hunek gaizkiak entzun zituen Joanes Batixta-ren ganik eta gaizkiak ez onartu nahiz, burua motz arazi zion gaizkitzaleari... Horiek hola aintzinean aipatu ditugun "zeruko aingeru" horiek bertze izen bat merezi dute, hura baita "lur huntako asto"... Abere guzien artean ez da bihi bat astoa baino zozoago ditakenik, nahiz oroimenez denak baino haundiago den. Karga guziak onartzen ditu, eremaiten duten bidetarik badoa triki traka; ez da putarka ari ez eta ere ausikika.

Ez da eskapatzen diren hetarik; ez dabila bertzeak enganatu beharrez Makil ukaldika ibilikan ere ez da kexatzen. Jabearen alaitasuna du bilatzen... "Nor ez ginezake asto horren itxuraren azpian ezagut edozoin denboretako eta nun nahiko "amen" errailea? Gogoa ahul dauka eta jujatzea ez du laket hain du oroimena pizua. Irudipenik ez, samurtzeko kalapiorik ez, zinez gizon mota horrek ez du espantu egitekorik; hori huts haundia da..." "Izan dea aingeru edo gizonik Kristo gure Jauna baino apailatuagorik? Alta egun batez tenploan sartu eta azote ukaldika haizatu zituen han zagotzin saltzaleak... Samurtzea da adimenduaren burrego eta ezpata. Gizon zuhur eta zuzena ez da ardurenean guri eta lazo hetarik, gaixtoek nahi luketen hetarik."

Hitz horiek irakurtzen ditugularik iduritzen zauku Huarte ez zitekela guri eta lazo, maite zuela kexatzea noizean behin, nahiz bazakien herraren baztertzen girixtino bati dohakon bezala. Bazuken bere denboran zeri jatzar, zeren eta aberastasunak gaindi tzen baitzuen orduko Andaluzia... Eta aberastasuna ez da biziki penitentziaren ta sakrifikatzearen alde.

"Julio Cesar-en bizia ikertzen dutenek harrituak daude nola gudariek jasaiten ahal zuten holako gizon bizi eta minkorra. Hain bizia bazen, gerlak galdegiten duen kalipua bazuelakotz." Huartek itxura guziak ikertzen ditu beti bezala eta zerbait erran gogo du gudarien beztitzeko moldeaz. "Beren burua ez dute biziki apaindu nahi. Zikinak janak dabilza, soinekoak zimurturik, jauntzi zabala gaizki ezarria, zaharra nahiago ezenez eta berria, arroparen kan-

biatzea ez laket... Hala nola Viriato famatua... Hala nola Cesar... Sylla-k ez zuena erran, aintzinetik, kasu eman zezaten heien artean zagon gaizki beztirikako mutiko bati? Anibalek ez zuen garbirik ibiltzeko axola haundirik... Manera guzien arabera, nor ere ari baita bere soinekoeri so eta so motarik baduen, galtzak beti tiran tirana atxiki nahi, kasaka zimurdurarik gabe, horrek erran nahi du irudipen ttipiko gizona dela, bederen guduak galdegiten duen irudipena ez duela arras ona."

"Gerlari on baten bertze seinale bat; garsoil ukaitea burua. Hori jakin balu Cesar-ek, ez zen ahalge izanen garsoil izaiteaz. Burua kukutu beharrez ari zen beti gelditzen zitzaizkion biloekin. Bainan ez uste ukan garsoil guziak Cesaren parekoak direla. Zonbeit garsoil badira arrunt hutsak adimenduz, irudipenez eta oroimenez ere. Kasu beraz zer garsoil motaren aintzinean kausitzen giren.

" Eleka aritzeko manerak ere erraiten dauku zerbait gudariez. Hitz guti dute eta solasa labur, dena tritzo. Aldiz eleketari haundiek beti zerbait hatzemaiten dute erraiteko eta bizi guzian egoiten ahal zintaizke heieri beha." Huartek ez duke aho bero ospetsua biziki maitatu, behin baino gehiagotan ikusi dugun bezala.

"Gudukatzeak eskatzen duen irudipena dutenek ez dute laket solas zikina. Funtsean ez adimendu zorrotza dutenek ere. Eta preseski adimendua eta gudari-irudipena kasik elgarrekin buztartzen dira."

Liburuaren ondar kapituluetan Huartek aipatzen du zer egin behar litaken haurrak azkar eta zentzudun jalgi diten. Irakurleari barkamendu galdegiten du aintzinetik, zeren eta zonbait hizkuntza soberaxko gordinak lumaren puntan eroriko baitzazko. Damu du ez baita holako erakaspena hitz garbiz zabaltzen ahal, gizonen onestasunak manatzen luken bezala.

Oharpen horiek daukute erakusten zinez Huarte gizon pollita zela, Eskualdunek ibiltzen dugun hizkuntzak hain... polliki dion bezala.

Berriz ere aipatuko dauku kapitain haundien onestasuna eta hemen heldu da oraino Julio Cesar, zoinaz erranen baitu baizik eta hil zutenean senatorren etxean, arropako hegalak bere gorputzaren gainean ezarri zituela, jendeen begien ez laidostatzeko.

Eta zorteaz eta gertakari zoriontsuez zer dio Huartek? "Kapitain on bat ez ditaike ohorezki baizik atera gudukatzetik eta

horrek dauku erakutsiko ean baduen gudari izaiteko kalipurik aski. Ba ote da munduan zerbait zoritxar egiten gaituena? Norbait ez bada ontsa ateratzen hasi duen sailean, horrek erran nahi du ez duela zuhurtzi-aski ukan eta behar ziren joka-bideak ez dituela baliatu. Apailatzen zituen gauzetan edo guduetan Cesar beti ontsa ateratzen zela denek badakite. Bainan ez zerbait izar onek laguntzen zuelakoan... Haren izarra zen bere zuhurtzia. Halere jendek uste dute "izar on" bat badela eta hartan fidantzia ukanez dira hobeki jokatzen, erran nahi baita... lanari lotzen. Cesarek ez zuena bere gudarier erraiten: "Ez beldurrez egon, Cesaren izar ona zuekin dago..."

Orai Huartek erakutsiko dauku zer gisetara lehengoek "izar on" hori asmatzen zuten. "Emaiten zioten emazte baten itxura. Horrela erran nahi baitzuten delako izarra arras ahina zela eta hedadura ttipikoa. Erregin porroina eskutan ukanez, aberastasun guzien jabe gisa zuten ohoratzen Begiak ziozkaten oihal batekin estali, erakutsi nahiz itsura dituela aberastasun horiek banakatzen munduan gaindi. Borobil edo bola baten gainean xutik egoiteak erran nahi du ez dela biziki iraunkor eta egun emanak bihar berdin gibelerat hartuko dituela."

Bainan "izar" edo "emazte itsu" horrek ez ditu bixtan da onak maite. Dio Huartek oraino: "Zozoak laket zaizko eta zuhurrak ditu hastio, aitoren semeak apaltzen ditu eta ez-deusak goititzen. Itsustasuna goresten du eta edertasunak izitzen du... Ainitz gizonek, sobera fidantzia izanez izar horren baitan, zer nahi erokeri egiten dute eta... ontsa ateratzen dira. Bertze gizon batzu, arras zentzudunak, zuhurki ari dira eta gero ez menturatzen asmatuen obratzera, baitakite aintzinetik holako obrek ez dutela ondorio onik." Lehen ere Aristoteles ari izana zen bila eta bila zerk egiten zuen holako bitzikeria izan zadin mundu huntan. "Izarra" itsu dela zuen hatzeman. Huarte asaldatzen da holako arrapostu txarra eman duen filosofo haundiaren kontra. "Ez da izarrik aberastasunak gizoneri emaiteko gai denik. Eta izar hori balitz ere, filosofo horrek ez dauku erraiten zendako gaixtoer ongi egiten duen eta onak haizatzen dituen."

Ikusi dugu orai ere ez dela beti ados gure Huarte Aristoteles famatuarekin, bazakiela samurtzen noiztenka bederen, beraz ez zela aintzinean aipatu astoak iduri... Huartek dauku erraiten koropilo haundi horren azken hitza. "Gaixtoek irudipen gaitza dute bertzen enganatzeko erospenetan eta saltzetan, badakite nundik ekar-araz aberastasuna eta holako..."

"Onek aldiz irudipenik ez dute... Ainitzek gaixtoek bezala egin nahi eta diru harat hunatetan hasi... Egun zonbeiten buruan jadanik zuten hura galdua dute." Behar bada xehetasun horien artean ikusten ahal ginuke Huarte bera... Adimenduz azkar, beraz irudipenez ahulxago... Adimenduz azkar, beraz gizon zuhur eta ona. Diruzko gauzetan ez hain trebe... Bainan diruaz bestalde bada mundu huntan, eta ez girea denak bertze bizi baten beha, zointan bihotz onek merezi duten sari eder hura ukanen baitute? "Ebanjelioak ere aipatzen du Argiaren semeen eta Ilunaren semeen arteko diferentzia. Lehenek ez dute molde haundirik mundu huntako gauzetan, aldiz bigarrenak ontsa ateratzen dira... Nik diot hola dela, ezen azken hauk irudipen azkar bat dutelakotz munduan aise ibiltzen ahal dira. Lehenbizikoek aldiz dute adimendu azkarra eta beraz Jainkoaren legeari lasterrago emaiten dira."

Mauricio Iriarte-k dio Huarte ez zela kurrizale hetarik, hala nola Vives español filosofoa, Europa guzian zabilana eta Europa guzian ezagutzen zutena... Ez zela Cervantes bezala ere armadetan ibilia urrun eta urrun eta gero etxerat bildu eta krak egin ondoan eskaleen heinerat jeutsia... Ez zela ere Lope de Vega antzerkiegilea iduri eskuzarta frangoren eske joana... Edo Gongora idazlea bezala biltzarrez biltzar...

Ez, Huarte besterik zen, humiletan humilena eta egiaren adixkide suharra. Ez du haatik merezimendu haundirik *uzten* "onak" direneri, ezen goraki dio "Ainitz badirela zuzen eta on, ez baitute gaixto izaiteko aski kalipu."

Horra nola Huartek gudariez mintzatzen hasi ondoan bere solasa hedatzen duen gizon guzieri. Erraiten du zonbeit zuhur eta jakintsun direla, iduri ez dutelarik. "Jendek diote izar on batek fagoratzen dituela. Egia bertzerik da. Beren baitan ahal berezi bat dute gordetzen..." Bertze batzuk zuhur direla iduri dute eta errealki ez dira hala. "Mintzatzaile ederrak... Mundu guziaren gobernatzeko kapable, beren ustez... Diru gutirekin jatera ukanen eta holako... Bainan lanean hasi orduko egintza eskuen artean urtzen zaiote. Orduan dira orduan oihu eta arramantzak, baizik eta "izarra" dela itsu eta ero eta... eta..."

Dena den, Huartek Jainkoaren baitan sinesten du errotik eta gizonaren kalipuarekin batean Jainkoaren laguntza ere baitezpadakoa dela gogoan erabiltzen du, arrazoinekin.

HUARTE BERRIZ HELDU BALITZ...

Udaberria ingurinetako mendi eta pentzetan... Udaberri Donibane-Garaziko karriketan. Etxeak garbiturik, jendeak ere barnez ala kanpoz... Ezen Bazko da. Bazko arrapizte da denentzat eta, aurten, enetzat ere! Badu jadanik lau mende mundu huntarik joana naizela eta horra nun ene herritarrak nitaz oroitzen diren. Bihar ezarriko dute Merkatuko plazan burdinezko itxura bat, Iruñetik etorria... Eta itxura hori norena dela? Itsusi da nihaurek erraitea bainan egiak berea behar... Itxura enea da.

1934-eko apirilaren 2-a. Bazko astelehena... Atzo aipatu besta... Pirineo-ko bi aldetarik jende oste haundia etorri da. Elgarrekin, anaitasunean nahi naute ohoratu. Horra nun heldu diren Ibañetatik beheiti Iruñeko zonbeit jaun kargudun. Aezkoatik ere, auzapezak beren jauntzi xahar eta bereziekin. Halaber Erronkari eta Zaraitzuko ibarretarik jeutsi dira gazteak andanaka, arbasoen soinekoekin ongi apaindurik.

Segur ez zaut batere itsusi ikustea ene denborako usaia xaharrak hoin kartsuki atxikiak sor lekuan. Ildo berriak idoki behar dira bizian, hori baita aintzinatzea, bainan ez ditzagun arnega arbasoak sekulan.

Elgar agurtu ondoan, denak badoatzi Merkatuko plazarat, zointan ospatuko bainaute. Eta orai mintzaldiak... Ene liburuan aipu ditut mintzatzeko talendua dutenak. Ez naiz mintzazaleen alde, bainan egungoen erranak onartu beharko. Lehenik huna Haramburu, Donibaneko alkatea... Duela lau mende, oroit bazirezte, ene aitatxi zen ber karguan. Gero, Iruñeko Burgaleta... Gero Ybarnegaray, ene herritarra... Ni bezala Uharten sortua eta horgo jauregi eder batean bizi. Zer mintzaldi sarkorra...

Azkenik Rufino Blancok erredola eskaintzen du Hego Nafartarren izenean. Eguerdi... Midy Hotelean, mahain xuri eta apairu on. Bazkal ondoan, topatzeko tenorean, Arellano, Iruñeko deputatuak, erraiten du zoin alegeraki dituen ikusten bi aldetako nafartarrak elgarretaratuak nafartar filosofo baten goraipatzeko. Bildu

ditu ere frango esku zarta. Ele horiek soberaxko zauzkit. Ene burua ezagutzen dut, Sokrates-ek berea bezala. Bainan norbaitek lore bat eskaintzen dautzularik, hartu behar, xixtatzen badu ere...

Hiru orenak... Euria ari du gogotik. Plaza-Berrin egin beharra zen besta, aterbe haundi baten pean iraganen da. Iruñeko dantzariak... Xuri gorriak... Erriberako jota-kantariak... Zer arrakasta! Halaber zigante eta buru haundiak, Iruñen bezala badoatzi karrikaz karrika, denak irriz aserik atxikitzen dituztela. Bizian ere badira holako zigante eta buru haundiak, denak "nor naiz ni" eta bertzeak irriz usteldurik heieri so egin eta...

Sei orenak... Besta bururatu da, uhar guzien gatik. Jendea lekutu da bihar berriz lanean hasteko eta ni egonen naiz lehengo erraboteko pahetan oroitgailu gisa. Gresaz egin daate uztai bat bezala eta inguruan eman. Zizelaz idatziak dira hitz hauk "Juan Huarte"...

1936. "So egizu, aita! Huarte... Gure herriak ber izena du." Haur batek dio erran bere aitari ene itxuraren aintzinean iragaitean. Eta aitak kondatu dazko ene biziaren zonbeit xehetasun...

1940. Ipar Europako gudariak etorri dira. Aleman bandera gorria ene aintzinean dago. Lau urteren buruan kenduko dute. Hola da itzaltzen mundu-huntako loria...

1972. Hogoi-ta-hemezortzi urte hor naizela geldi geldia, Garaziko jenderi so eta gertakarieri ere. Liburu bat eskutan daukat, ene "Examen de Ingenios para las Ciencias", erran nahi baitu: "Izpirituen ikertzea, ikusi beharrez zer ikasgaientzat eginak diren." Erredola hunek zonbeit jenderi ez diote deus emaiten gogorat. Berdin ene aintzinean, uda minean, jendea jartzen da eta haren soak dio ez nuela ezagutzen...

Egia da ene obrak bildu duela fama 16-garren mendean. Ez bakarrik Espainian, bainan oraino Europa guzian. Ainitz mintzairetarat itzulia izan da. Orai Europa emeki emeki ari baita sortu beharrez, uste dut jakitatearen Europa aspaldian xutik dagola. Jakitateak mugak ez ditu ezagutzen eta mugen gainetik badoa firrindan. Eta latzgarri da ikustea politikero zonbeiten lanak berriz berexten, idazlek, beren irakurgaiekin bildu nahi dituzten jendeak. Jakitatea ez dea elgar aditzeko egina?


DON BANE. IN GARA

HUARTE ATZO BEZALA EGUN ERE...

1972. Abendoaren 10-eko eskual astekari batean zer irakurtzen ahal dugun...

"Eskualdunak, bihotzak eta borondate onak gaitu gehiago gidatzen, gure biziko urratsetan eta gora-beheretan, errealitatean finkatu arrazoin hutsak baino...

" Izanez, horrelakoak garenaz geroz eta garelakotz, ohidura bat bezala badugu eskualdunek, errealitatearen baztertzeko, gauzak eta gertakariak errealki diren bezala ez ikusteko. Eta, ondorioz, gure aferen antolatzera abiatzen gara, jokabide bat errealitatearen arabera finkatu gabe. Erran gabe doa, jokabiderik ez ukaite horren ondorioa, gure izaite eskualdunari uko egitea, harrika edo haizka aritzea dela...

" Noiz nahi ordu da eskualdunak ohar gaiten nun, nola eta norekin bizi garen. Nola, nora eta norekin heldu nahi dugun!"

Beraz, diren bezala gauzen ikusteko ez duguia Huartek erakutsi hetarik ibili behar? "Arrazoin huts" horren baliatzen baginaki harek bezala, gauzer josi eta... Haugi, Huarte, hire aitamen lurrera. Haugi etxera, ilunbean gaituk eta hire izpirituaren argiak badikek hemen nun zer egin.

HUARTE-ren obra nun irakur españolez...

1.º) Colección "Biblioteca de Filósofos españoles" dirigida por Eduardo Ovejero. Prólogo, sumarios, notas y preparación por SANZ. Madrid. Espasa-Calpe. 1930.

2.º) Colección Austral n.º 599. No tiene más que el contenido del primer tomo de SANZ. Falta el segundo tomo, a mi parecer el más interesante.

HUARTE-ren obra nork ikertu duten...

1.º) Josefina ALVAREZ CANOVAS. Psicología pedagógica. Espasa-Calpe 1941.

2.º) CHINCHILLA. Anales históricos de la medicina. Valencia. 1841.

3.º) Enciclopedia Espasa-Calpe. Tomo 28, página 507...

4.º) FARINELLI Arturo. Dos excéntricos: Cristóbal de Villalón y el Dr. Huarte. Editorial Hernando. Madrid. 1936.
La obra de Farinelli es una separata de un número de la Revista de Filología española (XXIV).

5.º) FIGUERIDO. La orientación profesional y el médico navarro J. Huarte.

6.º) GUARDIA. Essai sur "Examen de Ingenios". Tesis doctoral. París. 1855.

7.º) GUY Alain. Los filósofos españoles. Edit. Privat. Toulouse. 1956.

8.º) SALILLAS. Un gran inspirador de Cervantes: el Dr. Huarte y su "Examen". Madrid. 1905.

9.º) MARAÑON Gregorio. Examen actual de un examen antiguo. Austral número 140.

10.º) SALINAS QUIJADA. Juan Huarte de San Juan. Temas de cultura popular N.º 44.

11.º) PEROUSE. Examen des Esprits. Diffusion et influence en France. Belles-Lettres. París. 1970.

12.º) BEDOR. Discours sur l'Examen des Esprits. París. 1830.

13.º) Manuscrito no publicado. X... Juan Huarte según su Examen de I. - 1967.
Y por encima de todo, la obra fundamental de Mauricio de IRIARTE, s.j.:

14.º) "EL Dr. HUARTE DE SAN JUAN y su EXAMEN DE INGENIOS"
Madrid. Consejo de Investigaciones Científicas. 1948. 428 p.

Nun hatzeman irakurgai horiek? —2.º) —3.º) —4.º) —5.º) —6.º) —8.º) —14.º) bederen kausi ditazkenak dira Iruñeko Liburutegian, erderaz; Biblioteca de la Diputación Foral de Navarra.

Eta hemen ez ditugu emaiten Espainian eta Frantzian baizik agertu diren obrak Huarte-ren gainean. Jakin behar da Alemanian bereziki badituela jarraikizaleak.

1970-ean agertu da Pérouse Lyoneko erakasleak idatzi tesis bat: "L'Examen des Esprits et son influence en France".

FRANZBACH Martín: TESIS DOCTORAL publicada en Hamburgo 1965. "*La traducción de Huarte por Lessing (1752)*". Traducción del alemán por Luis RUIZ HERNANDEZ. Diputación Foral de Navarra. Pamplona 1978. 291 p.

D.º: *La influencia del Examen de Ingenios de J. Huarte de San Juan en Alemania*, in "Medicina española" 62 (1969). 450-456.

MALLART J.: *Huarte y las modernas corrientes de ordenación profesional y social*. In: "Est. de Hist. social de España" n.º 2 (1950). 113-151.

SCHNEER R. J.: *Juan Huarte de San Juan and his "Examen de Ingenios"*. TESIS, New York 1961.

KLEIN Antón: *Juan Huarte und die Psychognosis der Renaissance*. TESIS. Bonn 1913.

VALBUENA PRAT A.: *Historia de la literatura española*. Tomo 1 (734-735). Barcelona.

HUTCHINGS C. M.: "*The Examen de Ingenios and the doctrine of original*" in "Hispania" (19). California 1936.

Texto del Examen: J. Huarte de San Juan. "*Examen de Ingenios para las Ciencias*". Edición preparada por Esteban Torre. Editora Nacional. Madrid (1977).

Eskerrik asko, adixkide irakurlea, orri alde hau irakurturik. Ez ditzagun Nafartar omen haundiko gizonak utzi ahanzterat, bertzeak ari direlarik iker eta iker. Bakotxak bereak lehen!

LEIREN

JOSEANGEL IRIGARAY

Oi, Leire!
ameka antsi eta asmoen gordaillu
ondar bizia
gure kondairaren getari urratua,
zehar aizean kulunkan
arranoak, saioak
baskonen asperenak,
Aragoi ibaian urtuak
Auñamendiko elurrak
izandakoaren ametsak eta oroitzapenak.

Leiren ameka gogoeta sortzen zaitzu, ez bait da ahuntzaren gauerdiko ametsa!

Leiren zuen Nafarroako erresuma ttipiak lehenetariko abea; lehenetarikoa eta, agian, nagusiena. Leireren astapena eta Nafarroako erresumarena ez daitezke alde bat bereiz; astapeneko errege guztiak arras lotuak ibilli bait ziren Leireri. Besteek ez bezala goratu eta lagundu zuena Antso Handia izan zen. Dakigunez, errege honen denboretan, XIgn mendean, Euskalerria gaurkoa baino haundiagoa zen, baturik zegoen, eta hura inguru hauetako erregerik indartsuena zen. Hura izan zen, besteak beste, erromanikoaren aztea Nafarroan lehenik (Jaka, Leire, Zankotza, Aibar, Iruñea, Lizarra eta beste) eta ego alderagoko beste herritan gero (Leon, Fromista, Palencia, Portugal eta abar) eragin zuena. Dudarik eta gabe Nafarroako erreinua orduan askoz ere urbillago zen Europari penintsulako beste herriak baino; aurreratuagoa zegoen.

Antso Handia izan ere zen Cluny delakoaren moldeak Nafarroan eta inguruko beste bazterretan sartuerazi zituena. Lehenbiziko saindutegi eta prailletxeak, beraz, cluniacense moldekoak ziren eta bertako prailleak benediktinoak. Lerratuxe omen zegoen Antso Handia Cluny Saindutegi nagusiaren alde eta hari buruz zuzentzen omen zuen gure lurraldeetako ondasun frango.

Baina itzul gaitezen Leirera.

Ez da eskasa, alazankoa, Leirek izan zuen itzala. Erranen nuke gaur egun ere sumatzen dela hura, ttipixagoa eta bestelakoa izanagatik ere. Hemen egonik euskaldun den gizon orok oroitzapenezko otzikara du senditzen bizkarezurrean barna. Ez da guttiagorako.

Ibar zabal eta era berean ertsi hauetan —Nafarroako sortaldea eta gaurko Zaragoza eta Huescako ifar aldeak— oldoztu zen mendeeren mendeetan gure izatean zehar zoritu den antsirik sendoenetakoa. Hemen "baskonak" ziren jaun eta jabe, eta begiratuz bakarrik antzematen da Jacetania deritzan eskualde zabala baskonen lurra zela; aski da begiak luzatzea eta bixta pixko bat sakontzea.

Erromako kondairagilleek behin baino gehiagotan frogatzen dutena da. Beti ixildu nahi izan da, naski, bainan garbi baino garbiago dago. Oraino ere, eta mendez mende jasan oldarrek ezin desitxuratu izan dituztela, hor agertzen zaizkigu ameka jende, herri, mendi, ibai eta halakoen izenak, ezin ukatuz beren euskal erroa. Nor ez da behin baino gehiagotan erraten ari naizen huntaz ohartu? Hortik barna bidaiatzean zein euskaldun ez da hainbat eta hainbat izenez konturatu? Anso ibarra, Zuriza, Oza, Artieda, Isuerre, Lobera, Esco, Sigües, Larues, Baile, Bagües, Ludues, Javierre, Javierregaray, Aisa, Lizarra, Javierrelatre, Loarre, Ayerbe, Sorripas, Estarrun, Beral, Aragon, Onsella, Orba, Botaya, eta abar, eta abar.

Horiek denak edozein mapan ikus daitezke, eta hortik barna ibilli denak ikusi eta ikasiagoak ditu, hain segur, nik baino obeki.

Jende izenetan ez gaitezke sar, sobera luze litzake eta, bainan aski da herri horietara joatea euskal erroko deitura frango dagoela konturatzeko. Adibide gisa, horra duela zenbait urte Anso herrian topatu jaunarekiko pasadizoa. Beste batzuk bezala hura ere bertako jazkera bereziaz jauntzirik zegoen eta izigarriko euskal itxura zedukan. Mendiara zeritzan. Denbora puska batean

elkarrekin egon ginen eta berri frango eman zigun, bai eta —guk zirikatuz— bertako euskalkiaren zenbait berezitasun erakutsi ere. Ostatu batera joan ginen eta ostatuaren izena "Echebarne". Mendi eta holakoen izenak erran zizkigun. Mendi batek ezpel erroko itzen bat zuen izentzat eta guk —espres— zer zuhaitz mota ote zegoen mendi hartan galdegitean, Mendiara ansotarrak "zer izanen da, bada, «boj»!" erantzun zigun.

Honaraino gertakaria. Herri izen eta halakoetaz ari ginen. Lekuko gisa zerrenda berezi bat ekarri nahi dut hunat, eskualde haietako baselizen izenena, ohizko mapetan ez bait dira haiek aise atxematen ahal. 1963an eremitismoari buruzko aste bat eratu zuten benediktinoek Leiren. Aragoikoa aztertzean bertako baselizen zerrenda luzea dator (1). Hortik atera dut nik orai doan zerrenda. Izenak berez mintzo dira:

Abanto, Los Mártires / San Esteban de (Piedra)
Aibar, Santiago de
Arasul, Santa María
Aratores
Arbesa
Areceta, San Miguel de
Ariza, El Amparo (Jalón eskualdean)
Artaso, San Felices de (Gállego central)
Artola
Aruej
Asabon, San Sebastián de
Atea, Santa Bárbara de (Piedra)
Ateca, San Gregorio de (Ebro-Medio)
Ateca, Santiago de (Jalón, Ebro-Medio)
Ayes, Santa Agueda
Bagüés, San Julián
Ballaran, San Martín (Pirineo - Sobrarbe)
Basa, San Pedro de

(1) "Noticias sobre el eremitismo aragonés", Angel Canellas. "España eremítica (Actas de la VI Semana de Estudios Monásticos. Abadía de San Salvador de Leyre, 15-20 de Septiembre de 1963)". Pamplona 1970.

Basarán, San Blas
Basarán, San Miguel y San Urbez
Benabarre, San Medardo de
Bernués, Santo Tomás
Biescas, Santa Elena
Biniés, Santa Eufemia
Binué, San Antón
Binués, Virgen de la Gloria
Biota, Santa María de (Plana Mayor - Arba de Luesia)
Biscarrués, Santa Quiteria (Gállego Central)
Botartal
Botaya, San Adrián de
Cercito
Cercito, San Martín de
Embid de Ariza, Santa Quiteria de (Tierras Ibéricas, Ebro-Medio)
Ena, Virgen del Camino
Ena, San Martín de
Ena, San Quilez (Sobrarbe - Pirineo - Ara - Jalle)
Ermita de Antenza (Ribagorza - Noguera Ribagorzana)
Ermita de Palarriecho
Ermita del Pueyo de Acumuer
Ermita de Sinués
Ermita de Viverri (Ribagorza - Noguera Ribagorzana)
Esa, San Julián de
Escó, San Juan
Esera
Esera, San Pedro de, San Saturnino de (Ribagorza, Alto Ebro)
Espierre, San Juan de
Estarrón, San Saturnino y San Adrián
Gállego, San Urbez de
Gállego, Santa Orosia
Garcepollera, San Clemente de
Garuso, San Martín de
Garín, San Pelayo
Hecho, San Juan de
Iguacel, Santa María de
Jaca, San Pedro
Jace, San Pedro el Viejo
Jarne, Santo Angel

Javierre, San Pedro de
Javierre Martés
Javierre-Martés, San Juan
Jaz
La Piedad de Lascuarre (Ribagorza - Isábena)
Lauzaco
Lárrede, San Genaro de
Larrés, San Cosme de
Larués
Lascuarre, San Macario de (Ribagorza - Isábena)
Lasieso, San Pedro de
Latre, Santa María
Laurés, Santo Tomás
Lerda, Santa María de
Lierde
Ligüerre, San Martín, Santiago (Sobrarbe - Pirineo - Ara - Jalle)
Loarre (Plana Mayor)
Lobera, San Juan de
Majones, Santo Angel
Maltray, San Juan de
Martés, San Pelayo
Monreal de Ariza, San Pedro de (Tierras Ibéricas - Ebro Medio - Jalón)
Nabasal, San Julián y Santa Basilisa
Napazal
Navarrete, Santa Margarita de (Tierras Ibéricas - Tierra baja, Jiloca Huerva)
Navasa, Santa Eulalia
Nuestra Señora de las Nieves, en Yésero
Olalla, San Bartolomé de (Tierras Ibéricas - Tierra baja)
Orante, San Benito de
Oroel, San Salvador, Virgen de la Cueva
Osán, San Miguel
Osia, Santa Isabel
Purroy, Santa Ana de (Ribagorza, Alto Esera)
Puyó, San Salvador
Ruesta, Santiago de
San Bartolomé de Sasa
San Blas de Yebra
San Miguel de Urriés

San Pedro de Larieso
San Pedro de Yosa
San Pedro de Ulle
Santa Bárbara de Gotor (Tierras Ibéricas - Ebro Medio, Aranda - Isuela)
Santa María de Obarra (Plana Mayor - Arba de Biel)
Santiago de Sariñena (Tierras Ibéricas)
Santo Angel de Siós
Santos Justo y Pastor de Tiermas
Sasabe, San Adrián, Santa Bárbara y Santa María
Serós
Siresa
Sos
Torre de Esera, Santa Eulalia, San Martín de (Ribagorza - Alto Esera)
Treviño de Adahuesca
Val Onsera, San Martín de (Plana Mayor - Flumen)
Virgen de Ballarán
Yosa, San Ginés (Sobrarbe - Pirineo - Ara - Jalle)
Yosa, San Pedro de
Yosa de Ijuez
Zaticón (Plana Mayor - Arba de Luesia)

Jaun hunek Aragoi ikertzerakoan, erranik dago, lana zenbait eskualdetan bereizten du eta Pirineo (Esca, Veral, Subordan, Estarron, Lubierre, Aragón, Ijuez, Ausin, Gállego alto), Canal de Aragón (Aragón central, Bailés, Atarés, Ahornés) eta Onsella-Gállego central (Onsella, Asabón, Sodoruel, Basa y Guarga) eskualdeetako denak sartu ditut bestelako adierazpenik gabe, nahiz batzuk euskal itxurarik ez izan.

Eskualde huntakoak ez direnean, beraz, tokiaren berri ematen dut; euskal usaina dutelakoan sartu bait ditut.

Eman dudan zerrendan aise nabari daiteke euskaldungoaren atza. Dakigunez, horko eskualde batzuk Nafarroako erresumaren barnean egon ziren, bainan beste batzuk ez, aipatutakoa Jacetania, Sobrarbe eta Ribagorza baino aise zabalagoko lurraldea bait da.

Eta euskaraz noiz artio mintzatu ote da hor zehar? Jaca eta Aragon ibai ondoko eremu zabaletan goiz xamar galdu zateken,

bainan Anso, Hecho, Estarrun ibaiaren ibarrean, Onsellakoarenean eta halakoetan? Seguraski uste baino berantago. Inguru horietan denetan eta, menturaz, ego alderago ere bazen euskaldunik Erdi-aroan, bestela ez bait da konprenitzen XIVgn mendeko (1349 urtea) Huescako agiri ezaguna (2):

> "Item nuyl corredor nonsia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas, faulando en algaravia ni en abraych nin en basquenç: et qui lo fara pague por coto XXX sol."

Eta hori Huescako irian! Ez du Huescako jendea euskalduna zenik erran nahi, naski, bainan bai aditzera eman ordea hango merkatura joan ohi ziren asko hala izanen zirela. Eta tokitan dago Huescako iria! Harat, seguraski, ez ziren oraiko nafar eskualdekoak joanen, izatekotan Jacetania eskualdekoak, Gallego ibarrekoak, Ayerbe ingurukoak eta halakoak izanen bait ziren. Anso, Hecho eta halakoentzat Huescako iria urrunsko ez ote dagoen eta haien merkatua Jaca ala Zangotza ez ote zen izanen dadukat. Bada, ego alderagoko jendea euskalduna baldin bazen areago aipatu ibarretakoak.

Eta noiz artio mantendu ote da hor euskara?

Berri xuxenik ez dugu. Aditzera ematen duten zenbait bai. Dakusagun, konparazione, zer dioen Moret kondairagilleak XVIIgn mendean: (3)

> "... En el año de la Encarnación 1097, conviene a saber, cuando corría el año en que fue conquistada Huesca y fue vencida la multitud de paganos por el dicho Rey (D. Pedro) con el auxilio de Dios..." Y aunque no sea despojo de Huesca ganada, parece fué en alegría de haberla ga-

---

(2) "Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra", A. Apat-Echebarne. Ediciones y Libros, Pamplona, 1974.

(3) "Anales del Reino de Navarra", Moret y Alesson. E. López. Tolosa, 1890.

nado otra donación de este año por octubre. Por la cual donó el rey D. Pedro a Santa María de Pamplona y su obispo D. Pedro "una villa uria (dice) llamada Zubiria, conviene á saber, sita junto á la puente". Alude a la significación vascónica del nombre Zubi-Iria, que vale "pueblo sobre puente".

..."Y da que pensar si en las montañas de Aragón, cercanas á Navarra, donde se criaría el rey D. Pedro como su hermano y sucesor D. Alfonso, dice de si nació en Ciresa, duraba el vascuence entonces. De Jaca y sus montañas en tiempo más antiguo por lo menos no lo dudamos; pues eran pueblos vascones. En nuestro tiempo ya topamos el vascuence retirado á sus aledaños los roncaleses, y aún allí, alterado algun tanto. La lengua mas general con la necesidad del comercio va comiendo y gastando la de los finitivos, como los rios grandes las orillas. El Rey, ó por aviso de alguno ó en fuerza de la educación acertó la composición y significación vascónica del nombre. Es el pueblo que llamamos Zubiri sito sobre el Arga tres grandes leguas de Pamplona rio arriba, cerca de donde estuvo el gran monasterio de S. Zacarias, como se vió tratando el año 840 de la peregrinación aca de S. Eulogio martir, que como peregrino y forastero inmutó algo la voz, llamándole Seburi."

Bestaldetik, XXgn mendeko zenbait ikerlarirentzat auzia garbi dago. Ikus dezagun, adibidez, zer dioen Joan Coromines katalandar izkuntzalari ospetsuak (4):

..."Ahora bien, se diría que esta falta de simetría entre las fronteras Este y Sudoeste del vasco está muy exagerada, y que también el vasco de los Pirineos centrales sobrevivió en parte hasta mediados de la Edad Media"...

---

(4) Joan Coromines. Estudis de toponimia catalana, volum I. Biblioteca filológica Barcino I. Barcelona, Editorial Barcino, 1965. Bibliografía, Luis Michelena. Boletín de la RSVAP, Año XXII - Cuaderno 2.º, San Sebastián, 1966.

..."Parece, en primer lugar, que los dialectos románicos han alcanzado la cima de los Pirineos en Aragón, hacia Somport y Boltaña-Benasque-Roda, un poco antes que en el extremo Noroeste de Cataluña. En ese momento quedaron dos bolsas vascas: una al Noroeste de Jaca y la otra en los valles altos de Pallares"...

Bai lurralde eder hauek euskal lurraldeak ziren. Erditik, errebide nagusi gisa, ameka istorio-misterio ikusirik Aragon (Aragoi?) ibai ederra doa. Bazterrak ditu loratzen eta bere baitan baskonen asperen eta auhenak eramaten menderen mendetan.

Hortik barna ere ego aldetikako giza oldarrak sartu ohi ziren, sarbide erraza zuten eta. Hor bere itzalean asiko ziren gure euskararen urratsak galtzen, batez ere gaur egun Nafarroa ez diren lekuetan.

Hemen, beraz, gure aziaren zain nagusi bat dago. Hau, borrokak, mugak eta beste zirela medio, leku berezia izanen zen. Ez da arritzekoa. Eta kondaira ezaguna baino lehenagoko denboretan ere halatsu izanen zelakoan nago. Guttiz gehienetan kristau elizak eta elizatxoak aurretik zentzu berezia zuten lekutan eraikitzen bait ziren.

Leiren, bestalde, Euskalerrian ezagutzen den lehenbizikotariko eliza eraiki zen. Gaur egun oraino xutik dirau eta arras ongi txukundurik gainerat. Cripta deitzen da eta IXgn mendekoa omen. Ondoan miaketan dabiltza eta garai hartako beste aztarren eta ondarrak agertzen ari dira. Seguraski, visigotiko-erromaniko deritzan tankerakoak, itxuraz IXgn mendekoak baino lehenagokoak. Gainean gaurko eliza dago eraikia, huntan ere bizpairu tankera nabari direlarik: abside eta dorrea XIgn mendekoak eta erromaniko utsak; elizaren erditik kanpoalderainokoa —atari ederra barne— XIIgn mendeko erromanikoa; geroago, XIV-XVgn mendeetan, gotiko-ojival tankerako estai bat erantsi zioten elizari.

Bainan utz dezaiogun antzederrari, idatz-lantxo huntan baino aise obeki non-nahi ikas bait daitezke Leireko Saindutegiaren berezitasunak. Goazen Leire besarkatzen duen inguruari buruz.

Lekua, Leireko Saindutegia kokatua dagoen lekua, ezinago berezia da. Berezia eta haundia. Zolan Aragon ibaiaren ibar zabala (orai sasi-aintzira bihurtua), ezkerretara sortaldera, urrun, Jaca eta

zenbait nafar erregeren hilobia den San Juan de la Peña-ko mendilerroa, eskuin sartaldera Kaseda, Galipentzu eta Bizkaiako mendiak eta ortzi-mugan beste getari fermua, agurtuz bezala, Usueko eliz-dorre gaztelua, mendi tontorrean zeletari loakartua. Parean, ego alderat, erdi izkutaturik Xabier, gure izatearen beste oroitzapen urratua, eta Zangotza. Aurrean Aragoiko Sos irixka. Gibelean, eskualde zabal eta luze hau dena gerizapetzen, Errandoko mendilerro arkaitztsua.

Oi eskualde hunen berezia! Hainbat gaztelu, dorre, iri zahar eta oroitzapen bere baitan dituena.

Ez nuke sobera aspergarria izan nahi, bainan eskualde huntan bertan sartalde alderat bada beste toki ezinago intresgarria: Lediako iri erromatarra. Irunberriko mehaka aurrean, Irati ibai ederraren gainean dagoen eremu zabalsko batean. Asko ikus daiteke gaur egun dagoen moduan, bainan ondar intresgarri horiek ikertu eta txukundu beharko direlakoan gaude.

Bazter hau dena erromanizatu xamarra izan zen. Ingurua erromatar ondarrez josia dago. Lediako iri erromatarratik galtzara bat badoa Ledian barna eta, Yesa eskuinean uzten duelarik, Leireko Saindutegian zehar Errando mendilerroari goiti, Bigozariko ateka deritzan leporaino.

Galtzara erromatarren denborakoa omen da eta gaur egun ondatuxe badago ere zenbait tokitan frango polliki mantentzen da. Beste zenbaitzuk diotenez erdi-arokoa da. Dena den, garrantzizko galtzara da. Hortik gaindi joan ohi dira udaberrietan goiti eta udazkenetan beheiti erronkariko artzainak beren artaldeekin. Batek daki noizdanik! Urtero bi aldiz iragaten dira hortxe 30 - 40.000-ren bat ardi. Udaberrian erronkariko bortuetako larre eze eta ugarietara eta negualdean, berriz, berezko duten eskubidea dela-ta, Bardenak deitu eskualde aldera. Bidaia oinez egiten dute, araiz, zortzi bederatziren bat egun emanez hartan.

Leireko prailletxea utsik zegoenean, hantxe, elizan, kriptan eta ahal tokietan gordetzen omen zituzten ardiak, gau pausaldia bertan suertaturik.

Diotenez, aunitz guttitu da ardien azkuntza azken urte hauetan; lehen askoz ere ardi gehiago pasatzen omen ziren. Denbora gutti barne, seguraski, kamiun eta halakoetan karreatuko dituzte ardiak. Denboraldiak aldatzen dira eta. Menturaz, mendez mende iraun

duen joan etorri hunen azkenekotan gaude; oinez karreatze hori hil urren dagoke. Oroitzapen gisa nik nihaurrek bidaiaren puska bat egin nuen, Urzainkiko Mendibe anaiak eta beren artaldea Bigozariko Landoraino lagunduz.

Erromatarren ondarrekin bukatzeko, aipagarria ere da Leire ondoan dagoen Artieda herrixkan, Aragon ibaiaren ezker ertzean, San Pedroko baselizan dagoen oinarri ederra.

Genion Leire zentzu berezia zedukakeen tokian eraikiko zutela. Kondairagilleek diotenez Saindutegi haundien inguruan beti izan ohi ziren eremita eta halako bakartiar jendeak. Gero, urteren urteetan, beren leize eta baselizatxoetatik jautsiz Saindutegira elkartzen zirenak. Huni gatzaizkola, aipagarria da Leireko prailleek Errandoko arkaitzetan leize batean aurkitu zutena: zeramikazko katillu haundi bat eta zenbait giza ezur. Benetan adierazgarria da, tokitan bait daude arkaitz haiek! Aztertu dituztenek Kristo aurrekoak direla diote. Baina orduan nekez izan daitezke eremitenak, beste jainkoei eskeini eremitenak ez baldin badira. Ez ote, beraz, leizetan bizi ziren arbaso zaharrenak? Dena den, aztarnategi baliosa izan daiteke eta ez litzake aztertu gabe utzi behar.

Batetik eta bestetik, beraz, Leire sortzen doa VIIIgn mendearen inguruan. Gauza jakina da San Eulojiok bidai bat egin zuela gure lurraldeetara IXgn mendearen erdialdera; bost Saindutegiren berri ematen du. Horietatik Leirekoak bakarrik dirau zutik. 1.120 urte pasatu dira orduz geroztik! Bost Saindutegi horiek hauek ziren: San Zacarias deitu bat Esteribarko Zubirin edo Hecho ibarreko Siresan zegokeena, Erronkariko Urdaspal deitua, Zaraitzuko San Pedro de Igal, San Martin de Cillar, denborarekin San Juan de la Peña famatuaren babesean geldituko zena, eta Leirekoa. Erronkariko eta Zaraitzukoa Leirekoaren menpe geldituko ziren.

Leireri egin lehenbiziko emaitzak 843gn urtekoak omen dira, Nunilo eta Alodia sainduen errelikiak Leireratzearen karietara eginak. Eneko Arizta erregeak eta Iruñeko Wilesindo apezpikuak (ohar bisigodo izenari) emanak. Emaitzak ondoko Esa eta Benesa herrixkak ziren.

Orduan asten dira denboraldirik oberenak Leireko Saindutegiarentzat. X, XI eta XIIgn mendeetan korte eta apezpikutegi izan zen. Gero, Nafarroako apezpikutegia Iruñera eraman zuten. Lurralde zabalak izan zituen bere gerizapean, errege, erregin eta jaun

ahalmendunek beren ondasunak uzten bait ziozkaten: M.º de Villanueva, Sta. Clumba de Aspuerz, Sta. M.ª de Indurain, Igal, Urdaspal, Roncal, Sta. Engracia... Leireren aberastasunak Donostiaraino edatzen omen ziren. Eta horrela mendeak eta mendeak. Gero aunitz suntsitzen dira, egoerak aldatzen dira, Nafarroako erresuma galtzen; Leirek, haatik, bizirik dirau XIXgn mende artio. Orduan, besteak beste, gure azken jabetasunak kentzean eta arrotz lege berriak sartzean, besteren artean Mendizabalen amortizazionea deitua, Saindutegiak ustu behar izan ziren eta Leirekoa ere bai. Garai hartan zisterzienseak zeuden, praille "zuriak"; XIVgn mendez geroztik zeudenak.

XIXgn mendeko asieratik XXgn mendeko erdialde artio, beraz, utsik eta ondatzen egon zen Leire. Noiz behinka abotsen bat edo beste altxatzen zen Nafarroan haren alde; bainan ez zen sobera errotzen. Mende hunen ogeita ez dakit zein urtetan asi zen emeki Leirerenganako asmoa mamitzen, bainan 1946gna artio ez zen taxuzko urratsik eman. Orduan Diputazioneak Leire bereraikitzeko erabakia artu zuen eta 1954-11-10ean akitu zen beharrezkoena prailleak berriz ere sar zitezen: prailletxea, eliza eta ostatua. Egun hartan sartu zirenak asierako praille "beltzak" izan ziren.

Nafartarren gogo bizia Leire prailletxe nafar bat izatea zen eta da. Ez guttiago eta ez gehiago. Bainan, horretarako etxean behar lirake iturburuak billatu, etxeko jendez bete eta etxekoari begira lan egin. Garai batean Nafarroako ohantzea izan zen bezala, gaur egun ere Nafarroako jakintza maillako argia izan dadin.

Ikusten ari garenez, beraz, Leireko prailletxean asi da berriz ere giza bizitza. Bestelako bizitza, ordea, zoragarria da. Noan pixka bat kondatzera zer nolako natura dagoen Leireko inguru hauetan.

Astekotz eta bat, toki izenen berri xumea eman nahi nuke. Ez dira aunitz, mende bat eta erdiz utsik egon bait da eta inguruko herritarrek deus gutti dakite. Huna izenak: Escalar, Etxalar, Paso del Buey, Peña Mayor, Mediana, La Chimenea, Peña Aramburu, Peña del Cuervo, Arangoiti, Peñascal, Barranco de las Marusqueras, El Paco, Fuente Alambre, Fuentefría, Fuente San Cristóbal, Fuente San Virila, Fuente del Boj, Pullizar, Fuente Potot, Las Loyazas, Cueva de los Golochos, Cueva Roya, Las Graduletas, Fuente Bartolo, Peña Roya, Peña el Corazón, Barranco

de la Fuente del Batueco, Yedrero de Peñamayor, Peñal Cubilar, Piedra de los Tufarros, Fallar, Castellar, Camino del Roblar, Barranco de las Carnes, Barranco de las Vírgenes, Olivares, Barranco de la Serrería, Fuente Zapatero, Barranco del Paco, Barranco de los Ladrones, Peñascal, Campo de Fuente Fría, Facero, Corral de Fraga, Orazabal, Desnucadero, eta abar, eta abar. Ikusten denez, euskal aztarnak eskas dira.

Bainan bestelako bizitzari buruz ari gaitezen. Ez da aise hainbeste txori txiuka entzutea: kardelina, erresiñola, kukua, zozoa, biligarro eta nik dakita zer gehiago. Nik ez dakit nere asmakizuna izanen den, bainan iduritzen zait guttitan entzun dudala hemen bezainbat txori kanta. Ez da zailla asmatzen Virila abadea 300en bat urtè loakarturik gelditzea txorien doinu ezinago pollitek zoraturik eta lilluraturik; hain dira zoragarriak!

Gainerat, landare eta zuhaitzak ere ez dira txantxetakoak. Zuhazti ikaragarri haundiak eta zuhaitz mota aunitz. Ezpel ugari, lizar, arte, fago eta aritz. Zer zuhaitz zaharrak, erro bihurriak arkaitzekin bat eginak, arriari berari itsasiak! Horietan denetan dituzte, hain segur, kafirik egoki eta xamurrenak hainbeste txori motek.

Eta hala Errando mendilerro osoan. Ez dakit zenbat kilometra, bainan 20ren bat aise. Zuhaitz adarretan txoriak ehunka, milaka, erran bezala. Lurrean eta inguruan alimale frango: basurde, azeri, erbi, untxi, azkonar, musker, suge, kataurtxintxa eta beste asko. Aidean, berriz, aizea nagusi; zehar-aize indartsua, beti bazter batetik bestera dabillena txistuka eta asarre, garbitzaillerik onena. Eta aizean kulunkan eskualdeko egazti erregeak, saiak eta arranoak. Errandoko arkaitzetan dituzte beren kafiak eta ortziaren garbian beren dominioak. Hor gora dabiltza egaka, nehoren lotsarik gabe, jaun eta jabe. Ondoan, goiti beheiti bele andana kua kua-ka dabiltza egun guztiz; aro beroetan einara frango ere bai. Gainerat, ugatzak, belatsak, belats ttipiak, belatxingak, bele tzarrak, pikak eta halako egazti haundiak. Bestaldetik, eper, galeper, aitz-uso, txoloma, sorbeltzak eta abar.

Arkaitzetara nekez igan daiteke, eta beharrik hala bait da! Bestela akabo gure arrano eta saiak. Prailleek jokamolde jatorrez kabalen bat eritasunak joa edo hiltzen zaiotenean arkaitz ondoko arrobi zahar batera eramaten dute saiek jan dezaten. Han gelditzen dira ezur garbiak, saiek jan ondotik barreiatuak.

Behin batean prailleek usategi bat eman omen zuten elizaren dorrean, bainan agudo kendu behar izan omen zuten arranoak eta miruak azkonak bezain azkar jausten bait ziren urzoen arrapatzera, eta aise arrapatu gero. Faisanak ere askatu omen zituen Diputazioneak, 200en bat; denbora laburraren buruan nehork ez zekien haien berririk, denak suntsitu ziren. Arranoak? Basurdeak? Azeriak? Batek daki!

Horiekin denekin eskualdearen aberastasuna eta basatitasuna nabarmendu nahi izan ditut. Gure denbora hauetan, hainbeste gauza galtzen ari garelarik, penagarri eta barkaezina izanen litzake Errando mendilorroko aberastasuna galtzea. Ehiztarien parabisua izanen da bai —ai, gure herriaren ehize zaletasun itsua!—, bainan ehiztarien eskubideak baino lehenago bizitzaren eskubideak daude; are gehiago, giza geurekeriaz bada ere, biolojiazko aroaren garrantziaz oroitzen bagara. Hori dela-ta, Arbaiungo mehakarekin batera Errando mendilerroa zaindu beharko litzakeelakoan nago. Biak bat egiten bait dira eta zentzuzkoena izanen litzake biolojiari begira. Denok irabaziko genuke; geroak erranen.

Eta bukatzera noa.

Nafarroako arri zahar hauen ondoan, eskualde zabal eta eder baten getari eta oinarri izan den Leire huntan eta Errando mendilerroko oihanean, garai batean izan ginenaren oroitzapenaren mikatza, bai eta, hala ere, bizitzarenganako dei eraginkorra ere, senditu ditut. Giro hortan idatzia doa lantxo hau.

Maiatza, 1973.

BAKARRIZKETA MIKELI

Mikel: Nahiago neban orainarte lez alkarrizketaz jarraitu, inoiz eztabaidatxoren bat gora-behera, zintzotasunaren indarrez alkarren lagun ginalako; baino nork uste izango eban hain gazte joango zinanik? Orain, bakarrizketaz natorkizu.

Abade egin barri Geriako egotaldian ezagutu ginan alkar, *Zirikadak* eskuan, inguru honetako umoreaz liluraturik etorri zinanean. Txorierriko guraso hizkera jatorra zenduan iturburutzat, zeure amaren esaldi eta berbetako erak gogoan harturik; harrobi aberatsa zenduan hizkuntzaren zimentarri. Honegatik, zu lez hornituentzat bihurtu zan euskara batua, ebakuntza. Baina, halabe, ulertu zenduan, bizi beharraren txertakuntzaz, eta nekeza izan baiatsun be, baturantz jo zenduan. Honek dira bizitzak lagatzen dituan zauriak.

Bizkai aldeko idazleak geuregan izan doguzan gora-beheretan, Azkue hartu zenduan maisutzat, eta honek irabazi eban ustekoa zinan, Bergarako Batzarretan agertu zenduanez. Uste berekoa nozu.

Norbaitek esana da, euskaldunon eta euskararen batasunaren kezkaz leherturik hil zarala. Horrek be, gehienori lez, bihotza eragingo zeutsun, bai; baina azkoz be gehiago hainbeste lan zeure lepora hartu beharrak eta batez be hainbeste abertzaleren euskaraganako arduragabetasunak. Zerk eroan zinduzan bestela deituren eztabaida ta matrakak sortzeaz, poesi liburuaren sarrera haretan:

—"*Yo soy Baraizarra*"
—"*Yo soy Apraiz*"
—"*Yo soy Laibarra*"
—"*Ni... Pérez naiz*"

Egia esan, euskararen hesparruan ez zenduan mugarik, euskaltzalerik gehienok eritzien gainetik garelako anai. Hola agertu zenduan —agertu genduan— gure Arestiren ehortze egunean, zu abade eta ni, Eibarren esaten dogun moduan, "Kura laiko". Nere berba ahulak haizeak eroan ebazan eta zure otoitza hor gelditu jakun:

GURE AITA

esan dut, Aresti,
kaleko arkaitz,
aurkako bidezti
kontentagaitz.

Gizarte kutsatuaren
Parnaso berriko
aintzindari,
hizkuntza urbanoaren
sortzaile taldeko
mailukari,

HARRI ETA HERRI:

horritxo bat izan nahi nuke,
harritxo bat nik ere,
egunotan,
harrizko herri hontan.

Inork ez daki gogoaren indarra zer dan, baina zerbait probatu dogun euskaltzaleok gure aldazgoran. "Harritxo" bat baino gehiago izan zara harrizko herri honetan. Zure lumatik ipuinak, eleberriak, olerkiak, saiaerak... berrogeta sei urtera heltzeaz hamasei liburu eta beste bat bidean. Horrez gainera, jakintzaz jantzirik zinan, eta gazteak eskolatzen egin dozun lanez, hor ditugu eukaltzale helduak, euskaldun berriak eta idazle ikasiak, zure bakardadeko:

Numenaren Inguma,
isilaren atsegin,
mahai, liburu, luma...,
eta anitz zeregin.

Zure eten gabeko gogo betean ekinaren frutu.

Herriaren euskara bizitik jasotako gatza eta piperra erabili zenduan, gure literatura idatziarentzat uzta eskainiaz. Umore bizia, humore zintzoa. Hori azaldu zenduan zeure ipuinetan, baina batez be lagunarteko alkarrizketak alaitzeko. Zuk kontatutako pare bat hizkirimiri edo txiste agertu nituan "Usteak" zeritzan artikulu batean (*Hoja del Lunes*, 1978.11.13) eta Timoteo de Urkiri, CMF. dalako bategandik, asto-baltzarenak jaso nituan, gutun irikiz (*El Diario Vasco*, 1978-11-16), "su escrito podría figurar, y, con bastante empaque, en una antología de prosas anticlericales" esanaz. Gertaera hau zuri kontatu neutsunean, aze barreak egin zenduzen. Eta, nik dakidanez, egundo ez neban idatzi ha baino artikulu klerikalagorik. Abadiak kontatua gainera.

Kepa Enbeita "Urretxindorra" zanaren omenaldi egunean, Autsaganan alkarregaz afaldu genduan hara hizlari joan ginenok eta, ohi zenduan lez, danbolin ederra ipini zenduan afalkideen alaigarri. Nork esango leuskun orduan hilebatzuk barru heriotzak eroan behar zinuzela?

Gure artean amaika jatordu alai ipinitakoa zinan. Agur eta gorazarre, adiskide maitea.

Zuk emona, gure artean, ezta makala izan. Bai, Mikel Zarate adiskidea, zure heriotzagaz langile on bat eta adiskide hobe bat galdu dogu. Euskal-literaturan betirako leku egoki bat izango dozu; baina oindinok beharrezko zinan gure artean.

Bete ete zan zure gogoak gura ebana? Ezetz esango neuke. Baina ezta izan zure ahaleginen faltaz, ez. Nekeak ito zaitu bidean, Mikel, baina zuk ereindako hazia lerden dator eta itxaropena etorkizunean:

Europa zaharreko
erlikia lerden,
bitxi zapalduaren
nekezko iraupen:
Europa berria dun
hire itxaropen.

OTSALAR

ITZIAR

Ezta gipuzkoarrik Itziar ezagutzen ez duenik. Debako auzo hau, herriaren ekaldetik dauden hegien lepo gain batean kokaturik, Andutz mendiaren babespean eta itsas-hegalera begira aurkitzen da, Bizkaiko mugatik hurbil, paraje eder batean. Gipuzkoako hiririk zaharrenetako bat da eta bere berrien lehen agiriak XI. mendekoak dira. Eliza gotiko apal bat du Andra Mariren izenean eta imajina erromaniko bat gordetzen du, Santio-bideko erromesak igarotzean atseden leku eta itsas-gizonak izar-gidaritzat hartua zuten Erdi-arotik.

Nafarroako errege Santxo Nagusiaren garaian, 1027. urtean, Iruñako elizbarrutian agertzen da. Handik laster Gipuzkoako mugatzat, Itziartik Durangora bitarteko lurraldean, Arabaraino (gaurko Debarrua eta Markinaldea barne hartzen dituela), Bizkaiarekin mugatzeko utzi zen lurraldea bereizteko egin zen tratuzko agirietan ere bai.

Baina ikus dezagun gaur egun Itziarrek zer duen bereziki.

Eliza, esan bezala, aspaldiko denbora haietatik aipamen bereziz heldu zaigu. Bizkai-Gipuzkoetako itsas-gizonak Itziarrentzat izan duten debozioa argi azaltzen zaigu Juan de Esnaolaren *Santa Maria de Iciar* deritzan obran (Bergara, 1927). Liburu honen 91-100 orrialdeetan ikutzen bai du gai hori. Bertan jasotzen ez duena, eta itsas-gizonak Itziarri zioten maitasuna egoki adierazten duena, Elkanoren hilburukoa da. Munduaren bira lehen aldiz eman zuen getariarrak, 1526 Pazifikoko uretan egin zuen testamentu hartan, bere deboziozko zituen elizekin oroitu zen eta Getariako parrokiarentzat 6 dukat urrezko utzi zituen, Askizuko San Martin ermitarako 12, Sasiolako Monastegirako 10, Hondarrabiako Guadaluperako 6, beste zenbait eliza eta ermitetarako dukat bana, baina Itziarrerako 40 dukat urrezko.

Hor agertzen da itsas-gizonek nolako zaletasuna zuten Itziarko Andra Mariarentzat.

Elizan, esan bezala, Birginaren imajina erromaniko polikromatua gordetzen da, XII. mendearen azkenaldikoa edo XIII.aren partekoa, Aita Lizarraldek bere iker-lanetan agertzen duenez. Hau du Itziarrek lehengo arte ageri zaharretatik baliagarriena. Gipuzkoan, bertan, Irungo Junkal Andra Mariaren ondorengoa dugu zahartasunez.

Garai hartako Itziarren lurraldeetan, XIII. mendearen azken partetik XIV.a zehar izan zen merkatalgoaren hazkuntza, Deba ibaiaren irtera berean kokaturik, eta hiri berri bati eman zion hasiera, mende baten buruan Itziar bera baino handiagoa izatera helduko zena; gaurko Deba. Herrialdearen administralgoa, denborarekin, hona pasatuko zen eta Itziar auzo soil bihurtu.

Aintzinako denboren agiriz, Andra Mariaren irudiaz gainera, hor gelditzen zaigu eliza bera, gotiko egiturazkoa, XVI. mendean XIV.ekoaz baliaturik berriro eraikia. Zuloitarte batekoa, sabai gurutzatuz, hamabost metro t'erdi ditu zabaleran eta hogetahamar doi doi luzeran. Arkitektura serioa, apaingarri gutikoa. Onofre Larunbe eta Maria A. Arrazolaren lanetan ongi estudiatua dator.

Bere barnean, Andra Mari erromanikoaz aparte, erretaula zoragarri bat gordetzen du. Erretaula hau Pizkundearen hasieretakoa dugu, plateresko deitzen diren hoietakoa eta estilo honetan ames egin ahal genezakeanik hoberenetakoa noski. Arte obra onekin maiz gertatzen den bezala, nolabait ere egile baten izenpean babestu nahia, arteak berez ona izatea aski ez balu bezala. Egileren bati erantsi nahiak ekarri dio Itziarko erretaulari nahikoa eztabaida. Esnaolak bere lanean Jose Aldazabal zenaren ageriak azaltzen ditu, erre zen artxibo zaharrean oinarritu ezinik, erretaularen egiletzat Andres Araoz jartzeko eta Georg Weise alemanaren iritzien kontra jartzen da. Baina, esanak esan, alemanaren begi zoliak aski argi utzi zuen Eibarko elizako erretaula egin zuenaren eskua eta Itziarkoa egin zuenarena ez zirela esku bera. Eta, uste dut arrazoi handia zuela Weise-k.

Itziargo erretaularen egile izenik ez badakigu ere, ez dio Eibarkoari zorrik, eta estiloz era hau baino lehentxoagokoa da. Azken berria, J. M. Agirrebalzategi oñatiar jatorragandik jakin dut; jatorra bezain langile den jaun honek Protokoloetako paper zaharretan aurkitu du Araoz-ek polikromatua izan zela Itziargo erretaula.

Argibide hontatik ikus genezake, Aldazabalek, seguru asko, polikromatze eta urreztatzearen berria izan zuela eta hortik nonbait iduritu zitzaiola eskultura ere berea izango zela, zeren A. Araoz garai haietarako eskultore ospetsua izango zenez.

Behar bada noizbait zerbait aurkituko da argi gehiago emango diguna, baina oraingoz, Itziargo erretaularen egile izenik ez dugu ezagutzen; baina honek ez dio ezer kentzen Bergarako San Pedrokoakin batean Gipuzkoan den plateresko erretaula onena izatetik.

Aipatu dugun polikromia, erreketa baten ondorean galdu zuen eta gaur egun zurezko irudiak soil soilik nabari dira, eskulturaren edertasunean ezer galdu gabe.

Elkanoren hilburuko diruz egina ote da? Hau da beste gauza zalantzagarri bat. Juan Sebastian Elkano getariarrak bere ondasunak hilburukoz banatu zituen, baina hil zenean apenas zuen dirurik. Testamentuan banatu zuen dirua haina hartzeko bai, bazuen; batez ere erregeak, orduko gobernariak, dirutza handia zor zioten Elkanori. Kobratu ote zen? Hara hemen gure historiaren ikerketetan oraindik bete gabea. Egunen batean jakingo ahal dugu.

Dena dela, Itziarren, aipatutakoez gainera beste gauza ikusgarririk ere bada eta hauen artean, eskubialdeko aldarean aurkitzen den sagrario tipi bat, Antxietaren eskolakoa eta behar bada bere ikaslerik argienetakoa irten zen Bengoetxeak egina.

Azkenik, esan dezadan, gure arte balioak hain ugari ez direlarik ere, zer pena ematen duen hain abandonatuak ikusteak. Itziargo erretaula. Gipuzkoako erretaula platereskoetarik onena noski, pipiak joa dago eta ahalik lasterren sendakuntza eskatzen du. Agintari eta herri, guzion artean ez ote da ezer egiteko modurik? Gure herri nortasuna ez dezagula jan-edanean diruak emanaz eta indarrezko ahalmenak soilik erakutsiaz agerrerazi, herriarenganako maitasunak hori baino gehiago eskatzen du.

J. SAN MARTIN

ARALARKO SAN MIGEL ELIZAKO ERRETAULA

Aralarko San Migelen zegoen erretaula, gauza bitxia eta bakarra zen munduan. XII. mendean esmaltez egina, arte aldetik neurtu ezindako balioa zuena, sineskaitz egiten zait lapurtua izan dela jakitea.

Gertari honek utzi digun hutsunea, ez artez eta ez diruz bete ezinezko da. Izan ere, besterik ezlakoa zen Aralarko erretaula. Berari zerbait hurbiltzen zen bakarra Silos-ko Santo Domingon zegoen, gaur egun Burgos-ko museoan gordetzen dena. Baina, hau ezta hain aberatsa, ez edergarriz eta ezta ere esmaltezko tekniken aldetik.

Askori harrigarria iduritu zaie holako gauza baliozkoa Aralar mendian egotea. Baina kontu izan Aralarko San Migelen debozioa aintzina aintzinatik zabaldua dagola Euskal Herrietan eta Nafarroako erregeak oso maite izan zutela.

Herriagan bere aldeko joera aspaldiko mendeetan galtzen zaigu. San Migelen debozioa bera ere aintzinako bazaigu, bertako erlijiozko erroak, mendeetan ez ezik kristautasuna baino lehenagokoa izan daiteke.

San Migel eta piztiaren kondairak Italiako hegoaldean Manfredonia hiritik hurbil dagoen Gárgano mendian ditu sustraiak. Han ba omen zen Erdi-aroaren behe partean Garganus zeritzan gizon bat leza zulo baten atarian zezen baten aurrez aurre ikusi zena eta mirakuluz salbatua. Leku askotara zabaldu zen kondaira hura eta Teodosio Goinirena ere hortik dator nonbait. Dena dela, gaur Barcelona-ko museoan dugun Nafarroako Egilior deritzan herritik eraman zuten pintura batean agertzen zaigu kondaira honen ageri zaharra.

Aintzinatik hain beneragarria dugun Aralarko San Migelen, kristautasuna baino lehenagoko erlijio aztarnak ere badira. J. M. Satrustegik "Reminiscencias de culto precristiano en la devoción a San Miguel" deritzan lanean aditzera eman zigunez (ikus *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*-ren 6. zenbakian, 287-294 orrialdeetan).

Aralarko San Migelen eliza bera, erromanikoa izanarren, J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almech-en *Arte medieval Navarro*-ren bigarren tomoko II. kapituluan aditzera ematen denez, egin dituzten ikerketen arabera, Santxo Nagusiaren garaian eraiki zen lehenagoko eliza prerromanikoaren zimentarrien gainean. Aipatutako liburuaren 54. orrialdean marrazkiz adierazia dator.

Baina, arestian esan bezala, eliza hortako arterik baliagarriena, munduan bakarra, esmaltedun erretaula izan da. Jatorriz, behar bada, aldara izango zen, baina XVIII. mendean egin zioten konponketa desegokia geroztik erretaulatzat ezagutu da.

Aipatutako obra horren hirugarren tomoan Uranga eta Iñiguez Almech-ek diotenez, Nafarroan ez ezik munduko artearen gailurrean zegoen obra hau, bere estilo eta teknikaren aldetik. Metro bat eta hamalau zentimetro zituen alturaz eta bi metro luzez. Guti bezala eztabaidatua izan da noizko eta nongotasuna. Gehienek Limoges-kotzat jotzen zuten.

Erretaularen inguru guztia urreztatua zuen eta gubilez landare hostoz jantzia, esmalteak ordea berde-urdinkaraz betea, zenbait ikutu beltzez, zuriz, horiz eta gorriz, eta ez bakarrik tinta plan eta soilez esmalteetan gehienez ohi den bezala, baizik tartezko kolore tonuak ere erabiliz. Honegatik, teknika hoietan erabili ziteken kalitaterik hoberenetakoa zen. Kobrezko txapan kolore bakoitzarentzat azpilduraz lekua ideki eta hura esmaltez beteaz, kobrearen lerro bat azalean utziz, koloreak banatzez gainera metalarekin soinekoen pliegeak hobeto markatzeko. Honela, irudientzat egokitasuna lortuz eta azal guzia txukun leunduta; azken urreztatze lana suaren bidez eginaz.

Erdi erdian Jesus haurra tinko aurrez aurre Amaren altzoan, koroez eta atzekaldetik argikoroa duela; kanpokaldeko lau aldeetatik Tetramorfos-aren sinboluak. Alde batera hiru erregeak eta heuren gainean beste hiru apostolu; bestaldera Deikundea eta errege bat (antza denez, Nafarroako García Ramírez, 1136. urtean

eliza konsagratu zuena, emaile gisa), eta hauen gainekaldean beste hiru apostolu. Irudi guzien buruak errepujatuak eta zizelez landuak. Erretaularen erdialdeko gaina leundutako harri gogorrez horniturik eta erdian gurutze bat, hauen aldamenetan beste lau irudi, txikiagoak eta orainarte ezezagunak. Gero, gainekalde berean, alde batetik bestera botoi biribilduak bezala esmaltezko dominak, oso apain landuak, irudi eta filigranaz nahasirik.

Esmaltzezko artearen teknikak ezagutzen dituenarentzat amesetako gauza zen.

Gaur egun seguritaterako asmaturik diren tresna-gailuak daudelarik, nola zitekean hain libre utzia egotea? Ulertu ezinezkoa zait erretaula hori lapurtu dutela jakitea.

J. SAN MARTIN

ARABA-KO ARKEOLOGIA

Agertu da *Estudios de Arqueología alavesa* delako liburu gotorra. Bere Aurkibidea ikusirik hemen aipatzea merezi duela iduri zaît. IX gn. tomo hau Barandiaran profesoreari dedikatua da eta Llanos Ortiz de Landaluze etnologilariak zuzendua dago.

Bere artikuloen artean, nagusienak aipatuko ditugu: */Dólmenes de la Sierra de Guibijo y Badaya.* A. Ciprés./ */El Sepulcro de la Galería en la Cueva de la Hechicera* (El Villar). J. M. Apellaniz./ */Restos óseos de Castro de Berbeia.* J. Altuna./ */La Necrópolis de Miranda de Ebro.* José A. Abasolo./ */De Arqueología cristiana en Aleva.* A. Llanos./

Arabako Ikerpenen artean bi soillik azalduko hemen. Lehenik eta nagusiena; *La Cueva* (chabola) *de la Hechicera* deitua. Hau El Villar erriskan ondoan dago eta Alvaro de Cortazar-ek azaldu zuen 1935-ean; gero, laguntzeen eskasean ikertu gabe egon behar izan zen Barandiaran ogei edo urtez; Tregoarri aundi hori lehenago ere aztaparkatua izan dela dio, asi eta gero. *Llanos* eta *Jaime Rodriguez Salis*-ek lagundu zuten hor. Bederatzi arri-zutez inguratua zegoen zuloa; beste arri bat estalki bezala, Kamara bat bere azpian. Gorputz illen erretzen ondarrik ezda agertu, gorpuak lurperatuak izan dira —OCRE— delakoaz alde orotatik pintaturik. Hor atxeman dituzte karrakariak —eraztunak— ustaiak —dilingailuak—. Ontzi Canpaniforme delakoaren puskak ornigailu pintatuekin.

Miranda de Ebro-n ere aurkitu izan da Ilerri bat, eta atxeman tresna-ondarren artean huna liburuak ekartzen dituen fotoak; *Fibula* abere itxurakoa, (Soinekoak lotzeko izkilinba) *Fibula de torecilla* delakoa, *de cazoleta.* Kanibeten kiderrekoa, belarritako eta eraztun. Jose A. Abasolok atxemanak. 336 orrialdeko liburu jakitun hau, Etnologia ikaslek baliatuko dutela segur gaude; eta A. Llanos gure lankideari zorionik bizienak.

EUSKAL ELKARTE BERRIA

Mogimendu berri bat abiarazi dute Bayonan, IZAN izenburuarekin (Orai moda da euskal izen bitxiak paratzea orori; horra ERE, ZER —EGIN— eta halako); IZAN hau euskalzale edo abertzalen biltokia dateke, bainan politikaz aparte omen, beste Taldeen lagunzalea baizik. Alta, memento onean eldu dela iduri zaigu, dena politizatua baidago; eta ezinbestezkoa da izpiritua pausatzeko, *Kultur-Talde* bat, euskara eta euskaldungoaren alde lan egiteko xoilik.

Iparraldeko *CHARTE culturelle* delako hori da beregaintasun zatiño bat, Parisek eman lezoken Legea edo... Estatutoa.

A. APAT-ECHEBARNE

U. S. A. — RENO - NEVADA-tik

Oraintsu eskuratu dugu RENO-ko NEWSLETTER deitu aldizkaritxoa, W. DOUGLASS buruzagiaren agintepen. Numero 21 geyena Ziberoko Pasturaleri dedikatua dago; obeki erran, horien gayen aldakuntzari. *Candi de ALAIZA*-k, INTXISU Taldearen burua den Arocenaren ORRIA (ORREAGA) —778— komedia xarmagarria aipatzen du, Pasturalen gisakoa, ARALAR bezalakoa.

Gero mintzatzen da Etchahun koblakari zenaz, bai eta beialako G. HERELLE R.I.E.V. 1923 an Pasturaletaz idatzi artikulo jakitunetaz. Alaiza anderearen artikulo luzeak (Inglesez), españolera ala frantzesera itzultzea merezi luke, biziki jakingarria dalako. Ion Oñatibia zenaren lan aundiak Ameriketan, aipatzen dituzte, ala nola Basque Studies delakoan erabili zituen Euskara, dantza eta kantuen bidez ikasten.

Basque Studies Sail huntan Irakasle berriak agertzen zaizkigu. Mr. Gorka Aulestiak, (bere emazte Renovales-ekin) euskara klaseak

ematen ditu RENO-n. Chantal Eguiluz Bibliografian eta Ms. Darlene AMMONS ere onartua izan da Irakaslegoan. Andere hau Chicago-ko Universidade-tik eldu da, eta Linguistikaz ariko da.

Virginia JACOBSEN, orai arte Basque Studies delakoaren laguntzale izanak 1970 urtetik hunat, bere tokia uzten du (Assistant COORDINATOR), Holandiara joateko.

Gaitasun aundia erakutsi du Reno-n irakasten egon den 10 urte horietan, NEWS LETTER delakoak dionez.

CALIFORNIA-ko zenbait tokietan ikertzen asi dira Archivo-ko Agiri eta Dokumentoak, parte artuz Ms. Teresa BAKSH of San Diego; joan den XIX gn. U.S.A. Mendebaldera etorritako euskaldunen berri eta zehetasunak biltzeko.

BASQUE FESTIVAL. — Joan den Agorran (Abuztuan) Basque Studies honek parte artu zuen San Franzisco-n ospatu zen Besta Biltzarre aundi batean, BASQUE CLUB delakoak antolatua. Bi egunez iraun zuten josteta eta erakusaldiak; Reno Universitatekoek Liburu zaharrak, filmak eta artzainen fotoak azaldu zituzten. RENO-ko Liburutegiko Euskal Sailak, 500 euskal liburu zahar eskuratu ditu, XVIII-XIX mendetako, Chicago-ko NEWBERRY Library-k igorriak 48 karretetan. Hor dago bildua Prinze Bonaparteren euskal Biblioteka (1000 ale). Beraz RENO-ko Basque Saileko Liburutegia auta da, Euskal dialektologia ikertzeko.

Horietatik zenbait Euskal Diputazionetan ere badaude; bai eta Donostiako HORDAGO Imprimategiak facsimile tankeran klasiko parrasta bat argitaratu ditu, filologoeri eta ikasleri erreztasun aundia eskeñiz.

Zorionak emateko parada hau baliatuz, W. Douglass zuzendariari bere aldizkaritxoan euskaraz zerbait sartzeko eskatuko genioke; amodiozko kobla zahar edo Ziberotar Charivari baten zatiño bat...; euskara bizia present egotea beharrezkoa iduritzen zaigu.

A. IRIGARAY

GALES ETA FRISIA ERRIALDETAKO MINTZAIRAK

GALES (WALES - Cymru) da Bretaña Aundiaren mendebaldeko Errialde ttipia, gure Euskalerri-aren edadurakoa gutti gora beera; 2'8 milloi bizilagun dituena. Hauetatik gales-ez mintzo dira 425.000. Urte franko dira bi-eleketan sayatzen dirala Galesekin Eskoletan; hontaz mintzo diran aurreri, galesez irakasten zaiote irakurtzen, izkiriatzen eta kontuak. Bizpairu urte, edo lehenago ere pasa ta inglesa sartzen da guttika, lehenik entzun bidez eta gero mintzatzera.

CANADAN ere (Bi-eleketa afera duen errialdea) dauden ukranianoak Manitoba probinzian, legez irakasten al dute ukranianoz, aunitz libertate geyagokin Soviet-eko Ukranian baiño, hemen rusifikatze politika jarraitzen dutelako. Kr. BOELENS autorak dionez, GALES-eko Eskoletan traba eta kontrakarrak dituzte, mendiko errixketatik jendeak iges egiten duelako irietara. Amar urteka, 10 Eskola-tik Eskola bat itxi behar izaten da.

Idekiak gelditzen diran gales-eskoletan ere gales-izkuntza galtzen. Hemen bezala beraz, erri ttikietako euskaldunak bakantzen, denetan erdaldun geyago sartzen (Nafarroan baino geyago Gipuzkoan). ISCOL CYMRAEG deitu gales-Eskola ezta nekazalgo Iparraldean sortu, Aberystwith unibersitari iri batean baino, eta anglofonoa gaiñerat; erritar aberrizale batzuk 1939 urtean eraikia.

Baina 1947 urte artio etzuen Gobernuko —Schools Council C. for WALES-ek— beste Eskola bat idiki. Lehenbizian gales-Eskolako aurrek bular-mintzaira zuten hori; orai berriz ingles, mintzodunak dira geyenak, bai eta gurasoak ere.

Beharrezko dena Eskola horiek zuzen joateko,... zerbaitetako balio zaiola aurrari izkuntza zaharra oldoztu behar du aurrak... (Cuando una lengua ya no tiene función en la vida del joven, el conocimiento de ella resulta estéril)... bai eta gurasoak alde izan... eta maisua-ren *recyclage* delakoak ardura andikoa da.

Entseyu hau abiatu zuen Gobernuak Galeseko 28 Eskoletan, ongi barreiatuak; 4 urteko aurrak jostatu behar dute ura eta botillekin mintzazen zaie galesez (empíricamente), esperienziari lotua dagoela ikastaldia. Orai Eskoletan naiago dute aurra moldatu, batxiller-eko prestatu baino *diapositibak* eta *bandas magnéticas* delakoen bidez.

FRISIA. — Holandiako Errialde bat da, Iparraldeko kosta aldean bizi dana, duela 700 urte guttienez, bere *frison* mintzaira begiratuz; 700 mille bizilagunetik, 400 milla frisonez mintzo dira; 2000 Alemanian daude, Iparraldeko mugan, eta beste 10 milla, Dinamarkako Mugaondoan. % tik 83-ek mintzatzen badakite; % tik 71 beren etxetan mintzo dira; eta % 13 holandesa. % 71 horietatik 62-ek karriketan usatzen dute, eta 42-ek jende ikasiekin. Frisondunak berak letradun eta dirudun egiten direnetik holandes izkuntzara pasatzen dira. %-ko 69-ek irakurtzen badakite, baiño *ez idazten* (Ortografia ere arras zailla zaiote). Karriketan geyen entzuten dena holandesa da (Eta Bretoinan ere (Frantzian) etxetan, franko egiteagatik, karriketan ezda aditzen).

1974 g. urtetik zilegi da Aurren-eskoletan frison-izketa erabiltzea; baino 1937 baino lehenago traba geyago izan du erreztasunaren aldean, Legeen aldetik. Frisian 559 Eskola daude, eta haueta-tik erdietan frisona irakasten dute; 73ek, lanabesatzat dute, irakurtzen, izkiriatzen eta Aritmetika ikasteko. FRISIA-koek Gales-tarren bieleketa-metodoa kopiatu dute, azken hauen esperienzia luzea baliatuz.

A. IRIGARAY

INTERFERON SENDAGAILUA - MINBIZIA

Minbizia galtz espantagarriaren aurkako botika bat berexi eta azaltzekotan daude U.S.A., SUEDIA eta bestetako biologo jakitunek, INTERFERON deitua. Ikerketan itxadon aundia artu duten arren, oraindik ezdute garbi erabaki sendagailu seguroa danik; eta eri direneri itxaropen goiztiarrik ez diete eman nai. Gainera garestiegi aterako litzake Interferon hori, Laborategiko lan luzeen arabera; eguneko 150 $.

Minbizia eta odoleko zelula zuriak (Leukozitoak) errotzen eta populkatzen dira (Kariokinesis), normalean baino aise lasterrago; eta Biologoek errotze hori geldiarazteko edo ematzeko botiken bat aspalditik billatzen ari dira; oraiko sendagailu horrekin ez omen dira eriaren baitan, bestetan agertzen diran ondorio kaltegarririk nabaitzen.

GRESSER jakintsuak saguetan IF deitu leuzemia-Virus bat txertatu ondotik, gero leuzemia gaitza-z ezdira kutsatu ilabete baten barrenean. Eta kontroletako IF artu gabe gelditu saguak, epe hortan berean leuzemia gaitzaz kutsatu dira.

Odoleko zelula zurietan ISAACS & LINDENMANN-ek Finlandiako Gurutzegorri-Laborategian berexi zuten IF deitu sustanzia hori. IF horren libra baten balioa orai 10 billon $-ekoa da; ezin baliatu beraz. Influenza-ko Virus mota bat txertatzen bada leukozitoeri, gero hauek ezdira beste Virus batez kutsatzen; inkubadora batean idukitzen oi dute 24 orduz txerto hori.

Elektronika eta Genetikan aurrerapeneri esker egin aal dira medikuntzarako balio aundiko diran Ikerpen hauek, baldin agertzen ezbadira beste Botike-kilako kalteak eriaren baitan. Sayo asko eginak izan dira dagoeneko, Interferon horrekin; bularreko minbizidun 16 eritatik (gorputzean barreiatzen asiak) 7, asko obekitu ziran eta beste 5-etatik, doy bat. 11 mieloma (ezur muñetako minbizia)-dunetik 3, ximurtzen bezala ziran; linfoma eta melanoma-(minbizia larruko)-dunetan ere aski itxaropentsu daude, Rauscher jakituna bederik.

Talde baten Laborategiak, SEARLE, ABBOT eta MERCK, 150 milloi $-nako laguntza eskeini dute, etorkizun zerbait espero dutelako. Orain arte Biologoek dakitena... IF horrek ematzen eta geldiarazten duela zelula-zuri gaixtoen errotzea. Eta obekitasun aundia sortzen, aurren *Osteogenic Sarcoma* deituan, *Papilomatosis laryngea*-n, bai eta *Hepatitis B*, beste gaitzen artean. Baina oroz gainetik, sendakin ikasiak direnen aburuz, minbizi geyenetan ez ebakitzea eta ez ukitzea obe; hori da oraiko biologo askoren iritzea.

A. IRIGARAY

EUSKAL-IDAZLE SENDALARIAK

Euskaraz idatzi duten sendakinak ezdira aunitz, bainan izan ditugun bakarrak (bizirik ez daudenak) aipatzea merezi dute, medikuntza gayak erabili dituztenak bereziki. Lehengo urtean Donostiako Sendagilleen Elkargoan gai hortaz zuen, lerro hauen egileak elekatu. Zenbaiten berri emango dugu laburzki.

Lehenik aipatzeko *Ioanes d'Etcheberry* da, saratarra, erri eder hortan 1668 urtean sortua eta ardura andiko liburuak idatzi zituena euskara landu eta ulerterrez batean. Sara-tik beretik Bera-ko eriak ikuskatzen omen zituen, mediku izendapena eskuratu ziotelako 1713 urtean, bainan yada 1716 urterako Beran bizitzera behartu zuten, bi erri horien artean dagoen bide luzearengatik, egunero egiteko.

Hemen 6 urte iragan eta, Ondarribirako izendatu zuten 1722-an; 3 urte pasa eta Azkoitian ikusten dugu sendakin. Hemen bizitu zen bertan ilartio 1749-an.

Sendalari jakituna izan zen, gaitzak osatzeko trebea. Baina orai geiago doakiguna, izkiriant ospetsua izan zelako alderdia da. Bere euskal izkribuak 200 urtez egon dira kukutuak, Julio de Urquijo euskalari famatuak Zarauzko franziskotarren komentuan aurkitu arte.

Eta igarririk berehala haren euskara eder eta lerdena, bai eta gaia profanoa zela (euskal liburu geyenak eliza gaiekoak ziralako). Urquijok liburu bat moldatzea deliberatu zuen, bere lumarekiko argitasun eta oharpen askorekin batean.

OBRAS Vascongadas del dr. labortano IOANES d'ETCHEBERRY liburu yoria, 1907-an argitaratu zuen. Saratarrak LAURDIRI ESCUARAREN HASTAPENAC izeneko izkribua, aurkeztu zuen 1727 urtean Ustarizko Biltzarre edo Parlamentoari, laguntza eskatuz moldiztegiaren xahupenetako; baina ahaldun arlote haiek (ezdute beste izenik merezi) aho batez ukatu zioten.

Izkribu hauetan Euskalerrietako personaya eta Historioak kondatzen ditu Etcheberry-k bai eta gai hauexek ere; / *ESCUARA bat da*; garbia da... / *AXULAR, izkribazaletarik autuena* da eta ospetsuena... / *Euskal Gazteriari...* eta beste. Obraren beste parte bat da *ESCUALHERRI-ri Hatsapenac* Latin icasteco—deitua. Eskuaraz nai zuen Latin irakatsi, orduan Latin baizen Eskolategi guzietan izkuntza obligatua. Nafarroako Erresumaz edatuki idazten du, eta Euskalerriko ardatza dela dio, eta "*Iruñea eskualdunen hiri buruzagia...*" non hiri hartako familia zahar eta ohorezkoenak beti "izatu baitira escualdun fin garbiak eta calitate huntaz estimu handi egin izan dutenak"...

Euskalerriko Kondairaz landa, jakintsu aunitzen esanak eta ikasgaiak ematen ditu, euskara errez batera itzulikatuak, hala nola... *Hipokrates*, *Plauto*, *Ciceron*, *Horacio*, *Seneca*, *Plutarco*, *Silio Italico*, *Vives*-enak.

Galdua den 4-gn Izkribua *Lau Izkuntzetako Iztegia* da; Euskaraz, latin, frantzes eta españolez; bainan Gipuzkoako Urquijo-Liburutegian dagoen edadura horretako Iztegia, aipatu hori izan ditake.

ARAMBURU ETA BAGO-ren LIBURUA

Bi sendalari giputzek osatutako medikuntza liburua intres andikoa da; ERRICO GENDENTZAT OSASUN LEGUEAC eta *Medikantzako Arguibideac* izenburuarekin argitaratua 1899-an. Euskara garbi eta errikoi batean osasunari dauden berri asko ematentuzte; aipatzea merezi duela liburu horrek iduri zaigu.

LARREKO nafar idazleaz, mintzatu izan da lehenago ere. Orai bere medikuntzako artikulo batzu xoilik aipatuko ditut. NAFARROAKO EUSKAL IDAZLEAK deitu nere liburuan, bai eta ARGIA Aldizkari zaharreko Egutegi edo Urtekarietan (1930 urte ingurukoak), ere badaude — *Apendizitis*, *Urdail ziltzea*, *Alkoholkeria* (Edarikoia), *Venere-gaitzak* — deitu artikuloak; bai eta ilurren direnen zai daudenentako SENDALARI BATEN ARGIAK delakoa.

JEAN ETCHEPARE BAXENAFARTARRA

Aldude eta Kanboko mediku famatu izan zenak artikulo aunitz publikatu zituen ESKUALDUNA astekari hartan, sendakintzaz eta osagarriaz. Bai eta bi liburu, BURUCHKAK eta BERIBILEZ izenekoak. Lehenekoan sartzen dituenen artean, eskuara landu eta aberats batean, ditugu KATTIN, AMERIKETAKO OROITZAPENAK (bera Argentinan sortua zen), ITZE-EGILEAREN ZAKURRA aipatuko.

Beste bi irakurgai ere bazituen, BURUCHKAK liburuan *NOR ESKOLA EMAILE, ZER IRAKATS* izenekoa bat eta *AMODIOA* izendatua bestea. Biak ekenduak izan ziran bigarren edizionerako, irakasketa laikoa irakasten zuelako *nunbait*, gazteen Eskoleta-rako, AMODIOA-n berriz, gordinegi kondatzen zituelakotz bazkal-ondo bateko zirto eta ateraldiak.

Verboaren forma sinpleak edo sintetikoak, bai eta lexiko aberatsa ere (purista zen eta garbizalea); ikasteko Liburu egokia da Etchepare medikuarena.

* * *

Dr. Jaureguiberry, ziberotar idazle ikasi bat izan da, *uskaraz* artikulo asko idatzi zituelako Medikuntzaz ESKUALDUNAn, bai eta *uskal* ipuin zoragarriak BASABURIAN izeneko liburuan, frantzes izkuntzan.

Zarauztar J. Zincunegui ere aipatzekoa da, eta Celaya; eta bereziki Arrospide Gernikakoa, Sarako Axular festa batean saristatua izana. Donibane Lohizunen berriz, mediku euskal-idazle famatuak izan dira;... Dr. *Guilbeau*, dr. *Larralde*, Olerkari aundia: *David*, joan den mendeko azken urtetan; eta toki berean 1743-1800 urtetan bizitua, Dr. DUCCOS, oso idazle ona ere, Humboldt eta Duvoisin-en adiskidea.

A. IRIGARAY

MEDIKUNTZAKO TESIS BAT EUSKARAZ

Irakurlea sineskaitza baldin bada ere, Ricardo ARRUE jaun sendakin euskaldunak lan aundi bat bururatu du; sendakintza-doktoreko Tesis bat ezda orain arte beinere idatzi izan euskaraz. Eta horren liburua euskaraz eta erdaraz dago, 168 orrialdetan edatua eta LEYOA-ko (Lejona - Bilbao) Unibersitatean aurkeztua izan da, goreneko Notak erdietsiz. Tesisaren elburua hau da; HIS SORTAREN (Fascículo de His) EZKERREKO ADARRAREN

HERSTURAREN eta Koronaria - ZAINGORRI - grafiekilako HAR-HEMANAK *Correlación del bloqueo completo de la rama izquierda del Haz de His y la Arteriografía coronaria.*

Arrigarri da ARRUE jaunak osatu duen lana; alde batetik gaia ezda edozein arrontkeri bat, koronaria eritasunak Zirujiaren bidez aurki dizaketen obekuntzen azaltzea baizik, azken ikaste eta ikerpenen argibidez; bestetik, nola balanzatu duan euskara eleketa errez bat, bai eta teknika itzak onartuz ere, grekotik geyenak, inglesak, alemanak edo frantzes izkuntzak egiten duten gisa berean.

Erabiltzen dituen itzen erakusgarri bezala, huna batzu: Analizar - arakatu // normativa - araubide // Septum - artesi // incidencia - arkigune // insuficiencia - eskasia // espacio - gune // calcificación - kisustapen // fibra - izpi // membrana - mintze // vaso sanguíneo - odi // lesión - etendura (?) // estenosis - herstura // bloqueo - histura // palpitación - tupada //.

Autoreak Pariseko BROUSSAIS Eritegian 1600 koronariografia ikertu ditu eta bai Bilboko Bihotz-artategi batean ere. Sayo gustiz nagusia da, bere euskal atxikimenduak eraginik liburu zail hau; beste sendagile euskaldunen ikasbiderako. Goresmen bizienak merezi ditu.

LIZARRAGA ELCANO-KOAREN LIBURU BAT

APECECHEA Joan Profesorea da gure elkanotar idazlearen erakusle eta azterzale nagusiena. Leenago ere publikata du autore hortaz... *Un escritor navarro en euskara. Pamplona 1978.* Orai argitaratu du haren... *DOCTRINA CHRISTIOAREN CATHECHIMA, 1803-an* idatzia, berak dionez... *plau, senzill, euscaldun-erri chipietan provecha dezaquena...* Aldiritaco Apez-aita batec maneratua.

312 orrialdetako Liburua da, euskaraz eta erdaraz. Erdarako itzulpena orai sartua da, izkuntzaz landa, elizakoa den aldetik ere intres aundikoa omen delako ELIZAK Gauzen textoa Astete-ren Doktrina da funtsean, galde eta erantzunen moldean, CREDO-aren

esaldi bakotxa xeheago adiaraziz. Lehen orrialdetan Apececheak erdaran azaltzen ditu Lizarragaren bizitza-berriak eta honen euskara *navarro-merdional*aren izketa moduak, morfologian eta lexiko edo itzetan, intres aundiko direanak; beste aldietan ere yada ikusiak ditugun arren.

Huna liburu huntako zenbait lerro: "... exemplu ere dire ilac biztu zuztenac san Pedroc, san Pauloc ta berce asco sanduc, naiz iltzeco berriz. San Maurilioc biztu zue aur bat ilic ya zazpi urte zuela; san Estanislao Poloniaco Obispo sanduac jaiqui arazi zue viciric obiatic, ta joanarazi Erregueren Consejura, ematera eguias testimonio, Pedro bat, irur urte lenago il zena. Cembat erresucitatu zitue san Franzisco Xavierec eta berce sanduec?..."

DOKTRINA hunek yada bi mende baditu, eta ordutik oraiarteko sineste moldea zorroztu da eta zienziakin ere ezdago Eliza lehen bezala etsai; gai batzuen Lizarragaren ikusmoldea ez dutela oraiko kristau aunitzek onartzen, aski argi dago. Alabainan, liburu ederra da euskalarientzat eta goresmen bizienak errendatzen diozkategu argitalariari; gaiñeko Lizarragaren zati autatu eta intresgarrien Antologia bat prestatuko duelako itxaropenarekin gelditzen garela.

A. APAT-ECHEBARNE

PALESTIN-DARREN BERRI JAKINGARRIAK

Jordania eta Israelen artean dago erri dohakabe hau geyena; duela zenbait urte, Munich-en eta bestetan, bortizkeri ikaragarriak egin zituzten; baina gaur-egun gauzak aldatu dira, onerako; eta ez daude denak terrorisgoari emanak; aitzitik 4 milloi jendetik askok, % 20-ak, Ikastegi eta Unibersitatetan ibiltzen dira; Eziera eta Irakaste sailletan indar aundia dute Okzidenteko erri askotan. Bortitz zaleak xoil Komandoetan biltzen dira, eta presondegi txarretan barreiatuak, Libanon, Jordanian eta Libiako kanpoetan.

Aunitz artista, sendakin, Irakasle aurkitzen dira beuren artean. Abu ZULUF, 54 urte, Ierusalemeko arabe egunkari edatuenaren zuzendaria, eta bi aldetako estremisten aurkakoa; GAZA-ko alkatea den AL-SCHAWWA, 70 urte, moderatua ere, ez omen ditu gaizki ikusten SADAT-en bake sayoak.

Israelitak marratik pasatu dira, mendebal-Bazterreko palestinoen artean plantatuz israelen egoitzak (70.000 yudu berri), lurrak bortxara erosiz... Hau dena gaizki ikusia da U.S.A.-n, Egipton eta Israelen berean.

Beste palestin-aberatsa *Faruk* NASSAR da, 50 urte, 100 milloi $-en ontasunen jabe, Londres ala San Franzisco-ko bere etxetan bizi aal dena, BIR-ZEIT Unibersitateko Fondazaileen familiakoa.

Eziera eta irakaskuntza saillean yayoak dira; JIHAD emazteak 100.000 emakumen Biltzarra gidatzen du, osasun eta Ikastegiez okupatzen dena. 35 Eritegi badituzte eta 100 Klinika; halako Letradun asko dago palestinoetan. Hauen alde orai diplomat eta politiko asko daude, amerikanoen artean ere; ONU-n mayoria dute bere alde. BEGIN gogorrak ez die eman nai GAZA-n eta Ezker-Bazterrean bototako eskua, ez eta Kontseilu bere-gain bat; horietan eta 5 urtez oraino israelitek dute militar aginte osoa, Sadat-en iritzearen aurka.

Ierusalem-en 100.000 milla palestin (*Filistin* arabez) bizi dira, Jordaneko Ezker-bazter eta Gaza-n milloi bat eta 200 milla; Israelen 650.000, Kuwwait-en eta bestetan milla batzu oraino. Hauen arteko letradunetan badira erregeen kontseilari, Petroleo eta Aireko-tako aferen gidari, bankeroak, etc. Jordanian aurka galdu zuten gudualdi bortitza orai lo urte-eti igeslekua aldatu zuten Libanora.

Kontseilu Nagusi bat (Council) badute exilioan, munduan 85 Bulegoekin; Parlament eta Exekutif bat ere. Arabe oroen artean demokratak dira eta deituak izaten dira *Arabeen yuduak*.

A. IRIGARAY

J. ZAITEGI JOAN ZAIGU

"Gizonen eta aingeruen mintzaira
oroz mintzatuko banintz,
baina maitasunik ez banu,
soinu egiten duen metala edo
zinbal burrundari bat bezala nintzake"

(Paulok korintioarrei, lehen gutunean. XIII, 1)

Gaur, abuztuaren hamazazpia, egun tristea izan dut. Erronkariko Izabara Jokin Zaitegi adiskide minaren hilberria heldu zait. Atzo hil omen zen Donostian, Probintziko Hospitalean, eta handik Oñatiko babesetxera eraman gaur arratsean Arrasaten ehortzeko.

Bihotzekoaz aspalditik zetorren osasunez gainbeheraka eta itzaltzeko ordua heldu zaio, hiru erorialdiren ondotik. Lehen bietan Arrasateko poliklinikan bisitatu nuen eta hirugarren hontan Donostiako Hospitalean. Ekainaren 19an, gure teknokrata kaxkagogor hoietako bati "teknokrazia gehiegia ez zela ona, baina humanismo gehiegia ere ez", entzun ondorean. Baina, zoritxarrez, gure herri hontan humanismo gehiegirik inoiz ez da ezagutu. Ez dakit oraindik enteratua denik.

Arratsalde beroa zen bera zegoen gelara haldu nintzenean. Behar bezalako jabetasunik ez zuelako, han zen Pelikene Arrese, hilzorian zegoanaren oheburuan, Paristik beste gabe etorria. Jokinek, ni ikusteaz bat, indarrez baino gehiago bere gogoaren eraginez, eskua luzatu zidan; nereen artean hartzeaz, so samur batez agertu zidan bere eskerraren sentipena. Nik ordea, gizontasuna baino gizonkeria gehiago agertu guran, barne indarrok ahalegindu nituen ene begiok malkoz ez bustitzeko.

Han konturatu nintzenez, euskararentzat ondasuna eta osasuna eman zuen gizonaren alde apenaz inor arduratzen zen, Pelikene izan ezik, bizitzaren eta heriotzaren mugan egonarren. Nemesio Etxaniz jaunak maiz bisitatu izan du, baina gainerako euskaltzaleok, deus ez.

J. M. Satrustegirekin mintzatu ondorean, Euskaltzaindiak ordainduz gaueroko zaintzaile bat jartzea erabaki genuen. Zeren, ohorezko euskaltzaina izatez aparte ez zen alperrik gure historian euskararen alde gehien eman duen gizona.

Jokinek gizontasunean eta langiletasunean zuen kemea igaz adierazi nuen "Hoja del Lune"-ean bi artikuluren bidez. Orduan ez nuen pentsatzen heriotza hain hurbil zuenik.

Gure jatikun eta langilea, Goian bego.

Baina herriak, bereziki herri abertzaleak, oraindik ez daki nor galdu duen.

Gure hizkuntzaren alorrean inork goraipenik merezi baldin badu, lehenetakoa dugu orain joan zaigun Jokin Zaitegi jauna.

Gure historiaren ilunalditik, etorkizunera begira ari zen gure gizon hau, profeta baten gisa, herria bere mintzairarekin zuzpertu nahirik. Jaunak Isaiasen ahotik esana, beretzat pentsatua balitz bezala:

Zoaz herri horrengana eta esaiozu:
Belarriz entzuna, ez duzue adituko,
begiz ikusia, ez duzue nabaituko.
Mokortuta bai dago herri horren bihotza,
eta belarriak entzuteko gortuta
eta begiak hertsi dituzte,
begiz ez ikusteko,
belarriz ez entzuteko
eta bihotzez ez ulertzeko,
onbidera etorririk, sendatu ez ditzan.

(Bidalien eginak. XXVIII, 26-27)

Fariseorik ez zuen maite eta publikanoekin adiskidetasunez ibili zen. Apostolu grina zeraman, eta 1950ean, gure herriak jasan zituen ekaitzurteen ondorean, kultur aldizkari bat sortu zuen euskaraz, gure hizkuntza hau zapaldurik eta kinka larrian agertzen zen garaian, *Eusko-gogoa*. Non eta Guatemalan. Eta lortu zuen gogoen iratzarpena eta bildu zituen bere inguruan munduan zehar deserriturik zebiltzan euskal idazleak eta aberrian argi bila zebiltzan gazte batzuk.

Guatemalako puntan lau urteren buruan iraunarazi ondorean, bere asmoak eta kemena indartuz, bere Lizeoa saldu eta Miarritzera etorri zen, herriari bertatik hobeto zerbitu nahiaz. Eskuartean zekarren, euskarara itzulia, "Bidalien eginak", eta bertako mezua ere bai nonbait: "*Itzuliko naiz, eta Dabiden etxe eroria berreraikiko dut, zati urratuak osatuaz berriz zutituko dut*" (Bid. e. XV, 16).

Eskaini zitzaion laguntzarik hartu gabe eta ekarri zituan ondasunak ahitu zitzaizkionean, berriz Ameriketara itzuli zen. Gutik ulertua izan bazen ere, aberriarekin eta bere gogoarekingo kunplitzak bete zituen. Euskara kultur mailarik gorenetara eramatea zen bere asmoa. Aintzinako klasikoen lanak zituen bere espezialitatetzat. Hauek euskaraturik beharko dituela biharko euskal Unibertsitateak eta bere lanaren bidez exenplu ederra emanez gazteria bultzatu zuen bide berrietatik, bakoitzak bere espezialitatean euskara lantzera.

Sofokles, Euripides, Platon..., hor ditugu euskaratuak.

Biharko lanak, lan ilunak; gaur egun gutik haintzat hartzen baditu ere, biharkoan ezagutuko dira bere merituak. Euskarak, biziko bada, hain beharrezko dituen lanak.

Ameriketan, berriz ere goldaketan, gure ikurriñaz olerki epikoak osatzeko adorea izan zuen. Handik berriz itzultzean burutapen bakarra zuen bere gogoan; bizi zen artean Platonen itzulpenak bukatzea eta argitaratzea. Baina asmo hau zeharo bete gabe joan zaigu.

Hala ere, bere ekintzarekin adierazpen ederra utzi digu. "Bidalien eginak" itzuli zuenak, haien gisa, lasai esan zezakean:

Ikus zazute, nardatzaileok, harri eta itzali zaitezte.
Zeren lan bat eginen bai dut zuen egunotan,
inork esan balezaizue ere sinetsiko ez duzuena.

(Bid. e. XIII, 41)

Testamentu berriko aipamen hauek, ez uste izan buruz nekizkienik, baizik noiz behinka gustatzen zait eta beharrezko dut Bibliaren irakurketa eta aurtengo oporraldietan nerekin ekarri dutanez, egun triste honetan nere gogoaren kontsolagarri izan dut.

Bukatzeko esan dezadan, gure gizaldiko unerik nekegarrienetan Jokin Zaitegik egin zuen lana oso nekez sinestekoa dela izan ere. Honegatik, gaur, Euskal-Herriko bazter honetan, doluminezko egun triste honetan, Agur!, Jokin.

OTSALAR

JESUS ELOSEGI

"Pilartxo-enea" izena zuen etxeak. Hantxe ezagutu nuen lehenengo aldiz. Gerra hasi zeneko urtea zen, hain zuzen. Familiako erretratoa atera behar genuela eta, haur txikia izan arren, gogoan gelditu zitzaidan bere aurpegia. Urtetan ez nuen ahaztuko, tripodezko makinaren zapi beltzetik sartu eta ateratzen zen musu zabal hura.

Geroago jakin nuen, nik txikitan ezagutu nuen argazkilari hura, Jexus Elosegi zela. Berazubiko Estadioan, beti bere makina lepotik zintzilika zeramakila, hamaika erretrato eder atera zuen. Herriko bonberoen mailadi luzera igota, punta-puntatik, atletismoko "llegada" bat baino gehiago bere artxibora pasa ziren. Ez zen argazkilari makala, orratio!

Afizio eta zaletasun handia izan zuen Berazubiko Estadioaz. Argazkilari bezala..., kronometradore bezala..., juradu bezala..., eta baita kirolzale bezala. Izan ere, tolosar askoren antzera, bere gaztaroa hor pasatu zuen. 1924 garren urtean, Baldarra F. C. izeneko ekipoan, futbolen jokatzen zuen. Eta urte hartan bertan, Tolosako "javalina" ren lehenengo "record" ofiziala, berak ipini zuen. 1925-1926-1927 garreneko urteetan berriz, "triple salto", "longitud", "disco", eta "4 × 400" karrerako markak, bereak azaltzen zaizkigu gure herriko artxibotan.

Baina ordurako, dudarik gabe, bere barnean ba zeramakien mendirako grina. Mendirako grina eta idazteko gogoa. 1927 garren urtean (Maiatzak, 1). Uzturreko gurutzea lehenengo aldiz zutitu zenean, han azaltzen da bera. Urte hartan bertan, Sociedad Amigos de Aralar izeneko elkartearen fundatzaile bat da, 1928 garreneko Irailaren 12-an Igaratza Refugioa inauguratzeko.

Eta bestalde, 1930 garren urterako hasia zen idazten ARGIA asterokoan eta EL DIA egunkarian.

Hortik aurrera, Jexusek izan zituen bi hirrika haundinak, hoietxek izango dira: mendia eta idazketa. Eta biak konbinatuz (argazkiak utzi gabe, noski), piskanaka-piskanaka, eta behar bada gerra ondorenetik hasita, bere bizi guziko helburu bakarren murgilduko da: natur-zientziako ikerketan.

Etnologia..., Espeleologia..., Prehistoria..., Euskal Kondaira..., Euskal Toponimia... Aurrerantzean, hoiek izango dira erabiliko dituen gaiak.

Ikertzaile amorratua izango denez, natur-zientziatan asetuko ditu bere barnean daramazkin lan kezka guziak.

Suertez, edo hobe esateko zorionez, 1947 garren urtean, Euskal Herrian hain beharrezkoa zen Sociedad de Ciencias Naturales ARANZADI sortzen da. Bera eta bere moduko lagun batzuk dira Aranzadi elkarteari sorrera ez ezik, lehenengo bultzada emango diotenak. Jesus Elosegi izango da, hain zuzen, 1947-tik 1952-ra eta 1960-tik 1973-rako bi epe luzetan Aranzadiko idazkaria. Gero, jubilatzeko garaia heltzen zaionean, Ohorezko Bazkidea izentatuko dute.

Esan dezakegu bada, bere bizi guziko urte aberatsenak, Elkarte honi lotuak arkitzen direla.

Baina nik, egia esan, ez nuen Jexus ezagutu 1953 garren urteaarte. Urte hortako Uztailean, Jose Mari Peciña eta beste hiru mendizale, Mont Blanc inguruetako elurretan bizia galdu zutenean, Jexus Elosegi izan zen, Chamonix-ekin eduki ziren hartu-emanetan, gizon bereziena. Orduntxe izan nuen Jexus ezagutzeko oportunidadea, eta orduntxetik hasi ziren gure arteko harremanak.

Gogoan dugu, Tolosa C. F. elkarteak, urte hortako uraldi handiak bere Estadioa ondatu ondoren BERAZUBI... FUE izeneko rebista argitaratu zuenean, nolako argazki aukera eskeini zigun. Dena fitxetan ordenatua, sail bakoitza bere neurrizko kutxetan ipinia. Hura zen bilatzeko erraztasuna! Orduan jabetu nintzen nolako lana egina zuen. Nolako langile zehatza zen Jexus. Benetan metikulosoa. Gizon interesgarria nolabait ere.

Artxibotan egin zitun aurkipenak, handiak eta sakonak izan dira. Eta aurkipen hoiekin argitaratu dituen idazlanak, askok eta inportanteak.

Aspaldidanik, toki askotan idatzi izan ditu bere lanak: EGAN; PYRENAICA; ZERUKO ARGIA; GOIZ-ARGI; BOLETIN DE LA

R.S.V.A.P.; PAN PIN; IKUSKA; SPELEON (Oviedo); PIRINEOS (Zaragoza); ARANZAZU; ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE; BOLETIN DE ESTUDIOS HISTORICOS DE SAN SEBASTIAN; MUNIBE.

Hoietaz gainera, bakarkako kolaborazio asko argitaratu ditu, liburu, rebista eta izparringietan. "Zimitz" eta "R. de Gainza" izen ordekoak erabili izan arren, bere izenez firmatu izan ditu idazlan gehienak.

Garrantzi handiko liburua, JUAN IGNACIO DE IZTUETA (1767-1845). Baina Jexusen zehaztasuna eta bere lanaren xehetasuna garbiki agertzen diren idazlanak, hauek dira: Gipuzkoako Kirolzaleen EHUN MARKA ONENAK; Indice por orden alfabético de Autores de los siete últimos volúmenes (1930-1936) de la REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS (Boletín R.S.V.A.P. San Sebastián. 1970); Indices de MUNIBE. Autores, materias, recensiones. 1949-1972 (Munibe. S. S. 1973).

Tolosan jaio zen Jesus Ramon Elosegi Irazusta, 1907 garren urtean. Gizon trebea, langilea eta zorrotza. Argia oso. Trato alaikoa, "aizak..." esaten zuen bakoitzean, beti zerbait egiteko, zerbait eskatzeko, zerbait galdetzeko, edo zerbait eskeintzeko izaten zuen. Baina hori bai, beti-beti, euskeraz. Beti-beti, euskal gaiaz.

Euskaltzaindiaren laguntzaile izentatua, Euskerazaintza taldearen bazkidea.

Bere debilidade handiena, edo beste modu batera esana, bere gogo-gogozko zaletasuna, ARALAR izan zen. Inor gutxi, guk dakigunez bere anaia Periko kenduz gero, Aralarko zokoen berri hobe jakiteko. Aralarko menditan bilatu zuen Jexusek bere azterketako iturririk handiena. Hortik atera bait zuen berak, argitaratu zituen idazlan baliotsunak: GANBO; LAS MINAS DE COBRE DE ARALAR; ARALAR MENDI TA INGURUKO LEKU-IZENAK; URSUS SPELAEUS EN EL ARALAR (Manolo Labordekin batera argitaratua); CATALOGO DOLMENICO DEL PAIS VASCO.

Eta orain dela gutxi Aranzadin izenean argitaratu den Aralarko maparik ederrenean, Elosegi izan zen laguntzaile printzipalena. Ez zen alferrik bere bizi guzian hainbeste nota, hainbeste dato jaso. Iturriak..., artzain etxolak..., dolmenak..., bidetxigorrak...

Zenbat eskursio eta zenbat martxa planifikatuko ez zuen Elosegik! Izan ere, iniziatiba eta organizatzeko dohaiak beti izan zituen.

Sheve Peña mendigoizale ospetsuak, lau katedraletako buelta, oinez, eman zuenean, Jexus ibili zen azken detaile guziak elkar lotzen. Gero, bere ideia izan zen "Al mismo tiempo que Hillary y Tensing..." liburua argitaratzea. Sheve bere lagun handiak, Everest konkistatu zen egun beretan egin bait zuen BILBO-DONOSTIA--IRUÑA-GAZTEIZ-BILBO buelta luzea (1953-ko Maiatzak 25-26--27-28).

Beste bi tolosar espeleologokin, R. de Ondarra eta R. de Arcaute, frantzesekin ekipoa osotuaz, lan garrantzitsua egin zuen Sima de Lepineux edo San Martin izeneko koba famatuan.

Honelako eta bestelako aktibidade askotan parte hartu zuen. Oso gertutik ezagutu ez genuenok ere, ba dakigu gazte-gaztetik hasita, Jexus Elosegiren bizia, oso mugitua izan zela. Nola kanporako irteeretan, berdin mahai aurreko idazlanetan. Zerbaitetan akatsarik izan ohi bazuen gizarajoak, lan asko hasi eta bukatu ezinezkoa izango zen. Hain osotuak behar zuten izan berak hasitako lanak bukatutzat emateko, zerbaiten faltan gertatzen zela beti.

Lan sakonak eginak ditu, oraindikan argitaratu gabeak. Baina espero dugu, egunen batean, baten bat azalduko dela (Lazkaoko Benediktinoak jabetu dira lan guziaz) Jesus Elosegi zenaren obra guzia —bukatua eta bukatu gabea— berak merezi zuen bezala argitaratuko duena.

Tolosan 1979 garreneko Abenduaren 24-ean hil zen. Bere azken urteak, Kardaberaz Bazkunean pasa zituen. Manuel Lekuonari omenaldi ohoretsua egin nahi ziotela eta, lekuaren eske etorri zitzaidan.

Bi zaldiko berebilarekin (barruan hilko zen, gero) hamaika bisita egin zuen, zientoka liburuak apaletan ordenatzeko, berari gustatzen zitzaion bezala. Eta azken finean, LEKUONA'tar MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA; eta LEKUONA'tar MANUEL, IDAZ-LAN GUZTIAK izenezko liburu ederrak argitaratuak gelditu ziren.

Eta Jexus zen bezalako euskaldun zintzo bateri egokitzen zitzaion bezalaxe, liburu hoietako batean, honelako titulokin argitara zuen bere azkeneko idazlana: GIPUZKOA'KO EDESTI-GAIAK, EUSKERAZ...!

Goian bego.

JOSE URIA IRASTORZA

P. BORDAZARRE "ETXAHUN" KOBLAKARIAREN OROIZ

Bizia llaür hiltzia segür hortzaz ez gira düdatzen
Denek beitakigü heriuak nihur ez diala pharkhatzen

Kantuz horrela aitortu zuen Pierre Bordazarre, "Etxahun" Irurikoa, itzali zaigu. Zuberoako ohitura zaharren euslea, gazte zelarik oinak arin dantzari agertu zuen bere nortasuna, adinean sartzean xirularia ez ezik koblakari iharduna da herioak eraman arteraino. Bere kantetarik oso ezagunak dira Agur Xuberoa, Goizian argi hastian eta Sorlekhura itzultzia. Horrez gainera, pastural egilea zen, aintzinako ohitureri jarraituaz bederatzi obra burutuaz: Etxahun (1954), Matalaz (1955), Berterretx (1956), Santxo Azkarra (1965), Le comte de Treville (1966), Txikito Kanbo (1967), Pette Beretter (1972) eta azkenik Ximena eta Iparragirre.

Urrilaren batean hil zen Pabeko ospitalean eta bere sorterria den Irurin ehortzi zuten. 1908ko maiatzaren 28an jaioa zen.

Gaztaroan herbesteetan bizia zen; baina, Orhiko xoriak, Orhi maite. Zuberoa laket zitzaion eta bere barnean Basaburua partea.

Agradable dirade Larrañe, Ligi eta Sante-Grazi
Aiphatürik dira Atharratze, Alzai, Aloze, Lakharri
Zalgize ere aski plazent da, Ozazek badü batzarri
Bena ororen maithagarriena othe ez deia Iruri.

Baina hor ez zen mugatzen bere Euskal-Herriaganako maitasuna. Duela bi urte liburu eder bat eskaini zigun, *Etxahun-Iruri khantan* deritzana eta artikulu bat eskaini nion "*Hoja del Lunes*"-en

(29-VIII-1977). Orduan agertu nuen bezala, ikuspegi zabala zuen gure herriagan:

Goxo da bizitzia Xibero gañian
Mendi horien artian trankilitatian
Hargatik aithortzen dit mügaz bestaldian
Badirela xokho hunak, itxas bazterrian
Khantatzera banua huk phentsamentian

Gure erresumak goraipatuaz, honako agur honekin eman zuen bertsoen bukaera:

Kunserba zitzaiela zelüko Jinkuak
Bizkai ta Gipuzkoako probintzia goxuak
Ingana zitzaiela luzaz itxasuak
Guretako begiratüz bethi ber amodiua
Zirekilan beikira oso Xiberua

Sentitu ere abertzaletasun osoz sentitzen zuen hegoaldekoentzako maitasun hori, erro errotik herrianganako maitasunez beterik bizi bai zen. Bere kantetan maiz agertzen denez, Orhiko txoriarekin buruabat egiten du:

Sen-Jüsefen ermitatik
Goraintzi bat Uskal-Herria
Zure zerbütxari fidel
Girade Orhiko-txoriak

Maitasun hontan mugazandiko askok ohi baino haratako joanen zen, zeren koblakariaren barne gogoa zintzoa izaki. Horrek eragin zion ondoko kanta hau osatzera:

Jeik' hadi Eüskadi eta mintza hadi
Ozenki gure gazteriari
Behardiela bethi fidelki kunserbi
Gure usantxa zahar horik

Zenbait erresumatako giroan berri jakin zuen gaztarotik, herrialde askotan bizi izan baizen, baina azkenerako Zuberoan pausatu zen, Orhiko xoria bezala. Santa-Garazikoa hartu zuen emaztetzat eta habi goxo bat lortu zuen, pobre baina zoriontsu biziko zena. Arbasoen ohitureri jarraituz, pasturalgile, pasturalen zuzendari eta koblakari. Apaltasunezko zorionetik honela kantatu zigun:

Nik badit etxe txipi bat Gaindañeko lurretan
Eniz aberats hargatik alagera bizi nizan
Zunbat nahi untsa diren beste herri aizuetan
Düda düt nik izan ditin gü bezaiñ plazer etan
Akordian bizi gira herritarren artian
Ahal oroz libertitüz xaharrak gaztekilan
Igarailek ikhus gitzela bozkarioz oro khantan
Gaindaiñtarrak Gaindaiñtarsak Gandaiñeko kharrikan

Hainbeste lan ederren guraso zen Etxahun Irurikoa, bere merezimenduegatik aspaldi izendatu zuen Euskaltzaindiak bere leguntzaileen arteko. Bat bateko bertsolaritza ez zen bere ekintza berezietan hain egoki moldatzen zena, baina hala ere zenbait saio egin zituen hortaz, plazetan Mattin eta Xalbador zenakin kantatuaz. Honegatik, bertsolari elkarteak helduden urtarrilean omenaldia eskaitzeko hautatua zuen. Bere bizitzaren zahartzaroan egin behar zitzaion omenaldi hori, orain, hilondokotzat egin beharraren pena dugu. Beragandik sortu zen "Agur Xuberua" hainbeste aldiz kantatu duen milakak euskaldunak oroi deitezela omenaldiko egun hortan, bera goretsiz jar dezaten anaitasunez "Aintzinian gora Eskualdün bandera", bere gogoaren gisara.

OTSALAR

A. POLI ZARRANZ EUSKALZAINA IL

Polikarpo de IRAIZOZ, Aita kaputxinoa Lekarotzen il zaigu, denak minduak utzirik. Aita Poli euskalari aundi bat izan da, Euskalzain propioa, eta Euskalerri osoaren maitale egiazkoa. Ulzaman sortua, gaztedanik elizkoya, ordenatu ondotik aski fite bidalia, Erromara, Ordena osoaren Sekretario bezala; han egona da aunitz urtez, lanzale argia eta bide batez umilla, bere egiteko zailletan, beti zuzen eta jakitun-bidetik.

Erromako Generalaren ordezkariak erran zuen Lekarozko il-mezan, hortarako espres igorria zela hunarat, A. Poli zenaren zuhurtzia eta jakituriaren karietara, Sekretario bezala.

Euskara gain gaiñetik zekian eta liburu eta lan eta Olerki asko idatzi ditu Euskal aldizkarietan. Izkuntza errikoi eta aberatsa erabili du beti; aski da ikustea argitaratzen zituen artikuloetan A. Z. edo A. Zarranz izen deiturekin, bai eta bere IESUKRISTO gure yaunaren bizia (LAU ebanyelioetatik bildurik itzez itz) Iruñean 1934 urtean argitaratua. *Iruñeko Fontes L. Vasconum* Aldizkarian azkenik artikulo aberatsak publikatu ditu, LIZARRAGA de ELCANO-ren euskal liburuetatik —*Vocabulario y Fraseología de Joaquín Lizarraga*— euskal esaera mamitsu eta iztegiñoz beteak; *NAVARRO Meridional* euskalkiaren egiazko Antologia pitxi bat gelditzen zaigula zorionez.

Euskaldun aundi huni Lekarozko Komentuan Apirillaren 5-ean bere arimaren onetan eman zuten il-mezan yada etzen euskal itzik aditu; azken tenorean, norbaitek sustatu eta, errezatu zen Aita gure lotsakor bat, beharrik ere! Meza ondotik A. Boni Ataungoak itz batzu erran zituen euskaraz, bere anai eta kidearen laudorioak azalduz, lotsakizuna pixka bat arintzeko. A. Polik zerutik seguru aski barkatu izan dietela gutiespen hau bere komentuko laguneri.

Komentuko ilarietan euskalzale aunitz ikusi genituen; Baztandik lehenbizi... Mariano Iceta, idazle, Manu Mendioroz bere andrearekin, Bittori Echeberria, Bitora Urroz, Irigaraytarrak, Aita Intza bere adin aundiagatik etorria,... Donostiatik, Zaragueta eta emaztea, N. Echaniz idazle ospetsua, Boni Ataungo, Dolores Aguirre, Zatarain, Yurramendi, Euskalzaindiko Villasante eta iruzpalau euskalzain, eta besteak oraino.

A. IRIGARAY

PEDRO BOSCH GIMPERA IKERTZAILEA

Duela urte batzu hil zen Pedro Bosch Gimpera ikertzaile jakituna. Garai berean zerbait idatzi nahi nuen, baina beste zeregin batzuk galerazi zuten nere asmoa. Orainezkero hor geldituko zen asmoa asmo, inoiz betetzera heldu gabe, oraintsu, bi aldiz, bere oroitza izan ez banu.

Bere aspaldiko lan asko, Historia zahar, arkeologia eta etnografia estudiuetarako, oraindik oinharrizkoak ditugu. Eta gaiok hain gogoko ditudanez, ahaleginik egin dut liburuok handik edo hemendik lortzeko. *Historia de Oriente* bi tomoak, 1927-28an argitaratuak, uste baino merkeago aurkitu ditut Barcelona-ko liburu-denda batean. Bere *Etnología de la Península Ibérica*-rekin ez dut izan holako suerterik.

Bere ikasle izanak eta orain Arkeologiako irakasle den Tarradell-ek dionez lan horiek, hain zaharrak direlarik ere, beren ehunetik hirurogeiko partean baliozkoak direla.

Azken "Munibe" eskuratu zait, aurtengo 1-2 zenbakiak osatzen dituena eta Juan Mari Apellanizen lan eder batekin aurkitu naiz. Neolitos garaitik Metalen garaira arteko azterketaren aburu berriak agertzen dituena. Apellanizek Santimamiñe eta ingurua hartzen ditu onharri lehengizonen lurrontzietatik eta bestelako lanabesetatik irizpide berriak emateko. 1973an argitaratu zuen *Corpus de materiales*... lanaren ondorioak dira. Lan teknikoa benetan. Teoria aldetik ikusten dugu Bosch Gimpera-ren aldetik ez doala, baizik ondorengo Martin Almagro hurbil. Hala ere, Apellanizek aitortzen du Bosch Gimpera-ren hasierako oinharrieri esker ezagutu direla ondorengo aurrerapenak. Hemendik ikusten dugu, Kataluña-ko Arkeologiaren aita izan zela hemengoan hastapenen bideak markatu zituena. Izan ere, T. Aranzadiren adiskidea zen, biak Barcelonako Unibertsitatean irakasle zirenez.

Pedro Bosch Gimpera-ak hemengo Arkeologiaz jarri zituen teoriazko oinharriak trikuharrieri (dolmeneri) buruzkoak izan ziren. Lehen batean Portugal aldetik ekarritakoa zela uste zuen, geroago bestelako iritziez aldatuz joan bazen ere. Teoriak izan dute alda-

kuntzarik, baina lanerako plangintzak hor daude bere laguntzaz markatu ziren bezala. Gainera, pozgarri zaigu, Apellanizen lanetik ikus dezakegun bezala, urteak igaroaz ere hemengo ikerketaz arduratzen zela jakiteak. 1923 jarri zituen lehen teoria haiek, geroago, 1932 zuzenketaz berrituko zituenak. J. M. Barandiaranek egiten zituen azterketak eta sintesisak arretaz jarraitzen zituen. Eta ondoko ikerketak eta teoriak ezagutu ondorean berearen zuzenketak egiten jarraitu zuen.

Bestelako lanik ere egin zuen Euskal Herriari buruz, J. Bilbaoren *Eusko-Bibliographia* (Ed. Auñamendi-k argitaratua) dugu lekuko. Obra honen bigarren tomoa ikusi besterik ez dago, gure herriarekin zer ikusirik duen lanez 106/108 orrialdeak erakusten digute.

Mexico-n hil zen igazko urriaren 9an, 83 urte zituelarik. Izatez Barcelona-n jaioa zen 1891ko martxoaren 21ean.

Bere espezialitatean mundu guzian zuen ospe handia, eta Kataluñan bertan zer esanik ere ez. Unibertsitatean nortasun handiko maisua izan zen eta Kataluñako Arkeologia Eskolaren sortzailea. Gazterik, Barcelona-n bertan Filosofia eta Letrak estudiatu zituen, eta greko literaturaz izan zituen bere lehenbiziko kezkak. Madrid-en eta Alemania-n gehitu zituen bere estudioak. Dotoradutza egin ondorean ososorik sakondu zen Arkeologia eta Historia zaharrean, bere zaletasunak hontan finkaturik. Barcelona-ra itzultzean bertako Unibertsitateko irakasle, eta historia aurreko ikerketaz arituko ziren mihintegien sortzaile izan zen. 1919 Katalan Unibertsitateko Batzar nagusi bat antolatu zuen, eta ondorean "Servei d'Investigació Arqueologica del Institut d'Estudis Catalans" antolatu zuen.

Bere herriaren alderako maitasuna erakutsi zuen, eta bere jakintzaren itzala lagungarri izan zen Unibertsitateko ikasleen artean kataluiniako hizkuntza eta kulturaren alderako kezka sartzeko, bere *La Universitat i Catalunya* liburuaren sarreran agertzen duen bezala.

Ibero eta kelta azternategietan arkeologia lanetan aritu izan zen. Matarranya, Maestrazgo-ko pinturetan eta Sant Cugat del Vallés-ko monastegian ikerketak egina da gure mende honen lehen partean. Eta geroago Ampurias-ko azterketetan zuzendari izan zen.

Bere aspaldiko lan haieri esker Espainiako Arkeologia azterketen oinharriak jarri zituen. Zientzia hoietaz anitz idatzi zuen, bibliografia handi baten jabe da eta bere agiri horiek balio handikoak ditugu. Bere *Etnología de la Península Ibérica*, esate batera, oraindik ere oinharrizko lana da gai hontaz lan egin nahi duenarentzat.

1933tik 1939ra Barcelona-ko Unibertsitateko erretora izan zen. Gerraondorean, desherriturik, Oxford-en irakasle izan zen, baina Europako gudaketagatik Amerika aldera jo zuen, Panamá eta Colombia-an egon ondorean Mejicora jo zuen 1941ean bertako Unibertsitatean irakasle izateko. Han bertan ere Arkeologia lanak jarraitu zituen bere heriotzara arte.

J. SAN MARTIN

JOAKIN DE YRIZAR IL

Duela ilabete batzu il zaigu eritasun luze baten ondotik, Eusko Ikaskuntzako 1936 urteko batzorde nagusiko laguna izan zena, eta idazle ezagun ere. Nahiz euskalari ez izan, bere anai Pedro beala, Euskal-erriko seme gorenetako bat izan da. Azkoitiko semea, euskal arkitekturaz eta *Bascongada* delako Historiaz asko idatzi izan du. CASAS VASCAS liburuaz aparte, *Arquitectura popular Vasca* idatzi du Euskal Erriaren alde-n (1923); *5.º Congreso de Estudios Vascos*, 1930 urtekoan *El Arte en las casas guipuzcoanas*.

Boletín de Amigos del País-en *La casa de Altuna en Azpeitia*, *Id. de Juan de Anchieta*, Euskal Erriaren alde-n, *Id. de Legazpi*, B.A.P. 1946. *El Convenio de Vergara*, Euskal Erriaren alde 1925. *Homenaje de Guipúzcoa al Pr. Bonaparte*, B.A.P. 1957, etc. R.I.E.V. delako lankidea izan zen; eta Rousseau-ren irakurle jarraikia; beti euskeraren alde, euskeraz aritu da gure artean. Francon denboran diputadu izana, haren izendapen bat onartu nai etzuelako, bazterreratu behar izan zen. Egun gogor hayetako marka bakana.

ETXAHUN KOBLAKARIA ZENDU DA

Pierra BORDAZARRE, Etchahun deitua, Ziberoko Iruirin sortua zen 1908 urtean. Idazle, pastural-egile, koblakari eta soinulari ospetsu bat izan da; Ziberoko euskal besta guzietan beti lehena zagoen, xirula yotzen edo bere olerki paregabeak kantatzen. Bere aorpegi arraia eta atsegina ezdugu geiago ikusiko... zer pena aundia!! Asmamen aundiko euskalduna zen (Lírico) eta beste amodiorik Uskalerria baino etzeukan. Galtze ezin betezkoa euskaldun guziendako, baina orozgainetik bere Zibero ederrarendako.

1979-ko Eguerri aitzina baino lehen, Pabeko Eritegian il da, zaingorrien gaitz batez, eta huntarik zango bat moztu behar izan zakoten. Aunitz idatzi du; ETCHAHUN Pasturala, XIX gn. mendeko deitu koblakari trajikoaren bizitza kantatuz; gero MATA-

LAS, Ziberoko aizutasuna defenditzearren il zuten apezaren bizitza. BERTERRETCHE, XV gn. mendeko gazte erailduaren karietara; *Le comte de Tréville*, ANTXO AZKARRA, Nafarroko *Sancho el Fuerte* erregearena eta Chiquito de Cambo pilotari ezagunarena.

Bsetalde, kanta zoragarri asko osatu zituen, bertsua eta soiñua ere, ziberotar doñu eztiminbera unkigarrian; bakarrik AGUR ZIBEROA eta AI! ZER PLAZERA aipatuko ditugu; huna azken hunen bertsu bat; ... *Ai! zer plazera, bost urten burian // sor-lekilat utzultzia // Ene herria, etsitu nian zure berriz ikustia //. Asko sofrituz nik hanitxetan desir nukian hiltzia! // Ezpazuntudan hain maite uken, oi Ama Uskalherria!* // ... la larala la, lara lala // lara la la La ra la larala la! //

CHARLES EDO KARL BOUDA IL

Izkuntzalari eta euskalari jakituna zena Erlangen-en zendu da, horko Unibersitateko Profesore zena. Berez Hungariako, Alemanian bizitua beti... baina Euskalerrin bizi nai izango zuelako susmoa badut, hain maite zuen gure Erria eta bere izkuntza; eukara-tazko bere lanak alemanez idatzi izan du baina bere euskaldunekiko korrespondenzia euskara garbiaz beti; gorde ditut bere utsik gabeko gutunak. Yite ozpinekoa zen eta St. Pierre (Anxuberro) apezpikuaren artikulo bati... *Eau, Feu, Firmament...*, iardespen gazi bat bota zion Eusko Jakintzan (1949-III).

LAUTBIBLIOTHEK. 89-an "*Baskisch* (Laburdinisch)" idatzi zuen, eta "nieder-navarrisch" eta Kaukasoko izkuntzen eta euskeraren aaidegoaren aldeko beroa izan zen; ez nehurri mugatuan nik uste, ezen puntu hori ezda den gutienik ere oraino finkatua; horri buruz du *Baskisch und Kaukasisch* idatzi ZEITSCHRIFT für Phonetik, 1948-II delakoan.

Amikuzeko verboa ondo zekian, eta *Le verbe mixain*, gaiaz artikulo jakitunak ditu Eusko Jakintzan (1948-II). *Luzaide-koaz, Via Domitia*, 1959, VI aldizkarian; *Homenaje a Urquijo* liburuan, RIEV-an, EUSKERA-n, BAP-ean eta bestetan, dozenaka artikuloak osatu ditu.

A. APAT-ECHEBARNE

LIBURUAK

ANTONIO ARRUE ZARAUZ - *Jan-edanak*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 13,5 × 20 zm., 342 orr. Donostia, 1979.

Liburu berezi bat agertu digu Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak: *Jan-Edanak*. Liburu eder honek, izen buruak dion bezala, gastronomia du gaitzat, baina liburuaren barrena literatura umoretsu baten jabe da. Berri jakingarriz hornitua, hizkuntzaz eta informazioz aberats eta irakurgai bezala bene benetan atsegina.

F. Krutwig adiskide onaren aburuak ez ditut ukatuko, berak esaten duelarik sukaldari liburuetatik aparte eezr guti idatzi dugula euskaldunok garrantzizkorik. Hain zuzen, hori aitortzera bai dator A. Arrue zenaren liburu hau.

Hirurehun ta berrogeta bi orrialdeko liburua da. 15tik 207. orrialdera arte, parterik gehiena noski, 1954tik 1975.era bitartean EGAN aldizkari hontan euskaraz eraman zuen sailetik bilduak dira. Eta 209.etik 342ra hitzaldi eta lanez osatua. Lan hauek hamaika dira eta bat ez beste guziak erdaraz. Bigarren zati hontako lanik gehienak Cofradía Vasca de Gastronomía delako elkartearen boletinean argitaratuak ziren.

Donostiako *Hoja del Lunes*-ean, 1977ko abuztuaren batean, "Jan-Edanen inguruan" zeritzan artikulu batean eman nuen gastronomia gaiez euskaraz argitaraturik dauden liburuen berri eta bukaeran hau esaten nuen: "Arrue zenak 1954-1975 hogeitabat urtean EGAN aldizkarian eman zuen Jan-edanak zeritzan sail beretik liburu ederra osatu dezake, bere kontaera umoretsu eta gatz-ospinduaz." Baita ere esaten nuen, jakien zerrenda bat aurkibidetzat beharko zuela; baina, zoritxarrez hau gabe argitaratua da.

A. Zavala izan da biltzaile eta liburuaren prestatzaile eta L. Villasante euskaltzainburuaren hitzaurrea daroa.

Sukaldaritzari buruz laugarren liburua dugu euskaraz: *Eskualdun kozinera* (1864), bere berri 40. orrialdean ematen du A. Arrueren liburu honek; *Kozinan ikasteko liburua* (1889), 17-39 orrialdeetan adierazten duena; eta, *Osasuna, merketza ta janaritza* (1920), 177. orrialdean aipatzen duena. Horiez gainera badira beste bi liburuxka, *Edariak* eta *Janariak*, Gordailuk 1975ean argitaratuak.

Liburuaren 268. orrialdean Bibliografia bat ere azaltzen da, gure herriko jakiez nortzuk idatzi duten aipatuz. Hala ere, badut nik Eibarren bertan mende honen hasieran publikatu zen liburuxka bat, 33 orrialdekoa, *Manual del arte de cocina* deritzana, Herriko inprimategieri buruz egin nuen lan batean azaldu nituen bere berezitasunak (Boletín R. S. V. Amigos del País, XXXIV, 1978, 311-315 orr.). Ondorean, gai hauetaz hain jakituna den Jose Mari Busca Isusi adiskideak, liburu beraren beste edizio baten berri eman zidan. Berak duen alea ere Eibarren argitaratua da 1913. urtean Fernández y Diego inprimategian.

Honek erakusten digu aintzinako eibartarrak armagintzaz bakarrik ez zirela arduratu, baizik, orain esaten den gisa "gourmet" onak ere baziren. Honetarako, aipatzen dugun liburutxoa ez ezik, Jovellanos-ek egin zuen bazkari hura dugu adierazpenik onena. 1791eko abuztuko egun batean heldu zen Eibarrera, bere *Diario*-an agertzen duenez, armagintzak ezagutu nahirik eta armaginekin hauetako baten etxean bazkaldu. Hara hemen berak diona hitzez-hitz: "Hubo buen humor y buena comida: asado, calamares, anguilas, truchas, magras, guisado y frutas: entre otras, unas ciruelas de enorme tamaño, pues igualaban al más grande huevo de gallina: son doradas como las claudias, bien maduras, de gusto suave; pero ni tan finas, ni tan dulces, ni tan jugosas como ellas. Buen vino generoso, bizcochos bañados y confituras: por último, anisete."

Ohitura onak ez galtzearren, eibartarrok beti ahalegindu gara mahaia ondo zerbitzen, eta herbestekoei eskuzabaltasuna erakutsiz. Hau ere ezagutu zuen Arrue berak. Euskaltzaindiak sosik ez eta egiten zituen bileretara joateko, ogibidezko lanerako eguna galtzeaz gainera, bideko gastuak eta bazkaria bakoitzak bere poltsikotik ordaindu behar izaten zuen. Eibarren ordea, 1959. urtean Juan Antonio Mogelen omenez egin genuen jaialdi hartan herriko semeen lepotik izan zen. Hortik dator 77. orrialdean jasotzen den

esker ona: "Ez da iñolaz ere mundu ontan gauza atsegingarriagorik, jatetxe batean sartu, bazkari on bat egin ta, kontua eskatutakoan, dana ordaindua dagoala zerbitzariaren aotik entzutea baño. Au gertatu zitzaigun Eibarren, bertako azkeneko euskal-jaietako egun batean." Jovellanos-ena bezain ona eta ugaria izan ez bazen ere, prezio berdinekoa izan zen: duan.

Hain ezaguna den Arcipreste de Hita-ren bisigu aipamena oker dakar 313. orrialdean. Bermeo behar du eta ez Ondarroa.

Angula kontua ezta urrutiko intxaurrak bezala. Liburuaren 326. orrialdea irakurri besterik ez dugu, bakoitzak bere etxeko suari putz egiten diola. Luis Antonio de la Vega eta Bardají jaunen arteko eritziak, angularik onenak nongoak diren erabaki nahirik, Bilbo eta Donostia hiri nagusien tira-birazko indarra nabari da. Hiriak zenbat eta handiagoak, zabalkundezko indar handiagoa, eta honen arabera ospea. Nere ustez, ibai batetik besterako diferentziok ez ziren hain handiak izango. Era berean, Urola bailadakoentzat Beduakoak eta Debarrukoentzat Sasiolakoak. Zergatik ez? Gure garai hontan Mediterraneotik ekarri hemen maniatzen direnak ere oso onak bai dira.

Liburuak, tarketa-marketa gertaera eta hizkirimiri politik ere jasotzen du. Hara hemen bat, adibidez:

—Egia al da lengoan erbi koxkor bat bota uala?

—Bai.

—Ta jan al zenduen?

—Bai.

—Ta zenbat lagun ziñaten jaten?

—Bi: erbia ta ni.

Baina, hara hemen postretarako ongi zetorren gertari bat. Mahai ondoko elkarrizketa hoietako batean, euskal filologiaz ere nornahi aritzen denez, *f* letra euskalduna etzela eta bezala. Sabela ondo beterik eta gogoa umoretsu. Neskameak postreak eskaintzean, bere ustez euskaldunik jatorrena zenak:

—Nik, "plana" nahi dut.

Eta, neskameak, belarrondokoa emanaz: "Lotsagabiori!".

* * *

JON BILBAO - *Eusko Bibliographia*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Cuerpo C., VIII tomotan osatzen da. Editorial Auñamendi, Estornés Lasa Hnos. 20 × 27 zm., tomo bakoitzak 600-dik gora orrialde. Donostia, 1970-1978.

Euskal-Herrian, bertako Unibertsitate, mintegi eta erakunderik ezaren ondorioz, kultur gaietan zerbaik jakin nahirik edo zerbait landu nahirik abiatu ginen guziori gertatu zaigu eginalak egin ondorean, inoiz landutako alorrak uste gabean berriz lantzen aritzea eta indarrok hutsean gelditzea. Hasiera bateko ekintzetan maizenik gertatu zaigu alperrikako lanak egitea, lehendik eginak zeudenez. Gure mundua hain handia ez delarik ere holako gauzak gertatu zaizkigu.

Hori da gerraondoko lehen urteetan Jon Bilbaori gertatu zitzaiona ere. Eta, egiten ari zena egina zegoela ohartzen zen neurrian jabetu zen euskal gaien bibliografia handi eta zabal baten beharrez. Kontuan hartu zituen Allende Salazar, J. Vinson eta G. Sorarrainen bibliografia lanak eta hauek oinarritzat harturik eta geroztik argitaratutako lan pila bat bildurik Lapurdiko Sarara jo zuen, bizpahiru urtetan *Eusko Bibliographia* zabal eta zehatz bat burutzeko asmoz. Gaian sakonduala urteak luzatu ziren eta, ondorioz, ekinaldi batean egitekoak bere etenaldiak ezagutu zituenez gura baino atzerapen gehiago izan zuen. Lanaren egitura bera ere ez zitzaion iduritu aurreko haiek bezala eratzea liburu bakoitzari fitxa soil bat idekiz. Bestalde, aldizkarietako lanak ere bildu nahi zituen; behinik-pehin kultur aldizkarietakoak. Lan guziok egileen deitura ordenaz emateaz gainera, gaietan ez ezik tokian tokiko ordenamenduz ere agertzea iduritu zitzaion, horrela egile eta gaiez aparte hiri edo herri bakoitzak bere bereizketa izan zezan, edozein ikertzaile edo jakin nahidunari aukera guziak eskainduz. Era hortara, urteren luzapenez, bizpahiruan burutzeko zenak hogetahamar urteko iraupena ezagutu du.

Bitartean ordenadore elektronikoak agertu ziren eta hoien laguntzaz aukera hobeak ezagutu ditu lana inprimategiratzean.

Esan beharra dago, historiari zor diogunez, duela hamaseiren bat urte, lana inprimategiratzeko aukera eskaini zitzaiola Instituto de Cultura Hispánica delakoaren babespean, baina zentsurak Sabino Arana eta bere lan guziak kentzera behartzen zuela obra argitaratuko bazen. Orduan, Jon Bilbaok, arrazoi handiz, nahiago

izan zuen denbora hobeeri itxaro. Bere lana ideologia guzien gainetik zegoan zerbait bai zen.

Azkenean, prentsaren lege berriak zirrikitu bat ideki zion, aldez aurretiko zentsura kentzen zuelarik eta lan bat publikatu ondorean bahitutakoaren alde legezko eskabidea egiteko eskubieak eman. Hala ere harrisgugarria zen, baina Auñamendi Argitaldaria prestatu zen argitaratze lana aurrera eramateaz eta 1970ean plazaratu zuen *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoa eta igazko urtearen bukaeran zortzigarrena; aurten zabaldu dena.

Orain, euskal gaiez zerbaiten diharduenarentzat edo nahiz kuriosidade hutsez zerbaik jakin nahi duenarentzat hor dugu prest, eta seriozki euskal kulturan zerbait egin nahi duten guziei beharrezkoa zaie obra honen orrialdeetara iturri bila edo zehaztasun bila joatea.

Inprimategiak sortzetik hasi eta 1960. urtera hartekoa biltzen du eta zortzigarren tomo berean hasten du 1961etik 1975erako eraskina. Hondorengo tomoetan 1975. urtera artekoa osatuko duena. Geroan, bost urtetik bost urtera osatuaz jarraitzeko asmoa du.

Otoi: Bibliografia hau behar bezala erabili nahi duenak, ahalden probetxurik handiena ateratzeko, beharrezko du lehen tomoak daroan hitzaurrea irakurtzea, nola maniatu behar duenaren ohar eta adierazpenak dituelako.

Egilea, Jon Bilbao, bere lan gotor honegatik guzion errespetua irabazi duen gizona da. Eta, bere ta bere lan honen balioaz gehien baliatu dena Nevadako Reno Unibertsitatea izan da, Euskalerriko Ikaskuntzen Bibliografia saila sortuaz. Sail honek daroa han bertan jarri duten euskal gaien biblioteka eta agirien gordailu ardura eta euskal jakintzen programaketena.

1979. urtean, Durangon Gerediaga Elkarteak eraturik egiten den disko eta liburu azokan, obra burutua agertu denez, urtean zehar euskal gaietaz argitaratu den libururik onenaren saria eraman du. Gure ustez, inork merezimendurik izatekotan, obra honek ondo merezia zuen holako sari bat.

* * *

EUSKAL POETAK ETA ARTISTAK G. ARESTIREN OMENEZ - *Agiriak*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 21 × 29 zm., 204 orr. Donostia, 1978.

1979. urteko lehen partean aurkeztu zen publikora *Agiriak* eta geroztik salgai dugu.

Hain beharrezko genuen gaurko euskal-poesiaren antologia baten hutsunea betetzera dator euskal-poetak eta artistak G. Aresti zenaren omenez egin duten liburua. Zahar eta gazte, 47 poetaren lanak osatzen bai dute, eta hoiek ederrez hornitzera etorri diren 32 artistaren lanak. Euskal poetek eta artistek Aresti zenaren izena goretsi nahi zuten eta hor ditugu *Agiriak*.

Hilondoko omenez argitaratu den liburu honek 28,5 × 21 zentimetroko neurria daroa eta 204 orrialde ditu. Paper onean eta edergarriz, bilduma txukuna osatzen du.

Liburua Gabriel Arestiri eskainia izanarren, gaiak libre utzi ziren. Horregatik, lanik gehienak, gaiaren aldetik ez dute ezer ikustekorik Aresti zenarekin. Hara hemen liburuan partaide diren poeten izenak: A. Agirreazaldegi, B. Albizu, N. Alzola, A. Aranburu, M. Arregi, F. Artola, "Bordari", J. A. Arze "Harzabal", B. Aurre Apraiz "Aurraitz", J. Azurmendi, X. Azurmendi, A. Bilbao, M. Erdozaincy-Etchart, E. Erkiaga, M. Ertzilla, E. Etxamendi, J. A. Etxebarria "Dirauket", P. Etxeberria, S. I., B. Gandiaga, J. I. Goikoetxea "Gaztelu", Iratzeder, J. M. Irigoyen, Itsubia, M. Iturbe, P. Iztueta, J. Kerexeta, E. Kortadi, D. Landart, G. Lantziri, A. Lasa, M. Lasa, J. M. Lekuona, X. Lete, B. Mujika, A. Muniategi, S. Muniategi, L. M. Muxika, S. Onaindia, Otsalar, M. Pagola, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, M. Tejeria, G. Trintxerpe, P. Urkizu, M. Zarate, I. Zubizarreta eta J. Zulaika. Liburuaren azkenean jartzen dira poeten berriak eta izen deituren ondotik, beste zenbait xehetasunen ondoan poesiaz argitaratuak dituzten liburuen berri ere bai. Bertatik ikusten dugunez, zerrendako 47 olerkariok 51 poesi libururen egileak dira, denak gerra ondoren argitaratuak. Horrez gainera beste 3 liburu poesiazko bilduma orokorrez. Hau ikusirik, berriz ere esan beharrean gaude, euskaldunok, irakurtzen dugunagatik, merezi dugun baino literatura aberatsagoa dugula.

Xehetasun hoiei esker, omenezko bilduna honek, irakurgai atseginez gainera euskal-literatura ezagutzeko lagungarri diren anitz berri dakarzki.

Artistenak ordea, izen eta bizilekuak soilik agertzen dira, baina bai bada gauza ikusgarririk liburuaren apainduraz.

Hara hemen liburuan partaide diren artisten zerrenda: J. G. Agirre, L. J. Akerreta, J. Arocena, N. Basterretxea, F. Beorlegi, F. Beristain, K. Bizkarrondo, D. Blanco, E. Txillida, J. Egaña, J. Garro, J. L. Goenaga, T. Hernández, Mendizábal, A. Ibarrola, S. Iñurrieta, I. Larrañaga, V. Larrea, R. Mendiburu, J. Mieg, F. Mirantes, A. Olariaga, K. Ortiz de Elgea, J. de Oteiza, R. Ruiz Balerdi, P. Saint-Esteben, A. Tapia, J. M. Telleria, D. Txopitea, J. Ugarte, R. Ugarte de Zubiarrain, J. Urkijo eta J. L. Zumeta.

Neronek egindako hitzaurre labur baten bidez G. Aresti zenaren bizitza eta laneri buruzko berri labur batzuk ematen ditut.

Liburu honetatik, 5.000 ale argitaratu dira, eta aurkezpenean esaten den bezala, *Agiriak* liburuaren 5.000 ale hauek, Erakunde ororen liburutegitan, Ikastetxe eta euskaldunon etxeetan leku bat izanen dute. Euskal-kulturaren zerbitzuan bere bizia bete zuen Arestiren oroimen-aroan guziok haintzat izan dezagun. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala izan da liburu honen argitaratzailea eta ale hoietatik mila alargunarentzat dira, ale bakoitza mila pezetan saltzeko. Nahi duen guziak liburu dendetan eta Euskaltzaindiaren bulegoetan aurkituko ditu salgai.

Euskara hutsean gutxitan argitaratu da holako liburu ederrik, eta, inork merezitzekotan, gure belaunaldi hontan euskal-literatura berritzen hainbeste lan egin zuen G. Arestik merezi zuen. Zordun ginen, eta, horregatik, hor daude *Agiriak*.

* * *

J. ALTUNA, J. M. BARANDIARAN, J. M. BUSCA ISUSI, J. CARO BAROJA, M. PELAY OROZCO - *Itxaskaria. Los eúskaros y el mar*. Bi hizkuntzatan. Euskarazko itxultzaileak J. L. Alvarez Enparanza (Txillardegi) eta Xabier Amuritza. Argazkiak, Sigfrido Koch Arruti; argazkien oinak, M. Ortiz de Arratia. Petronor argitaratzaile. 25,5 × 29,5 zm., 475 orr. Bilbo, 1978.

Itsas gaiak ez dira maizegi erabiliak euskal literaturan eta euskal ikerketan, eta bada hor gauza jakingarririk. Hortaz azaldu

berria dugu elkarlanean egindako *Itxaskaria* deritzan liburua, euskaldunak itsasoaren aurrez-aurre izan duten jarreraren adierazgarri.

Itxaskaria ezta ez izen txukun, baina bai liburu mamitsua. Bertako partaideen arteko ditugu J. Altuna, J. M. Barandiaran, J. M. Busca Isusi, J. Caro Baroja eta M. Pelay Orozco, zein baino zeinek testu hobeak, eta hoien itzultzaile izan dira Txillardegi eta Amuriza. Beraz, bi hizkuntzetan dator liburu hau. Idazlanez gainera, edergarriz oparatsu eskainia da. Sigfrido Koch-ek eman dio haio ikusgarria izatearen balioa. Bertako fotografia bakoitzari edermina dario, baina ederraren sentipenaz gainera gogoetarako grina piztekoak dira. Argazkien testuak ordea, olerki kutsua nabari dutela, M. Ortiz de Arratiarenak dira.

Liburu zoragarri hau Petronor-ek argitaratu du bere 10. urteburuaren ospagarri. Entrepresak, salgai jarriko diren 500 aleren irabazpena Euskaltzaindiarentzat eta Muskiz eta Abanto-Zierbanako ikastolentzat eskaini du; hau dela ta, aurkezpen egunean Villasante euskaltzainburuak ongi agertu zuen bezala, guk ere gauza bera ezan genezake, entrepresen urte-mugak ospatzeko hobe dela holako kultur bidetik zerbait eskainiz betetzea, jan-edan eta keak atereaz bakarrik ospatzeke.

Euskaldunak itsasoaren aurrean zer nolako grinak izan dituen, janari bila, urruti minez, merkatalgo harremanez, ohore nahiaz, zori ezezagunegatik, itsas-hegalean bizitzeak berak sortu zion urez gaindiko abenturaren kezka. Eta, ekintzarik handienak idatzi gabe utzi zituen. Elkanok bezala adibidez. Orain, honegatik, historiagileen lana da lehenean ikerketan eginaz iragana hobeto ezagutzea. Lehenak erakutsiko bai digu gerorako bidea, eta era berean oraingo euskaldunaren ezagutza hobeagoa.

Liburuak jasotzen dituen lanetan, ikuspegi askotako emaitzak daude. Izan ere, arestian esan bezala, joera askotakoak izan dira itsas-gizonaren jarrerak, beharrak bultzaturik edo gogoak eraginik. Eta orotariki arrazoiak agertzen dira liburu horretan. Behar bada, lanik andiena eta baliotsuena, argibide eta agiri berriak ere emanez, Julio Caro Barojarena izanen da. Hala ere, ber-berak liburuaren aurkezpenean aitortu zuen bezala, euskaldunen itsasoko historiak, oraindik ere sekretu asko gordetzen dizkigu eta gure herri honen historiaz eta kulturaz arduratzen garen guzion lana dela bakoitzak bere aldetik azterketak eta gehigarriak eskaintzea. Esaldi hau hitzetik hortzera hartuz, artikulu honetan, argitara berri den

liburu eder honen adierazpen zehatza edo laudorioak baino nahiago dut bertan jasotzen ez diren gauzetaz zenbait ohar egitea, liburuaren asmoen lagungarri.

J. Caro Barojak aipatzen du gure itsas-bazterrez aintzinako geografoak ziotena, baina haietarik agiri ziurra eskaini ziguna Strabon izan zen, Geografiaren Iberia partean (III. liburua, 3, 8.), lehen lehenago Kantabria aldeko itsasoetan, Galizia aldetik hasi eta euskaldunetara, larruzko txalupak erabiltzen zituztela, baina bere garairako zuhaitz gerriak hustuz eginak ezagutzen zirela. A. García y Bellido-ren argibideekin datorren edizioak hala dakar (Buenos Aires, 1945).

Bestalde, Caro Baroja, bibliografiaz hain hornitua izanarren ere, lehenago M. Ciriquiain-Gaiztarro-ren lanetan ikusten genuen hutsunetxo ber-bera nabari du. Karmelo Etxegaraik gai hontaz euskeraz eman zuen lan bateko berri jakingarriak falta dira. Baina hau ezta batere harrigarri. A. Arrinda beraren "Euskalerria eta arrantza" euskarazko lan bikainean hutsune nabarmen hau agertzen delarik. Etxegaraik, 1921-ean, "Euskalerriko itsas-gizonak" zeritzan hitzaldi bat eman zuen, geroago, 1923an Euskal-Esnaleako *Itzaldiak* sailean 147-184 orrialdeetan argitaratua eta bere laburtasunean ere gure historiarako ageri eta berri jakingarriak ematen ditu.

Adibidez, 167. orrialdean, XIII eta XIV. mendeetan ezagutu zuen salerosketari buruzkoa, 166. orrialdean Lurberri (Terranova) aldeko berriak eta sortu ziren euskarazko toki izenen zerrenda, *Itxaskaria*-ko 146. orrialdean datorren maparekin konparagarria dena. Baina, oraindik jakingarriago dena, zera da, garai haietako itsasontzien mugimendua numeroz ematea. Esate baterako, 1625. urtean Pasaiatik bale arrantzara irten zirenak 41 ontzi, 288 txalupakin eta 1.475 gizon.

Horrek erakusten digu bale-arrantzaren garrantzia eta hortarako zuten indar neurria.

Euskal-Herriko semeek itsas-nabegazioz idatzi zituzten zenbait libururen berri ere ematen digu Caro Barojak, eta hoei gehitu beharrezko iduritzen zaigu 1677. urtean P. Etxeberrik euskaraz eman zuena, lehen Martin Hoiarzabalek frantsesez idatzia.

Juliok liburu horren 240. orrialdean agertzen digun bezala, Felipe II.aren garaian hasi zen itsasaldeko ekintzen beherakada, Gordetik bertatik jartzen zituzten eragozpenetatik hasita eta "Armada Invencible" hura izan zen azkenengo erremata. Honek hipotekatu zituen gure ondasunak eta geroztik ezta iritxi legengo mailarik.

* * *

JOSE LUIS ABELLAN-en zuzendaritzapean - *El exilio español de 1939*. Tomo VI, Cataluña, Euzkadi, Galicia. (Liburuaren 217-283 orrialdeetan Martin Ugalderen lana dakar, *El exilio en la literatura vasca: problemas y consecuencias* deritzan kapitulua osatzen duena). Taurus. 13,5 × 21 zm., 382 orr. Madrid, 1978.

Gerraondoko lehen urteetan eremu hutsa zen euskal literatura. Oroitzen naiz, gure hizkuntzaren garrantziaz jabetu nintzenean, zein nekeza zen euskarazko liburu bat aurkitzea. Mendizale adiskideen artean elkarri uzten genizkienak, bitxi gareztiak ziren orduan, eta gehienak isilpean erabili beharrezkoak. Bilboko Verdes etxean ezaukera eginaz eta Yon Etxaiden bidez Donostiako salmentariegandik lortzen nituenak laster irentsiten nituen. Baina herbestetik zetoztenak haize freskoagoa zekartzen. Hemen bertan ezer berririk ez bai zen sortzen.

Bertan, isilaldiaren garaia bai zen eta deserrituak aberri minez zihardute. T. Monzonen *Urrundik* eta *Gudarien eginak*, Zaitegiren *Goldaketan*, Irazustaren *Joanixio* eta *Bizia garratza da...*, Eizagirreren *Ekaitzpean*, Lontzi Abaren *Ipuintxuak*... Batzuk behin eta berriz irakurriak. Bestalde, noizbehinka hartzen genituen aldizkariak ziren J. M. Barandiaranen zuzendaritzapean Baionan argitaratzen zen *Eusko-Jakintza* (1947-1957), Donibane Lohizunen I. Fagoagak *Gernika* (1949a baino lehenagotik). Baina, bereziki, J. Zaitegik Guatemala-n 1950ean sortu zuen *Euzko-gogoa* (1950-55. urteetan Guatemalan eta 1956-59.etan Miarritzen). Lehen biak euskaraz eta erdaraz eta azkena euskara hutsean. Orixe, Ibiñagabeitia, Ametzaga, Iratzeder, Mirande eta bestek asetzen zuten gure gogoa. Hein batean, *Euzko-gogoa*-k bere inguruan bildu zituen munduan zehar sakabanaturik zebiltzan euskal idazleak, lehenagoko zuzi zaharra pizturik eutsiaz.

Jokabide horri esker, ondoko gizaldiak etengabeko kateari jarraitu dio.

Inoiz pentsatu izan dut gerragatik herbesteratuen literaturagintzak azterketa egoki bat behar zuela edo gure literaturaren historian toki berezi bat. Baina, hara hemen urte honen hasieran Taurus argitaletxeak *El exilio español de 1939* sailean agertu duen seigarren alean "Cataluña, Euskadi, Galicia" deritzan tomoa non plazaratu digun. Izenburuak dion bezala, bere kapituluetatik bat, *El exilio en la literatura vasca: problemas y consecuencias*, Martin Ugaldek izenpetua, liburuaren hirurogeta sei orrialde hartzen dituena. Gainera, liburuaren lehen partea, Fermin del Pino-k izenpeturik, "Antropólogos en el exilio" deritzan lana dakar eta, parte batean, bederatzi orrialde Jose Migel Barandiarani eskainiak.

Libur honi garrantzitsua deritzagu, une ilun eta neketsuetan gure literaturaren jarraipenez lotura nola gertatu zen jakiteko.

M. Ugaldek, lehenbizikoz, sarrera gisa, idazle herbesteratuen berriak ematen ditu, ondorean gure literaturaren berri orokorrak eta 1936ko egoera. Jarraieran, deserrituen literatura mugatzen du, irakurlearen argibiderako.

Argentina-n *Ekin* argitaldariaren inguruan eta Ifar Euskal-Herrian bertako idazleen laguntzaz nola eman zituen lehen urratsak. Garai honetan, 1950. urtera arte euskal idazleak aurkitu zituzten nekeak eta eragozpenak oso mingotsak izan zirela erakutsiko digu. Inoiz, testu zatiekin baliatuko da garai hartako giroa zehatzago aurkezteko.

1950. urte muga hontan, *Euzko-gogoa*-k bere inguruan idazle zahar eta berriak biltzeaz eta Zarautzen bertan hain kezkati itxaro genuen *Euskaldunak* poema handia agertzeaz, gure literaturak jarraipenezko aurpegi berri bat erakutsi zuen geroari begira zio pizgarria sortuz. Martin Ugaldek, Torrealdayren *Euskal Literatura, gaur* liburuko argudioz adierazten du garai ezaugarri hau.

Ordura arte herbesteratuak erabili zuten zuzia, aurrerantzean etxebarnekoak erabiliko zuten, egoera zerbait lasaitu zenez. Bai, zerbait lasaitu zen, baina ez guztiz baretu eta beste anitz urtetan anitz neke leporatu genuen idazleok.

Hrbesteratuentzat bada bigarren aldi bat ere, lan hontan idazleak aipatuarren, behar bada, sail berezi bat merezi zuena: Txi-

llardegiren *Huntaz eta Hartaz* (1965) deritzanaren ingurutik hasita, P. Iztueta, J. Apalategi eta bestek, gazteria berrikoak, frankismoaren aurkako borroka isilagatik deserrituak, eta, behar bada, sail berezi bat merezi zuena. Baina, ez dezagun ahaztu Taurus-ko lanaren bete beharra *El exilio español de 1939* zela, izenburuak aitortzen duen bezala, eta, beste hau, belaunaldi berrikoa.

Ugaldek, lan hortan, autoreak eta obrak, guziak xehetasunez jasotzen ditu, eta era hontan bildurik ikusteaz ohartzen gara zein garrantzitsua izan zen herbesteratuen literaturagintza. Parte hau, aurrerantzean, kontuan hartu beharrezkoa dute gure literatura eta historia estudiatzen dutenek.

J. S. M.

ULIBARRIREN OMENEZ

Yose Paulo Ulibarri Galindez, Arabako Okondo (Okendo) herritxoan sortu zen duela berrehun urte. Sortzez erabarra izanagatik, gaztetatik Bilbon bizi zen, albaiteru eta perratzaile lanetan. Zenbait kargu ere izan zituen Abandoko udaletxean eta Gernikako batzarretan ere parte hartu zuen. Euskaltzale borrokatua zen eta ibili zen toki guzietan agertu zen euskararen alde kementsu.

Euskaltzale ez ezik, euskal idazle ere bagenuen. *Egunari euskerazkoa* argitaratu zuen 1815ean. Euskarazko lehen egunkaria noski. Leizarragaren *Kalendrera* beste gisa batekoa zenez gero. Eta, esku-izkribuz, *Gutunliburua* utzi zigun.

Bere jaiotzako berrehun urteak betetzen, Okendoko herriak, Arabako Diputazioaren eta Euskaltzaindiaren laguntzaz omenaldi berezi bat eskaini die (abuztuaren 17an). Hitzaldiak, kantaldiak eta dantzaldiak hornitu zuten eskaini zitzaion omenaldia. Baina, gainera, egun horretan aurkeztu zera lehen aldiz bere *Gutunliburua* inprimaturik.

Jose Manterolak aipatzen zuen Ulibarri bere aldizkarian, baina geroztik urte askoan oso isilik eduki zen bere izena, 1915ean Fernando de lt Quadra Salcedo eta Julio de Urkixok berriz aipatu arte. Gure garai hontan N. Alzola (Anai Berriotxoa) bizkaitarrak berritu zigun eta ondorean beste bizkaitar batek, Lino Akesolok, bere bizitza eta lanak aztertu.

Yose Paulo Ulibarriren gaztaroan, Okendo, euskaldun hutsa zen, bere bertso batean aitortzen zigunez:

Okondo-ko erria
da euskaldun bere izatia

1831an Anituari idatzi zion gutun batean dionez: "Oraindino ni etorri nintzanian, imini barriya zan ardaotegi bat erri guztirako. Besterik ez eguan. Eta euskerazko eskola bi, elexa biyotan, eta erderazkoa... erriyan erdian gura dabenantzako". Honegatik zion Yon Etxaide adiskideak, Ukondoko herriak erakuspide eder bat eman ziola aldi hartako Euskal Herriari, elizaren babespean euskal ikastola ipiniaz.

1829. urtean, Gernikako batzarretan, ahalegin guztiak egin zituen euskarari laguntasun ofiziala emen zekion eta Bizkaiko eskoletan aginduzkoa izan zedin bere irakaspena. Gogoan eduki dezagun —Yon Etxaidek ongi dion bezala— batez ere, bera bakarrik izan zela, aldi hartako euskal giro urrian, ahalegin sutsuak egin zituena euskara ofizialki aitortzeko, euskal-ikastolak ipintzeko, euskal-akademia bati sortzea emateko eta hiztegi ta gramatikak argitaratzeko.

Bere garai hartan, Aita Zabala bezalako euskaltzale bati ere utopia hutsak zerizkion Ulibarriren asmoak. Giro ustelaren kontra jokatu zuen Ulibarrik, soil soilik, eta behar bada bere eraginari esker, 1841ean Bizkaiko batzarrak euskararen alde hartu zituen honako erabaki hauek: egunero erabagien laburpena euskaraz egin eta urrengo eguneko batzarrean irakurtzea, eta Institutoan euskara irakastea.

Ez hori bakarrik, Ulibarrik Bizkaiko Foru guzia euskaraturik ipini nahi izan zuen.

Gutunliburuan, bere ideiaz, erregezaletasuna agertzen du, Cadiz-ko lege berrien aurkako, eta liberalen politikari "debruziñoa" deitzen dio, batez ere euskaldunen Foruei ikutu ziotelako. 1834an Don Carlos-ek Elizondon eman zuen "decretoa" bere Gutunliburuan euskaraturik ezarri zuen. Euskararen eta Euskal Herriaren zoriona D. Carlos-en aldetik etorri zezakean ustekoa bai zen.

Erlijio kontuan berriz, biderik zintzoena zeritzanetik jarraitu nahi zuen. Katoliko osoa zen. Bere gutun batean emazteari aitortzen zion: "Nik eguño eztot, ez txantxetan bere, Yainkoen legeen aginduen kontra ezer esan". Eta elkarren arteko har-emanez, senar-emazte kontukoak, nahikoa naturaltasunez idazten ditu.

Gutunliburua, euskal eskutitz sorta bikaina dugu. Gutunez gainera beste gauza jakingarri batzuk ere baditu. Azken orriak bertso-lanez bete zituen, 1823tik hasita. Baina, batez ere, Gutun-

liburu honek argi adiarazten digu Ulibarrik bere garaiko gizon handi askorekin har-eman handiak zituela, eta, honegatik, bertako izkribu asko XIX. mendearen lehen parteko historiaren agiri baliosak dira.

Euskal literaturaz ondo horniturik zuen bere liburutegia. Ikusten denez, ezagunak zituen Axular, Larramendi, Kardaberaz, Astarloa, Añibarro, Mogel, Fr. Bartolome, Iztueta eta abar.

Bilbon 1814tik 1832ra bitartean argitaratu ziren Gabon kantak, anitz Bizenta Mogelenak ziren, baina Ulibarriren eragina eta laguntza nabari dira, L. Akesolok hain ongi uste duenez.

Yose Paulo Ulibarri, Abandon hil zen 1847. urtean.

Gaurko giroan, euskara beherago dagoelarik ere, euskararen alde zituen asmoak ez dirudite hain utopikoak. Foruak kentzetik bertatik sortu bai zen gure herriaren iratzarpena.

J. S. M.

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País)

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 »
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	300 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	400 »
Número suelto	400 »

MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales «Aranzadi»)

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes ...	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN